

Jesus M. Etxezarreta

**BERTSOLARIEN DESAFIOAK,
GUDUAK ETA TXAPELKETAK**



**BERTSOLARIEN
DESAFIOAK
GUDUAK
eta
TXAPELKETAK**

Auspoaren Sail Nagusia



EUSKALTZAINDIA
3. AZKUE BIBLIOTEKA



B. UGALDETXO, S/N

☎ 49 35 51 / 49 35 52

FAX: 49 35 48

20180 OIARTZUN (GIPUZKOA)

J. M.^a Etxezarreta

**BERTSOLARIEN
DESAFIOAK
GUDUAK
eta
TXAPELKETAK**

© SENDOA Argitaletxea, Karlos Santisteban
ISBN: 84/85846/82/6
Legezko gordailua: SS/737/93
Fotokonposaketa eta inprimaketa: Antza, S.A.L.

Sarrerako oarrak:

Lenengoa: Izkuntzaren arazoa. Bertsolarien txapelketen kondaira edo historia, eunetik larogei euskera zaarreen dago, beraz, argitaletxeak berak eskaturik, nik ere euskera zaarreen idatzi det historia labur au.

Bigarrena: Euskalki edo euskera batuan dauden idazlanak eta bertsoak nola pasatu histori ontara...? Legeak dion bezela dena errespetatu egin det eta jaso dedan dena marratxoan tartean

jarri. Beraz, idatzita dauden bezelaxe utzi dituk denak.

Irugarrena: Nun bukatu bertsolari txapelketen historia...? Azkenengo txapelketa nagusia 1.989-an bukatu zan ezkeron, 1.990-an bukatzea erabaki det, urte seiñalatu bat izan dedin, geroan beste norbaitek ortik jarraitu dezan. Naizta geroagoko datu batzuk ere badauden.

“Egilleak”

Jesús M.^a Etxezarreta "Izazpi"

BERTSOLARIEN DESAFIO, GUDU ETA TXAPELKETAK.

Bertsolari guduak edo txapelketak.

“Maite du benetan erleak lorea, bere atsegin guzia lore ninietan. Maite du Euskalerrriak bertsolaria, bere atsegin guzia bertso-kantatzen ikustea” Zeleta jaunak, hala dio. Bertsolaria izan da erri xeak izan duan berri emalea, inguruko gertaera pozgarri naiz beltzak kantatu eta aztertu dituana, erri osoaren sentimenduak, asmo eta naiak mamitu izan dituana. Erri xearen filosofia jaso duana, Euskaldunen izate muñ-muñean itsatsita egon dan koplaria.

Baiña bertsolaria ez da bakarrik kantatzen egotekoa; batetik entzulea bear du eta bestetik kontrarioa eta emendik sortzen dira desafioak, norgeiakokak, txapelketak eta abar.

Euskalerrria berriz, aspalditik apustu-zalea izan eta abilidade guzietan abillena nor dan jakin naia betidanik izan. Ortik jaio dira euskal joku guziak, aizkolarienak, sega-apustuak, arraunlarienak... Ogibideko lan oietan nor dan abillena jakin naia duelako. Esaera zaar asko daude ontaz “Aman semerik bada” “Nor gallendu” “Nork txapela jantzi” eta abar.

Olaxe sortu izan dira bertsolarien desafioak, guduak, txapelketak...

Emen laburbildu nai genukeen lantxo. Inundik inola ez dut pentsatzen gaia agortzerik, baizik izan diran edo orain arte jaso diran apustuen laburpen bat egin. Ikerketa sakona beste norbaitentzako utziko det.

Koplariak ez dira gaur bezela beti goralduak izan, baizik isekatuak eta baztertuak sarri askotan. R. Menendez Pidal-ek berak onela esaten digu “Los doctos menospreciaban a los poetas populares...” Erromantzeen bilduma egiten ari zanean. Beraz, ez da gure erriko gaitza bakarrik izan “Ustezko sasi-jakintsu batzuek” emen ere izan dira koplariak baztertu eta isekatu dituztenak. Guretzat berriz ortxe dago gakoa! Jakintsuek eta idazten zekite nek ez zutela bertsolaritza aintzakotzat artu eta ondoregoeei ez digutela ia az-tarranik ere utzi, ortaz ez baizuten ezertxo ere jasotzen edo idazten.

Orain historia edo kondaira labur bat egiteko, inon dokumentu gutxi, ia baterez. Lenengo desafioaren aipamena XIX-garren gizaldikoa da eta ordu-rako bertsolaritza izugarri landua zegoan... Ordurartekoak aizeak eramango zituan.

Kondaira labur au biltzerakoan Juan Ignacio de Iztueta eta Pablo de

Gorosabel aipatu bear, bestela lengo gizaldiko notizirik ez baigenuen izango. Iztuetak “Guipuzcoaco dantza go-goangarren condaira edo historia” idatzi zuanean bertsolariek naikoa aipatzen baiditu. Eta Gorosabelek “Noticia de las cosas memorables de Guipuzcoa” liburuan bertsolarietaz zertxobait jasotzen du.

Gizaldi onetan D. Manuel Lekuona eta Aita Zabala ezin aipatu gabe utzi. “Literatura oral vasca” eta “Bosquejo

de historia del Bersolarismo” bi liburu auek izan baiditugu oinarri bezela bertsolaritzaz itz bat ateratzeko. Geroztik Aita Zabalak bertsolaritzaz egin duen lana (bertso-paperen bilketa) Euskalerrriak inoiz eskertuko ez dion lana da.

Batez ere oieri esker nere lantxo au egunen baten argitaratuko da. Sarrera onen ondoren, astera noa bertsolarien norgeiagoken historia labur bat taju-tzen.

BERTSOLARI DESAFIOAK

Ez dira gaurkoak norgeiagokak Euskalerrian. Lenengo notizia XIXgarren gizalditik datorkigu. Bai Iztuetak eta bai Gorosabelek biak aipatzen dute 1.801-an izan zan desafioa. Euskalerrri guziak ezagutzen duana. Parte artu zuten bertsolariak Juan Ignacio de Zabala, Amezketakoa eta José Joaquin de Erroicena “Txabalategi” Hernanikoa. Apustua bosna ontzako urre (denera 10 ontzako urre). Lekua Billabonako plaza aundia, bi errititik erdi-bidera zegoana. Garaia, Otsailean karnabal-inguruan. Diotenez lau mila entzule bildu omen ziran (Badakizute personen kontaketa oso zaila izaten dala) Edozein modutara jendetza izugarria bildu zala bi bertsolarietara.

Juezak: Altamira, Aizarnazabalgo sakristaua, “Txabalategik” aukeratua. Beste aldetik berriz, Zabalak; Juan Ignacio de Iztueta aukeratu zuan (Berak dionez) baina erida aundi bat egun aietan egin zuenez, bere ordez “Fernando Amezketarra” eraman zuan. Irugarrena; juez “alderdikeri gabeakoa”, “inpartziala” Billabonako alkatea, baina bildurturik edo geiegi uleretzen ez zualako, bere ordezko Tolosako arziprestea aukeratu zuten José de Mendizabal oraindik apaiz naiko gaztea baina bertso mundua asko ezagutzen zuana.

Bi koplariak, bi ordu luzetan jardun zuten batac bestea nola menderatuko. Iztuetak dio “Batac besteari asmatu al citzaten itz-gairic nequezenac iriquiaz nondic eta nola alcar naspillatuco zuten aleguiñic andienac eguiten zituztela (1).

Txaloen artean bi ordu igaro ondoren garraxika eta oiuka entzuleek erabakia artu zuten: biak berdin-berdin egon zirala.

Jendea pixkat baretu zanean Altamirak, Aizarnazabalgo sakristauak, onela kantatu zuan:

“Txabaletegi eta
Zabala gaztea,
Askok deseoa zuten
kantuz ikustea.
Atsegin aundietan
Geldi da jendea;
Bata adinbat egin
Bear degu bestea”.

Jende guzia txaloka utziaz. Ondoren Fernando Amezketarrak, jeiki, jendearengana urreratu eta onela kantatu zuan:

“Ezin gentzake, bada,
Beste gauzik egin;

Nik goguan naukana,
Zuk dezu itzegin.
Utzi bear ditugu.
Biak berdin-berdin,
Gipuzkoa guziak
Ar dezan atsegin.”

Tolosako bikario Jaunak epaimaiko
lendakari eta juez erabakior bezela
kantatu zuan:

“Jaunak, mintzo zerate
Griña txarrik gabe,
Pozkidatu nazute
Txit asko, alare;
Egia esateko
Ipiñiak gaude:
Bata bezin bestea
Kantari onak daude.”

Jendea gustora eta atseginez etxera-
tu zan, alako desafio ederrik ez zuala
aspaldian ikusi eta. Iztuetak dio, bi
bertsolarien artean anaitasun luzea
izan zutela eta bukatzen du esanaz,
Virgilioren Eglogatan berdin gertatu
zela Tirsis eta Damon-en artean Platón
juez zutelarik. (1)

Beste desafio baten berri ematen
digute Iztueta eta Gorosabelek. Urren-
go urtean 1.802-an, karnabaletako iru-
garren egunean, Tolosako plaza zaa-
rrean, alde batetik Zabala eta Fernan-
do Amezketarra eta bestetik Juan
Bautista de Altamira, Aizarnaza-balgo
sakristaua eta Txabalategi, ooltza ba-
ten gainean aurrez-aurre jarririk, arra-
tsalde guzian kantatu omen zuten eta

illunak ixilarazi eta jendearen epaia
eman gabe gelditu zala esaten dute.
Iztuetak geiago esaten digu,
Udaletxeak kontratatuak izan zirala
eta orduko bertsolaririk onenak zirala,
baña laurak analfabetoak “lauac letra
bat bacarra ere ezagutzen etzutenac...”

Beste gauza bitxi bat ere esaten di-
gu: Udaletxe askok debekatu egiten
zutela bertsoak kantatzea baña Amez-
ketan libre zala eta orregatik izango
zirala ainbeste bertsolari.

Bi karlisten gerra tarte orretan, ez-
pairik gabe, desafio asko izan ziran
baña zoritxarrez geienak aizeak era-
mango zituan edo bestela orduko he-
meroteka guziak aztertu bearko lirate-
ke, desafio oien aztarranik ere ez dala-
ko gelditu.

"Fernando Amezketarra" liburuan
D. Gregorio Mugica-k beste aipamen
bat egiten digu.

“Txabalategiren” bederatzi puntu-
ko bertso eder bat jartzen du, desafio
bat botaz Amezketako bi bertsolariei,
Fernando eta Zabalarari eta onela dio:

Pernando ta Zabala
erri batekoak,
badakit zeratela
koplari bapoak.
Ez izanagatikan
zuek añakoak,
gu ere egin ginduzen
zerbait Jaungoikoak;
lengo apustukoak,
Napar-errikoak,
Lekunberri-koak,
etziran piñoak;
askoz obeak gaituk
Ernani-koak.

(1) "Euzkadi" aldizkaria 12 Urtarrila, larunbata

Emen ikusten degenez eta Iztuetak dionez, bertso mota au noiznai erabil-tzen zuten garai artako bertsolariak eta gaiñera ongi moldatuak. Iztuetak onela dio "... Usuan jarririk dago Guipuzco-aco itz neurtulari bicañen artean". Beste antzeko gertaera bat ere aipatzen digu Iztuetak: Fernando Amezketarra joan omen zan Azpeitira S. Sebastian egunean norgeiagoka bat jokatzera Azpeitiko bertsolari batekin, baña au ez zan plazara agertu, beldurrez edo... eta gau-erdi aldera beste lagun batzue-kin Fernando zegoan lo-etxera (posa-da) kantari etorri zan bazterrak naas-tuaz eta Fernandok ez zion kasorik ere egin, baña alabearrez urrengo goizean kale ertzean ez du ba aurkitu bere kon-trario ori... onela kantatu zion:

“Lagunac arturican
Gucizco tirrian
Nere billa embillen
Bart gau erdian
Erroncac botatuaz
Prestuezquerian
Ez dic ongui ematen
Norc bere errian
Egunazco arguian
Euscara garbian
Jocatu nai nian
Bañan ez nauc ifini
iñon premian. (1)

Oso ezagunak ditugu baita ere bes-te desafio batzuk, erriak ezagutzen di-tuanak eta askotan buruz ikasiak, orra muestra batzuk:

Ona emen Oiartzungo Ardotx-ek

bota zion desafioa Bera de Bidasoa-ko Exkerra-ri:

Exkerra Bera'tarra
zuretzat goraintzi:
lengo kostumbre zarrak
etzaizkizu antzi.
Zakelak utsak eta
poltsan diru gutxi,
inbusteriz mantendu,
bertsuetan jantzi...
Orla bizi denak ez tik
iltzia merezi.

Exkerra, nai ba-dezu
nerekin jarduna,
señalatu itzazu
illa ta eguna;
erritikan artzazu
nai dezun laguna,
bertsutan jokatzera
atoz Oyartzun'a;
etzaizu paltatuko
zeñek erantzuna. (2)


Ona emen beste bina bertso Astiga-rragako Patxi Bakallo-k, Xenpelarri botatako desafioarenak:

Bakallo:

“Iñork ba-dakizute
Oyartzun'go berri,
eskumuñak Ardotxi
eta Xenpelañi
Libertsio polit bat
nai ba-dute jarri,
bidez erdi bezela
dago Bentaberri;
gonbidatutzen ditut
nai ba-dute etorri”.

1. A. Zavala "Bosquejo de historia del bersolaris-mo" 80 orrialdea.

2. M. Lekuona "Literatura oral vasca" 98 orrialdea.



Xenpelar

“Desapiyo ori da
Bentaberri’rako,
konpormatzen ba-dira
bidez erdirako.
Ezpazaye egiten
gogorik arako,
lagun bat artuko det
nere guardirako,
berdin prestatuko naiz
Errenteri’rako”.

Xenpelar:

“Pazkubigarren-goizez
artu nuen karta;
bestek firmatua da,
ez da zure palta.
Suma ederra dezu,
eztarriya alta,
abiyatuko nauzu
itz oyek esan-ta:
gizona gonbitzia
libertsio bat da”.

“Xenpelar probatzeko
egin dute faza,
gizon baten itzari
eman diyot traza.
Ez Astigarra’tikan
onuntzago pasa;
bertara juango naz,
egon zaitte lasa;
nai dezun ordurako
eska zazu plaza”.(1)

Beste baten Bilintzek, Josepa ize-
neko emakume bertsolari bati (Onda-
rrabikoa) bota zion desafioa:

“Egizu naizunian,
dama, etorrera,
zuregan utzitzen det
egunan aukera,
ipintzen badirazu
orrelako aukera,
aprobetxatu gabe
ez niteke gera,
alkarrekin berriro
mintzatuko gera”.(2)

Beste bi adibide auek ere Xenpela-
rrenak dira, oso ezagunak. Bat, Musa-
rro bere lantokiko lagunarekin, lanto-
kian orain bezelaxe zigarro-erretzea
debekatuta zegoan nunbait eta Musa-
rro asperturik komunera joan zigarroa
erretzera eta Xenpelar enkargadu edo
olakoren bat izanik kontu artu bear.
Ikusi emen galdera—erantzunak, bat-
batekoak izateko ederregiak...!

Aizak, Manuel mañontzi:
urrengorako goraintzi...
Ez al-akiken or pipa artzia
etzela lizentzi?
ik jeniyo txarra utzi,
bestela ezurrak autsi...
Giza-legia nola biar dan
ezin erakutsi.

1. M. Lekuona "Literatura oral vasca" 99 orrialdea.

2. A. Zavala "Bosquejo de historia del bersolarismo" 81 orrialdea.



Bilintx

Musarro:

Nik ba'det giza-legia,
Prantxixku'k bañon obia;
beste tatxarik etzait arkitzen,
arrote pobria.
Ijeniyua noblia,
kortesi pare-gabia...
Neri ezurrak austeko ik nun
dek abillidadia?

Xenpelar:

Ziri bat sartu dit neri;
ara nik ere berari...
Abillidade gutxi daukanik
ez esan iñori.
Azala daukak ik lori,
mamirik ez duk ageri...
Ezur igarrak austen zallak duk;
ba'zekiyet ori.

Musarro:

Kunplitzik ire ordenak,
ez dik kalteko nor denak;
bestela parra egingo ditek
begira daudenak...
Ik non daukazkik kemenak
menderatzeko gallenak?
Ezur igarrak autsitzen dizkik
indarra dubenak. (1)

Azkenik desafio famatuena Xenpelar eta Iparragirre-ren artekoa. Xenpelar ez zegoen oso gustora Iparragirrek zuen ospe eta famarekin, ez baizi-

tzaion bertsolari ona iruditzen eta onela esaten dio:


Iparragirre abilla dela
askori diyot aditzen...
Eskola ona eta musika...
ori oyekin serbitzen.
Ni enazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komeriante moduan;
debalde pesta perparatzen det
gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika
bertsolariya gañera...
gu ere zerbait izango gera
orla ornitzen ba-gera.
Atoz gure kalera,
baserritar-legera
musika oyek utzi-ta;
Errenteriya'n bizi naiz eta
egin zaidazu bisita. (2)

Onelako desafio asko ematen ziran garai batean, abillidadeak plazan neurtzeko. Geroxeago Otaño eta Pello Errotaren epokan ugari eman ziran, orra muestra bat. Egun batean bazijoazen Uztarri eta Kortazar, Azpeitiko bi bertsolariak, Lezoko festetara mendiz-oiñez eta Zizurkillen pasatzerakoan Otañotarren baserrira iristean onela kantatu zioten:

I. M. Lekuona, idem, 164 orrialdean

I. M. Lekuona, idem, 166 orrialdean



Iparraguirre

Guitarra y primera
partitura del
"Gernika'ko
Arbola".

“Besuan txaketa ta
eskuan makilla,
Santa Kruz bezperan
nua Zizurkilla
lagun bat ere badet
kantari abilla,
aproposito irten naiz
kontrariyo billa,
artarakorik bada
agertu dedilla”. (1)

Errekalde zaarrak, Pedro Otañok,
José Bernardoren aita eta Pedro Mari-
ren aitonak onela erantzun zien:

“Atea kux-kux jota
egin zazu galde,
aber etxian dagon
Pedro Errekalde,
etzaitute utziko
ezer eman gabe,
bat eon bat egingo da
arrazoyan jabe,
kontrariyo gabe”. (2)

Izuelako artzaiarena ere naiko poli-
ta da. Bertsolariren batekin (Ez du
jartzen norekin) desafio bat izan zuan
eta juezek saria nori eman jakin ezinik
erabaki au artu zuten; besteak kantatu-
tako bertsoak errepikatzen zituanak
irabaziko zuan saria eta Izuelako
Artzaiak 50 bertso errepikatu... ?
(Pixka bat arrigarria!!!) eta berari
eman zioten saria.

Pello Errotak ere onela kantatzen
dio bertsolari nafar bati:

Eztakit egiya dan,
jakindu det ala,
bertsolari bat ona
Tolosan badala,
naiz izan probintziano
ta berdin naparra,
nik jokatuko diot
euskalduna bada”. (3)

“Diario de San Sebastián” egunka-
riak Ifar aldeko beste sariketa bat ai-
patzen digu. 1.875-ko Irailaren 18-an
Sarako festen kronika egitean onela
esaten du...” Arratsaldean koplari-
ei sariak eman zitzaizkien, zortzi bertsolari
aurkeztu ziran eta oien artean bi espa-
ñol eta emakume frantzes bat. Ema-
kume frantzesak jaso zuan saria... Gai
desberdin sakonetaz kantatu zuten eta
erriko Alkateak gaiak jartzen ziz-
kien...”

Egunkari ber-berak beste bat ere
onela aipatzen digu... 1.878-ko
Donostiako Andra Mariren jaietan
beste sariketa bat izan zan juradu eta
guzi. Ollokiegi eta Udarregi, biak
Usurbildarrak, (beerrikoak) eta beste
aldetik José Bernardo Otaño eta Pello
Errota (goierrikoak) 1.000 errial saria.
Juradua: Kontzejal bat; Sr. Muñoz eta
D. José Manterola eta D. José Maria
Artola. Biñaka, alkarren aurka ordu lu-
zeetan jardun ondoren ain parekatuak
zeuden eta saria lauren artean partitu
zuten... eta jarraitzen du esanaz...
“gauean berandu arte bertsolariek be-
ren eztabaidan jarraitu zutela...”

1. A. Zavala, idem, 81 orrialdean.

2. A. Zavala, idem, 82 orrialdean.

3. A. Zavala, idem, 82 orrialdean.




Otaño, Pello Errota eta Jose Zapirain

Aitzolek (José de Ariztimuño) berak ere aipamen labur bat egiten digu. 1.936-ko kanporaketak Elizondon ospatzen diranean onela esaten du... “go-goangarria izan zala orain dela 70 urte, karlisten gerra bukatzean Elizondon, José Bernardo Otañok eta Pello

Errotak izan zuten eztabaida izugarria sari eder bat jasotzeko...”

Zenbat olako galdu ote dira...? Emen aipamen labur bat egin degu, baina dudarik ez dago bertsolari onen-txoena askotan elkar ongi probatu ziralara.



Bi bertsolari kantuan, Eskubikoa. *Pello Errota*. Ezkerrekoa, uste degunez, *Jose Bernardo Otaño*. Argazki au Argia astekarian azaldu zan, 1925 urteko garagarrillaren 14-ean.

LORE-JOKUAK

Emeretzigarren gizaldiaren azken aldera eta ogeigarrenaren asieran, Euskalerrian jaialdi ederrak ospatzen ziran, urte baten erri baten eta urren-goan beste baten, beraz erdi mailako erri geienetan ospatu ziran. Jaialdi auek denetarikoak izaten ziran, erligiosoak, euskal-jaiak, lore-jokoak, erakusketak...eta abar.

Lore jokoak berriz geienetan literatura leiaketak izaten ziran, idazlanik onenak sarituaz. Erri batzutan literatura leiaketen barnean bertso-sariketa batzuk antolatzen ziran, irabazlearentzat sari eder bat jarriaz.

Bazan Euskalerrian Jaun oso aberats bat, Antoine D'Abbadie zeritzana, euskaltzale burukatua, Endaian bizi izaten zan, berak egiñarazitako jauregi izugarri eder baten. Jaun onek, nonbait, diru ugari zuan eta euskal festak antolatzeko diru asko ematen zuan, ongi etortzen zitzaizen antolatzaillei sariketa eder batzuk jartzeko.

Gure kasoan ere orrelaxe gertatu zan. D'Abbadie Jaunak 100 libera urrezko jarri zituen saritzat. (1) Azpeitiko Lore-jokuetan bertsolari-entzat sariketa eder bat antolatu zuten.

Saria tentagarria zan eta bertsolari onenak agertu ziran.

Ikus dezagun Aita Zabalak nola adierazten digun... (2) "Jai ospetsuak izan ziran: Meza nagusia, korrika apustuak, pelota partiduak eta bazkalondoan bertsolariak. Lau t-erdietan asi zan saioa, Udaletxeko balkoitik kantatu zuten, bost mila entzule izango ziran eta Juradukoak gizon ospetsuak: Resurrección M. de Azcue, Domingo de Agirre, eta Felipe Arrese Jaunak.

Asieran beste bertsolari batzuk ere aurkeztu ziran baña laster iru bakarrik gelditu ziran: Joxe Bernardo Otaño, Udaregi eta Pello Errota, garai artako iru bertsolari onenak. Inon diren gai guziak arakatu eta eztabaidatu zituzten; eta oso zaila batak bestea menderatzen, baña jendea, diotenez, Pello Errotaren alde oiuka asi omen zan.

Juezak elkarrengana bildu ondoren ao batez Pellori eman zioten saria. (100 libera urrezko). Jaialdi ederra ospatu ondoren guziak gustora etxeratu ziran; baña jaialdi arek ekarri zituen ondoren xebreak. Ikus zazue nondik sortu zen ixtillua.

1. M. Lekuona, idem, 103 orrialdean.

2. A. Zavala, "Azpeitiko premioaren bertsoak"
C. Auspoa 27.



Pello Errota

Nonbait iru bertsolari onenak, sari-keta ospatu aurrez, elkar, ikusi zuten eta bai elkar tentatu ere esanaz “Saria partitzea izango diagu onena...?” Aurrez inork ez du jakiten gauzak nola joango diran eta, geroko bertsotan agertzen danez, Udarregik ez zuan gogo aundiegirik saria partitzeko bera onentxoena izanik...

Pelloc berriz saria irabazi ondoren, Joxe Bernardori sari ortatik (erdia) eman egin zion eta Udarregiri ezertxo ere ez.

Udarregi enteratu zanean oso minduta gelditu zan eta egunen baten Pelloc arpa jo ere bai Usurbil aldean ikusita... Orra nondik eta nola sortu zan bertsolarien arteko sesio ezagunena eta ondoren bederatzi puntuko bertso sailik ederrena.

Udarregik ez zekien ez irakurtzen eta ez idazten eta besteek lagundu bear paperetan zer zioten jakingo bazuan, aldameneko baserrira, Artikula Txikira, joaten omen zan besteen papera irakurri zezaioten eta gero idatzi. Udarregi zaarra laster il zan 1.895-ko Urriaren 2-an. Azpeitiko jai ospetsuak 1.893-ko Agorrean izan ziran eta bien bitartean argitaratu ziran bertso aiek.

Pello Errotak ere berdintsu, berak ez zekian idazten eta alabak kopiatzen zizkion bertsoak. Ara nola esaten di-

gun bere alaba Mikaela Elizegi Bengoetxeak... “Ni ezkondu nintzan urtean zan ta neronek kopiatu nituan gure aitaren bertsoak, Anayarenak ez, arek eskola bazuen ta...”

Sesio edo drixka luzea izan zan, bertso jartzaille askok artu zuten parte azkenerako.

Aurrena Udarregik jarri zizkion bertsoak Pellori eta Pelloc erantzun.

Urrena, Udarregik Pellori, baña Joxe Bernardo ere aipatu egiten zuan eta Joxe Bernardok erantzun.

Irugaren aldiz, Udarregik beste biren kontra eta oraingoan Pelloren semeak erantzun,

Migel Antonek.

Laugarren aldiz ere jarri zituen Udarregik eta Juan Kruz Pelloren anaiak erantzun.

Udarregiren alde ere, Juan Bautista Gaztelu eta Errikotxiak bertsoak jarri zituzten, geroztik geiago ere argitaratu ziran, beraz Udarregi il ez balitz sesio eta aserrea luzatu egingo ziran.

Eredu bezela, lenengo jarrialdia bakarrik (Udarregi asi eta Pelloc erantzun) jarriko degu emen. Geiago jakin nai duenak jo beza “Auspoa.27” liburura.

Emen Udarregiren lenengo jarrialdia:

- 1/ Azpeitira dirate
bertsuetara deitu,
gizon balientia
naute eskojitu,
buelta bat egitia
nuen disponitu,
¡ay! pensamentu oyek
artu ez banitu,
gutxi suponitu,
ez gera unitu,
utsik naiz gelditu,
talentubak aitu,
enfermedade txarrak
bajatu gaitu.
- 2/ D'Abadi jaun ori
frantzesá da berez,
ni berriz española
pobria nerez,
premiyuak partitzen
ditu kantidadez,
Azpeitira juan nitzan
bizirik dolorez,
bajuba kolorez,
eskasa balorez,
Pello degu juez
nombratuba legez,
ni utsik geldituba
portatu gabez.
- 3/ Premiyua eman zioten
Pello Errotari,
ez dan gauzik esaten
ez gerade ari,
zerbait luzatutzeko
bere lagunari,
Juan Jose Alkain edo
Jose Bernardori,
gezurra ugari
sakatu dit neri,
triste Udarregi,
deskubritu bedi,
asko partitu gabe
juana da ori.

- 4/ Orduban Azpeitiyan
zan alkate jaunak
partitu omen zizkan
bere ordenak,
ango tribunal edo
komisiyo onak,
artako nombratuta
zeuzkaten gizonak,
guztizko personak,
ala dira sonak,
pruebak emanak,
orren faltak danak,
edozein gauza libre
lotsatze'ez danak.
- 5/ Erriko alkatiak
itz oyek esan-da,
errespetatu gabe
zertako jua da?
tribunala ere berriz
artarako zan da,
orrek guziyai alde
listua izanda,
berak artu prenda,
publikora erten da,
sufritutzen Ian da,
txarra da demanda,
etzaizkiyo urritu
neri emanda.
- 6/ Alkatiak jarriya
zan kondiziyua,
lagunairi egiteko
partiziyua,
eman biar danian
txarra zoziyua,
bota ta kunplitzen da
obliglaziyua,
orren aziyua
ai zer leziyua!
dala traiziyua,
konparaziyua:
Judasek izan zuen
ofiziyua.

- 7/ Giza-arte txarrera
ez nintzan etorri,
bolsan diruba ondotoxo
ez banu jarri,
D'Abadi-k premiyua
eman arren orri,
etziyon zentimorik
Alkaiñi ekarri,
artutzeko larri,
berak gorde sarri,
artu eta korri,
izan banintz urri,
ibilli bear nuen
desonragarri.
- 8/ Kantidade guziya
jaso du urretan,
eun franko justu dira
lege zarretan,
ez gerade metitu
enplio txarretan,
propinak partitzeko
kale baztarretan,
nago bildurretan,
ori indarretan,
ez dala zorretan
dabil gezurretan,
aberastu biar du
modu orretan.
- 9/ Premio ori artu ez,
galanki gastatu,
sentidubak nai ditut
manifestatu,
Pelloren aziyuak
etzaizkit gustatu,
bost duro utzi ditut
kotxe ta ostatu,
zertako estutu?
ez gera ajustatu,
gezurra prestatu,
diruba arrastatu,
konzientziya ondo
errejistatu.

- 10/ Azpeitira jua nitzan
ni zori gaitzian,
gizon onratu batek
deitu baitzian,
batzuetan oñez ta
bestian kotxian,
zorrikan utzi gabe
sartu naiz etxian,
gizona zartzian
premiyua atzian,
au gogoratzian
pena biotzian,
lasaituko gerade
kobratutzian.
- 11/ Usurbillen dema bat
aurten da jokatu,
an elkar billatzia
zaigu tokatu,
askoz nayago nuen
ez banu topatu,
gezurrak esan eta
egiyak ukatu,
saltsa eziñ bukatu,
izketan nekatu,
kasik da pekatu,
eziñ debekatu,
ojala ez bagendun
itzik trukatu.
- 12/ Fundamena izan zan
Pelloren aotikan,
“zer notizi nituben
Azpeititikan”,
nik pakia desio
nere partetikan,
asko kejatu gabe
asi zan platikan,
illiak zutikan,
bere gramatikan,
oso gogotikan,
sendo politikan,
orri ajola diyo
guregatikan.

- 13/ Orduko itzakgatik
egiñ diyot kaso,
errespeto piska bat
biagu preziso,
nai dubena esatia
ez baita alkaso,
bere mantxak bota nai
zizkiran akaso,
kopak sarri jaso,
zurrut kurioso,
jarri animoso,
ni ez nago gozo,
zergatik juzgatu nau
gezurti oso.
- 14/ Astiasuko erriko
Don Pedro Elicegui,
gezurrez dabillega
Juan Joseri,
ez diyo begiratzen
zenbaitek ezeri,
prestubak insultatzen
gizona ez ari,
tentatu zat neri,
Alkain Udarregi,
egiyaz da ari,
publikatu bedi,
ez berak dauzkan tatak
bota besteri.
- 15/ Pello desafioka
aspaldi asiya,
zertan egingo zayo
menospreziya?
ori da gazterikan
ondo ikasiya,
berak markatu zuen
probintzi guziya,
etzan itxusiya,
daukat ikusiya,
onrak mereziya,
izan du graziya,
amaika duro eder
irabaziya.

- 16/ Oso trebia dago
kantuzko lanian,
orrelako gutxi da
gaurko egunian,
gogor egiten niyon
gazte giñanian,
obeditu diyogu
etsi degunian,
sasoya juanian,
baju gaudenian,
orgullo onian,
farra aldamenian,
Juan Jose Udarregi
galdu danian.
- 17/ Lau probintzi oyetan
ori da jueza,
talentuba duenak
biar grandeza,
beti artako dago
estu eta presa,
kantuz etxeratzen du
zenbait interesa,
jan da edan lasa,
egun onak pasa,
ez dago eskasa
eman diyot traza,
titulo eder ori
konserba beza.
- 18/ Oraiñ ogei bat urte
nintzan indarrian,
tabernan bezelaxe
ote-larrian,
Pellorekin ere bai
patxara ederrian,
allegatu ezker
egiñ biarrian,
teatro zarrian,
ez leku txarrian,
jende asko urrian,
naiko bildurrian,
beti etzan atsegiñ
nere aurrian.

- 19/ Nik orduñan banuen
gizon baten lana,
berak ere badaki
ona nintzana,
sarritan juntatutzen
giñan elkargana,
juzgatzen zuten zein zan
baliente zana,
bazuen afana,
klarua kanpana,
berekin daukana,
ni denbora juana,
ezagututzen gaitu
baju gaudena.
- 20/ Gu gera bertsuetan
aspaldi asiyak,
aitu dira kantuzko
irabaziyak,
makiña bat funtziyo
gaude ikusiyak,
broma ederrak pasa bai
Jaunari graziyak,
lanian ezियak,
nekoso biziyak,
indar eskasiyak,
modu itxusiyak,
zartzak azaltzen ditu
aje guziyak.
- 21/ Onrak merezi ditu
Azpeitiko erriyak
igual ango jende
maitagarriyak,
premiyuak ziraden
ara etorriyak,
D'Abadi jaun orrek
kotxez ekarriyak,
zer urre gorriyak!
gu diruz urriyak,
bajutxo jarriyak,
gaude igarriyak,
orra Udarregi zarrak
bertso berriyak.

Auetxek dira Udarregiren bertsoak, denak bederatzi puntukoak, baña argitaldi bakoitzak desberdintasun txiki batzuek ditu.

Komentario txiki bat ere ongi etorriko zaio. Juan José Alkain, Udarregik, bere bertso sorta onetan zeaztasun auek ematen ditu:

a) D'Abbadie Jaunak eun franko urrezko premia jarri zuala Azpeitiko festa oietan... "8-garren bertsoan... kantidade guziya, jaso du urretan; eun franco juxtu dira, lege zarretan..."

b) Azpeitiko Alkatea eta tribunal edo komisio bat jarri zutela saria partitzeko esateko... 3-garren onela dio: "Zerbait luzatutzeko bere lagunari"... Alkateak jarriya zan kondiziyua, lagunairi egiteko partiziyua..."

d) Usurbillen elkar ikusi zutela egun baten eta Pello arpa jotzen asi

zitzaiola esanaz.." Zer notizi nituben Azpeititikan..." Eta sesio guzia ortik asi zela.." Orduko itzakgatik egin diot kaso..."

e) Udarregi zaartuta zegola, (1.829-an jaioa) irurogeita lau urtetik gora. Bestela ez ziola barkatuko. Pellok berriz, (1.840-an jaioa) berrogeita amairu bat urte. Bertsoan ala dio..."Orain ogei bat urte nintzan indarrarian" "Gogor egiten nion, gazte giñanarian, obeditu diyogu, sasoia juanian, Juan José Udarregi galdu dani-an..." "Berak ere badaki, ona nintzana..."

Ikusten danez aserre bizian zegoen Udarregi, baña zaartu zala eta etsi egin bearko zuala, naizta gaztetan Pelloren bildur ez izan...!

Bi urte baño len il zan gizarajoa!!!

BERTSO BERRIAK
ORDAÑETAN JARRIAK
Ondoren Pelloren erantzuna.

- 1/ Bertsuak ipintzera
nua ni besteri,
lenago bestek ori
egin dit neri,
ortan sayatu dana
Juan Jose Udarregi,
orain ari dana da
Pello Errotari,
itz egin alkarri,
arrazoyak garbi
ez gezurrik jarri
mundu parragarri
zer zeran ikusiko
zaitugu sarri.

- 2/ Milla zortzireun da
laroi ta amairuan,
Agorran amar egun
zituen orduan,
Azpeitian bertsuetan
jokatu genduan,
ia premiyua nork
ateratzen zuan,
plazan tableruan,
egun argi klaruan,
jende asko zeguan
an erreparuan,
orduko apustuba
galdu zenduan.

- 3/ Premiyua jarriya
zuen an batentzat,
ori jakiña dago
onenarentzat,
Udarregik desiatzen
zuena beretzat,
baña portunatuba
dago Pellorentzat,
an zeuden juezak
ez oso aldrebesak,
neurtutzeko gauzak
jo naube obetzat,
pena ori daukazula
iduritzen zat.
- 4/ Apustuba jokatuta
urrengo goizian
notiziak aguro
zabaldu zian,
Gaceta-n ere baita
igual La Voz-ian,
nola premio oyek
Pellorentzat zian,
Juan Jose atzian
gelditu da utsian,
estadu motzian,
nere paltak etzian,
zuk ere izango dezu
irabaztian.
- 5/ Agorraren amarrian
Azpeitiko plazan,
gutxienian bost milla
persona bazan,
gu ikustiagatik
kantuzko alegrantzan,
gero kontatutzeko
ederrena nor zan,
Udarregi an zan,
zerbaiten esperantzan,
utsik atera zan,
nere kulpa etzan,
buruba makurtuta
etxera juan zan.

- 6/ Premiyo orretan zu
ezpaziña izan,
Bernardo ta neretzat
bentajago zan,
pesta ederragua
askoz egingo zan,
gurekin diferentzirik
aterako etzan,
gizon au sortu zan
ta plazan sartu zan,
gitxi portatu zan
orduko izkuntzan,
zer langille zeguan
ezagutu zan.
- 7/ Azpeitiyan sartu ziñan
Nikolas-enian,
jarri nitzaizun zere
aldamenian,
keja batzuk kontatzen
asi ziñanian,
ustez itzegin nizun
gizatasunian,
al zana onian,
nere alegiñian,
lagundu nayian,
al nuen gayian,
aztu gabia daukat
zer esan zirian.
- 8/ “Alkar ez degu galduko”
bertan niyon esan,
errespuesta ederra
nigana etzan,
“iya naita ere ura
galtzen errez al zan”,
berak pentsaten zuen
obia ote zan,
alako grandezan
nigandik juañ zan,
Pello aserre zan
orra itzegin zer zan,
lan orregatik ori
utsik irten zan.

- 9/ Diruba ekarri zuen
frantzes famatubak,
juzkalariyak berak
zeuzkan autubak,
ondo neurtu zitzatela
gure talentubak,
zeñek lan egin zuen
daude akordatubak,
urre sillatubak
neri entregatubak,
nik ditut artubak
ta poltsan sartubak,
bentaja egin dit neri
an portatubak.
- 10/ Pelloren konzientziak
ez daduka arrik,
Juan Joseri eginda
aziyo txarrik,
jokatzerako zerbait
ark itzegin balit,
pozik emango niyon
piska bat bederik,
gaizki neregatik
itzegin atzetik,
ez dauka arturik
ark nere urrerik,
zergatik ez diyodan
nik orri zorrik.(1)
- 11/ Zure arrazoi batzuek
etzaizkit gustatu,
nere kontra zerade
manifestatu,
gezur asko esan dezu,
gutxi sinistatu,
nerekin etziñaden
iñun ajustatu,
kotxe ta ostatu
dezula gastatu,
dirurik ez artu,
etzaude kontentu,
abisatu zizunari
orain eskatu.

- 12/ Abisatu zizun ori
ez dago pobria,
guk aña izango du
zillar da urria,
bestela ez dakit baña
mingañez noblia,
besterenetik konpritu
nai luke ordia,
premiyo neria
ez dala zuria,
sinistia obia,
nik det poderia,
gordetzia libre du
zeñek beria.
- 13/ Judasen ofiziorik
sekula ez det izan
munduban oraindaño
nere bizitzan,
pentsatzen det zerorri
ala ote zabiltzan,
gizonak endredatzen
utsaren peskisan,
ez bazendun esan,
zuretzat obe zan,
or zaude bajezan
ango interesan,
nik zuzen segitzen det
dedan pobrezan.
- 14/ Gezurrarekin artu
dituzu neurriyak,
kanpora zabalduaz
etxeko berriyak,
nik esango dizkitzut
egiyak garbiyak,
nun nai ondo ematen du
gauza ondo jarriyak,
Bernardok erdiyak
ango urre gorriyak
ditu ekarriyak,
berdin giñan biyak,
ez du zure lotsarik
errotariyak.

- 15/ Sekulan ez det egiñ
biar ez dan lanik,
zuk bestek ez dit esan
lotsik ez dedanik,
kulparik izan banu
nik ez neukan penik,
nik ez nuen lagunari
partitzeko ordenik,
olako gizonik
mundu ontan zanik!
ez dago euskaldunik
orla jardun danik,
zuk aurrian aña lotsa
atzian det nik.
- 16/ Partitzeko ordena dala
Udarregik esan du,
gezur kontari dabil
au munduz mundu,
nik premiyua atera
sufritu ezin du,
pentsatutzen jartzian
ernegatutzen du,
pena aundia artzen du,
berak ezagun du,
neri ezin kendu,
biyotzetik min du,
zuretzat ere bazan
egiñ bazendu.
- 17/ Usurbillen izan nitzan
iri-apustuban,
Udarregi jaun au're
portunatu an,
egun guztiyan alkar
ikusi ezkenduban,
nigana allegatu zan
gaubaz beranduban,
ni nitzan lekuban
sartu ostatuban,
asi giñan kantuban
biyok lau puntuban,
ordukuaz al zaure
sentimentuban?

18/ Bajatu zeradela
diyozu zardadez,
neroni're aurrera
nua edadez,
berroi ta amairu urte
nik egoarri-gaubez,
bautismoa emango'izut
ala dan edo ez,
nere kalidadez
nabill giza-legez,
gaitzikan esan ez
nik uste dedanez,
ez nabill arrotuta
gaztetasunez.

19/ Ara bertso berriyak
Don Jose Alkañi,
Pello Errotakuak
dizka ipiñi,
aurretik ori bera
egin neroni,
buelta ematia
zitzaidan komeni,
bizirik banaiz ni,
osasanaz ongi,
oinbeste armoni
ez geigo ibilli,
orra errespuestak
ikasi ongi.

a) Pello Errotak garbi esaten digu ze egunetan izan zen sariketa ori...

“Milla zortzireun da laroi ta amairuan, Agorrak amar egun zituen orduan...” “Plazan tableruan...” Bost bat milla persona baziren entzuten.

b) Premiua bakarrarentzat, irabazlearentzat zela... “Premiua jarriya zuen an batentzat, ori jakiña dago, onenarentzat...” “Eta juezak ni jo nau-be obetzat...”

d) Azpeitiko “Nikolasenian”, taber-

na ortan alegia, Pellok esan zion... “Alkar ez degu galduko” eta erantzuna “Iya naita ere ura galtzen errez al zan”

e) Nik ez nuan lagunari partitzeko ordenik...” Baña Bernardori, erdiak eman zizkion... “Bernardok erdiyak, ango urre gorriyak, ditu ekarriyak, berdin giñan biyak... “Beraz, Otañok eta biak erdibana egin zuten premiua.

f) Azkenik esaten dio; Usurbillen juntatu zirela biak dema edo idi-apustu baten. Eta bere zaartzaroa asko ez ai-

patzeko, Pello ere zaartzen ari zala eta..."Bajatu zeradela diyozu zardadez, neroni-re aurrera nua edadez, berrogei ta amairu urte egoarri gaubez..."Ez nabibil arrotuta gaztetasunez.

Au izan zan bien arteko eztabaida. Ondoren beste batzuk sartu ziran sesioan. Arrazoia zeñek zuan...? Zalla da jakiten, bertsoak irakurri eta zeorrek ondorenak atera.

Olako sariketa asko izango ziran epoka aietan, zoritxarrez ez degu notizi asko, agian, hemeroteka zaarrak aztertuz zerbait aurkitu daiteke baña lan zalla iruditzen zait.

Aita Santi Onaindiak beste aipamen batzuk egiten dizkigu. "Enbeita Oleskaria liburuan, gizaldi onen asierako bi sariketa ekartzen ditu. Baten, Enbeita Urretxindorak Txirritari nola irabazi zion Bilbon jokaturako sariketa baten. Ez du jartzen nondik jaso zuen notizi ori...!

Ikusi dezagun nola dion:

"Orrela, lenengo taberna zuloetan, gero erritxoetako jaietan eta azkenez erri andietakoetan agertzen asi zan Enbeita. Emeretzi urte ebazala, bertsolari-txapelketa bat izan zan Durango'n, erriko jaiak zirala-ta. Berriz'en ba-zan orduan izen andi samarreko bertsolaria, Onbe. Maikoak oneri emon eutsoen lenengo saria, Kepa'ri barriz, bere baliogaitik, bigarrena.

Andik sei urtera, bere adiskide Zelaia'k sariketa bat antolatu eban Ondarreta'n (Las Arenas'en). Gipuzkoarrak ziran etorteko, Txirrita arteko zalla, eta, diñoenez, arro samar etozan,

bizkaitarrak agertzen ba'zan, bizkarra berotzeko asmotan. Zelaia'k Kepa'ri:

- "Ezagutzen al dok, Txirrita?" -
"Ez, ba; entzutez bez". -"Ez adi, orduan, agertu; emen dituk Txirrita ta gipuzkoar onenak, eta eurak diñoenez, bizkaitarra mutu geratuko ei dok irugarren bertsorako". -"Bai, neure ustez be onenak dira; baiña mutu izte ori lartxo esatea deritxat". -"Zer orduan?" -"Begira: nik beti gura izan dot neu baiño geiago diranakaz burrukatzea. Ikusi egingo dogu".

Zazpi gipuzkoar ziran, eta bizkaitar bat. Muxika'koak, asi aurretik, beti lez, buruz iru Agur Mari esan ebazan. Ekin eutsoen bai batzuk bai bestetzuk. Bizkaitarrari zirika gipuzkoarrak geienak; Aizarna bertsolari ospetsuak, batez be, urte bete t'erdi ebazan bere semearentzat emaztegeia eskatzen dautsa Kepa'ri: eta Kepa'k, ondo zorrotz eta trebe, erantzun:

Zenbat pertsona dauzan
Ainbeste jeniño,
Aizarna'n errazoia
Aundiyok, orraiño;
Semientzat nobiya
Bear daua diño:
Urte bete ta erdi
Ez ei dauz ondiño,
Sopak obe leukezak
Nobiya baiño.

Gauzak orrela bizkaitar gazteri txapela erantzi bearrean aurkitu ziran ango bertsolari ta entzuleak. Saioa amaitu zanean, maikoak erabagi au emon eben: Lenengo saria, Enbeita'tar Kepa; bigarrena, Lujanbio'tar Manu



Urretxindorra (Kepa Enbeita bere emaztearekin)

(Txirrita). An zan Kirikiño ta, adeltsu baizen itz beroz, zoriondu eban Kepa, jai artara eldu ziranen txalo artean.

1905'garrenean, gerora be sarritan egin ziran lez, euskal batzar entzute-tsua egin zan Mungia'n, gizonezko ta emakumezko asko bertan baturik. Izlariak, erderaz Galarza legegizona ta Urrengoetxea ernea, ta euskeraz Errenteria'tar Gorgoni, itxas-gizona, ta Arrospide osagillea. Azkenean, bertsolari bi agertu ziran maiburukoen ondolan, alderdi bietan. Etzan ospatzen, ez olako euskal jairik bertsolari bage. Eta an egozan gazte bi, oso ernai ta ameslari; bata Azpiri gipuzkoarra zan, bes-tea gure Enbeita.

Orduantxe ezagutu neban -diñosku E.Orueta'k- Muxika'ko otzaragille izen andikoa, lan bitartean bere biotzari belarriak adi ipiñi ta aren zauskada bigunak entzunik olermenak bekoki gaiñean zelan mun egitson asmetan eban gizon jatorra. Eta aren adimen ta biotzak, zelan sortzen ebezan bere iztarrian itz eder gozoak, aapaldi garbi errikoietan biribildu-ta! Aren aotiko bertso sutsuak euskal lur-usain antxiñekoz oreturiko ereserki bikaiñak ziran... Bertso areik erriaren biotza dardarzen eben, gaiñezka eragiteraiño sarraskotan; batez be gure ele zar, erri-maitasun eta erlejiñoa kanta-kantari oiuzkatzean. Ordurarte ezagun gendun bertsolari zarra ardangela zuloan gelditzen zan, bere ardo baso aurean, bere jas ta itxura zorrotz, ziriko, lizunxe ta siñesgean. Lur ezain samar ori itxirik, benetako bertsolari, oleskari ta, olerkari maillara igonaz joian Enbeita, oro biotz-zirrara ta adierazpen, erri-

gogo bizia gero ta geiago tinkotzen ebalatzen. Adiminez ta barne-indarrez leundu ta anditu ta duinduz doakigun bertsolaria. Enbeita'tar Kepa. Bai, garrai artan egin yakun oleskari, erri-oiluari, bere erriko osagille jakintsu Jon Arrospide'k eraginda.

Gero, ogei urtean gitxienez, bere soiñeko illun, alkondara zuri ta euskal txapel baltzaz, Euskalerrri'ko zokondo guztietan ibillia dogu. Bizkai'tik urtenda, bere ibillaldi garaitzazkoetan, Gipuzkoa'ko erri ta auzunetara be aldatu zan; andik be, beti kantari aspergaitz, Naparru ta Araba'ra, an nai or bere nagusitasunaren dirdai-izpirik samur gozoenak zabal-azorik. Ondoren, mugaz bestalderaiño be bai, eldu yakun: Baiona, Ezpeleta, Donibane Lohitzun, Donibane Garatzi izan ziran, bein baiño sarriago, bere bertsojardunezko leku zoragarriak".

Carlos Claveriak ere onela esaten digu: "Recordemos el torneo acaecido en las fiestas de Sara, en septiembre de 1.925 en el que contendieron magníficamente Machin de Senpere y Larralde de Lauhossoa..." (1)

"Citaremos aquí un caso concreto. Era en las fiestas de Sara en Laburdi. Septiembre del año de 1.925. Entre los números de festejos, no podía faltar la consabida competición de bertsolaris. Se contrató, en efecto, a Matxin de Senpere y a Larralde de Louhossoa. Como es costumbre, el debate debía ser sobre tema impuesto por los organizadores. Como también es costumbre, los bertsolaris habían de ignorar el tema hasta tanto que estuviesen sobre el tablado frente a frente. En efecto, puestos ya en forma, uno de los del Jurado -bertsolari también él- cantó una copla de salutación en la tonada impuesta y anunciado el tema del debate. El primero en cantar, el de más edad de los dos, defendería la moda antigua de la falda larga en las señoras, mientras el segundo defendería la falda corta..."

El debate duró una hora, hora y media. A pesar del creciente interés de las estrofas que sin

cesar iban fluyendo, hubo que poner punto final al debate. Iba siendo tarde. Y sobre todo se hacía ya imposible continuar diciendo más razones sobre el tema, sin que las estrofas resultasen algún tanto picantes... Y el debate terminó en la plaza; pero, como casi

siempre ocurre, continuó en la taberna desbordante de público de hombres donde con más libertad pudieron despachar a sus anchas".

Olako sariketa asko galduko ziran, len esan dedan bezala, baña gure ariari jarraituz segi dezagun aurrera.

I. Migel Anton Pelloren semeak ésatén omen zuan bertso ontako puntuak bateonbatek aldatuak zirala. (A. Elícegui, Miguel Antonen semea).

BERTSOLARI GUDUAK:

Diktadura batetik irten (Primo de Rivera) eta beste batean sartu (Frankorena), baña bien bitartean, bi erakundek “Euskaltzaleak” eta “Eusko-gaztediak”, biak euskera suspertzallearak, bi bertsolari gudu famatuak antolatuz zituzten, juxtu juxtu gerra aurretik. Pizkunde garaian 1.935 eta 1.936-an izan ziran eta guretzat zorionez, biak ia oso-osorik jaso zituan Joseba Zubimendi eta Gaztedi taldeak.

Liburuxka orretan esaten digu leenago ere ospatzen zirela bertsolari-guduak eta juradu bezela ibiltzen zan bat ezagutu ere egiten zuala. Uranga-tar Iñaki. Ikusi nola dion...”Donosti zaarreen aiton bizargille bati bertsolari-guduak, antxiñako erara, taiutzen trebea zela igerri genion... Consistorio de los Juegos Florales, zelako aietan epaile bezela ibilia baitzan...”

Esan ditudan bi erakunde oiek buru zirela eta beste laguntzalle batzuekin, Euskalerrian gogoangarri izan diran bi bertsolari gudu antolatu zituzten. Joseba Zubimendik bere liburuxkaren sarreran ala ere beste gudu baten aipamena egiten digu, ara nola.

“1.930-an, Euskaltzaleak, Toribio Altzagaren omenez, -Centro Católico-antzokian, ospatu zuten bertsolari gudu bat (zeaztasun gutxi dakartza) Uranga-tar Iñakik zuzendu zuala eta

parte artzalleak Txirrita, Lujanbio, Telaetxipi, Zabaleta, Agirre eta Vitoria zirala. Lege zarrera gudu arrigarria, egin zutela eta txapeldun ao batez Bitoria aukeratu zutela...”

Ikusten denez, lege-zarrez, antxiñako erara eta abar, aipatzen dituen ezkerro, garbi dago, olako gudu edo sariketak leenago naikoa ospatzen zirala... Ikusi nola dion Zubimendik...

“Bertsolaria, geienetan, ez da bakañik yarduteko yaioa. Inguruan adiskidea bear du, arerio antzean, guda bizian aritzeko. Orduan sormena arotu, adimena zofoztu eta irudipena aberasten zaizkio.

Koplakarien arteko yardun oneri, antziñetik, gudua deitzen zaio. Etzaigu atsegin bertsolarien alkar yarduketari batzaldi, yokualdi eta kideko itzez ezagutzea, yatoñizko itz egokia dun ezkerro; izen egoki bakaña bertsolari-gudua bedi betirako.

Noiztik ospatzen ote diran Euzkadin bertsolari guduak? Gudu oien adiñik neurtu lezakenik ez dago. Zartzaro ofen ageririk ez bait-degu eskuartean.

Gure aitonak zabartxoak izan zitzaikigun beren oituren beñiak iraunkor adierazteko. Bertsolari gudu oiek gure abenda bezin zafak dirala aitortzea ez da okefeko aitortza.

Guduen beñi yakin arazi ziguten Donostiko "Consistorio de los Juegos Florales" zeritzaion alkartasunak 1877'garren urtean. Ordu ezkerotik bazkun erainkor onetxek urteoro Donostiko Teatro Zafean guduak antziñeko erara gertatzen zituan. Oleri yoku onetarako Santo Tomás eguna begiz yoa zuten.

Bidasoarunzko euskal luñaldeetan

D'Abbadie euskaltzale gartsuak, aro artantxe, ekinaldiak egiten zituan bertsolari guduari eusteañen.

Gaurko mende au argitara zitzaigunean gudu oiek, aulkeriaz yota, erioztzera zetozen. Azken-aldi lañira españar Diktadurak zekarkin bertsolarien yoku eder auxe. Betirako igartuko ote zitzaigun euskal-landerea?..."

LENENGO BERTSOLARI GUDUA:

Arrakasta aundikoa izan zan, ongi antolatuta eta prestakuntza izugarriak egin ondoren, 1.935-ko Donostiko S.Sebastian jaietan ospatu zan.

Aurrez giroa berotzeko eta jendea erakartzeko bi itzaldi garrantzitsu eman ziran. Bat, ostiralean arratsaldeko 7-etan, Eusko Pizkunderen lokaletan, D.Luis de Jauregik (Jautarkol, poeta ezagunak emana. Gaia “Xenpelar eta bere bertsoak”. Hitzaldian zear, Laborda apaiz jaunak, Xenpelarren bertso politenak kanta zituan jendearen entretenigarri.

Bigarrena, larunbatean, zazpi t’erdietan, Eusko Gaztediaren lokaletan Dionisio de Azkue “Dunixi” idazleak, eman zuan gai bezela arturik “Bilintx, Donostiko bertsolaririk jatorrena”. “Dunixik” ere laguntzalle bezela abeslari batzuk eraman zituen (Matilde Zababeaskoa, Lizarraga eta Olaizola jaunak) Bilintxen bertso batzuk kantatzeko.

Bi itzaldietan jendetza izugarria izan zan, eta sartu ezinik ere asko gelditu ziran.

Iritxi zan eguna. 1.935-ko Ilbeltzaren 20, igandea, San Sebastian eguna. Donostian, Poxpolin antzokian (Kursaal antzokian) ospatu zan bertsolari gudurik famatuena.

Parte artzaileak ogei bertsolari (22 apuntatu ziran) emen izenak.

Basarri, Zarauzkoa.

Zepai, Errezilgoa.

Txirrita, Altzakoa.

Txapel, Azpeitikoa.

Lujanbio, Altzakoa.

Abarrategi, Bizkaikoa (Ez du esaten ze erritakoa zen).

Telaetxipi, Errenderikoa.

Nekezabal, Zarauzkoa.

Sarasola, Antiguokoa (Donosti)

Mintegi, Ordizikoa.

Erauskin, Ordizikoa.

Kortatxo, Itziarkoa.

Alkain, Urnietakoa.

Larralde, Benebarrakoa.

Matxin, Lapurditarra.

Zabaleta Kepa, Errenderikoa.

Zabaleta Yon, Errenderikoa.

Sorozabal, Ayetekoa (Donosti)

Etxeberria, Ayetekoa.

Uriarte, Bermeokoa.

Ez ziran azaldu, Aldaia, Asteaskoa eta Zailpuru, Oiartzungoa.

Epai-maia: José de Ariztimuño “Aitzol”, Joseba Zubimendi, Toribio Altzaga, José de Olaizola, Manuel Lekuona eta Txomin Olano.

Zuzendari eta gai jartzalle Joseba Zubimendik egin zuan.

Bertso bakoitzari puntuak emateko era:

Bertso oso txarrari.....0	
puntu.	
Txar samarrari.....5	
On samarrari.....10	
Onari.....15	
Oso onari.....20	

Jaialdiaren egitura: Gai jartzalleak bertso bat kantatuaz ematen zien gaia eta doiñua. Asieran bertsolari guzien Agurrak.

Lenengo saioa: 2 bertso gai eta doiñu librean.

Bigarren saioa: 3 bertso gaia eta doiñua emanda "Limosnatxo bat" Otañorena.

Irugarren saioa: 3 bertso puntua jarrita erantzun.

Laugarren saioa: 5 bertso Ofizioak emanda.

Mikrofonorik gabe kantatzen zuten argazkietan ikusten dan bezela.

Lekuona-tar Manuelek, gertaera bitxi bat kontatzen digu bat-batekotasuna azpimarratzeko (Jende askok ez baizuen sinisten). Matxin Lapurdikoa eta Larralde, Benabarrakoa, juxtu-juxtu iritxi ziran leiaketara, Alkain zarra, ari zan jadanik kantatzen, gai librean eta bederatzi puntuko bertso eder bat bota zuan, eta Matxin urrena izanik eta inork ezer esan gabe, doiñu eta egitura berdinean jarraitu zuan, pentsatuaz denak molde artara beartuta zeudela... Or garbi agertzen zan bertsolarien bat-batekotasuna, aurrez ez baizegoen ezer jakiterik...(1)

Jaialdia osorik ez zuten jaso baña "Eusko gaztediko" gazte batzuk erreskadan jarririk, batek lerro bat eta bes-

teak beste bat, bertso geienak jaso ziztuzten, oraindik ezjakin samarrak izan lan oietan...! Urrengo txapelketa oso-osorik jaso zuten sistema berdinarekin (Ez zeukaten gaurko aurrerapenik) Beraz, onena Joseba Zubimendik utzi zigun liburuxkari jarraitzea izango degu. Jarraian bere itzak"...

Lenengo saioa

Antxiñako erara, epai-maiekoak bertsoan eman zion asiera, Aspaldietan Zapirain zanak, Txapilo izenordez ezagutzen zan donostiar erikoxeme yatorak erabiltzen zuan doiñu berakin.

Ona bertsoa:

Ara bertsolarien
gudia eratu,
onekin gure izkuntza
nairikan goratu.
Bakoitzak nai duena
lezake kantatu;
doiñun azke zerate
gaia aukeratu;
baiñan beti bertsoan
zuek gogoratu
euskaldun zeratela
ta ongi mintzatu.

Onekin asi zan lenengo saioa. Bertsoak dionez, doiñu ta gaia aske ziztuztela. Eta Basa'ri'k bereala onela yafaitu zion:

Uso zuri bat inguratu zait
goizean egun argitzez,
alaitasuna artxek sortu dit,
yaun maiteak, bere itzez;
eta ni orain zuen auñean
nazute pozaren pozez.
Lendabizi, entzule onak:
Agur danori biotzez!

1. M. Lekuona, idem, 94 orrialdean

Saio guzitako bertsoak emen azaltzea, amai gabeko lana genduke. Etziran gaiñera guziak artu eta bakoitzeko banaka batzuek besterik ez ditugu agertuko. Zepai zan bigaíren eta ona onek orduan asmatutako bertsoa:

Miía urte ta bederatzi eun da
Ogei ta mabosteko urtean
olerkariak etoíi gera
guztizko borondatean,
Funtzio eder bat zelebratzeko
Donostia'ko partean, (1)
oitura onak galdu baiño len
ea mogitu gaitean!

Txapel zegoan irugaíren bertsolari eta onek gai oni buruz botatako biak or dijoazkizute:

Pena guziak aldein dirate,
alai dadukat baírena,
zer kantatzea asko det baiño
au esan beat auíena:
Ainbeste anai eta aíreba
eldu gera alkaíena;
au da gauza bat euskaldunaren
maitasunak dakaíena.

Begiak argi biotza zabal
memoria daukat ílun,
nere moduan besterik íñor
ez det ikusten nik íñun.
Guztiak ondo izan gaitezen
eíregutzen det gau ta egun
eusko anaiak eta aírebak
alkar maitatu dezagun.

Saio onen beíri emateari uzteko, Basarri'k botatako bigaíren bertsoa deritzaik egokien. Auxe dezute:

Bertsolariak eman diote
Txeko efiari gorantza,
“Mireio” batek edergalútan
yosia zuan Provenza.
Ene Yainkoa egin zaiguzu
guri bear dan laguntza,
al dan azkaíren sendatu zugun
gaixo dan euskel izkuntza.

Bigaíren saioa

Oraingo onetan, doiñua epai-maiekoak bertso batean ematen zuana beaíezkoa zuten. Doiñu au guzientzat ezaguna autatu zan; eíiak aoz-ao abesten duana, Pedro Mari Otaño'k sortutako “Limosnatxo bat” deritzaion bertsoekin erabiltzen dana. Gaia ere epaiíleak esandakoa besterik etzeukaten erabiltzerik. Baldintza auetara etziran guziak bear bezela lotu. Tamalez, beartutako bidetik iges, asko ibili ziran. Baiña geiago luzatu gabe agertu dezagun maiekoak abestutako bertsoa. Berau da:

Bigaíren bertso saioa orain
zoazte gogoz astera,
ni ari naizen doiñu berean
bearturik yaíaitzera.
Nai ta nai ezik bear dezute
guziak gai auxe bera:
“Euskel izkuntza galtzen ari da
ta galtzen ba'da euskera,
Euskaleíriko seme guziak
betiko galduak gera”.

“Literatura oral vasca” pág 94 orrialdean

Bereala Basafi'k eman zion asiera.
Saio onetako bere iru bertsoak yasoak
dauzkagu ta, irakurleen atsegiñerako
izango diran ustetan, emen agertzea
erabaki degu. Iru auek dira beraz:

Itxas ertzetik entzuten dira
ama euskeraren antsiak
ta bai dirala ilun tristeak,
ene! bai negargafiak.
Nola kanpoan ala etxean
nunai ba-dauzka etsaiak,
au oldoztuta malko trinkotan
betetzen zaizkit begiak;
bera iltzen ba-da ez du askorik
paltako Euskalefiak!

Entzun zaidazu, gizonetzko ofek
entzun, emakumezkoa;
ikur aundiak agertutzea
ez da izango naikoa.
Ara nolatan mintzatzen zaigun
gure Yauregi zintzoa:
"Euskalefia euskerik gabe
bai dala efi gaixoa,
maasti ofitsu edera baiña
mats alerik gabekoa!"

Galtzen ba-degu gure mintzaira
galdua dago guzia,
esaidazute, anai afebok,
ez al da lotsagafia?
Irakasleak bezela daukat
nik ere aitortu naia
au esanikan yoan zitzaigun
Arana Goiri aundia:
"Il naiago det ikusi baiño
Abefiaren amaia!"

Bigafen bertsolaria Zepai zegon eta
onek gerogo Txifita zirikatuz gaia

galdu-azi bazuan ere, lenengo bertsoa
au bota zuan:

Nere bafengo sentimentua
nai nuke adierazi;
yakinduria gurekin degu
ifnork ezin galerazi.
Atze fitikan etofi eta
euskaldunaren nagusi,
geren gauzakin aginpiderik
guk ez al degu merezi?
kanpotar danak bear luteke
euskera ondo ikasi!

Txifita ere bertso edefik asko kan-
tatu zuan antxe. Azkenean par-antzeko
irteerakin entzule askoren atsegiñen.

Ona saio onetako bere bat:

Larogei urte gaiñean ditut,
nago anketako miñez,
Donostia'ra etofia naiz
efen aundia egiñez.
Bi bastoirekin txit lafi nabil
pausorik eman eziñez.
Euskera ia aztu zait eta
erderarikan yakin ez,
maixu batekin eskolan laxter
asi bear det latinez.

Bertso onek algara edefak egin-azi
zituan. Izan ere bukaeran buru-eskua-
kin Ariztimuño apaiza erakutsiaz, mai-
xutzat bera aukeratua zeukala adieraz-
ten zuan.

Begi aurean dauzkagu Txapel'en
saio onetako beste bi bertso. Guzienak
eziñean bioaz auexek:

Nere denboran ez det izandu
orain ainbeste deskantsu,
gure aberi maitagarria
daukagulako indartsu.
Gure gustoa zer litzakean
guk bezin ondo dakizu,
zure beñiak abestutzeko
desiaturik naukazu,
ofetarako laguntasuna,
ama Euskadi ekatzu!

Nere biotza arkitutzen da
alaitasunez betia
ikusirikan emen guziak
daukagun borondatia.
Oregatikan pentsatu det nik
alabantzak ematia
itzalditxo bat egin gabe gaur
ez da komeni yoatia;
beti goratzen saia gaitzen
gure euskera maitia.

Bigaren ekiñaldi onen beñi ematea
bukatu bearean gera eta Kortatxo'n
bertso onekin egingo degu:

Zorionean juntatu gera
anai danak alkařena,
biar bezela ez gaudelako
tristuraz daukat bařena.
Gu modu ontan bizi gera ta
gauza bat dago txarena,
anaitasuna ipiñi bear
guk orain emen lenena,
eta euskaldunak ondo izateko
euskera bear ařena!

Saio au amaitu zanean, txalotsa
izugaři bat entzun zan aretoan.
Ordurako entzuleak, antzezlekuko
bazter guziak artuak zeuzkatzen.
Abeetatik mats-alearen iduri, buruak

zintzilik. Ezin adierazi dezakegu otea
nola estutu zan.

Uřengo saiorako zalantza gogořa
zegen. Nola izango zan ez baitzekien
iñork. Eta atsedeneko asti labor baten
ondoren asi zan.

Irugařen saioa

Alde onetan, maiekoak bertsoen asiera
bertsolari bakoitzari ematen zion.
Doiñu artan yařaituz, itz-erorkera edo
rima berdiñekoa arki bear zuan bertso-
lariak. Eta guzia une berean, oldozteko
astirik gabe, zer esango zitzaionen az-
tařenik etzuala. Korapiřo auek guziak
ederki askatu zituzten gure gizonak.
Batzuek "poto" egiteko laři xamar
ibili ziran; baiña etzan iñortxo ere na-
barmendu. Entzutekoa zan aien trebe-
tasuna! Ikustekoa zan aien urduritasun
ta odolbizia! Buru belaři maiekoen
asierari zofotz eldurik, zakur gosetiak
ogi puska aidean artzen duan irudi
edo, zaldi laixterkariaren asierako
ezin-egonen antzo.

Saio oni buruz asko esan genezake;
baiño gure itzak baiño ango bertso
zofotzak irakurtzea gogokoago izango
zaizutela-ta, berak agertu bearko ditu-
gu.

Beste saioetan bezela, oni ere,
maiekoak eman zion asiera. Ara zer
bertsoekin:

Asi dezagun beřiz
bertsotan saioa,
nik oiñak emanikan
or yařaitzekoa.
Auxen bai guk degula
indarneurtzekoa;
entzun, ba, nere itzak
astera nioa.

Eta guziei banan-banan asierak eman zizkion. Berauek eta yañaitzeak emen agertzeko asmoa artu degu; baiñan ez guziak, batzuek baizik. Emen dioaz aũean egokitu zaizkigunak:

BASAŘI

Lenengoa zu zera bertsoa botatzen...

.....

Ořekin poz aundirik etzait neri etortzen.

Asi bear bet orain zerbait eřegutzen, ořela saiaturik alkar ezagutzen.

ZEPAI

Bigařena zu zera bota erantzuna...

.....

Orla agurtuko det nere ezaguna.

Asko estimatzen det orlako laguna propio ortarako da gaurko eguna.

TELAETXIPI

Zer diozu gai ontan esan zazu azkar...

.....

Euskara galtzeakin gaitz aundia dakar. Saia gaitean danok gogoz eta azkar, ikasten saia ondo naiz gazte ta naiz zar.

SARASOLA

Zeiñentzat izango da gaurkoan saria...?

.....

Irabazten duanak zeruan gloria.

Zuri erantzun eta ara esan egia; oraindik ez da galdu nere memoria.

ERAUSKIN

Orain azaldu zazu zedořen gogoa...

.....

Ia yařita nago tontoa ta eroa.

Nik ez dakit zu zeran emen toreroa; toriatzai letzakoa au dek yeneroa!

TXIŘITA

Yařaiozu zeořek ořen esanari...

.....

Eřespuesta emango iot orain gizonari.

Apenas dagon bertan eskas eta lafi; ez da ala moduan yolasean ari.

TXAPEL

Nai dezuan gaiakin
yañaitu zaiozu...

.....

Nere erantzunakin
añitu beazu.
Nola alkar mintzaten
ai geran ni ta zu,
urte askoan orla
zuk segitu zazu.

ZABALETA K.

Urte osoan zertan
enpliatzen zera...?

.....

Yan eta edanean
konpontzen ba'gera.
Gaur ere oñetara
etoñiak gera,
ia bazkaldutzeko
ba'degun aukera.

ALKAIN

Noiztikan asi zera
bertsoak kantatzen...?

.....

Nere antzeko lagunakin
nintzanen juntatzen,
beti kantatuz nintzan
euskaraz mintzaten.
Eta emen oraintxe
asi naiz aspertzen.

ETXEBEÑIA

Erantzun akiozu
nere izenean...

.....

Nik kantatuko dizut
zuk nahi dezunean.
Bastante aspertuak
gaude gu lanean,
pozik asi giñezke
orain edanean.

MATXIN

Nolatan artu dezu
oñen erantzuna...?

.....

Laxter esango dizut
ori ere gizona.
Gose ta egañia
ez da gauza ona.
Nun dezu bazkaria
prestatu dezuna?

URIARTE

Ekin zazu oraintxe
nere lagun zaña...

.....

Oñetako bai dala
orain urdu txaña.
Ba-dakizu aragiz
naizela malkaña,
kanturako amaitu
da nere indaña.

TXAPEL

Ez nuan nik beiñere
orlakorik uste...

.....

Entzunlari maiteak
fijatu zaitezte.
Goizetik arkitzen naiz
gaur ni oso triste,
bazkaltzera yuatea
obe degu laiste.

NEKAZABAL

Bertsoak botatzeko
au da yende pila...

.....

Danak pozik uzteko
bear oso abiñá
Oraindik soltero naiz,
gaiñera mutiñá
luñak tapatutzeko
a zer ezur pila.

KORTATXO

Ementxe naukazute
zutik eta tente...

.....

Ni're yarko nitzake
orain deñepente.
Siñetan yafirikan
orñbeste jente,
zu zutik egoteko
aukera zaituzte.

ZEPAI

Bertsolarien egun
zoragafi ontan...

.....

Gizonak ez du bear
beti beñiketan;
baraurikan gaude ta
eztafi neketan,
danak konporme gera
zufuteko orñetan.

TXIRITA

Ez dezazute esan
beñitsuk gerála...

.....

Eñespueta emango
diot bereála.
Galanki zapaltzen det
anketako sala;
bañño yasotzen gaitu
nola-edo-ála.

SOROZABAL

Gauza bi esatera
zuengana nator...

.....

Baldin ba-deizkiozu
zuzen ala yator.
Ez dakit zer modutan
ari zeran zu or,
nere eztafia dago,
yauna, pranko legor.

TXÍRITA

Zer dala-ta zabilta
bertsoen lanetan...?

.....

Zartu xamar naiz eta
bizi naiz penetan.
Egiak aitortuzen
dizkitzut benetan:
oz dago a'runka aundirik
alderdi onetan.

SARASOLA

Au da lanbide zai'la
gaurko au nerea...

.....

Ondo neurtu lezake
bakoitzak berea.
Eskuturikan dago
neretzat legea,
sasoirikan onena
ioana da nerea.

KORTATXO

O'felako yai-aldi

eusko-usaidunak...

.....

Naio nituke beti
orlako egunak.
Neu bekelaxe emen
danak euskaldunak
ta pozez euskerari
serbitzen diogunak.

ALKAIN

Miñikan eman gabe
nik nai nuke esan...

.....

Begira daukagunak
sinistatu dezan,
udaran ta neguan
alde guzietan
toriadore txafa
etzerade izan.

MATXIN

Au da buru austeko
lana daukatena...

.....

O'rek ematen digu
biotzean pena.
Zu buru austetan da
egafiak dena,
nik nai nuke orain yoan
zurekin ba'ena.

LA'RALDE

Emen azalduko det
al detan guzia...

.....

Nik ere egin nai nuke
egiñal luzia.
Gure izkuntza oni
ongi laguntzia,
aski da Yinkoari
laguntza eskatzia.

Iruga'ren ekiñaldi au amaitu zane-
an, entzuleen poz ta zaletasuna agertze
gaiko txalo soifua entzun zan. Ordua
au'era zioalarik, entzule askok beren
etxetara yoan bear ta irteteko asti motx
bat eman zitzaioten. Alaz ere, bazkaria

gerorako utzita amaika lagun gelditu ziran azken saioa entzuteko asmotan. Orduan asi zan.

Laugarren saioa

Ekiñaldi onetan bertsolariak binaka agertzen zitzaizkigun. Eñiak geien ikusi dituan eran eta, batzuen iritziz, beren trebetasuna argien erakusten dutena. Asieran agertu degu bakoitzari ezañi zitzaion langintza; nor-norekin ezkon-azi zituzten ere bai. Alkar eztabaida edo yolasa zioan ba, saio onetan eta maiakok asiera emateañen bertso au entzun-arazi zuan:

Bertsoetako saioa orain emendik degu beñitzen, bakoitzak lendik ezañitako langintzak gogoz goratzen. Bertsolariak binaka dira eztabaidetan azaltzen eta asieran esan bear du zer langintzan dan mintzatzen, gero, leiatuz, yañaitutzeko bata bestea menpetzen.

Bostna bertso abestu bear zituzten bikoitz bakoitzak. Eta saio onetan bere goi-argi, trebetasun ta zirikada zoñotzak ederki agertu zituzten. Erakusbiderako ona Zepai'k nagusi bezala eta Alkain'ek moñoi langintzan egindako bertso bana:

ZEPAI=NAGUSI

Lenago gazte xamaña ziñan pixkat ein dezu zartzera eta aditu izan detanez gizon motela etzera. Nik zuri lana agindu eta etzazu egin atzera, nagusi ona izango naiz ni ondo portatzen ba'zera; lenguan baiño goizago etoñi urena gure etxera.

ALKAIN=MOÑOI

Zure bostortzai etzaiyo yuten aspaldi ontan erdoirik, debalde ere eznuke artuko asko moduzko pioirik. Zer yanen paltan naukazu eta zutik or nabil doi-doirik, ta sukaldean ez da azaltzen len antzekoen urdañirik; zuk ez daukazu biñaturikan ni bezelako moñoirik.

Basañi'k eta Kortatxo'k alkar zirikatzeko egin zituztenetan, ementxe dauzkagu mai gainean eta auekin amaitu nai genduke bertso agertzea. Basañi artzai gendun eta Kortatxo nekazari; ez ditugu berak egindako bertso guziak agertuko; baiña ara emen batzauk:

BASAĪ=ARTZAI

Neureak orain aitor nai ditut,
besteri zertan galdetu,
urte polita izan degu-ta
ez gera gaizki moldatu.
Artzai lanakin ondo nabil ni
ezin nezake ukatu;
mendi maldetan noiz-nai txistu
tan,
noiz-nai bertsoak kantatu.
Mundu onetan zein ote dago
orain ni bezain kontentu.

KORTATXO=NEKAZARI

Yoan dan urtea urte ona zan,
arto gariak galanki
eta etsaien inbiriarik
nik ezin neike eduki.
Txistu egiñez, egoaldi onez,
artzaia ere ederki;
alpeñen martxa dago ortikan,
ori edozeiñek daki;
negu txañean mantendutzeko
saia beazu gogorki.

BASAĪ=ARTZAI

Ai, Kortatxori erantzuteko
ez det nik oso berandu,
lendikan zintzo yota naiz eta
damurik ez det izandu.
Alpeñen martxa ote daukadan
orrek alaxe esan du;
inbiritan bizi zerala
gauzak ongi ezagun du,
zeuk ere zerbait ingo zenduke
komentzirik ba'zendu.

KORTATXO=NEKAZARI

Astelenean izaten det nik,
nere bizi koxkoñean,
iñola ezin ibili ta ni
oso pauso azkañean.
Tabernetara yoaten gera ta,
gero iñunabañean,
geren etxera etori're bai
egundoko moskoñean;
orduan aitak ipintzen digu
atxurtxo bat bizkañean.

BASAĪ=ARTZAI

Aguro asko esan dituzu
nola bat eta bestia
tabernarako nola daukazun
zeure yokera guztia;
aizu, len asko egitekotan
oso seiñale tristia,
gaitz izango da atxurerekin
zu lanean ikustia;
kolore oiek egiterako
etzaude gutxi kostia.

KORTATXO=NEKAZARI

Bizibide bat oraintxen goaz
geran etxean artzera,
nekazariak izanikan gu
gauz onik gutxi etxera.
Larunbatean tabernara ta
astelenean gerera,
nere moduan kanpo aldetik
ibiltzen baldin ba'zera
zure aitakin asafetuta
sañitan gertako zera.

Ordubiak yoak ziran azken-saio au
amaitu zanerako. Iru ordu osoetan
egondu ziran ainbeste ta ainbeste la-

I'ngo BERTSOLARI-EGUNEKO GUDUAN TXAPELDUN
AUKERATUAK



I'ngo saria: «Basari»—Zarautz



III'gn. saria: «Zepoi»—Erexil



«Basari», Ienengo saria; «Matxin», bigafena, eta «Aikain», laugarfena

gun, lenengo bertsolari eguneko gorabera guztiak ikusirik, ango trebetasun buru-argiak in arituta.

Ostea Poxpolin aretorik irteterakotan, pozik zegon eta ala adierazten zuan ezpairik gabe.

Guzia amaitu zanean, epaikariak bertan bildu ta asi zuten azterketarako lana. Bakoitzak bere iritzia eman ondoren, azkenik erabaki au agertu zuten:

Epai-Maiaren Iritzia

Epa-maiekoak beren iritzia agertzeko, kontuan eduki bear izan dituzte bertsolarien sorpena, irudipena, bertsotarako ezeztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oiñen berdintasuna.

Baita ere emandako gaiak erabili zituzten edo ez; eta bakoitzari emandako ogibidearen yabe egin zan edo ez.

Gauzak zeatz aztertu ondoren diogu:

1'go. Ao batez, iritzi berdiñekoak izanik epai-maiekoak txapeldun "Basari" bertsolaria aukeratzan degula.

2'gn. Bigařen sarirako "Matxin"; irugařenenerako "Zepai", laugařenenerako Alkain aukeratu ditugula. Oietxek puntuz-puntu leku oiek irabazi dituztela, beste batzuek ia berdintsuak badituzte ere.

3'gn. Beste batzuek ere aukeratuak izango zirala, sari ugariagoak izan ba'lira, ba beste bertsolari yaiorik bazan gudu onetan-ta.

Epai-maiekoak: Ariztimuño'tar Yoseba (apaiza), Altzaga'tar Toribi, Olaizola'tar Yoseba, Lekuona'tar

Imanol (apaiza), Zubimendi'tar Yoseba, Olano'tar Txomin.

Eusko Gaztedia'n

Berandu zan bazkaria asterako. Iru ordu abesten yardun eta bertsolariak ainbeste aldiz beren zirikadakin yan-edanak eskatuafen, orduan ez bazitzaioten eman, Donosti'ko Eusko Gaztedia'ren areto apaiñean ez zitzaioten ezer ukatu. Ba-zeukaten an eztañia zerekin busti. Eratzai leak guziei poz eman nairik, bazkari txarteletan au irafi-azi zuten:

BERTSOLARI-BAZKARIA

"Euskaltzaleak" eta Eusko Gaztekiak eratua

Asteko txorakeriak

Eusko Gaztedi afoza zilipurdika

Bertsolari erako legatza

"Euskaltzaleak" arkume eria, patata prejituakin

Euskadi'ko goxo ta prutxa

Ardorik onenak - Sagardorik bikaiñenak

Kafia, esteak, ezetzekoa ta naiko kia ateratzekoa

Ondoren: bota bertsuak!!

Amaika par egin-azi zuan alako euskera mordoioak eta atzeneko deiarri bai bertsolariak azkar erantzun ere. Bazan antxe bertsoa ta alaitasuna!

Bazkalondoan, Ariztimuño yaunak, itzaldi eder baten ondoren, epai maieko iritzia agertu zuan eta an aitatutako bertsolariei sariak onela banatu zizkaten: Basari'ri 100 pezta; Matxin'i 75; Zepai'ri 50 eta Alkain'i 25.

Bertsolari bakoitzak eskeřak bertso edeřetan eman zituzten eta berak txalo edeřak yasoak ziran.

Ondoren "Euskaltzaleak" bazkune-ko lendakari dan Monzon aldun gazteak, itzaldi sakon mamitsu bat egin

zuan eta egun onen eratzai leei eskafak emanaz amaitu zan sari-banatzea.

Ez ordea bertso ekiñaldia. Goian Eusko Etxea'k daukan aretoan entzuki batzuen bitartez ederki entzuten zan

bekoa ta goian ta bean, ostez beterik, bertsoa bazter guzitan.

Onela ospatu zan Donostia'n Lenengo Bertsolari Eguna ta itxuraz u'ringoak ga'rantzi aundiagoakin ospatzeko zaletasuna gelditu da.



Zarautz-ko Batzokia-1935ngo. Ilbeltza'ren 27'an «Basarri»ri Omenaldia. Ezkerretik esku-
bira: Zinkunegi'tar Joseba, Ariztimuño-tar Joseba «Aitzol», Ormaetxea'tar Nikola «Orixe»,
Olano'tar Txomin, «Basarri», Zubimendi'tar Joseba.

ONDORENAK

Usurbil'ko "Gabon" bazkunak, Udañegi bertsolari zanaren izenean, txapeldun irteten zan bertsolariari sari bat eskeiñi zion. Eskeintz ori bertsolaria bizi zan eñian egitea eratu zan ta, ofela, Zarautz'en ufengo igandean au zala-ta yai-aldi egoki bat gertatu zuten.

Goizeko amaiketan, "Lizardi" gure olerkari irakasle izena eman dioten antzoki edeñean, bertsolari ekiñaldi bat egin zan. Basafi, Nekezabal, Zepai ta Alkain'ek ongi atsegingu zuten ango ostea.

Asieran Ariztimuño yaunak, Euskadi'ko bertsolarien edestia agertuaz oraingoan yo-bidea argi agertu zigun. Guzientzat izan zan naiko txalo.

Bazkaltzen adiskide pilo edeña batu giñan eta amaieran, beñiro "Euskaltzaleak" bazkuneko izenean itzegiñaz, "Aitzol" argiak Udañegi saria eskeiñi zion Basafi'ri. Bai onek bertso edeñetan eskañak eman ere.

Zinkunegi yaunak, andik eta emendik zorionak emanaz etoñitako ufutidazki ugariak irakuñi zituan.

An zegon "Orixe" ere eta txaloak beartuta, eskuartean dabilkien olerkien beñi eman zigun.

Ezin aztu Bañena yaunak irakuñi zigun idazkia. Berau Enbeita'rena gendun eta Basafi bere zuaitzeko kimoa beñia bezela agertzen zuan.

Egun edeña Zarautz'en igarotakoa. Bertako semeak beren olerkaria goraldu nairik eratu zuten yaia guzien atsegiñeko izan zan.

Onekin amaitzen degu, irakurle, gai oni buruz egin ziran yaian beñi ematea. Beñiz ere urtebete bañu orlako edo aundigoko yaia ospatzeko era izango al degu.

Ondoren, bertsolaritzaz bi iritzi edo idazlan garrantzitsu jartzen ditugu. Bat, Manuel Lekuonarena eta bestea Jauregi'tar Koldobika-rena "Jautarkol".

BERTSOLARIAREN EGUNA

Lekuona'tar Im.'ek
Egun aundia. Zor dioguna bertsolariari emateko eguna.

Zorretan geunden, izan ere, gure bertsolariekin. Zor aundia genien euskaltzaleok gure olerkari baserritarrai. Euskerari egin dioten onagatik alde batetik -askok ez uste arren, bizi aundia eman bait-diate bertsolariak gure Euskerari-; eta zor ori aitortu bearrean, euskaltzaleok, zorra ukatu ta artzeko-duna bera ezetsi ta zokoratu egin degulako bestetik... Zor bikoitza. Zor aundia...

Bañan, ona etorri ordain-eguna. Ordain-eguna. Egun aundia. Bertsolariantzat eta guretzat. Guztiontzat. Aientzat, gaur, artzekoa jasotzen asiko diralako; eta guretzat, gaur geren buruokin pakean bizitzen asiko geralako. Ez bait-lezake bere buruarekin pake onik izan, besterekin zorretan bizi denak.

Eguratsik gabe, aizerik gabe, ezin bizi diteke izaki bizidunik. Arnasa artu bear du biziko danak. Eta eguratsetik artzen degu arnas... Sar dezagun txoria kristalezko ontzi itxian, eta ken dezaiogun eguratsa... Berealaxe degu illik.

Izkuntzak ere bizidunak dira. Eta egurats mota asko dituzte. Eta egurats

ematen dietenak, bizia ematen diete, izkuntzai. Olertia da, berriz, izkuntzaren eguratsetan bat. Eta bertsolariak ditugu egurats orren sorle, egille.

Oker dago, izkuntza, bear deguna esateko bestetarako ez dala uste duana. "Bear" duanetik bereala jotzen dun gizonak "on" duanera. Baita on duanetik "eder" duanera ere. Jatorriz bait-da gizona eder-zale. Zerbaitegatik esan oi-da, baita, jatorriz dala gizona ertilari edo erti-zale ere.

Izkuntzaren ertia -izkuntzaren ertietan bat- olertia edo poesia da. Berelaxe jotzen du izkuntzak olertira... Bizi diteke, soil-sollik bizi, izkuntza, olerti gabe. Baita izaki bizidunak ere bizi ditetze oxta-oxta bizi, lau orma-arte, geiagoko arnas-biderik gabe. Bañan nola? Noiz arte? Tisiko sartu arte...

Eguratsa, egurats ugaria egurats garbia bear bait-da sendo ta luzaro bizi al izateko. Izkuntzaren biziak berriz, oso luzarokoa, betikoa izan bear...

Eta nork ematen dio gure Euskerari poesi-egurats ori? Nork ateratzen du gure Euskera eguneroko bearretatik eta igoerazten -mendigoizale antzo-Parnaso'ko egurats garbietara?...

Olerkariak... Olerkari landuak ere bai. Bañan baita olerkari baserritarrek ere, baita bertsolariak ere. Ori ezin

ukatu dezake iñork... Nork bio-tan geiena? Ez dakit orixe... Bañan ni beti baserritar.

Euskera mordolloegia erabili izan dutela bertsolariak geienetan? Egia. Garbiegia berriz geienetan olerkari landuok. Eta geiegi guztia da Euskerarentzat kaltegarri.

Bañan -eta ontan ageri da euskeltzaleok bertsolarietara diegun beste zorra bañan norena da bertsolariak euskera mordolloa erabiliaren errua?

Zer daki baserritar gizagajoak, zer dan garbi ta zer dan mordollo izkuntza gaietan? Guk berriz, bai. Guk badakigu. Bañan jakin-da zer egin degu ez dakianari erakusteko? Ezer ez. Egitez -ta itzez ere bai askotan- ez jakiña dala ta iguindu egin degu gure bertsolaria. "Utikan" esan diogu gizagajolari.

Zer egin bear genduan, ba? Ta zer egin bear degu onez aurrera?

Maite izan. Eta goratu. Goratu. Esanez ta egitez. Jaso, itz batean. Jaso, batez ere bertsolarien kultura. Landu, landu bertsolarien gogua. Erakutsi bertsolarietara euskera garbia. Itzak, itz garbiak. Joskera, ez. Joskeraz gu baño euskaldunago dira bertsolariak...

Erakutsi batez ere Aberriaren edes-tia. Aberriaren ipuiak, erakutsi beren olerkietan erri-jakintza bear bezela erabiltzen. Gaia eman. Gai goititu xamarra eman. Poema-gaiak ere bai. Ia orain arteko zeinbait gaiak gañera goi goitituagoak ere kantatzen dizkiguten.

Bañan gaiak ematean, Jaungoikoagatik! ez galduerazi len duten etorri jatorrik. Len duten ixuri garratx bixirik,

ez Jaungoikoagatik moteldu. Ez dezatela ezertxogatik ere, gu olerkari landuen olerkirik irakurri; ez dezatela gure olerki landu zozorik txasta. Gure poetika noratiorrak ez lizkiguke ondatu besterik egingo gizajoak...

Arren, ez dezatela galdu beren nortasunik. Nortasunik, personalidaderik gabeko aunditasunak baño ondotoz geiago balio du nortasun apur-apur batek ludiko kultura-perietan. Arrotzak beintzat askotaz geiago eskertuko digute. Bañan ez arrotzak bakarrik. Guretzat geurontzat ere askotaz ohea da olerkietan nortasun apurtxo bat. Nortasuna, txiki naiz aundi, dan bezelakoa dala, aunditasun-azi, aunditasun-zain izan oi da errientzat. Azi bizkor. Zain mardul. Aunditasun aundiak ekarriko dituan zain ta azia. Nortasunik gabeko aunditasuna berriz, gaurko ogita bigarko gose. Utsa.

Gure maastia landu bear degu. Gure maastia atxurtu, jorratu. Txakoliña besterik emango ez ba-digu ere, dantxoa gurea izango degu orduan. Eta ez gaitezela iñolaz alperrik izardi, gure txakolintxua ardo biurtu naiz. Nai zoroa litzake ori. Ba du txakoliñak bere ao-gozo, ardo biurtu gabe ere. Ez da, ardo jatorra bezain indardun izango, bañan edariak izaten dute, indarrez gañera beste ao-gozotxorik ere.

Saia gaitezen, beraz, gure bertsolariak obetzen; bañan duten txakolin-ao-goxo-garratxa bat ere, bat ere! galdue-razi gabe. Ez ditezela Jaungoikoagatik kutsa besteren elertietan. Ba'dute berak beren elerti. Elerti jator orrek, obetzeko, ez du bat ere ondatu bearrik.

Orra zer egin bear degun gaur gure bertsolarien alde. Len egin bear gendua. Obetu; bañan ondatu gabe.

Poeta “landu” biurtzekotan, obe dute gure bertsolariok lengoan geldi. Obe dute “bertan goxo”.

BERTSOLARI EGUNA

Jauregi'tar koldobika

“Euskaltzaleak” eta “Euzko-Gaztedi”ak asmo txalogarria artu zuten Bertsolari-eguna eraltzea burutatu zitzaizenean. Euskaldun onak bezela jokatuz zuten beintzat.

Gure egunetan izan ere, bertsolaria aintzat artu gabe geneukan; gure aurrekoak zioten itzalik ez genion agertzen, aiek jotzen zizkieten txalorik jotzen ere ez; politika gora ta politika bera ari giñan, eta bitartean gure ezaungarririk argienak itzaltzen ari zitzaizkigun. Euskera poliki-poliki lurjota gelditzen, gure dantza zarrak baztertzen, kanta antziñakoak aztutzen ari giñan. Ta jakiña, ¿nolaz bertsolariak ere ez txokoratu?

Bana, Jainkoak biotza ikutu-ta noski, jaiki dira gure artean gizon jator batzuek eta deadarka esan digute: “Euskaldunak, bide okerretik goaz... Goazen bidetik oraintxe bertan itzultzen ez ba gera gureak egin du. Laister Euskalerrria, ez da izango Euskalerrri. Geok, gure eskuz, ustekabeen, gure Erri maiteari il-obia irikitzen ez ote gera gero ari...?”

Leen ere, auen antzeko itz ederrik pranko entzunak gaituzute, ezta? Bañan, itza, ta pitza zerietela ikusi oi genituan beti, lanean ekiten, iñoiz ere

ez ori besteentzat. Jesusalen'go jakintsuak magoei egin zieten, besterik ez: beste bidea erakutsi, eta berak etxeko su-bazter goxoan gelditu.

Orain mintzatu zaizkigun gizonok, ordea, tankera goitarragokoak ditugu; lan ta lan ari zaizkigu begien aurrean. Orrelakoen deadarrak entzutea, gustua da, beintzat; ain gureak ditugun gauzak eriotzaren atzaparretatik ateratzeko darabilzkiten egiñalak, ikustekoak dira. Eta jarraitzekoak batez ere.

Oraingoan Bertsolari-eguna asmatu ez digute, ba? Gure-gureak baitira bertsolariak; aztu-xamar baigeneuzkan. Beste zenbait errietan ere, bai omen dira. Bai noski; baña gureak edozein errikoei bertsotan eramango diotenak.

Bertsolaritasuna ez da gure artean, atzo goizeko gauza. Esango nuke euskera bera bezin aintziñakoa degula. Argatik gure aurrekoak ainbeste maite zituzten bertsolariak; gu baño euskaldunagoak baiziran. Gaur euskaldun geienei gure bertsolari guziengatik ez al zaie bost-ajola? Juan dan mende edo gizaldiaren asieran, 1802'garren urtean, Billabona'ko enparantza zabaLEAN, bi bertsolarien artean izandako jarduketaren berri izango dezute nos-

ki. Txabalategi ernaniar eta amezketar Zabala bertsolari trebeen arteko bertso-gudua zan. Otsaillan, gendea biltzeko urte-girorik txarren-txarrean.

Entzuleak bai omen ziran lau milla. Orain amar milla gutxigo dira orduan lau milla baño. Errex eta laister ibiltzeko ortan geroztik emen degun aurrapena ez da gero txantxetakoa.

Askok usten duten baño zer-ikusia aundiagoa dute gero, gure bertsolariak, bai Euskalerrari dagokionez baita mundu guziko erri-kulturari dagokionez ere. Aozko-literaturaren ezagarririk nabarmenenak, oixek ditugu; erri ikasi gabearen, edo obeto, eskola gabeko erriaren poesi-kutsua dariotelako ez ezik baita erri-biotzaren taupadak beren bertsoetan iraulitzen trebe diralako ere, aintzakotzat artzekoak ditugu bertsolariak. Erri-erraietan sortu, erri-magalean bizi erritarrez inguratirik bertsoak asmatu ta bota kantari, ¿nolaz, ba, erri-kutsurik aien bertsoak ez dute izango? Ez dezute inoiz bertsolari dan bertsolaria bakarrik abesten topatuko; naitanaiezkoa du bere inguruan erria. Eta erria ere, bertsolari baltz bezelaxe adi-adi egongo zaio; azken-lerroa igartzen duala. Ba-daki ederki gure erriak zeintzuk diran bertso egokiak, eta zeintzuk aldrebesak antz-ematen alajaña. Eta gero gure erriak kulturik ez duala esango digute. Ba-zeudek mundu zabalean orrenbesterako gauza ez diran amaikatxo, beren buruak jakintsutzat ba dauzkate ere.

Bertsolaria, erritan uts-utsa degulako, erriarekin bat eginda bizi zaigulako gure erriaren nai, asmo, buru-auste

eta bizieraren adi-erazlerik jatorrena degu. Euskalerraren gogo-edestia, biotz-kondaira, aritik mataza bezelaxe, bertsolarietatik atera genezake. Ez dira, beraz, gure bertsolariak auntzaren gauerdiko eztula. Bertsolaririk gabe Euskalerrria ez litzateke Euskalerrri. Ain gureak ditugu bertsolariak.

Alare gerta liteke euskal-garbizaleen batek edo bere baitan esatea; “Elerti edo literatura guziak benetako olerkien bidez marduldu oi-dira: baño “Bertso-berriak” deritzaien euskera zarpail eta mordolloz jantzitako bertso oiek, euskera edertu ta goratu? Guziak erre ta kixkalduko ba-lira ere, ez luke euskerak kalterik”

Iritzi onek egiaren tankera pixkatxo bat ba-du baño ez da egi borobilla nere ustez beintzat. Aitortu dezagun bertso-berririk geienak, antziñakoak batez ere euskera narratzez, erderakada lotsagarritz burutik-oñetara jantzirik ageri zaizkigula. Eta norena da obena edo errua? Euskaldun jakintsuena bakar-bakarrik. Saiatu al-gera bertsoetako doai ori, seaskatik zekartenen buruak argitzen eta biotzak maitasun goitarrez berotzen? Ez al-ditugu, ba, geok, ez-jakintasunik gogorrean bere artan utzi? nola nai degu, eskola dutenak bezela, ba, mintzatzea edo aien bertsoak akatsik gabeak izatea? Alaz ere, ez dira bertso-berri oro, erri-kutsurik edo arte-izpirik gabekoak: ba-dira gatzaz josiak biotz ikutu goxoz igurtziako irripar atsegiñez orniuak irudipen argiz jantzitakoak baita, azal-gogorpean mami ezitia dutenak ere.

Bertsolaritasunaren balioa bat-batean asmatu ta itz-neurtuetan gogorape-

nak, biotzondoak, ateraldi parragarriak eta erantzupen erneak kantari esatean dago. Ez da ori gauza utsa: ez esan, orrek meriturik ez duela; sarigarri da orixe, nun-nai ta beti.

Gañera, gure erri-ezaugarri berezi-berezia degu, ta piztutzero ta indarberritzera beartuak gaude, euskaldunizenik zikindu nai ez ba' degu beintzat. Lotsakizun beltza litzateke guretzat, gure ajolakabe euskal-oitura jator onek gure artetik iges-egiteari emango balio. Ez da nunpait ori gertatuko. Bertsolari-eguna, bertsolari-pizkunde izango baita.(1).

Lenengo bertsolari egunak izugarrizko arrakasta izan zuan, baña utsune batzuk ere ikusi ziran.

Bat, altabozik gabe ixiltasun aundia bear zala ondo entzuteko, orregatik jendeari eskatzen zioten bertso bakoitzaren ondoren ez jotzeko txalorik, baizik saioa bukatutakoan. Gañera, jaialdia luzatu egiten zan geiegi, eta bertsolari geiegi ziran.

Bigarrena: Ogei bertsolari kantatzen. Naizta orain baño doble azkarrago kantatu, geiegi ziran leiaketa baterako.

Irugarren: jaialdiko bertsoak jasotzeko naikoa sistema motza eta fiakai-

tza. Ala ere ez degu eskertu besterik egiten, bestela denak galdu egingo baiziran. Gaurko aurrerapenik ez baizegoan.

Laugarren: erabakia au artu zan, txapeldun irtetzen zuanak, beste hiru urtetan ez zuala kantatzerik izango eta omenaldi bat egingo zitzaiola urte artan bertan. Basarriri Zarautzen egin zioten eta geroztik epailari bezela ibili zan.

Beraz, urrengo txapelketarako utsune auek zuzentzen saiatu ziran. Obeto entzuteko "Victoria Eugenia" ospatu zan. Bertsoak jasotzeko gazte koadrilla ongi prestatuta joan zan eta kanporaketak edo eliminatoriak aurrez egin ziran, jaialdia laburragoa irten zedin. Baita ere bertsolariak obeto probatzeko gutxiago ziran. Eragozpen auek denak gogoan izanik ospatuko zan urrengo gudu edo txapelketa.

Gauza bat gelditu zan garbi: Bertsolari gудuek bazutela jendea erakartzeko "zerbait" "imana" berezia. Jendez gaiñezka egon baizan Poxpolin antzokia. Begi belarriak loturik jarraitzen zioten bertsolarien saioari. Jendearen gozamina ez zan nolankoa izan.

(1)"ARGIA, 1935'ko Ilbeltza 20

BIGARREN BERTSOLARI GUDUA. (1.936)

Parte artu eta ikusi zuanak baña obeto ez degu guk agertuko eta Joseba Zubimendik idatzitako liburuxkari jarraituz, agerpen batzuk besterik ez ditugu egingo.

Aurreko bertsolari gudua amaitu bezain azkar asi ziran urrengo urtekoa prestatzen “Euskatzaleak” eta Donostiko “Eusko Gaztedia”. Beraz, askoz obeto antolatuta izan zan 1.936-koa.

Jaialdia laburtzeko eta bertsolari denak elkar probatzeko, kanporaketa sistema asmatu zan. Errialdeka egin zan.

Gipuzkoa bi zatitan banatu zan.

Tolosan egin zan inguruko bertsolarien kanporaketa eta bestea Azpeitian.

Napar anaiak eta Auñamendiz bertaldekoak, Elizondon izango zuten beren kanporaketa.

Tamalez, bizkaitarrik ez zan agertu, naizta eratzailleek alegiñak egin. Denera ia ogeita amar bertsolari agertu ziren 30 juxtu-juxtu. Bederatzi Tolosan, Amaika Azpeitian eta beste amar Elizondon.

Ikusi dezagun nola agertzen digun Joseba Zubimendik Tolosako jaialdia...

TOLOSAKO KANPORAKETA (1935-ko Abenduaren 29-an)

Tolosako kanporaketa (1.935-ko Abenduaren 29-an.)

Tolosako Urreta frontoian “Aberri-etxean” gaiñean zegoen pelota-leku politean, arratsaldeko ordubi t’erdietan, ooltza bat frontoi erdian jarririk, ospatu zan lenengo kanporaketa, bigarren “bertsolari gudurako”.

Txirrita beti bezela bi bastoirekin etorri zan eta euskalzale askoren artean jaso zuten ooltzara, “tablao” gaiñera. Jende oorezko asko zegoen lenengo erreskadan exirita. “Jon Andoni” diputadua, Ciaurriz Jauna, Euskadi buru-batzarreko lendakaria, José Eizagirre, Antonio M. Labayen, Txomin Olano eta abar...

Juradua auek osatu zuten: José de Aristimuño "Aitzol"
Joseba Zubimendi.
“Basarri”
Múgica eta Lopez Mendizabal (Tolosakoak)

Bertsolariak: Juan Bautista Kortajarena “Ondartza” Asteasukoa.
Ignacio Narbarte “Pantxo” Asteasukoa.
José M. Txapartegi. Asteasukoa.
Etxeberria. Andoaingoa.

Fco. Arregi “Moxo” Irurakoa.
Eusebio Ezeiza. Ibarrakoa.
Ugartemendia. Amasakoa.
Lujambio. Errenderikoa.
“Txirrita” Altzakoa.

Izena eman eta agertu ez ziranak (Rufino Elustondo. Albisturkoa.)
(José Gaztañaga. Zaldibikoa)

Zubimendi Jaunak jaialdiari asera emateko “Aitzol”i eman zion itza. “Aitzol”-ek jaialdiaren egitura bertsolari eta entzule guzici esplikatzen die.

Zergatik kanporaketak...? Aurreko txapelketan jende geiegi izan zalako.

(20 bertsolari geiegi zirala jaialdi baterako). Kanporaketa aietan aukeratuak, finalean parte artuko zutela eta abar. Egingo ziran saioen egitura onela izango zala:

- 1) Gai eta doiñu librean.
- 2) Gai bat emanda denak ari kantatu, emandako doiñuan.
- 3) Puntuak jarri eta aiei erantzun, zorrotz eta zeatz.
- 4) Bakoitzari ofizio edo ogibide bat emanda, lagunaren aurka bere ofizio defenditu.

Zubimendik, bertso baten bidez (berak kantatuaz) pare bana bertso kantatzen jartzen ditu denak txandaka.

Bigarren gaia: “Kristoren jaiotza eta gabon oiturak”. Emen anekdota polit bat. “Moxo” gaia bazterrerara utzirik Sabino Arana gorai patzen gogor ari zan eta amaitzean esan zuan...”zeruan egongo zela”. Txirritari txanda iritxi zitzaionean onela erantzun zion: “Bera bazkaltzen ari zala, zeruan egon zala eta an Sabino Aranarik ez zuala ikusi...ja...ja!

Irugarren saioa: Zubimendik puntua jarri eta bertsolariek erantzun. Jendearentzat au izaten zan saiorik gustokoena. Izugarritzko abilitadea baizuten puntuari erantzuteko (Gaur ez dutena).

Laugarren saioa: Ogibideak bakoitzari emanda biñaka.

Ondartza - Artzai
Pantxo - Nekazari
Txapartegi - Nagusi
Etxebarria - Morroi
“Moxo” - Ikazkin
Ezeiza - Errotari.
Ugartemendia - Indiano.
Lujambio - Maixter.
Txirrita - Itzai.

Denak amaitzean, Juradua erabakitzera erretiratzan zan eta jendeak oiuka, Basarriri bertso bat kantatzeko eskatzen dio onela erantzunez:

Agur eder bat egin nai nuke
ta entzun nere abotsa
etxe onetara etortzeko ba
ez det izan iñoiz lotsa
alaitasuna elkarrekin da
gure biotzan au poza
Gora euskaltzale begikoak
Gora ta gora Tolosa. (1)

Gero “Aberri-etxeko” antzokian, antzerkiaren utsune batean sariak eman ziran onela: Lenengo: Txirrita 75 laurleko. (pta)

Bigarren eta irugarrena biak berdin: Lujambio eta Etxebarria. 40 laurleko. (pta)

Laugarren: Ezeiza. 15 laurleko. (pta)

Bertsolarien trebetasuna ikusirik jendea gustora eta parrez etxeratu zan.

Uztapidek bere liburuan onela agertzen digu...

Tolosako kanporaketa

Milla bederatzireun da ogei amabostean zan Tolosan bertsolarien konkurso edo eliminatoria bat izan zana. Ni ere apuntatuta nengoan Azpeitira joateko, eta nere kezka banituan nik ere; eta joan bear nuala pentsatu nuan Tolosara, ta baita joan ere.

Abenduan izango zan ta igandea(2). Etxean bazkaldu ta jetxi nintzan Zestuara; an Urolako trena artu ta Azpeitira joan nintzan.

(1) 1935-XII-29

An, Tolosara pelota-partidora joan bear zutenak bazeuden korredore batzuek, eta, ola, aiek tokia bazeukatela taxisean da piska batean itxogiteko.

Aiek preparatu bitartean kape bat artu nuan, eta noizbaiten azaldu ziran aiek ere. Abitu giñan da baita iritxi ere Tolosara.

Aiek “Goazen prontoira!” esan zidaten neri korredore aiek, baña etzegoan orduan Tolosako prontoian ni eramateko partidirik. Nik bertsolariak

TOLOSA'KO GUDUAN JARDUN ZUTEN BERTSOLARIAK



1. Ondartza-Asteasu. 2. Ugartemendia-Amasa. 3. Pantxo-Asteasu.
4. Ezeiza-Ibárra. 5. Moxo-Irura. 6. Txapartegi-Asteasu. 7. Lujanbio-Errenderi. 8. Etxeberria-Andoain.

ikusi bear nituan derrior, da baita joan ere.

Bertsolariak batzokian ziran. Sarre-ra nunbaitetik lortu nuan da sartu nintzan batzoki ortara; eta alako batean bildu ziran bertsolariak ere.

Ala, lenengo, ongi-etorria edo agur bana berak nai zuten bezela kantatzea libre zuten. Bina izango zan. Aiek etxean pentsatuta eraman zitezkean. Danak illaran ederki kantatu zuten.

Bederatzi bertsolari ziran: Txirrita ta Saiburu, Txirritaren lengusua; Ibarako Ezeiza, Irurako Moxua ta Andoaingo Etxeberria; oiek bost eta lau Asteasukoak: Ondartza Bautista, Pantxo zarra, Ugartemendia eta Txapartegi.

Gero gaia obligatua zan, da Gabon edo Olentzeroetako oiturak esan bear zituzten. Aurreko urtean, Donostian, euskera edo euskal gaia eman izan bear zuten, da batzuek ura gogoan eta etxean pentsatutako bertsoren batzuek igual eramango zituzten.

Irurako Moxua, beintzat, nabarmendu zan. Arek etzuan Gabonik eta Olentzerorik aitatu; Sabino Arana Goiri'rekin asi zan eta ortan bukatu zan aren saioa. Baña arek ainbat txalo irabazi zuanik, egun artan etzan izan besterik; arek ainbat parra eragin zuan

nik ere ez. Arek baño obekiago gaia erabili zutenak izango ziran, baña uraxe grazian erori zana an.

Beste batzuek baziran: Lujanbio bat, konparazio baterako. Onela kantatu zuan:

Gabonetako oitura zer dan emango det aditzera;
ni ez nijua sentitzen dedan gauzarikan ixiltzera,
al baldin bada jarri diraten gaiari zuzen eltzera.
Basarrietan zer egin oi dan gogoratutzen al zera?
Kapoi-paria nausiteira ta bakallagua etxera.

Beste bertsorik egun artakorik ez det gogoan ola esateko.

Gero opizioak emanda eta puntuak edo asierak bestek emanda ere bai. Gero atzenean agurra, eta ala bukatu zan egun artako bertso-saioa.

"Bederatzi bertsolari ziran: Txirrita ta Saiburu, Txirritaren lengusua; Ibarako Ezeiza, Irurako Moxua ta Andoaingo Etxeberria; oiek bost eta lau Asteasukoak: Ondartza bautista, Pantxo zarra, Ugartemendia eta Txapartegi."

(1) Periódico "El día" 30-XII-35

(2) (195 orrialdean) "Lengo ggunak gogoan"



Tolosako Txapelketa 1935 - 12 -29'an.

Bederatzi bertsolari ziran: Txirrita ta Saiburu, Ibarako Ezeiza, Irurako Moxua, ta Andoaingo Etxeberria; oiek bost eta lau asteasukoak: Bautista Ondartza, Pantxo Zarra, Ugartemendia eta Txapartegi.

(Ezkerretik: Txirrita, Saiburu, Ugartemendia, Ezeiza, Moxo, Etxeberria, Txapartegi, Pantxo Ondartza).

Foto: Jesus Elosegui

BIGARREN KANPORAKETA AZPEITIAN (1.936-ko ILBELTZAREN 1-AN.)

Urte berri egunez amabi t-erdietan “Etxe-zuri” jatetxean elkartu ziran bazkari eder bat egiteko, Epaimaikoak, bertsolariak eta beste bertso zale asko. Mai-buruan “Aitzol, Zubimendi, Telesforo Monzón, Basarri, Txomin eta Luis Olano, José M. Arrieta apai-za, José M. Gurrutxaga euskaltzalea... eta abar. Inon ez degu aurkitu epai- maia zeñek osatu zuten, zeatz bein- tzat, baña pentsatzen degu, betikoak eta Azpeitiarren bat ere egongo zala beste erri guzietan bezela.

Bazkal ostean, Monzonek eta Ait- zolek itzegin zuten. Bertsolarietara jaial- diaren egitura esplikatzeke eta bertso- larien zirtoak ere ez ziren faltatu. Andik denak batera, Azpeitiko azoka- enparantzara joan ziran eta an bertan ospatu zan bertsolari kanporaketa.

Amairu apuntatu ziran eta amaika etorri, auethek:

Kortatxo - Itziarkoa.
Uztapide - Zestuakoa.
Nekazabal - Zarauzkoa.
Txapel - Azpeitikoa.
Akotegi - Azpeitikoa.
Muño - Bidanikoa.
Zepai - Errezilgoa.
Uranga - Itziarkoa.

Etxaniz - Azkoitikoa.
Garate - Azpeitikoa.
Eizmendi - Azkoitikoa.

Gai-jartzaille. Joseba Zubimendi.
Jaialdia nola joan berak ongi agertzen digu, beraz ikusi:
Urtebeñi egunez, Azpeiti'n

Goieñiaña bertsozale dala, lendikan ere ba-genekigun; baiña egun onetan Azpeiti'n ikusi genduana ikusi arte, ez genduan uste ofelako zaletasunik iñon izan zeikienik ere. Ederki adierazten zuan egi au, bertan bildu ziran entzule sai lak eta batez ere bertaratu ziran bertsolariak.

Amaika bertsolari bildu ziran ego- ardiko amabi ta erdietan “EtxeZuri” yatetxe izentsuan.

Bazkal ostean esan zitzaizen bertso- larietara nolatan yokatu bear zuten eta ba- tez ere, asaferik gabe, anaitasunean, bertso lanetan nola ibili.

Afatsaldean, azoka enparantza za- balean, asi zan bertso gudaketa.

Ona zeintzu azaldu ziran:

“Kortatxo”, Itziar.
“Uztapide”, Zestua.
“Nekezabal”, Zarautz.
“Txapel”, Azpeitia.

AZPEITI'KO GUDUAN JARDUN ZUTEN BERTSOLARIAK



1. Nekezabal—Zorautz. 2. Kortatxo—Itziar. 3. Muño—Bidania.
4. Txapel—Azpeitia. 5. Etxaniz—Azkoitia. 6. Eizmendi—Azkoitia.
7. Garate—Azpeitia. 8. Uranga—Itziar. 9. Akotegi—Azpeitia.

“Akotegi”, Azpeitia.

“Muño”, Bidania.

“Zepai”, Érezil.

Uranga, Itziar.

Etxaniz, Azkoitia.

José Garate, Azpeitia.

Antonio Eizmendi, Azkoitia.

Lenengo saioan bertsolari guziak eguneko yaia, Urtebefi, goraldu zuten.

Bigarren saioan gai au zuten nai ta naiezkoa:

“Iñaki Deuna, San Inazio'n egintz onenak aukera ta bere aintzaz, aipatu, gora azpeitiafen izakera.”

Ederki erabili zan gaia. Batek Iñaki Deunaren zuzentasuna agertzen ba'zuan, besteak Yosú Langundia ta bere semeak goraltzen zitun.

Iruga(r)en saioan epai'le batek zirikatzun zituan eta zo'rotz eta zuzen erantzunaz, artu zituan bereak eta bi. Tolosa'n bezelaxe saio au izandu zan entzulentzat pozgarfen.

Azkeneko ekitaldian bakoitzak ogibide bat zuan eta bestea zirrikaka menpetzen saiatu ziran.

Uztapide'k kartzelan sartu nai zuan Kortatxo! Muño ardo-edale agertuaz,

Akotegi'ren arandegia bota zigun an-kaz gora. Zepai a'antzale zala itxaso ta ibaiko a'ariak bereganatu zituan eta Uranga, nekazari yato'ra agertu zitzai-gun. Zertan ya'faiitu guzien lanak emen agertzen. Zein baiño zein obeto egon zirala esatea naikoa. Lan ede'fa ya'fi zien epai'iei zein onena azaldu zan erabakia artzeko!

Onekin amaitu zan Azpeiti'n bertsolari yaia. Entzuleak zorutzen eta eratzai'leak pozik.

Udal-etxean bildu ziran gero epai-kariak eta gauzak ongi aztertu ondoren, erabaki au artu zuten:

Lenengo saria: Zepai'k, 75 laurleko.

Bigarren saria: Txapel'k, 50 laurleko.

Irugarfen saria: Uztapide'k, 25 laurleko.

Laugarfen saria: Muño'k, 15 laurleko.

Erabaki au aditzera eman ondoren Eusko Etxea'ko aretoan itzegin zuan Monzon yaunak eta bere eskutik yaso zituzten sariak. Bai bertso ede'fak bota ere eske'fak emanaz.

Uztapidek onela agertzen digu jaialdi gogoangarri ura...

Azpeitiko txapelketa

Etorri zan, ba, Azpeitirako egun ori ere ta joan egin bear, izena emana nengoan da.

Izena emateko, Zarautza joan nintzan, Basarriren tabernara. Azken Portuko taberna zeukaten Basarrik edo bere aitak, da araxe joan nintzan. Basarri ori, mutil ederra ta bikaña, antxe zegoan; etxean billatu nuan.

Deitu nion, ba, an bazter batera, eta esan nion zer pentsamendu neukan. Da baietz esan zidan, gauza orri indar eman bear zitzaioa, eta:

- ¡ez aiz izango utsena, nik aditu izan dedanez!

Itz auetxekin esan ere egin zidan.

Peria-eguna zan Zarautzen, eta bertan apaldu nuan, Azken Portun; eta atzeneko trenean etxera joan nintzan.

Azpeitiara joateko egun ortan, Zestuara jetxi nintzan ta an meza entzun. Ez dakit zan Eguberri-bigarrena edo Urteberri(1); oietako egun bat zan. (1) 1936'eko urteberri-eguna.

Gosaldu ondo lenengo ta preparatu egin bear zan, da lagun bat ere banuan gure auzokoa: Txortxiko Santi zan lagun ori. Gosaltzen litro bat edan genduan da gutxitxo ote zan; nere lagunak etzuan asko edan, baña beste litro erdi bat eskatu genduan da edan ere bai. Ta:

- Oraintxe nago ni bertsotan egiteko moduan! -esan nion nere lagunari.

Eguardi aurretxoan bazegoan tren bat Urolakoa, eta antxe sartu ta joan giñan Azpeitiara. Gure lagunak, an ziran batzuek, billatu giñuzen, eta an ibilli giñan kalean.

Gero Etxezuriko tabernara joan giñan; an gendukan, ba, bazkaria. An zeuden juradukoak eta danak; bertsolariak ere bai palta ziranak. Osatu giñan guziak eta bazkaltzen asi giñan, da jendea serio samar. Alkar ezagutzen ez genduanak giñan bertsolariak ere asko ta piska bat konpianza artu arte.

Bazkaria aurreratzen ari zan eta jendea asi zan bertso eske; ta or asten da Zepai ori bertsotan. Arek ni ezagutzen nindun, eta neri bota zidan lenbizikoa. Eta nik ere bota egin bear da asi nintzan, ba, ni ere. Biok egin genduan lenbiziko saioa.

Geiago ere bazeuden an ixilik egoten errezak etziranak, eta utzi genien txanda. Beste geiago ere jardun ziran.

Gero kapeak artu, bapo jarri giñan, da joan giñan kantatu bear genduan tokira. Zineren baten izango zala uste det bertsotan egin bearra, ta amaika bertsolari bagiñan: Zepai, Txapel, Bidaniko Muñoa, Errezilko Loidisalletxe, Azpeitiko Orkazarre, Azkoitiko Katuaingo Txatua, Azkoitiko Garate Mokarako basarriko aitona, Zarautzko Nekazabal, Itziarko Uranga, Itziarko Kortatxo, ta ni Arruakoa, Uztapide.

Bertsolaririk iñon egongo zanik ez genduan uste, ta Azpeiti-Azkoiti buel-

ta onetan perretxikoak bezela sortu ziran; Errezillen da Itziarren ere bai. Batere bertsolaririk izango etzan tokian, amaika bertsolari azaldu ziran, eta poz ematen zuan. Alkar aizatu egiten genduan guk.

Eta geienak gazteak gañera. Garate zan zar samarra. Urrengo, Txapel, berrogei ta bi urte zeuzkan orduan Txapelek. Ogei ta amar urtetik gorakorik baldin bazan ere, Bidaniko Muñoa izango zan. Beste danak ogeitik ogei ta amar bitarte ortan ibilliko giñan.

Juradua edo epai-maikoak Tolosan ziranak berak ziran, eta asi giñan, ba, bertsotan. Asiera agurra zan, beti bezela, ta danak kantatu genduan. Gutxi gora-bera, bakoitzak bere agurra pentsatuta edukiko genduan, da lenengo buelta ondo.

Gero, opizioak emanda, binaka bertsolariak. Ni Kortatxorekin gertatu nintzan. Danakin ez naiz gogoratzen orain zein zeñekin gertatu giñan, baña gogor egin genduan. Iñor etzan gero egitekotan gelditu.

Guk, Kortatxok eta biok, ura uztargillea eta ni itzaia giñuzen opizioak, eta gogoan dauzkat oraindik bertso batzuek guk botiak:

Uztapidek:

Nere oraingo iriak ziran
pizkor ikaragarriak,
aundi-txikian berdin samarrak
ta biak gorri-gorriak,
juan dan neguan Bitoriatik
periatik ekarriak;
da iri oiek ondatu ditu
Kortatxoren uztarriak.

Kortatxok:

Uztarriaren kejak, ematen
ari zerade alperrik,
lenago ere ondatu izan
dezu zuk iri ederrik;
tripatik daude ariñ antzian,
or ez da beste okerrik;
jaten ez duan iriak ez du
izaten lanen bearrik.

Uztapidek:

Iri biziak dirade oso,
Pirineosko arraza;
uztari ori ondo jarritzen
ez dago orain erraza;
eten gabeko ao zabalka
ta ezin artu arnasa;
buruko miñez jarri ziran ta
geiago etzaie pasa.

Kortatxok:

Uztari paltak billatzen
ibilli zaitez poliki,
iri oiek zer janda dabiltzan
jendiak baldin baleki;
debildadiak ematen dizten
buruko miñak izaki;
besterik eziñ asmatu du ta
uztargillien aitzaki.

Kortatxok eta nik olaxe egin genduan opizioak emanda, eta besteak etzuten gutxiago egingo. Buelta ori egin genduan da gero puntutan beste saio bat; atzanean agurra danak bueltan bota genduan, da epai-maikoak bazuten lana gu juzgatzen.

Kortatxok, puntua jarri zioten batean, beti bezela lau puntuko txikian jartzen zuten asiera ta bostean bukatu zuan, da nik esan nion:



- Oraingo orrek bost puntu bazetian, Kortatxo!

- Etziok inporta! Zenbat eta puntu geiago kantatu, orduan da geiago emango ditek!

Orixe esanda utzi nindun.

Bukatu zan beintzat gure zein-geiagoka ori. Juraduak edo epai-maikoak anari ziran puntuazioa sumatzen; alako baten atentzioa aukitzeko eta Zepai zaila aurrena. Sekulako txalo-zaparrada jo zioten Zepai orri. Ta bigarren

Txapel. Ta irugarren zein esango otezuten da nere izena deitu zuten.

Orduantxe ez nintzan asarre! Gizon dezentea nintzan! Bost durokoren bat izango zan guzia ere ango premia, baña etzegoan bost duroengatik saltzeko nere puestoa.

Laugarrena, berriz, Bidaniko Muñoari eman zioten, eta orrelaxe banatu zituzten ango premioak. Premiorik etzutenai ere bina edo iruna duro eman zizkaten, eta jendea ixilik gelditu zan".

IRUGARREN KANPORAKETA ELIZONDON. (1.936-ko Iibeltzaren 12-an)

Baztango iri nagusian egin zen Nafarroako eta Ifar-aldeko bertsolari-rien kanporaketa.

“Eusko-Pizkundeak, autobus bat prestatu zuan goizeko bederatzai t-erdietan irtetzeko Donostitik, nai zutenak bertan Elizondora joateko, bidean kotxez zijoazten askorekin egin zuten topo eta denak elkaturik Lekarozko Eskola-ikusgarria bixitatzeraz joan ziran, kaputxinoak ongi erakutsi ondoren, denak Elizondora joan ziran.

An bazkari eder bat prestaturik zeukaten “Eusko-etxea” edo Batzokipean, bertsolari, epai-mai eta Donostitik joan ziran geienentzako (Hernandorena ere an agertu zan). Euskal kantu eta bertso, bazkari zoragarri bat igaro zuten. Bazkal ostean “Aitzolek” itzegin zuan, Aberri zaletasunez beterik, onela zioen;

“Ifarra eta Egoa bildu gera gaur emen, arraza baten semeak eta denok euskera degu lokarri. Gu euskerarentzat, euskera Aberriarentzat eta Aberria Jainkoarentzat”.

Jaialdia nolakoa izango zan esplikatu zuenean denak jeiki eta “Antxitonea” trinketera joan ziran. Ordurako jendez gaiñezka zegoen pelota tokia, ezin sarturik epai-mai eta bertsolariak.

Ooltza baten gaiñera igo ziran, baiña ondo kostata.

Bertsolari auek agertu ziran:

Mixel Dargaitz-Otsondo. (Nekazari)
Simon Ibarra - Sumbilla. (Eiztari)
Joanes Ibarra - Ziga. (Ardo-zale)
Pedro Ibarra - Ziga. (Uraren alde)
J. M. Mutuberria - Etzaburu. (Zurgiña)
Jean Harriet - Alduides. (Ezkondua)
Joanes Iriarte - Banka. (Ezkongaia)
Marziel Larrosa - Banka. (Errotaria)
Patxi Elorza (Elorga) - Lekaroz. (Argiña)
Beltran Sahargun - Banka. (Artzaia).

Epai maia: Aitzol, Basarri, Zubiri “Manezaundi”, Larreko “Irigaray”, Detxepare (Benafarrokoen ordezkari) eta Joseba Zubimendi, gai jartzaille.

Oitura zan bezala bertso baten bidez asten du lenengo saioa, doiñu eta gai librean.

Bigarren saioa: gaia “Euskaldun ororen maitetasuna...”

Irugarren saioa: puntuak jarrita erantzun (trinketeko argiak piztu ziran, jadanik iluntzen ari zalako).

Laugarren saioa: Ofizioak emanda (Goian daude beren ofizioak jarrita) (Zubimendik ez du jartzen Pedro

Ibarra, lenengo listan gero ofiziotan bai, ez dakigu parejak egiteko edo parte nola artu zuan...)

Juradua bildurik azken erabakia onela izan zan:

Lenengo saria: Joanes Iriarte - 60 pta.

Bigarren saria: J.M. Mutuberría - 40 pta.

Irugarren saria: Jean Harriet - 25 pta.

Laugarren saria: Mitxel Dargaitz - 15 pta.

Sariak Eusko-etxean eman ziran eta bertsolariek bertso ederrez eskertu zituzten sariak. Parte artu zuten bertsolari guzietan eman zitzaizen zerbaít bidai eta gastutarako.

Azkenik, Lapurdiko Matxin zenari (aurreko txapelketan bigarren gelditu zenari) koplá edo bertsoen bidez oroi-garri bat egin zitzaion, ontan Basarri izan zan aintzindari. Besterik gabe bukatu zan egun zoragarri ura! Denak Donostiratzeko irrikaz.

Ikus dezagun nola agertzen digun Zubimendi berak...

"Elizondoko kanporaketa
Ilbeltzaren 12'an Elizondo'n

Baztan'go uri nagusi onetan egin zan irugañen azterketa. Napar ta benapañak, zuberogar batekin neurtu ziran. Amar bertsolari azaldu zitzaizkigun beren trebetasuna neurtzera ta pozik egon litezke eratzaileak, an agertu zan euskeltzaletasuna ikusiz.

Auñetik, Batzoki-pean, bazkari eder batera bildu ziran bertsolari ta eratzaileak, Donosti'tik autobusean

yoan ziran bertsozaleak eta bertako aunitz yende. Ariztimuño yaunak, itz apaiñez eta esan mamitsuz, maitekor, agertu zien bertsolarien eginkizuna: euskaldunen batasuna ta euskerari be ar diogun begirapena bere gaia.

Astindu zituan goi ta be; berotu zitun entzulien biotzak ta bertan sendotu zan gure euskel izakerako maitasuna. Txalo beroak yaso zitun "Aitzol" ospatsuak eta orobat bertsolariak beren koplá pozgañiekin.

"Antxitonea" trinketea, oztez gainezka zegon afatsaldean, bertsolariak asteko garaia baiño len. Agertu ziran auek, eta beren lekutan yañi ondoren ona zeintzu aurkeztu zizkiguten:

Mitxel Dargaitz, Otsondo.

Simon Ibaña, Sumbiñá.

Jones Ibaña, Ziga.

J.M. Mutuberría, Eltzaburu.

Jean Harriet, Alduide.

Joanes Iriarte, Banka.

Marziel Lafosa, Banka.

Beltran Sahargun, Banka.

Patxi Elorga, Lekarotz.

Epaiñeak, yuezak, beste lekutan bezela Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedia'ren ordezkariak, ta "Basañi" igazko txapeldun bertsolaria. Napar aldeko epaiñeak ere beañeko ziran eta Zubiri yauna "Manezaundi" idazle ezaguna ta "Lafeko" izen pean gordetzen dan Irigarai idazle azkaña. Detxepare gaztea Benapaña'koen izenean ikusi genduan epaikari.

Lenengo saioa asi zanean, bereala antzeman genion, gauza politak entzuteko zoria izango genduala. Zer-esan,

doiñu ta gaiñontzako guzia azke izanik, eñez yardun ziran beren lanean entzulien pozerako.

Bigarren saioan gai au eman zitzaizen:

“Euskeldun oron maitetasuna yasorik goi-goienara ore berakin gure arbasoen antxiñetako euskera.”

Bai bertsolariek ederki erantzun ere. Zazpi “probintziak”, berak zioten eran, gogoz goraldtu zituzten. Zeiñek baiño zeñek beroago ta indartsuago.

Une aietan etzan euskeldunentzako mugarik, eta entzulei, asieran, txalorik ez egiteko esan ba’zitzaien ere, ezin utsirik, bein baiño geiagotan auzi zan agindua. Ura zan eusko gafa!

Irugañen saiorako, beti bezela, epailari batek ematen zien asiera. Bai erantzun bikaiñak entzun ere. Emen, entzuleak naiko pañe ta algara egin zuten.

Azkenengo saioan, langintza gaie-takoan, Dargaitz laborari zala, astindu zuan Iba(r)a Simon eiztari zalako ta bai onek ziri edeñak sartu ere.

Ardua aupatu naiean Ibaña Joan yañi zan eta bere anai Pedro, uraren edertasunak goraltzen. Gure ustetan, ura goraldtu bear zuanak gogo txañez ekin zion.

Hañiet Joanes’ek ezkonduen alde yokatzen zuan eta Iriarte gazteak ezkongaiak gora naiean. Batak ezkontza

edeña zala, besteak, azke, libre obeto bizitzen zala. Sendia, familia, goseak eukitzea baiño obe zala ezkongai ta Yaunak daki zer esan zizkien alkañi. Entzutekoa benetan!

Lañosa eñotari ta Sahagun artzai ziran. Alkar lañutu zuten derki!

Atzenik, Elorga argin zalarik, Mutubeña zurgin, arotz, agertu zitzaizkigun.

Saio onekin amaitu zan “Antzitonea” ko yaia. An bildutako yendea, pozaren-pozez, beñiz ofelako bat noiz eratu leiken galdezka irten zan.

Edeña, benetan, Elizondo’ko yaia au!

Andik laxter epaikariak alkar arturik erabaki au azaldu zuten:

Lenengo saria: Joanes Iriarte, Banka, Benapa(r)a, 60 laurleko.

Bigarren saria: J.M. Mutubeña, Eltzaburu, 40 laurleko.

Irugañen saria: Jean Hañiet, Alduide, Benapaña, 25 laurleko.

Mitxel Dargaitz, Otsondo, Baztan, 15 laurleko.

Sariak Eusko Etxea’n banatu ziran eta bertsolariak eskeñak kopla banakin eman zituzten. Beste sari gabeko bertsolari guziei ere, r¹ zan guzia eman zitzaizen ta “guziak konten”, alde aietan esaten duten eran.

Baztandañak diotenez, ez dira bere-
abakoa zutuko bertsolari yaia onetzaz.

ÉLIZONDO'KO GUDUAN JARDUN ZUTEN BERTSOLARIAK



1. Mutuberia - Eitzaburu (Uitzama) 2. Harriet - Alduide. 3. Larrosa - Banka. 4. Elorga - Lekarotz. 5. Sahargun - Banka. 6. Ibaña (Juan) - Ziga. 7. Ibaña (Pedro) - Ziga. 8. Ibaña (Simón) - Sumbila.

BIGARREN BERTSOLARI GUDUA: 1.936-ko Ilbetzaren 19-an.

Aipatu ditugun iru kanporaketak egin ondoren, Donostiko “Victoria Eugenia” antzokian ospatu zan bigarren bertsolari gudu gogoangarria. Geiago puska-batean ez zan ospatzerik izan gerra zitala zala eta...

Ogeita amar bertsolarik parte artu zuten, oietatik amar aukeratu ziran finala jokatzeko, baiña bat ez zan azaldu. Ondoren aipatzen direnak parte artu zuten:

Zepai - Errezil.

Dargaitz - Otsondo.

Etxeberría - Andoain.

Harriet - Aldudes.

Uztapide - Zestua.

Lujanbio - Errenderi.

Txapel - Azpeiti.

Iriarte - Irurita.

Txirrita - Altza.

(Mutuberria - Eltzaburu) ez zan azaldu. (gaixorik zegalako)

Epai-maia auek osatzen zuten: “Aitzol”, Altzaga, Lekuona, Olaizola, Leizaola, eta Basarri. Onek gai-jartzaille bezela egin zuan, Zubimendi Jaunari, amagiarreba il zitziailako egunborean.

Argazkietan ikusten den bezela, garai artan ez zuten mikrofonorik (gora-

gaillurik) erabiltzen, beraz abotsa oso garrantzizkoa zan.

Egun gogoangarri ura goiz-goizetik asi zan. Amarretan meza “Matxin” Lapurdiko bertsolari ospetsuaren ize-nean (1.935-ko guduan bigarren geratu zana). Meza ondoren denak “Victoria Eugenia” antzokira abiatu ziran, baiña dena leporaiño beterik zegoen. Jaialdiari asera emateko “Aitzol” Jaunak itzaldi eder bat egin zuan bertsolari zarrak gogoratuaz eta batez ere “Matxin” aurreko urtean bigarren gelditu zana.

Jaialdiaren egitura au izan zan.

Beti bezala gai jartzailleak bertso baten bidez asera ematen zion. Kasu onetan Basarrik ematen zien bertsolari guziei doiñu eta gaia.

Lenengo saioa: Gai eta doiñu librean “Onela goraldiaz antxiñako euskera” (2 bertso)

Bigarren saioa: “Gerra zitalaren ondoren txarrak” (iruna bertso)

Irugarren saioa: Puntuak jarrita erantzuten (bosna bertso)

Laugarren saioa: Ofizioak emanda. Basarrik bertso baten ematen die ofizio bana. (Bakoitzak seiña bertso)

Orra emen ofizioak: Zepai - Uztargillea eta Txirrita - Itzaia.



Txirrita

Iriarte - kontrabandista nagusia eta Dargaitz - morroia.

Etxeberria - errotaria eta Txapel - Ikazkina.

Harriet - tabernaria, Uztapide - sagardo zalea eta Lujanbio ardo zalea.

Auek irunaka jardun zuten, Mutuberria ez zelako azaldu.

Gudu ontako zeaztasunak eta bertsoak Joseba Zubimendik jaso zituen ongiena eta berari jarraituz emen jarriko ditugu bere liburuxkatik jasorik bertsorik garrantzitsuenak eta artu ziren erabakiak.

Ikusi zazute nola dakarren jaialdia:

"Donosti"ko Batzaldia

Or ikusi dituzuten neurketa ondoren, azken batzaldia Sebasten Done aurgunear, igandea zala-ta ospatu genduan.

"Victoria Eugenia" antzoki apaiñean etzan entzule geiagorentzat lekurik. Sañera guziak aurretik saldu ziran ta kanpoan geldi bear izandu zuan ozte-tza izugarriak.

Goizeko amaiketarako epai-maiekoak gertu zeuden. Ariztimuño yauna buru zutela, Alzaga, Leizaola, Lekuona, Olaizola ta Eizmendi yaunak.

Beñi auek ematen dizkitzutena zan bertsolariet asiera eman oi ziona; baiña sendian bat-bateko ez-bear itun batek aldendu zuan bere eginkizunetik. "Basañi", igazko txapelduna, ainbeste eratara goraldtu bear degun gazte iaioak eldu zion gure lanari. Ta bai ederki egin ere!

Eñietan egin ziran neurketatik amar bertsolari aukeratu ziran azken batzal-

di onetarako. Emen beren izen ta yatorfizko eñiak:

Zepai, Eñezil.

Dargaitz, Otsondo.

Etxeberria, Andoain.

Harriet, Aldude.

Uztapide, Zestua.

Lujanbio, Eñenderi.

Mutuberria, Eltzaburu.

Txapel, Azpeiti.

Iriarte, Irurita.

Txiñita, Altza.

Amar bertsolari auetatik Mutuberria etzan azaldu ta gaiñontzakoak emen azaltzen ditugun era berean yañi ziran. Oiala yaso zan unean txaloak keia zerrioten. Ixildu ziranean, Ariztimuño yaunak itzaldi eder bat egin zigun bertsolari zañak gogoratuaz eta batez ere igaz emen gendun Matxin zanaren izena aipatuaz.

"Baseñi" k asierako bertso au abestu zigun urera:

Tolosa'n eta Azpeiti'n
izanduak gera,
baita Elizondo'n ere
zuek entzutera.
Onenak bezelaxe
zaituztegu aukera;
orain bertsoan azke
zoazte astera
doiñuan ere libre
nai dana esatera,
onela goraldurik
antxiñeko euskera.

Bereala asi ziran bertsolariak. Zer ta nola egin zuten, gure itzak baiño bertsoak berak obeto erakutsiko dizu-

te. Eusko Gaztedi'ko mutilak saílean yaíta yaso zituzten bertan esandako bertso guziak. Baleike bat edo beste bear bezela zuzen ez artea; ez da be-rea eíua, alegiñak egin zituzten ta geiago ezin. Geok ofaztu ta osatu ditugu guzia artu etzituztenak eta irakufi dituzten bertsolariak diotenez, ederki artuak daude. Emen dituzue, bada, lenengo saioko bertso batzuek.

Lenego saioa

ZEPAI

Yaiotzetikan emen nabil ni munduan batetik bestera guregandikan yoaten zaiguna ez da etortzen ostera.

Bi gauz ditugu maitagaíriak Yaungoikoa ta euskera, anai maiteak, saia gaitezen oítura zafak eustera.

DARGAITZ

Agur, agur gustora naiz ementxe Gipuzkoa'n ta bertsua eman bear dut guztiaren gustuan.

Gauza esamindu ongi, gaudelarik munduan gero aníma iltzen danian salba deiía zeruan.

ETXEBERÍA

Matxin zanari oroipen orde z gaurko nere agiriak, ura zan baiña argiagorik berotu al du eguzkiak. Entzule onak eskeiñi bada berai otoitz bereziak ta gaurko yaien eratzaiíiei damazkiet gorantziak.

HÁRIET

Agur, emen gogotikan daude entzule guziak, zuengana naiz etofi Napaía an utziaz. Zeruko Yinko yaunari emanen dut graziak emen bilduta gerala zazpi probintziak.

UZTAPIDE

Nere agu(r)a emen bildu diran eusko donostiaíari eta lantegi zoragaíi au emen yartzen dutenari. Eskefak eman bear dizkiet epai maieko yaunari oiez geíñera teatro ontan dauden entzule danari.

LUJANBIO

Laguntza on bat eskatzen diot gure Yaungoiko altsuari eta beraren indaíarekin ekin bear diot lanari. Au baiño toki edefaguak ez dira izaten nunari, egun on bat desio dizutet emen zaudeten danari.

TXAPEL

Olerki batzuk abestutzeko guri digute agindu, pozik nitzake euskera alde zerbait egingo ba'gendu. Oraintxe baiña aldi obian en naiz askotan izandu anai maiteak danok alkafi bear diogu lagundu, ez gendukake ezer paltikan ori egingo ba'gendu.

IRIARTE

Ni ere ager bear naiz,
bertsolari beña.
Barkatu ezaidazute
ez naiz arigafia.
Nik gazte gaztetandikan
maite dut Euskaleña,
guziok maite dezagun
geure abeña.

TXIRITA

Agur eder bat egiten diet
ementxen dauden danari
ta batez ere gu yuzgatzer
etofñi diran yaunari;
oiek ipintzen duten guzian
elduko diot gaiari
Yainkoak zerbait emango dio
beian saiatzen danari.

ZEPAI

Ia urtia da Matxin zana
yauna mundutikan ñla
ura zan gizon pormala eta
alde guzitan umiña;
neu ez nitzake abiatuko
lagun obiaren biña,
biotzetik desiatzen diot
zeruan gerta dediña.

DARGAITZ

Gazte gaztetik ezagutu dut
nire lagun Matxin zana,
bertsolari zuzena zen eta
konprenitutzen zuana.
Iltzela aditu nienian
nik artu nizuen pena!
Yainkoak zerun izan dezala
Matxin zanaren anima.

ETXEBERÍA

Matxin zanaren eriotzakin
biotza zidan xamurtu
zenbat malko zuen begietan
ordun ote ziran urtu.
Gai onetan bota dituzute
emen zenbait itz neurtu;
orain bere luñaldekoak nik
emen nai ditut agurtu.

HARÍET

Oña orain guzieren
egiaz eraiteko
gure eña duzut nik
beti-beti maiteko.
Yainkoak Euskaleña
maiterik beti dauko
bere alde ni naizena
ez dut ez ukatuko.

UZTAPIDE

Nere maixu ta guzi det emen
olerkari ikastola,
ene anaia maitagañiak
artu entzuteko aioala.
Emen ikusten det nik yendiak
maitasun pixka ba-dula,
bestela oinbeste euskeldun ezin
onera bildu iñola,
biotz bañendik agurtutzen det
euskaldunaren odola.

LUJANBIO

Ai nere biotzeko laguna
zera euskaltzale piña,
batzuetzat ori da poza ta
beste batzuetzat miña.
Askok ez dituzte ezaguten
goña eta urdiña;
baiña gizonak ez du izaten
beti aldarte berdiña;
gaur akaso gaizki izango da
lengoan ondo egiña.

TXAPEL

Nere anaia biotzekuak
eta afeba kutunak
eldu zaizkigu bata bestea
ezagutzeko egunak.
Mundu ontatik yoan ziraden
gure afeke aitonak,
Euskalefi'ko lege santuak
ondo gorde zituztenak.
Euskadi zaia maite dezagun
euskera maite degunak.

IRIARTE

Gernika'ko arbolak
gogor dauka azala.
Ni ere mintzaten nuzu
euskal zintzo bezala.
Gure zeruko Yinko yaunak
konserbatu dezala,
euskaldunak ar dezaten
arbol oren itzala.

TXIRITA

Zuberoan ditugu adar bi
Laburdi irugaena,
Bizkai, arakar, gipuzkoaak
osetzen degula dana.
Ori munduan yakiña dago
ez beza inork artu pena,
nik oiek emen ikusi eta
asko poztu zait baena.

Bertso onekin amaitu zuan Txiri-
ta'k lenengo saioa.
Bigaen saioa
Bigaena asterako esan zitzaien gaia.
Ba-dago bertso edefik emen.
Asiera emateko "Basaí" k onoko au
abestu zuan:

Entzun anaiak; orain asten da
bigaen bertso saioa:
doiñuan azke, baiña gai batez
guziak yaíaitzekoa.
Ez dezute, ez, gauza alaiá
orain kantatutzekoa:
"Gea zitalen ondoren txarak
azalduz bota bertsoa
ta agertu sutsu zein geiagoka
beretzako gofoa".

Onela yaíai zioten dei oni:

ZEPAI

Orelakorik aditzerikan
ez nuan uste oraindaíño,
yaoan dan aspaldin ibiña da
gai ontan pranko engaiño.
Asarietan oituak gaude
bekotatikan goraiño,
orelakorik etzan entzuten
asi-asirik gaurdaíño;
pake txarena obeago da
gefarik onena baiño.

DARGAITZ

Gerla eta pakea ez dire
mundu onetan berdañak,
gerlak beti eman bai ditu
bazter guztietan miñak.
Ba-dakizkigu negargañiak
egundo ere ez atsegiñak
gerlan aragi baiño naigo dut
bakietako sardiñak.

ETXEBERÍA

Une onetan yaíri gaituzte
gu auérez-auéfe geáari,
goáotorikan izan ezkeroz
bear genioke aáí.
Andik etoári ziran kalteak
ezagaturik ugari,
galde bestela seme kutunak
palta dituzten amari,
sendietako gauza ituna
beti izaten da ori.

HÁRIET

Gerla gauza izugaáia
au bear da konprenditu
lehenekuak probatzeko
naiko zalakoan nauzu.
Onegatikan aditutzian
kezka gogor bat yartzen du;
beti bakean bizi gaitean
nik izan dut desiatu.

UZTAPIDE

Kaltegaáak dira guretzat
beti emen gudateak,
ba-dakizute lenego ere
itxi zituzten atea.
Gauza tamala ematen digu
ara gudari yoateak
eta zertako dira emengo
aberatsen izateak,
geáaren kontra yaikiko dira
Euskaleáiko yendeak.

LUJANBIO

Geáa kontuan ni aritzea,
ongi pentsatu ezkeru,
nere esanak agertu eta
ori ez da misterio.
Egun batian baiatu giáan
goáotatuz ezin geio,
anaiak igual ikusten dira
alkaáeren kontrario
eta oáela yaáiak ditu
geáa dezula merio.

TXAPEL

Negar malkuak saltatzen
zaizkit
gauza oiek ikusita,
euskaldun askok kanpoetara
egiten dute bixita.
Kulparik gabe amaika seme
gelditzen dira an ilta,
iáola ere kaáera onik
ez dute irabazita,
esku onetan gelditzen dira
ama seme,

IRIARTE

Nik ere pakea duzut
egitako maitia,
oáela espliketzen dut
bertso au eáaitia.
Nai duzuiat adirazi
gerlak duan kaltia;
baiáan euskaldun artian
segur bakia.

TXIRITA

Zenbat efrezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan.
Ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan
semeak ge'ra ez yoateatik
mutil zar gelditu nitzan.

ZEPAI

Ge'ra gaixtuak sortu ziraden
Jesus munduan zan artian,
petralkerian bizi nai eta
beti go'roto batian.
Obe genduke orain yartzea
alka'ren borondatian,
go'roto txar'ak utzi ditzagun
ongo gogoratutzian
zenbat anaia kulparik gabe
izkutatu dan lurpian.

DARGAITZ

Zenbat amak negar egin zun
gaixuak ge'fatian
orain bezela desiatzen nun
euskaldunaren artian
bizi zedi'la orduan ere
gustora eta pakian,
euskaldun pranko bea'rik gabe
an sartu zuten lurpian,
negar egin dut amaika aldiz
gauza au gogoratuzian.

ETXEBE'RIA

Sendi askoren edertasuna
nola degun osatuba,
maitetasuna degula bide
izagun begiratuba.
Pakia dala ongi dago bai
Euskale'ri maitatuba,
u'futiratu al ba'lerike
zitalkeri go(r)otuba
eta oraindik u'futiago
ge'ra madarikatuba.

HAR'IET

Ge'ra'ren egitekoak
nola ditudan ikusi
egin ziran gauza itxusiak
guziarendako, noski.
E'ri guzia odol go'ritan
ikusi dut aurtzaki
Etsaiengantik gelditu dira
antxen eskualdun zernai.

UZTAPIDE

Ge'ra o'fretxek ipi'ñitzen dit
bere aldiko itzala
zei'nek ez daki gauza o'fretan
leen ibili zirala.
Urte batzuek igaro dira
guda ori izan zala,
kristau artean o'felakua
bai negarga'ria dala,
be'riz'e guda bildurga'tik
Yaunak aparta gaitzala.

LUJANBIO

Ni toriatzen asko ari dira
geientsuenak alpeñik,
Euskaleria'n ez degu bear
iñondikan ere geñik.
Iñortxok ere ez degu maite
ez frantzes eta napañik,
nunai anaiak bat egiñikan
ez gera geok bakañik,
danak pakean bizi gaitean
ez degu geña birañik.

TXAPEL

Au ere esan egin bear det
agoa bete-betian.
Jesus maitea serbitutzen det
beñogeñi ta bi urtian.
Ez det pentsatzen izango danik
iñorentzako kaltian,
oitura zañai yañaitutzer
ea saiatu gaitian,
geren bizitza igarotzeko.
Jesus'en borondatian.

IRIARTE

Ez dirade politik
gerlaren suietak,
or gainian emanen ditut
añazoina supitak.
Txíñita'k eman dizkigu
eñespuesta politik,
mutil zar dala, semerik ez du,
eñan digu Txíñitak.

TXIRITA

Asko dirade nai lutekenak
mundu danian nagusi,
pakian bizi diran kristauak
bere soldadu ta guzi.
Orlakuari tira atzetik
yoan dediñía igesi,
geña nai duan gizonak ez du
salbaziorik merezi.

ZEPAI

Arazoi aure esan bear det
oso umil ta serio,
egia klaro ager dezagun
gezuñak ez du balio.
Betí or daude gizonak gertu
geña yartzeko propio,
geren denboran yañi digute
gañakin ainbat erio,
zenbat gurasok negar egin du
orixen dala merio.

DARGAITZ

Egi aundiak eñan bear ditut
nere biotz-biotzetik,
bear gabe partitzen gera
bertze batzuen atzetik.
Nik zertarako yoan bear nuen
gerlara euskal eñitatik,
zazpirak bat izan ba'giñan
etzegoan orlakorik,
besarka gaiten orain guziok
geio lotzeko gogotik.

ETXEBERÍA

Ge'fa dala ta nik esan nai bat
ementxen daukat ba'ruan,
gertatu zala urteak dira
ez da aztuko luzaruan.
Iñon semeak eramatea
ai, zeíñen txarki daguan
eta ama batek pena artzen du
seme bat kendu orduan,
nere osaba maite bat ere
gelditu omen zan kuba'n.

HÁRIET

Mutu'rak ere ba-dira baiña
alde orotan artu,
ta pakean bizitzeko
Yainkoan lagun gaítu,
sobera mintzatu gera
pakea bear dugu,
zazpi probintzi alga'etan
bear giñuzke uztartu.

UZTAPIDE

Emen gerade zazpi senide
danok alkar ezagunak,
leno ikusi ez ba'degu ere
ona iritxi egunak.
Zabal ditzagun orain itxiak
egon diran ate ilunak,
e'ruka'riak dirade anaiak
bai gure biotz bigunak
guda utzita alkar maiteak
bear degu euskaldunak.

LUJANBIO

Gure Yainkoak ematen die
zintzoki dabilzanari
ura naikoa ibili dedin
e'rota umi lenari,
orain guk zuzen yoka daiogun
bakoitzak bere lanari,
arek graziak emango dizka
pakean dabi lenari.

TXAPEL

Bi gauza dira diperentiak
txuria eta go'fia,
bear bezela artu biaiogu
gauza aueri neufia.
Beste lan gabe itzegitera
nola nagon etofia,
kulparik gabe ge'fa yuatia
ori da tamalgafia,
gauza ede'fena emen daukagu
munduan, Euskale'fia.

IRIARTE

Nik ere ofen gaiñian
bea'feko dut asi,
ge'fa ofetako gauzak
ainbat ziran itxusi.
Ni bizi naizen artian
nai nituzke ikusi,
euskeldunak, gizon onak,
Euskale'rian nagusi.

TXIRITA

Okasiua ara yendiak
nola gerta litekian
obea degu ge'ratan baiño
bizi umore onian.
Zenbait bezela ez naiz izaten
fondetan eta kafian,
gefan gosiak baiño naigo det
naikua yanez pakian.

Irugarén saioa

Bigarén saio au amaitu zanean, atse-
den alditxo bat eman zitzaien bertsola-
rici ta bitarte artan entzuliak argi azal-
du zuten beren poza.

Irugarén saioa, batzuen ustez zaiéna,
atsegiñena oi zaie geinean entzuliei.

Asierak ematen “Basafi” genduan eta
berak irakurítako bertsoa au:

Asi beafean naiz
zirika bertsotan;
nik galdetu ta zuek
erantzutekotan.
Paéz lertuko zaigu
yendea saioa ontan,
ez al zerate egongo
oraingoan lotan.

ZEPAI

Asi zaite zu, Zepai,
neri erantzuten,

.....

Gutxitan yardtuxen naiz
gezu'ak esaten.
Lendik ere dakizu
nolakoa naizen,
leialaren itxurik
ez al diazu ematen?

DARGAITZ

Zu zera bigafena
adiskide Dargaitz.

.....

Nere izena dabilte
or oboetan maiz.
Euskale'ria'n yaiota
bertan azia naiz,
gauza ori yakiten
zuk etzenduan gaitz.

ETXEBE'RIA

Abizena daukazu
zuk Etxebe'ria,

.....

Oraintxen artua dit
onetxen ne'ria.
Emen nazute onera
gogoz eto'ria
nere apei'liduen yabe
beste asko dira.

HAR'IET

Banka'tik eto'fita
Har'iet gaztia

.....

aspalditik daukat nik
orlako suertia;
plazer izandu dut nik
ona etortzia,
emen ikusitzen dut
auskaldun yendia.

UZTAPIDE

Nolatan zabilta zu,
kaixo Uztapide?

.....

Bein etoñi bear da
etoñi naiz ni're
Gaur Donosti'an daude
amaika adiskide,
onetxek ematen dit
ainbeste izpide.

LUJANBIO

Lujanbio adiskide,
nolatan zabilta?

.....

Besua elbañituta
ementxe gabiltza. (1)
Ala ere kunplitu det
emandako itza,
xamuña uste nun ta
gertatu zait gaitza.

(1) Besoa, lepotik zutzilika daukan oialixo batez oztalia du.

TXAPEL

Txapel izenarekin
zera ezaguna.

.....

Neri gustatutzen zait
olako laguna,
ondo pentsatutzen det
gau eta eguna,
auxen da beti guri
kobeni zaiguna.

IRIARTE

Nungua zaitugu zu
adiskide Iriarte?

.....

Irurita'n sortua
Napaña'ko parte.
Prantzian izan nauzu
ia orain arte
eta lan egiña naiz
beti gure parte.

TXÍRITA

Zer egiten dezu or
lagun zar Txírita?

.....

Lasai ementxen gaude
deskantsun yaírita.
Len ere ba-dakigu
alkáren beñi ta
ez det deusen bilduñik
onea etoñita.

ZEPAI

Euskera piztutzeko
gauzarik onena.

.....

Auxe da: bildutziak
danok alkañena.
Emen nabarmentzen da
zein dan azkañena,
zeruan sartuko da
orla eiten duena.

DARGAITZ

Aunitz yende daukazu
aúfean entzuten.

.....

Mixel'ek ta yendeak
konprenditzen zuten.
Napañu'tik Gipuzkoa'ra
ekafi ninduten,
benapañak bertsotan
orain ari gaiten.

ETXEBERÍA

Yai auek goraltzeko
zer degu beaía?

.....

Toki batera bildu
euskaldun indaía.
Ortarako ba-dago
bertsuan beaía,
maite dezagun danok
gure Lege-Zaía.

HARÍET

Zintzoki gorde zazu
euskal izatea.

.....

Aiskide, ez dut ukatzen
dutala maitea.
Nik nai dut beti orla
euskaldun yendea
bertan izandua dut
nik ere sortzea.

UZTAPIDE

Len ere egiten ziran
onelako yaiak.

.....

Zenbat bildu ote dira
onera anaiak.
Ementxe dabilzkigu
yaíitako gaiak,
danak ikusten ditut
aúfean alaiak.

LUJANBIO

Zure alde oietan
zer dio yendiak?

.....

Batzuek gizadunak
bestiak gabiak.
Ala ere kunplitze'itut
oraingo legiak;
asko ez dira izango
gu baiñon obiak.

TXAPEL

Euskeraren zuatzak
zuek zeratela.

.....

Itzegin bear degu
nola edo ala.

Gauzak onik guretzat
ez dago bestela,
aitortzen dizut orain
maite zaituela.

IRIARTE

Etzaude adiskide
bertsolari txara.

.....

Sortzetikan naukazu
betiko napaia.

Zuengana etortzeko
ba-nuan indaia,
zazpiak bat eiteko
ba-dago beaia.

TXIRITA

Gaur ba-daukagu emen
ai zer umoria.

.....

Sekulan ez det izan
orlako zoria.

Or zabilta zu nere
kupira gabia,
zeiñek bila lezaken
beste bat obia.

ZEPAI

Ezkongairik ba'zaude
esan zuk zergatik.

.....

Leno bila ibilita
nago ni gogotik.

Baiña martxa berdiña
artzen da denatik,
gauza on gutxi dago
mutil zafagatik.

DARGAITZ

Zuentzat garai ona
noiz da bertsotako?

.....
Arnoa dudalarik
netzat edatedo.
Eldua naiz ni orain
emen efaiteko,
danak bat yar gaitezen
pakia izateko.

ETXEBERÍA

Bapo yan eta edan
bertsuak botiaz.

.....
Oñela bizi gera
aurten eta igaz.
Ta lana dan tokitik
al ba' degu igas,
guk alperkeriari
eman diogu eñaz.

HARÍET

Donosti'n zer gustatu
zaizu, gaur, geiena?

.....
Auxe dezu aspaldian
nere gogoena.
Edeña zala beti
aitu nuen fama,
oraintxen ikusten dut
edeña dagona.

UZTAPIDE

Polita al deiozu
dala Donostia?

.....
Len ere aditu nuen
beraren famia.
Baiñan poztu naiz asko
gaur ere ikustia;
neretzat polita da
oso Donostia.

LUJANBIO

Gogoan eukitzeko
gaurkoan eguna.

.....

Izan ere olakua
pasatzen deguna.
Yende alaia eta
asko ezaguna,
ortan konten al zera
zu nere laguna.

TXAPEL

Mai ingurun yařita
bertso ta yatena.

.....

Ni ere etoři naiz
aiskide batena.
Diferentiak dira
poza eta pena,
ondo bukatu nai det
asitako lana.

IRIARTE

Oilaxko pare baten
mamiak garbitzen.

.....

Mila ere yateko
ez nauzu ařitzen.
Len ere Euskaleřia'n
asko dut kuřitzen,
ezuřak eta zaiřak
danak miliskatzen.

TXIŘITA

Gustatutzen al zaizu
zuri bixigua?

.....

Bai, ta yan egiteko
ba-det desiua.
Ori da neretzako
mokaru goxua,
gero zufut eginda
a zer pasiua.

ZEPAI

Zer iruditu zaizu
ofek esan duna?

.....

Ez nuan uste zanik
orlako yatuna.
Aspaldin det maiean
oso ezaguna,
bera nabarmendu da
asko biar duna.

DARGAITZ

Zuria izango da
puntu zořotzena.

.....

Ez da beroena ta
ezta're otzena.
Euskera galtzeakin
artzen nuke pena,
batera yunta bear da
azkenean dena.

ETXEBERÍA

Zein uste dezu dala
iaiona bertsotan?

.....

Oen izenak ditut
aditu askotan.
Gaizki dabiltzan gauzan
zuzendutzekotan,
oraintxen arkitzen naiz
ia erdi lotan.

HÁRIET

Saria irabazteko
saiatu mutíla.

.....

Politak dira orain
desira guzia.
Egin ez degu ontan
entregu aundia,
bentzitzen degu emen
gipuzkoar guzia.

UZTAPIDE

Bertsotako gogo
etzaizu agortu.

.....

Ez egin ezkeroztik
mundu ontan sortu.
Ez kantatutzekotan
nitzake ni lertu,
eztaña ausi arte
eingo naiz agertu.

LUJANBIO

Bertsolari sail ona
zaudete bildurik.

.....

Orduan ez daukagu
iñoren bildurik.
Ez ba'dirazu yartzen
gai oso xamurik,
egiaz yardungo det:
nik ez det gezurik.

TXAPEL

Ementxe gaude danok
zure entzuteko.

.....

Ba-daukat nik gogo
zerbait esateko.
Ezer gutxi palta det
ona izateko,
apetitua daukat
bazkaita yoateko.

IRIARTE

Zuekin yende auxe
dago poztuirikan.

.....

Ez bai dute ikusi
ofelakorikan.
Nik eñanen dizuet
orain orgatikan,
izugarizko tragua
yaña dut tripan.

TXIRITA

Ikusi nai zinduket
asmatu eziñik.

.....

Entzun dezu amaika
bertso eder ta fiñik;
bestela ez genduke
emen gauza onik,
ez uste oraindikan
nekatu naizenik.

ZEPAI

Orain, gauza ba'zera
erantzun zuk neri.

.....

Alde o'rek ematen dit
naikua komeri.
Zer esan pentsatzen det
begira danari,
yator segitzeiozu
zeuk dezun lanari.

DARGAITZ

Kaixo bertsolaria
nolatan zabilta?

.....

Zerurako artuta
ementxe dut giltza.
Geiago ez ba' nitake
emendikan mintza,
sartzerik ez duenak
kanpuan dabilta.

ETXEBERIA

Zo'rotz erantzutea
daukazu onena.

.....

Itza entzuna det nik
"Basari o'ena.
Nai ta nai ez esan zuk
orain dato'ena,
zurekin itzeiteko
prest daukak ba'ena.

HARIET

Nekatua zaitugu
ustez onezkero.

.....

Pentsatu ta bota nik
nai nizuke gero.
Ni nauzu orain emen
mintzatuko bero,
plazer nuke zuekin
ementxen urtero.

UZTAPIDE

Zurutak ematea du
indaña ugari.

.....

Orduan ekiozu
bertsotan lanari,
Gauzak orla utzi gabe
eldu napañari,
ez diogu utzi bear
ez gauza onari.

LUJANBIO

Aurtengo urte auxe
gogoan artuaz.

.....

Guazen aufera ere
bertsotan sartuaz.
Orain guk al deguna
poliki sortuaz,
eziñean aguro
gerade benturaz.

TXAPEL

Guziok bat eginda
bertsoak goraldtu.

.....

Abuan izan eta
nik ezin umildu.
Mandatu zaña dezu
biar det bialdu,
gure oitura ona
ez dedien galdu.

IRIARTE

Napar aldeko lanak
emen azaltzeko.

.....

Ez da gauza pobria
teatroan efaiteko.

Ni ere ala nuzu
emen kantatzeko,
etxe mutil ona naiz
beregi yesteko.

TXIRÍTA

Onekin bukatzen da
oraingo saiua.

.....

Naiz bertsoetarako
apropos yaiua.

Atia itxi zaigu
baita're leiu,
par eizu, zertan zaude
oñen seriua.

Laugañen saioa

Laugañen saioa asterako, bertsolarien artean langintzak banatu ziran eta bata bestearen aurka yañiaz ara nola zeuden:

Zepai, uztargi lea ta Txirita, itzai.

Dargaitz, kontrabandista moñoi ta Iriarte, kontrabandista nagusi.

Etxeberria, erotari ta Txapel, ikazkin.

Beste iru gelditzen ziran eta auek onela yañi beaeran aurkitu zan epai-maia. Lujanbio, ardozale eta Hañiet, tabernari.

Uztapide, sagardo-zale.

Asierako bertsoa bota zuan oraingo aldi onetan ere, bestetan bezela "Basari" argiak. Ona bera:

Uztargi lea Zepai izanik,
Txirita degu itzaia;
Kontrabandista nagusi Iriarte
Dargaitz duela moñoa.
Txapel ikazkin, Etxeberria'k
aupatuz erotaria;
Mutuberria ez da etoñi ta
Hañiet da tabernaria,
Uztapide da sagardo zale,
Lujambio ardo zalia.

ZEPAI

Jose Manuel nola naguen
zuri begira yañia
tratu onetan konpontzekotan
onera zera etoñia.
Nik adetzera ba-nun ziñala
itzai ikaragañia
neri noiz paatu bear dirazu
egin nizun uztañia.

TXIRITA

Gu biok emen ikusi eta
yendiak poza artzen du
antziñetako adiskideak
alkar biogu lagundu.
Oker zabiltza gizarajoa,
bear zenduke zuzendu;
beste uztañi bat emen daukat
baldin egingo ba'zendu.

ZEPAI

Gose bolaran bildurik gabe,
esan daiogun alkañi,
oficial ona naizela ezkar
egin didazu igari.
Lengo uztañiak zure idiak
etziraden gaizki yañi:
beste bat ere egingo dizut
nai dezunian etoñi.

TXIRITA

Nere idiak ibiltzen dira
oso yoera puertian
ez dute gaitzik ere izandu
yoan dan urte betian.
Pama puska bat ba-dezu baiña,
yakinduria apartian;
suerte onikan ez dezu izango
bat ona egin artian.

ZEPAI

Neri zertako desairatzeko
oñenbesteko enpeñu,
ziria sartuko zeniguke
guk sinistuko ba'giñu.
Zure idiak gose plakian
ba-dute amaika kariñu;
uztañia baño obe zenduke
ondo goberna ba'ziñu.

TXIRITA

Nere idiari komeni zaie
izateko anparua,
zuk euki dezun kontua baiño
pixkat obexiagua.
Intxaufarekin tratua egin da
bialdu ziran pagua,
nai dezunari saldu zaiozu,
an geldituko da ua.

ZEPAI

Aizu, Txirita, esango izkitzut
segiturikan egiak,
zure idiak ez ditu galdu
uztafi onen premiak.
Disimuluak gezuña izanda
dauzka bere alderdiak:
uztafi onik ez du beñere
gosiak dauden idiak.

TXIRITA

Mundu onetan pizkoñagorik
gezur esaten zu baiño
izango dira, baiña nik orain
egia dizut esango.
Alde ortatik bildu liteke
zerbaiteren aginaldo:
gose egañirik ez daukate,
gobernatzan ditut ondo.

ZEPAI

Beren denboran pasatu dute
amaika otz eta bero,
aundi xamañak dauzkazu baiña
ez da izango luzaro.
Onen idiak karga aundian
bizitzen ez daude giro,
itzaia beñiz engañatzen da
zúfuta izan ezkeru.

TXIRITA

Neri idiak osatzen dira;
baiña zu diruzalia,
idi oietzek mendera nairik
ba-daukazu zuk premia.
Oju aundia egiten dezu,
dirudizula prailia;
idiak gosez ilko lirake
baldin zuriak balia.

ZEPAI

Komeni ez dan arazoirikan
zuri ez dizut esango
ta nik emendik agertu arte
ez al zera ortik yoango.
Zu baiño itzai zatañagorik
munduan ez da izango,
lengo uztaña pagatu arte
besteik ez dezu eramango.

TXIRITA

Eztul utziak ez du balio
lasai ibili zaitia,
bertsua orain botako dizut
nere amigo maitia.
Gerta ez bada uztafi on bat
alde ontara yoatia,
kostako zaizu nere atzetik
dirurik eramatia.

DARGAITZ

Egi aundia eñan bear dut
garbiki naiz emen asi;
ni naiz mutil kontrabandako,
ori dutala nagusi.
Nere ustien zenbait duro
dituela irabazi,
biaja pranko egin dut baiña
patu gabe nau utzi.

IRIARTE

Adiskidea bear dutela
enetzako kuadríla;
ni ere sortu ezkeroztik
kontrabandan nabiía.
Iriarte nagusi eta
Mixel Dargaitz mutiía;
muga baztefetan beti
beldurturik dabiía.

DARGAITZ

Muga bazter oitan nabil
belduía ta ikaratan,
armadunak ikusten dut
an diela baztefetan.
Nire ikara ta nekiak
beti-beti alfefetan,
nausia gero baitago
mutiári zoíetan.

IRIARTE

Adiskidea nik ez dauzut
aspera ortan zoírik,
nunai agertutzen nauzu
nere burai aitoírik.
Zuk ere ez baldin ba' dezu
or edaten napaírik
maiz ibiltzen zera baiña
karabineron bilduírik.

DARGAITZ

Karabiñuruen belduía
daukat muga guzietan,
sobera ikusten ditut
oitanik baztefetan.
Karga bizkafian nuan,
bide guzia neketan,
pagamentun esperantza
ondoko egunetan.

IRIARTE

Ene mutiía ba-daukazu
ortan miía pikardi
zertan dugun guk solasa
eman zazu eguardi.
Ortakotz efanen dut nik
osoarekin lau erdi
lengoan galdu zazkitan
gutxinaz beíreun ardi.

DARGAITZ

Galdu badin ba'nitun'e
ek etziren neriak;
iñakala egin nuen ta
yan zituen guardiak.
Ez da ongi gezur eíratia
emen eíraizu egiak
egiere argi bear dezu:
mutiía galdu ardiak.

IRIARTE

Mugan zer gertatua den
Napaíua'ko partian,
egi aundiek eíraiten
emen asi gaitian.
Mixel bere ardiakin
mugatik yoatian,
berak galdu ta lo egin du
txeíitegi batian.

DARGAITZ

Barkatu, otoi, nagusia
balin ba'naiz loak artu,
zu deskantsoan zaidela
det ardi pranko pasatu.
Ardik orduan kontua dauka,
zuzen bidean aldatu,
pagatuko nizuela-ta
galtzenen naiz gelditu.

IRIARTE

Ofengaitik emanen duzu
nik dituan zentzuak,
beti garbi mintza nuzu
eta arazoi zintzuak.
Mitxek ofetxek ba-ditu
izugarizko gautzuak,
ardik ez ditu ezagutzen
ernai eta antzuak.

DARGAITZ

Gizon ori ez du laguntzen
nire uste zentzuak,
edo bertzela gezuřetan
emanen ditu bertsuak.
Bere inñalak eginen ditu
emen mutiła gaixoak;
beřiz obeki berekoituz nik
ernariak eta antzuak.

IRIARTE

Ořelaxen mintza nuzu
egia eřaiteko,
gizon koplaria zara
kontrabandan ibiltzeko;
bainan da artu zazu
obeki portatzeko,
bertzela zor zaizkizuna
ez dautzut pagatuko.

ETXEBERİA

Nere lanari ekin biaiot
albiste auxe artzian,
nere denboran ez da izandu
mingaiña oso atzian.
Lenago ere oiturik nago
ain yardun erantzunian;
eřotaria naiz ni izatez,
egite au emantzian
ta aizkide batek zaku iriña
diru gabe eraman zian.

TXAPEL

Ni ikazkintzat yuzgatu naute,
zu beřiz eřotaria,
gusto ba' dezu entzun zaidazu
esango dizut egia.
Tristurarikan zuk ez daukazu
ain zaude gizon alai,
txintxotasuna utzita zaude,
tranpa zale ugaria,
kontzientzia garbituzeko
ba-dadukazu premia.

ETXEBERİA

Ni eřotari langintzan naiz ta
"Txapel" ori ikazkiña,
alare ongi izaten beti
saiatzen naiz alegiña.
Ordaindu gabe eraman ziran
lengo batian iriña,
pagatuzeko konturik ez du.
aitzeki ugari baiña,
etzenduke ez ori egingo
zintzua izan ba' ziña.

TXAPEL

Zure aldian beti izan naiz
oso biotzez biguña,
lagun guziri ondo laguntzen
egiten det alegiña.
Zuk or daukazu yenero dana
neretzat ez da berdiña
ongi leari gaizki egiteko
zuk beti daukazu griña:
iriñen partez yartzen didazu
edozer gauza zikiña.

ETXEBERÍA

Nere eřotan ez da sartutzen
garien partez artua,
“Txapel” en gezur ori daukagu
lotsik gabe ausartua.
Gaizki zuk esan ez yakin eta
gezuřa zuk agertua,
gaizki esana biltzera beřiz
zugandik naiz beartua
edo bestela zeure otsona
ez dezu ipiņi edertua.

TXAPEL

Eřota ontako nagusi yauna
nola zeraden zeřori,
irin zatařak saltzen dizkatzu
deskuidatutzen danari.
Len ere nago ikasia-ta
etzait zuria komeni
pixuentzako ona dala-ta
zikiņa bota iriņari,
zazpigařengo mandamentuak
ez du agintzen gauz ori.

ETXEBERÍA

Iriņa eraman nere etxetik
ordaiņez ekaři ikatza,
ořen kopeta lotsagabea,
azala beřiz du latza.
Bere auera nik auřeregi
ez naike sartu beatza,
langintz arlote batean dabil
ta ezin izan aberatza;
pagoa eskatu, gaztaiņa ekaři,
bide okeřetik zabilta.

TXAPEL

Au ere esan bear nizuke,
ortara ari naiz bertsuan,
nere langintzan aritutzen naiz
satisfacio osuan.
Bere aldera itzegiten det
bera bai daukat goguan,
gauz onegatik inbustaria
lengoetan ba-zenduan,
itza edeřak mingaņez baiņo
kontzientzia auzuan.

ETXEBERÍA

Zaku ikatza edartzekua
aspaldi dan luzaroan,
itza eman bai gure etxera
ez da yun oraindaiņoan.
Uste al dezu, ai! ez dedala
nik edukiko gogoan,
artutzen det bai buruan garbi
zeiņek zer eraman duan,
gure eřota txara daldin'ba
nai dezuneangana yuan.

TXAPEL

Zer kontatua pranko ba-dauka
esplikatu al ba'nitza,
Etxebeřia, entzun biazu
orain diyuazun itza.
Ez nuben uste zendubenikan
ořen yenio zipotza,
gaizki egiten daramakizu
oraindaiņoko bizitza
zuzendu zaitez fede onean
biotzetik ba'zabilta.

ETXEBERÍA

Irin edefik egitekotan
nik bueltatzen det aña,
zintzo ta zuzen daukat etxea
oso egoki yaña.
Ikazkin batek saldu bear nau,
kiebra yo det orain ia;
irin zakuaz etxea ustu,
eraman detan guzia
eta alare itzegiteko
onek ba-du ausardia.

TXAPEL

Bein bear zun da onek oin ere
gezur galanta esan du,
len egindako deskuido danak
orain nai ditu zuzendu.
Onek esanda itz sakonikan
nik ez det entzun izandu,
besten pekatuk konpesatuta
zeure danak almazendu
garbi zenduke kontzientzia,
len ongi egin ba'zendu.

HÁRIET

Tabernaria nauzu eta
orain nauzute mintzatzen,
arno zalekin nola naizen
ene bizian portatzen.
Gizon onak direla die
dute segur markatzen,
bainan uraren plazer txaña
ez dute ongi kontatzen.

UZTAPIDE

Zufuteruak emen gerade
Donosti'ra etofiak,
eran nairikan ardo beltza ta
sagardo ori gofiak.
Ementxen zuten boti lakuak
Napa'ru'tik ekañiak,
doble kobratu nai liguke-ta
il bear gaitu egañiak.

LUJANBIO

Gauza au nola dan
deklaratzeko
batere ez det ajola,
neri gogotik gustatutzen zait,
matsarekiko ardoa
eta ez dizutet nik ukatuko
ardo-zalia nagola
ni nua emen tratatutzera
Yesukristoren odola.

HÁRIET

Eñan duzu baiña ez dut nai
orain ere ezin etsi,
zuen gogoak argiro emen
bai ditut orain ikusi.
Arnoa emen edan gogotik
mintzatu ere xamurki
pagatu gabe bi itz etxetikan
partitu zaizkit egisi.

UZTAPIDE

Onen tabernan sartu naiz
ni gaur
arduaren aitzakian,
ni zurutero ona nitzala
gizon onek ba-zekian.
Sagardo mia zeukala eta
ardua saldu naiean,
bertsolariak ekartzen ditu
ardo onaren tokian.

LUJANBIO

Nere laguna konporma zaitetz
Joan Jose'ren esanian
eta orduan yañiko zera
oso bide zuzenian.
Konsideratzen yartzen ba'zera
zeofek nai dezunian,
ofek ura saldu nai liguke
arduaren izenian.

HÁRIET

Eztakit nik ola den bainan
untaz bear da pentsatu
bersala ez nuke nai
zuengatik zaiñatu.
Ongi ikasten dutena
nai dut nik pratikatu,
nai ba' dezu, omen goitik
ingo duzut serbitu.

UZTAPIDE

Naiz tabernari Napa'ua'ko
asiak daude bu'fuka,
sagardo onen artu-emanak,
beti dira diru truka.
Kristau artean ezin liteke
egi au iñork'e uka,
ai zer bertsuak bota leizkean
sagardo onak ba'leuzka.

LUJANBIO

Edari onetikan txafena
dagan diferentzia
ez da izaten nolaikoa,
artzazu pazientzia.
Kolore emateko aiña ardo
ta urez bete ontzia,
modu o'fetan ez dezu libre
izango kontzientzia.

HÁRIET

Kontzientzia ez dut kargatzen
e'fango dauzut egia,
beste medio emen bai dago
olan ondo ikusia,
ardo onetik gustatuzen zait
neri beti emaitia
bertze aldean o'bea dezu
bertara yoan zaitia.

UZTAPIDE

Onen tabernan aspaldi ontan
ein det amaika bixita;
baiña ba-dakit nolatan daukan
malezi txafaz ya'fita.
Naiago nuke bere taberna
baldin ba'leuka itxita,
arduen truke ura saltzen du
kontzientzia utzita.

LUJANBIO

Denbora asko zan zure
tabernan
ez nitzaizula izandu,
emen zer pasatuzen ote dan
yendiak pranko esan du.
Martxa oke'ra utzi zazu ta
egin zaituz zu zuzendu:
gusto aundian yoango giñake
ona ya'fiko ba'zendu.

HÁRIET

Benturaz ala dikeke baiña
oaintzi oso naiz oartzen
yendia ez dala len bezela
ene etxera etortzen.
Beti ari dira auzoko
taberna geien aldatzen
ba-dakite ez duela deus'e
zuengandik irabazten.

UZTAPIDE

Gizon onetxen pasadizua
esaten biar det asi,
gizar-tean gaizki esana
sekulan ez det ikusi.
Tratukerian gezu'rez dabil
Yesukristo'tik igesi
ola ba'dua a zer gustua
emango dion Judas'i.

LUJANBIO

Gauza onak deklaratzeko
batere ez daukat lotsikan,
zure etxera yoan ta askotan
ateratzen naiz utsikan
ta ez ba'dezu yartzen tabernan
len baiño gauza oberikan,
beñiz ere ez dezu izango
Yose'rengandik sosikan.

HARÍET

Meza ortan nai ba'ziñan
ene laguna arakatu,
kondizionak obekiago
bete bear dituzu,
arno ona nai zuenian
eginen proposatu
ene etxean bai daukazu
egiñen zuk pagatu.

UZTAPIDE

Sagardo bi'la yoaten gera
guziok zar eta gazte,
taberna ontako pasadizua
esango dizuet laiste.
Beti or daude adiskideak
nola igande ta aste
urarekin kentzen dizkigu
sosak, arduaren truke.

LUJANBIO

Gelditu gabe ari zerade
gauza zai'lik ta xamu'rik,
gogo dubenak sinistu beza,
ez det esagno gezu'rik.
O'rek urakin agintzen digu
nai negozio aundirik,
edan liteke andik suelto,
ez da moskortu beldu'rik.

Onekin amaitu zan Biga'fen Ber-
tsolari Eguna. Baiña ez osorik: Do-
nosti''ko Eusko-Gaztedia'k duan are-
toan, bazkari eder bat eman zitzaien
eratzai'liekin batera anaitasunean batu-
rik. Ba-zan antxe umore ta bertsotako
gogoia.

Epai-maiaren iritzia
Aratsaldean, sari banaketa Eusko
Gaztediko aretoan egin zitzaien. Ara
nola:

Lenengo saria: Txifita, 150 laurleko.
Biga'fen saria: Uztapide, 100 laurleko.
Iruga'fen saria: Zepai, 75 laurleko.
Lauga'fen saria: Dargaitz, 50 laurleko.
Bostga'fen saria: Iriarte, 25 laurleko.
Murua yaunak emanda, bertsolari
za'fenantzak beste 25 laurlekoak Txifi-
ta'ri emen zitzaizkion eta gazteeneko-
ak Iriarte'ri.

Sari gabeko beste bertsolari guziei
ere 25'na laurleko eman zizkioten, eta
bertsoa goian, bertsoa beian, bertsoa
alboan, bertso ta bertso yardun ziran
pozaren-pozez egun osoan.

Biga'fen urtean ospatu degu Bertso-
lari Eguna. Beste askoan iraungo al du
gure e'fien onerako. Bertsolaria e'fi ma-
miko degu. E'fiak benetan maite ditu
ta auek, egiz maite dute e'fia.

Len gertatu zan alderdi auetan eta
be'firo ere gerta liteke orain agertzera
guazena: Garai lafiak zebilzkien gure
Euskalefiak; gudu zital baten ondoren
ostu zizkiguten gure antxin eskubide-
ak. Zei'ñen deada'rak esna zezaken or-
duan gure e'fien lo-zo'foa? Bertsolarie-
nak! An azaldu zan Ipa'fagife e'fi-esna-
le.



II'garren Bertsolari Eguneko epai-maia eta bertsolariak, «Victoria Eugenia» antzokian, 1926



Donostiako Txapelketa Nagusia 1936-1-19an.

Lenengo illeran ezkerretik: Dargaitz, Harriet, Txirrita, Iriarte, Etxeberria,
Bigarren goan: Txapel, Saiburu, Zepai, Uztapide.

Foto: Elosegui

Gaur ere zeñek erakutsi gure efiari bere eskubide ta eginbeařak?

Efiak maite ditu gure adimen argiko bertsolariak. Ardangelan, pargiñazteko bakari ez dira yaio. Buru argi ta esae-ra eder dituzten gizon auek, euskera zaitzeko beařekoak ditugu ta berak ori yakiñik ona nola bildu zaizkigun gure deien oiartzunera.

Berak bizi diran artean euskera etzaigu ilko, eta euskera bizi dan artean gure Abefia ere ez.

Lagun dezaiegun ekiñal guzian.

(1) Gudu auek nola sortu ziran kazetari batek onela dio... "El día" egunkari-tik.

"A manera de prólogo

"Otra jornada de interés patente y desmedido que en la gesta airosa de los euskaltzales donostiarra brillará siempre con fulgor imperdurable, irresistible, vivísimo: el II Día del Bertsolari.

Todos los optimismos, esfuerzos laudabilísimos y constantes, entusiasmos y afanes, han obtenido en recompensa un éxito-inigualado y eficaz. En efecto, aquella iniciativa plausible y formidable que bullera en la mente del oiebrado autor de "Zumalakarregi", don José de Zubimendi y encontrara entusiasta acogida en el digno representante de "Euskaltzaleak", don José de Aristimuño, ha sido la semilla que germinará fecunda en el místico campo del euskera, nuestro idioma.

El II Día del Bertsolari, cuyo interés visiblemente ha sido acrecentado por las típicas luchas precedentes o eliminatorias disputadas en Tolosa, Azpeitia y Elizondo, ha superado todavía en brillantes y sobre todo en el aspecto artístico y valía de los bardos al I Día celebrado el pasado año de 1934 en tal día como ayer.

Estimula ardientemente, poderosamente anima pensar el fruto copioso y abundantísimo que dichos pugilatos artísticos suponen al renacimiento del euskera, el alma nacional, suscitando nuevos y numerosos bertsolaris que en definitiva son los mejores propagandistas euskéricos.

¿Mas, qué diremos ante labor tan grande, frutos tan óptimos y acontecimientos singulares de este carácter, si nos remontamos en alas de la imaginación un poco y recordamos el detalle pro-

videncial que inspira a Zubimendi a crear su ponderada iniciativa?

Era en los locales de Eusko Gaztedia una noche de invierno. En una mesa y ante un grupo de alegres zarauztarras, "Basarri" improvisaba copias altamente sugestivas. Zubimendi se hallaba en otra mesa no distante. Y un poco más allá el que escribe estas líneas. "Basarri", reparando en Zubimendi, dedicóle un verso y todos aplaudimos. De "aquello" surgió el chispazo, propuso su opinión a los directivos de Eusko Gaztedi, allí presentes, fué aprobada con entusiasmo por todos, y poco después aparecía en las columnas del popular semanario euskérico "Argia" un artículo: Era de Zubimendi, que exponía su gran iniciativa, francamente impagable y acertada, y a quien tributó el culto y notabilísimo publicista "J. Aitzol" el aplauso más cálido, unido a la colaboración inteligente creadora de los éxitos obtenidos en número elevado hasta el presente.

Ese fue el comienzo y, éste, el éxito de antea- yer, uno más de la serie inacabable de triunfos que a través del tiempo conseguiría la fiesta del bertsolari en provecho de la cultura vasca y del euskera".

Onela bukatu zan 36-garreno gudu famatua. Esan bearra dago gogoangarria izan zala. Iruigarren bertsolari eguna edo gudua ospatzeko asmotan ziralta, baiña gerra zitalak eman zien bukaera.

Sariak jaso ondoren ia bertsolari danak Poxpolin antzokira joan ziran jaialdi ederrari amaiera emateko. Poxpoliñ-en Toribio Altzagaren "Mutil zaar" antzerkia antzesten baizan eta bertsolariak an ere kantatu zuten. Bukatutzean, txapeldunaren omenaldia aipatu zan, lenbailen egiteko. Beraz, Txirritari tokatzen zitzaion omenaldia.

Agerpen batzuk:

1.- Ikusten danez, jendearen erantzuna bildurgarria izan zan eta jaialdia asi baiño askoz leenago antzokia gaiñezka zegoan. Euskerazko jaialdien egarri berezia zuan Euskalerrriak.

2.- Txapelketaren egitura, aurreko urtekoaren antzekoa izan zan baiña bederatzi bertsolariekin bakarrik. Saiorik gustagarriena baiña zailena “puntuak jarrita”. Sei bertso errenkadan. Gaur ez dakit onartuko luteken, puntua jarrita erantzutea (ondo erantzutea) oso zaila bada.

3.- Uztapidek, bere liburuan dio, bera zala leenengo (juraduko batek ala esan ziola) baiña nik bertso danak irakurri ondoren, bat baiño geiago aldiz, Txirrita ikusten dut txapeldun ezpairik gabe. Orduan ere juraduan buru berotzailleren batzuk egongo ziran, Uztapidek diona egia bada.

Emen jartzen dizuet Uztapidek bere liburu “Lengo egunak gogoan”-en nola esaten duan:

“Gero juraduko batek esan zidan ia kontentu gelditu al nintzan premioarekin. Baietz esan nion. Kontentu geldituko ez nintzan, ba, bigarren premioarekin...?”

- Ba, lenbizikoa irabazi dezu -esan zidan-. Baña Txirrita gizarajoa zarra dago ta urrengo urtean etortzeko ere zuk itxura geiago daukazu. Ori urte askotan ezin liteke etorri, ta aurten orri ematea pentsatu degu.

- Ni ondo naiz! Ez nuan pentsatzen premioan sartzerik ere! Bost premio zeuden da ni gabe partituko zirala uste nuan. Bigarrena eman zidaten da zoraututa gelditu nintzan...”

Oiek dira Uztapideren itzak. Bertsoak irakurri eta bakoitzak juzga dezala!

TXIRRITAREN OMENALDIA:

1.936-III-22-an.

Basarrikin gertatu zan bezela aurreko urtean, Errenderin ospatu zan Txirritaren omenaldia. Martxoaren 22-an. Txapeldun irten eta andik bi illabetetara.

Uztapiden liburuari jarraituz zeaztasun batzuk emango ditugu...

TXIRRITAREN PESTA

Txirritaren omenajea Erreterian egin zan, milla bederatzireun da ogei ta amasiegarreanean. Ortxe Epailla edo orrelaxe izango zan (1).

Ni ere or nintzan, ta beste bederatz bertsolari ere bai; bere lengusua Saiburu, Tellei-Txiki, Juan Jose Sarasola edo Lexo, Urnietako Alkain aita-semeak, Azpeitiko Txapel, Erreteriko Zabaleta bi anaiak, eta Basarri; eta bera gogorrena, Txirrita, irurogei ta amasei urterekin. Amar bertsolarik egin genduan saioa.

Orretarako, goizean mezarekin asita izango zan dudarik gabe omenaje ori. Baña ni ez nintzan allegatu mezetara. Aita neukan gaixo eta operatuta; gainera, prostata edo orrela zeukan, ta ura zaitzen egoten nintzan ni orduan. Eguardiko bertso-saioa egiteko justuan allegatu nintzan ni.

Txirrita ixilik zala, beste bertsolariak jardun genduan bertsoan.

Urnietako Alkain aita-semeak alkarri bertsoak botatzen jarri zituzten. Saio polita egin zuten oso. Guk ere egiñalak egin giñuzen Txirrita zarra poztutzen, bakoitzak al zuan eran.

Guk ez genduan uste orduan Txirritaren urteak olain urrean zeudenik. Ari zarra orduan esaten genionak, orain geok aren edadea edo adiña gañean, eta orain dira emen kontuak.

Orduan an ziran bertsolarietatik, bi bakarrik bizi gera: Basarri ta ni. Besterik ez da iñor ere bizi. Alkain semea gure aldean gaztea zan, baña ura ere joan zan mundu onetatik. Zeruan gerta dedilla. Jaungoikoari eskerrak eman geniozke, onenbestean geranean ere.

Txirritak artean ere umore ona zuan. Erreteriko euzko gaztediak egiten zion omenaje ori, ta omenajeko señailea makilla eder bat zan. Guk bertso-saioa egin ondoren, makilla ori eman zioten Txirritari eskura euzko gaztedikoak, eta esan zioten makilla ari bertso botatzeko, eta baita bota ere:

Eskerrik asko, gazte maiteak,
makilla ederra da ori,
gizon bat zegon errenka eta
zuek eskeiñi berari;
begiratu bat egin orduko
ni naiz kontura erori:
erromatarrak apurtutako
lizar-makilla dirudi.

Irurogei ta amasei urte,
garaia det umiltzeko,
gauza aundiren bearrik ez det
goitik bera amiltzeko;
bi bastoi abek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko,
irugarren au andregaiari
arkakusuak iltzeko

Txirrita bi bastoiekin ibiltzen zan
beti, ta orduan ere ala etorri zan.
Reumak oso menderatuta zeukan, eta
orregatik bota zuan bertsoa:

bi bastoi abek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko."

Uztapidek geiago ere jarraitzen du,
baina "El día" egunkariak ere beste ze-
aztasun batzuk badakartza, onela dio...
"Meza, meza nagusia, ildako bertsola-
rien animengatik eskeñi zan. Erriko
erretoreak egin zuan sermoia.

Meza ondorenean, zenbait euskal
erritan oi zan antzera, txistulariak eus-
kal doinu batzuk jo zituzten kontzeju-
pean.

Amabiak laurden gutxiagotan, tea-
trora. Ager-tokian, erdi-erdian jarri-
ta, bere patriarka zaar itxurarekin,
Txirrita.

Bere inguruan zenbait bertsolari:
Lujanbio edo Saiburu; Telleri-Txiki,

Alkain aita-semeak, Uztapide, Lexo,
Basarri ta Txapel. Baita euskaltzale-
mordoska bat ere.

Aurrena, Jose Ariztimuño apaiz
jaunak, Aitzol'ek alegia, itzaldi bat
egin zuan:

Txirrita, bertsolarien erori-aldian, an-
tzu-aldian, guzien eusle, buru, biotz
eta maixu izana zala, eta bertsolari gu-
ziak aitortzen ziotela maixutasun ori;
bertsolaria diran bitartean gure erria
ez dala ilko.

Beste orrelako gauza asko esan zi-
tuan, Txirrita eta bertsolari guziak go-
ratuz.

Urrena, Bitor Idiazabal'ek, Erren-
deri'ko Euskaltzaleak alkartearen len-
dakariak, makil eder bat eskeiñi zion
Txirritari.

Makillaren esku-lekuaren inguruan
onela zion: Erreteriko Euskaltzaleak
Txirritari, 1936'g. Epaila'k 22.

Ondoren, bertsolari guziak bertso
pare bana bota zioten, aren bertsotara-
ko trebetasuna goratuz eta leenagoko
bi makillen gaiñetik irugarrena zerta-
rako ote zuan galdetuz.

Jende tartetik ere izan omen zan
beste bertsolari baten erantzuna.

Txirritak bi bertso kantatu zituan,
bere makil berri ura gai artuta.

Emen geienak bazenekiten
ni nola neguen eri,
orregatikan bastoi eder au
eman dirazute neri;
au ikusi nai duenak orain
ondo beiratu berari,
erromatarrak bentzitutako
lizar makilla dirudi.

II'garera BERTSOLARI EGUNEKO GUDUAN TXAPELDUN
AUKERATUAK



1. «Txirrita»—Altza. 2. «Uztapide»—Zestua. 3. «Zepai»—Errexil
4. «Dargaitz»—Otsondo (Baztan). 5. «Iriarte»—Banka (Benabera)

Irurogei ta amasei urte,
garaia det umiltzeko,
bultza bearrik ez nadukake
goitik bera amiltzeko;
bi makil oiek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko,
irugarrena andregaiari
arkakosuak iltzeko."

Jaialdia bukatzean elkarrekin bazkaltzera joan ziran nai zuten guziak eta bazkal ostean ere naikoa bertso izan zan.

Ikusi Uztapidek nola dion:

"Bazkal ondoan beste saio bat egin genduan bertsoan. Gozatu genduan Txirrita ta beste an ziran jendea. Onela jardun genduan Txirritak eta biok:

Uztapidek:

Zure bertsoa beti izaten da garbia eta klarua,
estimatzeke modukua da zuk daukazu zartzarua;
zu bezalako aita batekin gaztientzat anparua,
ankak piska bat makaldu arren argi daukazu burua.

Txirritak:

Nere arteko pasadizua esaten biet abitu,
zuri ez dizu kalte egingo eta mesedez aditu:
reuma gaiztuak arrapatuta elbarri nintzan gelditu,
neri gaitz ori eman ziranak zuretzat ere baditu.

Orrelakoxe saioa egin genduan ta gustora gelditu zan gure Txirrita.

Arratsaldean pelota-partidua bertan jokatu zan, Erreteriko batzokian. Pesta guzia antxe egin zan, da bazkaria ere bai. Toki zoragarria zan ura. Partidua, pasaitarrak alde batetik eta bestetik ez naiz akordatzen zein ziran. Soñu-jotzalle ederra ere bazan, da egun ederra pasa genduan.

Ni garaiz Donostira etorri nintzan atzera. Aita an neukan zai, ta ni ere kezketan nengoan. Aita nola egongo zan ez nekian, ta erretira ederra egin nuan. Ortantxe bukatu zan gure Txirritaren pesta".

Pena izugarria, bertsoaritzza xuxper-tzen asi zanean zorigaitzoko gerra zibila etorri zan 1.936-ko Uztailaren 18-an.

Txirrita bera 1.936-ko Ekainaren 3-an il zan, Goizuetako plazara bertso kantatzera zijoala atake bat eman zion eta andik laster "Gazteluene" Altzako bere baserrian azken arnasa eman zuan.

Gerra zala eta euskaldunak eta euskaltzaleak zapalduak, expetxeratuak eta ilak izan ziran. José Aristimuño "Aitzol" Ernaniko ilerri ondoan torturatu eta fisilatua izan zan Urriaren 17-an. Beste asko kartzelan eta al zuten danak atzerrira igesi joan ziran.

Bertsolariak ixildu ziran puskabaterako. Basarri, Uztapide, Zepai, Txapel,... eta abar gelditu ziran (bereak eta bi pasata) bi gerren ondoren, Espainiako eta mundukoa, erdi itzalian gelditu zan bertsoaritzaren-txingarra berpizteko.

Españiko gerra bukatzean euskaldunak kontu aundiz ibiltzen ziran. Ala ere Uztapidek bere liburuan dio "Asi giñan beintzat lanean, da bereala asi ziran bertsotarako deiak..." Beraz, errietako jaietan saioaren batzuk egiten zituzten, baiña txapelketarik eta olakorik ez.

Ifar aldean hasiko ziran bertsolariak askatasun geiagorekin, emen egoaldean kontu aundiarekin kantatu bear baizuten, politikako gaiak aipatu gabe. Zepaik naikoa lan izan zuan eta itzalpea probatu ere bai.

Txapelketak, amar bat urtean ixilean egon ziran. Antolatzaileentzat oso arrixkugarria baizan. Ego-aldean lenengo txapelketa 1.945-an egin zan Tolosan.

Ikusi zazute nola agertzen digun Uztapidek bere liburuan...

"Milla ta bederatzireun da berrogei ta bostean izan zan Tolosan bertsolarien txapelketa bat. An giñan gu ere. San Migel biaramona zan, Agorraren ogei ta amarra.

Bezperan Laurgaiñen giñan Basarri ta biok, ango pestak ziran, ba. San Migeletan egiten dituzte aiek pestak, laurgaindarrak.

Ezin esango zuan jendeak ondo deskantsatuta joan giñanik. Entrenatu berriak joan giñala esaten al zan. Baña gaba geiena an pasa genduan bertso-tan, da Basarri joan zan etxera ta ni bertan lotara gelditu nintzan.

Tolosara nundik joango ote nintzan, da Aiako Olaskuaga'ko Mariano zanak, berak eramango niñula motorrean esan zidan, da goizean lo piska bat

egiteko nik geiago, eta bertara etorriko zala Laurgaiñera. Ala, Tolosara joateko kezka kendu nituan.

Baña beste kezka bat bazegoan burutik kendu ezin zana: Tolosako txapelketa. Ori ezin aztu zan iñola ere. Oian makiña bat buelta egin nuan, baña ura beti buruan.

Alako batean etorri zan gure Mariano ori, ta bere motorrarekin. Ogei ta zortzi urte dira, ta orduan etzuan edozeiñek motorra ere; oso konta-alak zuten orduan. Arek artu Laur-gaiñen, eta Aian egon giñan piska baten Armendian-edo.

An ostatua zan orduan; antxe egin genduan gosari piska bat, eta trankilidade ederrean joan giñan Billabonara. Ni ara eramane niñuna ere il zan gizarajoa, ta zeruan gerta dedilla.

Tolosan genduan txapelketa, baña arratsaldean gendukan; eta bazkaria Billabonan, Juanito Atxukarro'k organizatzen zuan, ba, txapelketa. Billabonan taberna zeukan Atxukaro'k, eta aren etxean bazkaldu genduan bertsolariak danak eta juradukoak, eta beste kurioso asko gure bertsoak nolakoak ziran entzutera joanak.

Juradukoak iru izaten ziran orduan: don Benantzio Rekalde, Donostiko al-baiteroa edo beterinarioa; don Antonio Pagola eta don Domingo San Sebastian. Aiek ziran orduko juradukoak, eta, bazkaldu genduan, don Benantziok eman zizkigun konseju batzuk. Oraindik ere gogoan daduzkat aietatik batzuk.

An egin genduan bertso-saio bat, eta koparen bat edo beste artuko giñu-

zen; Tolosara joateko trenea artu bear da trenean berealaxe joan giñan.

Zazpi bertsolari giñan: Zepai, Asteasuko Batista Kortajarena, Saiburu edo Lujanbio, Mitxelena, Pablo Zubiarrain Ernani-Txikia, Basarri eta ni, Uztapide.

Tolosako pelota-lekuan genduan txapelketa ori; danak araxe juntatu giñan, eta igo genduan an eginda zeukaten sapai artara.

Lenbiziko agurra egin genduan danak bueltan; gero ofizioak, juezak jarrita. Artan ere egin genduan al genduan bezela. Gero puntuak jarrita, danai banan-banan bueltan, eta bakoitzak al zuana egiten.

Ala ari giñala, Zubeltzu-zar bertsolaria or ikusten det, neri txaloka ari dala. Nik bertsoa botatzen nuanean, erdi ipurdikoa bazan ere, egundoko txaloak jotzen zituan orrek; eta beste iñori etzion jotzen arek txalorik. Nere baitan:

- Danok etzeduzkat nik emen kontra!
Ura piñ ari zan laguntzen. Bertsotan nik egin bear, baña plazako jendea norbere alde izan edo kontra izan, bada alde. Jendea bere alde dagoala ikusitakoan, danai eragiten diote piska bat; eta zenbaiti, berriz, asko.

Pasa zan ango txapelketa ere eta jendea agurtu genduan beste bat arte. Sariak jaso bear zirala eta gu an geunden zeñentzako izango ote ziran zai; eta juezak, berriz, an ari ziran beren suma egin ezinda.

Alako baten jaikitzen da don Benantzio Errekalde, ta lenbiziko saria Basarrirentzat zala ta bigarrena Uzta-

piderentzat; irugarrena Mitxelena, eta laugarrena Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia.

Eta orretan banatu zituzten sariak, eta saririk etzuanai ere gastuetarako edo zerbait eman zitzaioten.

Caja de Ahorros'ek bazeukan beste erregalo bat, bera famatu eta bizio txarrak gorrotatutzen zituanarentzat. Auetxek dira Basarrik eta nik orduan kantatutako bertsoak:

Basarri:

Euskaldunaren pama da beti
kristau langilliarena,
izen on orrek poza aundi bat
biotzera dakarrena;
joku ta apustuz gañezka gabiltz,
erari geitxo barrena,
nere ustetan au da errian
biziorikan txarrena.

Uztapidek:

Gorroto izan bear genduke
bizio txarrentzako,
ez det esaten gose-egarriak
lanian ibillitzeko;
jokua eta erari asko
txarra da gizonentzako,
uste ez dala kalte aundiak
ekartze'itu zartzarako.

Basarrik:

Bide onari eutsi daiogun
eta txarretik aldegin,
geren lanetan zintzo jarraitu
bertan artuaz atsegin;
gazte sasoiko geran artian
txanpon-mordoska bat egin,
gero burua zuritutuzian
damurik izan ez dedin.



Saiburu, Pablo Zubiarrain (Hernani Txikia), Basarri, Uztapide, Ondartza ta Zepai (Mitxelena aurrena zegon baña ez da ikusten).



Uztapide ta Basarri.

Uztapidek:

Erreparatu zazute ondo
jarriko detan puntuan,
kristau izatia nola dagon
gorputzen mobimentuan;
jokua eta erariakin
ibilli arren kontuan,
biziorikan txarrena dago
seigarren mandamentuan.

Gerra ondoren lenbiziko izan zan
txapelketa auxen zan, da Tolosan izan
zan.

Tolosa beti izanda bertso zalea eta
orregatik urtero eramaten zituzten
bertsolariak S.Joanetan edo “Udaber-
riko Jaietan” guk izen orrekin ezagutu
genituan “karnabalak”.



Uztapide

Bertsolaritza, euskararekin batera zijoanez, une estu eta mingotzetan zebilen gure aldean eta alabearrez eta Jainkoari esker Ifar aldean agertu zitzaigun gizon miresgarri bat Teodoro Hernandorena. Onen eskutik berpiztuko dira bertso-txapelketak Ifar aldean. Lan aundia eta esker-eziña berak egin zuana.

Bertsolariak sakabanatuta zeudenez, auzoz-auzo, billatu eta txapelketara ekartzen zituan. “Nafarroako Bertsolaritza” liburuan Pablo José Aristorenak onela esaten digu...

“Munduko Bigarren Gerra amaitzearekin eman zituen lehen urratsak Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberuan bertsolaritzaren alde. Euskaltzaleen Biltzarrak antolatzen zituen bestetan bertsolaririk ez zen izaten. Euskal erakunde horretako arduradunek, Louis Dassance buru zutelarik, ez omen zieten -Hernandorenak aipatzen duenez- jaramonik egiten bertsolariei. Dassancek berak, kantu zaharrak bilduz hainbertze lan egin zuenak, erran omen zion Teodorori ez zela bertsolaririk Ipar Euskal Herrian eta zirenak, irrigarriak. “Halako amorrazioa eman zidan -dio-, bertan erabaki nuela Euskal Herria miatzea bertsolariren bat topatzeko”. Erran eta egin. Xalbadorrek berak “Odolaren min-tzoa”n gogoratzen du nola “gerla ondoan, Hernandorena abiatu zenean hemen gaindi pertsulari bila, nitarat ere gidatu zuen. Donibane Lohitzunen muntatu zuen txapelketa batetarat ereman ninduen.(...) Donibaneko egun hori enetzat munta haundikoa izan zen, eta ahalgerik gabe

erran dezaket, gu, Mattin eta ni ere Hernandorenari esker ezagutu gaituela Euskal Herri osoak”.

Izena eta ospea Xalbador eta Mattinek, Mattin eta Xalbadorrek bilduagatik, Hernandorenak herriz herri, auzoz auzo, hamasei bertsolari bildu zituen 1946an lehen aldikoz Donibane Lohitzunen egin zen bertsolarien bilduran. Ez zen lan samurra suertatu bertsolariak biltzearena. Lapurdiko Hendaian hasi, Baxenabarre goiti-beheiti miatu eta Xiberuako Irurirainoko bazter eta zoko moko guztiak arakatu zituen. Denetan lehena Ahetzeko Mattin atzeman zuen. Ahoz aho helitzen diren berrien eta ezagunen bitartez osatu zuen hamaseikotea. Bankan bizi zen Juan Felix Iriarte iruritarrarekin hitzegitean, baiezkoa eman eta berarekin bertze lagun bat eramanen zuela agindu zion. Lagun hori Urepelgo artzai eta laborari bat zen, Ferdinand Aire. Dena den, batzuek izana berehalakoan eman bazuten, bertzeena behin eta berriz bila joan ondotik lortu zuen. Simun Ibarra “Zubikoa” goitizenez ezagutzera eman zenak jarri zituen trabarik gehien.”

“Zubikoa, sortzez Sunbildarra zen baina Espainiako gerra burutu zenean iheslari joan zen Bankara. Arrazoi hori tarteko, ez zuen parte hartu nahi Donibane Lohitzuneko bestan. Hernandorenak orduan, Sunbillako bere ezagun baten etxearen izena eman zion Ibarri Donibanera hurbildu zedin. Urte batzu beranduago, Zubikoa Nafarroako Bertsolari Txapelketan ari-



Etxahun



Mattin



Felix Iriarte, Banka.

tu zelarik, “Zubikoa” etxekoek gutun bat bidali zioten Pedro Diez de Ulzurrun, Iruñeko mediku eta Nafarroako txapelketen antolatzaileari, Simun Ibarrek erabiltzen zuen izenordea haien etxearena zelakoz haserrea azalduz. Gisa bereko aunitz gora-behera aipagarriz urratu da Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko bertsolaritzaren bidexka.

Mugaz haraindi eratutako Donibani-ko lehen bertso saio harek ez zuen arrakasta haundirik lortu. Giro apala eta jende eskas hurbildu zen “Maite-na” Trinketera. Zorrak poltsikotik ordaindu beharrak ez zuen Hernandorena apaldu ordea, eta berahalakoan antolatu zuen bigarren saio bat Hazparnen.”

Donibane-ko bertso saioak ez zuan arrakasta aundiegirik izan, Donibane ez baizan oso euskalduna garai aietan eta bertsolariak ez zituzten aitzakotzat artzen. Bi aldiz ospatu ziran jaialdiak eta bietan oso jende gutxi.

Lenengo jaialdia, Hernandorenak antolatua, 1.946-ko buruilaren (Irailaren) 22-an egin zen Donibane Lohitzunen. Amasei bertsolarik artu zuten parte eta Azparneko txapelketarako 8 autatu ziran. Auetxek ziran bertsolariak eta txapelduna Iruriko “Etxahun”.

* 1946 Donibane Lohitzune, buruilak 22. Bertsolariak: Xalbador, Zubikoa, Intzabi, P. Iriarte, Xetre, Goikoetxea, Aintziart, Errexil, Etxahun, Larramendi, Gariador, Etxexuri, Mattin, Meltxor, Larramendi eta Felix Iriarte. Hauetatik zortzi hautatu zituzten Hazparneko saiorako.

* 1946 Hazparne, azaroak 17.

Bertsolariak: Xalbador, Zubikoa, Etxahun, Felix Iriarte, Goikoetxea, Mattin eta Meltxor. Txapeldun: Etxahun Iruri.

Urrengo urtean ere ez zuen etsi eta iru jaialdi-txapelketa antolatu zituan. Lenengoa Ezpeletan 14 bertsolariekin eta naikoa arrakasta ona izan zuan. Ona emen jaialdian parte hartu zuten izenak eta txapelduna.

*1947 Ezpeleta, abuztuak 24.

Bertsolariak: Etxahun, Etxemendi, Meltxor, Errexil, Sarasola, Mattin, Felix Iriarte, Alzuiet, Sohuet, P. Hiriart, Larramendi, Zubikoa, Miura eta Xanpun.

Txapeldun: Mattin. Bigarren: Felix Iriarte.

Bigarrena 1.947-ko Irailaren 8-an Donibane Garazin antolatu zuen, ez zan jende geiegi ikustera joan baiña bertsolaritza erakustea zan orduko elburua. Auek izan ziran partaideak eta txapelduna.

* 1947 Donibane Garazi, buruilak 8.

Bertsolariak: Felix Iriarte, Mattin, Etxahun, Zubikoa, Errexil, Meltxor, P. Hiriart eta Larramendi.

Txapeldun: Mattin. Bigarren: Felix Iriarte.

Irugarrena 1.947-ko Urriaren 5-an ospatu zen Donibane Lohitzunen. Len esan degun bezela ez zan jende asko izan baiña jendeak bertsolariek zer ziran ikusten zituan. Orra, emen parte artzailleak.

*1947 Donibane Lohitzune, urriak 5.



Mattin-Xalbador

Bertsolariak: Mattin, Felix Iriarte, Zubikoa eta Etxahun. Emanda dauden gisa gelditu ziren.

Teodoro Hernandorenak urte aue-tan egin zuen lana esker-eziñezkoa da Ifar aldeko bertsolari denak auzoz au-zo bildu eta jaialdi antzeko txapelketa batzuk antolatu. Bere elburua ez zan txapelduna nor zan jakitea baizik ber-tsolaritza ezagutaraztea.

Lenengo bi urte oietan ifar aldeko bertsolariak bakarrik parte artu zuten, baiña laster animatuko zituan ego-al-dekoak ere eta euskal-erri guziko txa-pelketak antolatu.

1.948-an saiatu zan bertsolari mor-do bat biltzen eta Apirillaren 4-an izu-garrizko jaialdi bat antolatu zuan Saran. Parte artu zuten bertsolarien izenak auek dira:

*1949 Sara, apirilak 4.

Bertsolariak: Aldaz, Trounday, Argin-degi, Irigaray, Iturria, Xanpun, Hiriart, Urruty, Mattin, Felix Iriarte, Zubikoa, Xalbador, Meltxor, Errexil, Xetre, Intzabi, Goikoetxea, Sarasola, A. Lekuona, Kalbo, Pello eta Kattabil.

1.949-an Ego-aldeko bertsolariak erakartzea lortu zuen Txapelta nagusi

bat egiteko. Naizta jaialdiak antolatzen jarraitu bere biziko arrakasta izan zue-na Urruñako txapelketa izan zan.

Beste bi jaialdi ere eman zituan. Bat LUHUSON eta bestea Saran.

Ona emen izenak eta jaialdien da-tak...

*1949 Luhuso, apirilak 24.

Bertsolariak: Mattin, Zubikoa, Errexil, Xalbador, Xetre, Erramuzpe, Etxahun, Caillaba, Xanpun, Azkarrain, Larra-mendi bi anaiak, Ardantz, Telletxea eta Iturria Capdeville.

Txapeldunak: Xalbador eta Mattin.

* 1949 Sara, maiatzak 22.

Bertsolariak: Mattin, Xalbador, Zubi-koa eta Etxahun.

Mattin'ek euskaldun anaitasunatzaz emandako lauetatik azken pertsua:

Jakinsun ori mintzo zelarik
ni ere an nintzen alaino.
Orduko pena ezin irentsiz
nigarrez nago oraino.
Nere arraza zabaltzen bai-ta
Ahetze'tik Lezo'raino
gipuzkoar bat nahiago dut
Norte'ko pranzes bat baino.

"Herria egunkaririk...

Urruñako Txapelketa nagusia: 1.949-ko Azaroaren 20-an ospatu zen gerra ondore, lenengo txapelketa nagusia. Ego-aldeko eta ifar-aldeko bertsolari ezagun guziekin. Jaialdia-ren egitura onela izan zan.

Goizeko amar t'erdietan meza, Lafitte jaun apezak eman zuen sermoi edo prediku eder bat eginez.

Bazkaria eguardian "Larratze" jattetxean, bertsolari, epai-mai eta buruzagien artean.

Arratsaldeko lauretan amalau bertsolariekin txapelketa. Ona ondoren beraien izenak:

* 1949 Urruña, azaroak 20.

Bertsolariak: Basarri, Errexil, Xalbador, Zubikoa,

Uztapide, Mattin, Etxahun, Felix Iriarte, Uhalde,

Sarasola, Trounday, Caillaba, Xanpun eta Capdeville. Txapeldun: Basarri. Bigarren: Xalbador.

Epai-maia auek osatzen zuten: Dassance Jauna mai-buru, Contantin, Monzón eta Oxobi jaunak laguntzaille.

Zerbitzari (Jean Elizalde) gai-emaille.

Bost saio desberdin egin ziran.

1.- Danak banan-banan agurra kantatzen dute.

2.- Gai bat danak artaz kantatzeko. "Aireplanoan il diran bost euskaldun gazte"

Basarrik biziki altxatzen ditu biotzak eta Xalbadorrek jendea negarrez

utzi, danak sentimentu unkgarriz kantatzen dute.

3.- Biñaka ofizioak emanda: Pelotaria eta muslaria, lege zarra eta berria, medikua eta gaixoa...ez zan gai eskasik izan.

4.- Puntuak jarrita, ontan bereizten dira adimen azkarrekoak, irri gozoak sortaraziaz.

5.- Gaia librea eta aditzailleak juez. Danak bukatu ondoren, txapelduna autatzeko lan estuak ziran eta beste gai bat jartzen diote lau lenengoeri.

Juezak elkartzen dira eta onela lerrokaten dituzte:

Txapeldun: Basarri. Lau mila libera eta kopa.

Bigarren: Xalbador. Bi milla libera eta autsonzi zillarrezko bat, Mexikotik bida

Irugarren eta laugarren berdin. Mattin eta Uztapide. Bi milla bana libera

Bostetik zortzira ere berdin: Zubikoa, Etxahun, Iriarte eta Errexil. Milla bana libera

Beste seiri ere sari hauek ematen dizkiote. Xanpuni 800 libera. (Libera frankoa)

Uhalderi 800 libera.

Truday-ri 700 libera.

Caillava-ri 700 libera.

Capdeville-ri 500 libera.

Sarasolari 500 libera.

Eskola jendez beteta eta danak asko gustatu dira. Eskerrak "Gernika" biltzarrari, egin duen lanaz. Mila esker Manu de la Sota eta Oihanburu Jau-neri, bilkura au antolatzeke egin duten lanagatik.



Basarri

Bigarren txapelketa nagusia: 1.950-ko Urriaren 1-an Donibane Lohitzuen ospatu zen bigarren txapelketa. Jaialdiaren egitura onela izan zan.

Parte artu zuten bertsolariak hauek ziran:

Sarasola
Mattin
Xanpun
Zubikoa
Errexil
Basarri
Iriarte.

Epai-maia: Louis Dassance Jauna mai-buru, Pierres Lafitte, eta Telesforo Monzon.

Teodoro Hernandorena Jauna gaien emaille eta gizatzaile.

Entuleen artean gizon ospetsu asko, ikusi zazue nola agertzen digun “Herria aldizkariak”.

“Aditzaileen artean, eskualtzale suhar andana bat. Bertzeak bertze, Hirigoyen jaun kalonjea bikarioekin, Charles Larre, De la Sota anaiak, Lasarte, Tournier jaun-andereak, etchevers aniak, Etchemendy, Fenri Etcheverry jaun apheza, Aguirre jaun Presidenta, Irigaray jaun mirikua, Aita, uyenart, Bourdieu berrikeraria, Dargaints inprimatzailea eta begirale andana bat.

Barka dezagutela heien izenik emen gabe utzi ditugunek, Donibandari ez izanez.

Hots, bertsolariak aditzale ohoragariak ukan dituzte.”

Bertsolariak lau saio desberdinetan probatzen dira.

1.- Bertsolariak elkar aurkesten dute biñaka, broma eta arpa joaz.

2.- Gaia emanda. “Donibanek zer zor dion itxasoari” Mariñelak goraituak dira.

3.- Puntuak jarrita. Ainbat irri eta gozamen jendeari emanaz.

4.- Ofizioak emanda: “Eiztaria eta jendarmea, aita- semeak, ezkonberriak...eta abar.

Juezak elkartu ondoren epai au ematen dute:

Txapeldun: Basarri 5.000 libera eta kopa 318 puntu.

Bigarren: Mattin 2.500 libera eta oroigari bat 299 puntu.

Iruharren: Iriarte 2.500 libera 284 puntu.

Laugarren eta bosgarren berdin: Xanpun eta Zubikoa. 2.000 libera 264 puntu.

Seigarren: Errexil 1.500 libera 244 puntu

Zazpigarren: Sarasola 500 libera, borondate onaren sari.

1.950-ko urtean, Donibane Garazin ere beste jaialdi berezi bat egin zan, ondorengo partaide auekin, Apirillaren 16-an: Sarasola, Uztapide, Oihenart, Basarri, Trounday, Errexil, Xalbador, Xanpun, Zubikoa, Caillava, Uhalde, Mattin eta Alkat.

Basarri bertsolariak jaso zuen lenengo saria.

Uztapidek aipatzen du beste txapelketa bat...

"1950'an izan zan txapelketa bat Donostian bertsolariena, Santo Tomas egunean. Zepai, Mitxelena, Lasarte ta ni giñan, lau bertsolari. Juradukoak, berriz, don Benantzio Rekalde, don Antonino Pagola ta don Domingo San Sebastian. Hoiiek izaten ziran gure juzgatzalleak. Tokia, Gros'eko pelotalekua.

Pilarmonika-jotzalleak ere bazituzten egun artan premioak; kantariak ere bai, zortzikoteak. Danak egun batean

ziran urte artan.

Guk, bertsolariak, an egin giñuzen geren saioak: lenbizi, agurra bina bertsotan laurok; gero, opizioak emanda, beste iruna bertso; bina bertso juraduak puntua jarrita, eta beste bina bertso, despeditzeko, laurok txandan. Artan bukatu zan gure txapelketa.

Juradukoak joan ziran beren klasi-fikazioak egitera, eta, etorri ziranean, Mitxelena lenbizi, Uztapide bigarren, Lasarte irugarren, Zepai laugarren; era ortantxen eman zuten beren erabakia".

Irugarren txapelketa nagusia: 1.951-ko Irailaren 23-an ospatu zen Baigorri irugarren txapelketa, jaialdiaren egitura onela izan zan.

Parte artu zuten bertsolariak ondorengo hauek izan ziran:

Etxahun, Zuberokoa.
Mattin, Lapurdikoa.
Xanpun, Lapurdikoa.
Zubikoa, Nafarrokoa.
Basarri, Gipuzkoakoa.
Iriarte, Beenafarrokoa.
Xalbador, Beenafarrokoa.

Epai-maia: Louis Dassance mai buru. Constantin, Monzon, Moulrier, Lafitte jaunak, laguntzaille bezela.

Elissalde Jauna gidatzaille eta gai emale.

Goizeko 10 t'erdietan meza nagusia eta eliza jendez brokatua. Meza emaile, Saint Pierre Etxeberri jaun erretora, prediku unkiagarria eginez.

Bazkaria, danak elkaturik, "Artze" jatetxe ospetsuan.

Arratsaldeko 4-etan Trinketearen bertsolari txapelketa, goi-beak jendez beteta.

Jaialdia asi bezain laster agurrak egiten dituzte bertsolariak. Ondoren gaiak emanda, bai irriarriak eta baita sakonak eta unkiagarriak ere. Biñaka, launaka, puntuak jarrita eta era guzietara probatzen dituzte.

Bukatzean epaimaia elkartzen da eta denbora luze amarra pasa ondoren onela lerrokatzen dituzte.

Txapeldun: bikotea, Basarri eta Xalbador, biak berdin-berdin.

Sariak desberdinak. Basarri Jakes Legassen kopa izugarria, iru aldiz jarraian irabazi zuelako: 1.959-50-51-an. Gaiñera 4.000 libera

Xalbadorri, 4.000 libera eta Mexikotik bidalitako urrezko txapel bat.

Irugarren: Mattin. 2.000 libera, bi botella koñak eta "Izarra" etxeak emandako pegar bat, oroigarri bat.

Laugarren: Zubikoa 1.500 libera, eta oroigarri bat.

Bosgarren: Etxahun 1.500 libera.

Seigarren: Xanpun, 1.000 libera.

Zazpigarren: Iriarte, 1.000 libera.

Bi sari berezi zeuden; bertso onenarentzat eta Beenafarroko onenarentzat eta biak Xalbadorrek eraman zituan. Danak ez omen ziran kontent sariekin baiña...!

Ortan bukatu zan txapelketa ura.

"La Voz de España" egunkariak ere antolatu zuan Gipuzkoan bigarren maillako bertsolarien txapelketa bat. Kanporaketak ekainean eta uztaillean izan ziran.

Azpeitian, Arrasaten eta Tolosan ospatu ziran. Parte artzaille ezagunak aukeratu ziran: Berasarte, Lexoti, Patxi Larrañaga, José M. Iriarte, Alkain eta José Miguel Iztueta "Lazkao-txiki". Tolosan, 1.951-ko uztailaren 10-an jokatu zen txapela eta ordena onetan gelditu ziran:

Lenengo Berasarte.

Bigarren Lazkao-txiki.

Irugarren Lexoti...



Xalbador - Basarri

Uztapidek bere liburuan onela agertzen digu txapelketa auek “Lengo egunak gogoan II”, 220-223”

"Urrengo urtean berriz jokatu zan kopa, eta irugarren eta azkeneko aldiz Baigorriin jokatu zan. An joan zan Basarri bere kopa aundi ori artuta, kopa irabazten zuana urrengo urtean bere koparekin joaten zan, ba.

Antxe bildu ziran, ni ez nintzan joan baña, Zuberoko Etxahun, Xanpun, Mattin, Naparroako Zubikoa, Basarri, Iriarte eta Xalbador, zazpi bertsolari, irugarren aldian kopa bat jokatzera. Esan bezela, an bildu ziran Baigorriin.

Meza nagusia lenbizi, jendez eleiza betea zala, amar ta erdietan. Gero bazkaria Arze-baitan, eta bazkaltzeko denboran bai omen zan bertso ederrik.

Gero, lauretan, trinketean, bertso-saioa. Jendea asko omen zan entzuten ere.

Maiko juezak: Dassance, Constantin, Monzon, Oxobi eta Lafitte. Gaiak ematen, berriz, Zerbitzari apaiz jauna.

Egin omen zuten bertso-saioa, eta kopa aundi ori Basarriri ematea erabaki omen zuten juezak. Xalbadorrek ere berdin irabazi omen zuan urte artan; baña Basarrik len beste bi urtetan irabazia zuan, ba, kopa ura bera, eta orreatik pentsatu zuten Basarriri ematea eta beste lau milla franko.

Xalbadorrek Mejikotik bialdutako urrez bordadutako txapela eta lau milla franko. Orrelaxe banatu omen zizutzen urte artako sariak. Zazpi bertsolariak danak zizutzen beren sariak.

Basarrik, berriz, iru urtetan illaran irabazi zuan kopa bat, eta orduan

eman zioten beretzat; eta gero, ori orrela gertatu zala bide, Zarauzko erriak omenaje eder bat egin zion Basarriri. Au milla bederatzireun da berrogei ta amaikagarren urtean zan.

Andik urrengo urtean, milla ta bederatzireun da berrogei ta amabian, Saran egin zan berriz beste txapelketa bat.

Orduan bertsolari asko joan giñan emendik ere: Basarri, Mitxelena, Lizaso, Lexoti, Lasarte eta ni, Uztapide; eta mugaz arunztik, berriz: Errexill, Etxahun, Mattineta Xapun; amar bertsolari danetara.

Epai-maian auetxek ziran: Constantin, Leremboire, Labeguerie, Etchemendy, Lafitte, eta danen buru Dassance, Euskaltzaleen Biltzarreko nagusia. Gaiak ematen, berriz, Oxobi.

Da Mattin txapeldun juzkatu zuten. Mattin oso ondo aritu zan, baña gu arrituta gelditu giñan, egun artan Basarriri nola eman etzioten txapela. Bein ere ondo egin baldin badu Basarrik, orduantxe egin zuala esango genduan geok; baña zerbait pasa zan an.

Juezen erabakia onela izan zan: Mattin txapeldun; ni, Uztapide, bigarren; Basarri irugarren; laugarren, Etxahun; bostgarren, Lasarte; seigarren, Lizaso; zazpigarren, Xanpun; zortzigarren, Errexil; bederatzigarren, Lexoti; eta amargarren, Mitxelena. Era onetan izan zan ango erabakia. Sarako trinketean zan txapelketa hau.

Beste batean Donibane-Garazin izan zan beste txapelketa bat. Ara ere joan giñan Basarri ta ni biok.



Mattin

An ere bagiñan amairu bertsolari edo zerbait ere juntatu giñanak, eta an ere egin genduan gure bertso saioa.

Baña an ez nuan eduki oso egun ona ere: Basarri txapeldun, Xalbador bigarren, Mattin irugarren, laugarren Zubikoa eta bostgarren ni, Uztapide.

Beñere ez naiz olain atzean gelditu oraindik txapelketa batean; baña nero-nek antz eman nion gaizki egon nintzana, eta beste baterako esperantzan etxeratu giñan.

Beste batean Baigorriara joan giñan: iru bertsolari, mugaz emengoak, iru mugaz arunzkoen kontra jokatu bear zala, eta berrogei ta amar milla franko, eta galtzen zuanak ogei.

Gu emendik, Lizaso eta Lasarte eta ni Uztapidek osatzen genduan taldea joan giñan; eta andik, berriz, Xalbador eta Mattin eta Zubikoak osatzen zuten taldea atera zan; eta ala jokatu ere egin genduan.

Ez genduan esperantza aundirik eraman aruntz, baña guk irabazi genduan edo guri irabazitzat eman ziguten. Beñere ez det alako pozik artu oraindik bertsotan eginda, han irabazi genduanean baño. Beren etxera joan da irabazte orrek, beti izaten du alako poz bat.

Gero berriz emen jokatu behar zan; Billabonan egokitu zan jokatzeara, eta berriz ere guri eman ziguten irabazitzat Igande-arratsalde batean jokatu genduan emengoa.

Aiek beren automobillakin etorriak ziran orduan, Paul Iturnier-edo Sarako alkatea eta orrelako batzuk. Amasan bazkaldu ta egun-pasa ederra egiña zuten. Baña oso ondo portatu ziranik ez det uste Billabonatarrak; nik alako moduko kontuak aditu nizkien berai. Dana dala, orretan bukatu zan orduko gure eguna".



Lizaso - Lasarte - Uztapide

Sara'ko trinketian egin zan txapelketa batian bertsularieri eman zitzaio-ten gai hau:

“Zer uzten du Eskual-Herrian Ameriketara juaten den eskualdun batek.”

Ona Xalbador'en erantzuna:

"Ezin-bertzeak ekharri deraut
Herritik urrun joaitea
Zer bihotz erdiragarria
Ait'ama onen uztea.
Nigar samintsu bero batekin
Despeditu dut maitea
Horiek asko ez othe dira
Oi, gaixo Eskual-Herria".

Laugarren txapelketa nagusia: 1.952-ko Abenduaren 28-an, Sarako trinketean jokatu zan Euskalerriko lau- garren txapelketa ifar aldean.

Beti bezela meza nagusiarekin as-ten dira, goizeko 10-tan, Etienne Sallaberryren prediku ederra! Eliza jendez brokatua, betea.

Eguardian bazkari ederra bertsolari eta epaimaikoekin, ez zan bertsorik falta izan.

Arratsaldeko 4-etan txapelketa. Parte hartu zuten bertsolariak hauek ziran:

Basarri
Mixelena
Lizaso
Uztapide
Lexoti
Lasarte
Errexil

Etxahun

Mattin

Xapun

Epai maia hauek osatzen zuten: Louis Dassance buru, Constantin, Lereboure, Labeguerie (iru medikuak), Etchemendy eta Lafitte.

Gidatzaillea eta gai emaillea “Oxobi” apeza.

Egitura: Usarioan bezelatsu egin zuten txapelketa.

Agurra: bertsolari danak Sarako erriari.

Gaia emanda: “Eguberriak” gaitzat artutik launa bertso.

Biñaka ofizioak emanda: Moskorra eta andrea, egia eta gezurra, sudurra eta belarria eta abar iruna bertso.

Berriro gaia emanda: “Urteberriz” mintzatu bear zuten.

Ondoren puntuak jarrita. Launa punturi erantzun.

Azkenik, biñaka ofizioak emanda.

"Ororen buruan, epaimaikoek era- bakia ekartzen dute abixotxo bat ema- naz “Eguberriak” egin bertsuetan aise nagusitu zela Basarri, bainan bertze sailetan ez zuela hain ontsa kausitu al- di huntan...” Beraz, bildur ziran Basarriri lenengo puestoa ez emateko. Onela sailkatu zituzten...

Txapeldun: Mattin, 10.000 libera eta kopa. 246 puntu

Bigarren: Uztapide. Mexikoko urrezko “peso” bat eta “Izarra”ren pegar bat:

241 1/2 puntu eta 9.000 libera.

Irugarren: Basarri, 8.000 libera eta 2.000 bertso onenarengatik. 241 puntu

Laugarren: Etxahun 6.000 libera. 218 puntu

Bosgarren: Lasarte, 5.000 libera. 216 1/2 puntu

Seigarren: Lizaso, 3.000 libera. 202 puntu

Zazpigarren: Xanpun, 3.000 libera. 200 puntu

Zortzigarren: Errexil, 3.000 libera. 187 puntu

Bederatzigarren: Lexoti, 3.000 libera. 185 1/2 puntu

Amargarren: Mitxelena, 3.000 libera. 179 puntu

Trinketea goi ta bee beterik egon zan, kazetari asko bi aldetakoak.

Etxaide eta Bordari ere entzuleen artean ziran.

“Radio-difusión” delakoak bertso danak jaso zituan.

Stern Jaun Amerikanoak filme bat “Euskalerriaz” egiten ari zan eta imajina batzuk txapelketatik jaso zituan.

Jendeak txalo aundiz artu zuan Mattin txapelduna “Biba Mattin” oiukatuaz.

Ifar aldeko txapelketa nagusiak emen bukatu ziran, naiz eta geroztik leiaketa batzuk antolatu.

Urrengo urtean 1.953-an leiaketa bat eta desafio bat izan ziran ifar aldean.

Luhuson mugaren bi aldetakoen desafioa. Batetik Uztapide, Lasarte eta Lizaso, eta bestetik, Xalbador, Mattin eta Zubikoa. Saio orretan Gipuzkoarrak nagusitu ziran.

Urte ortan bertan beste saio eder bat Baigorriin egin zan, buruillaren 27-an (iraila). Partaideak hauek izan ziran Xalbador, Mattin, Uztapide, Lasarte, Lizaso, Xanpun, Zubikoa, Etxahun eta Alkat.

Gerora ere jarraitu zuten leiaketa batzuk antolatzen eta naikoa fruitu onak ematen. Ego-aldean dozena erdi bat bertsolari zebiltzen erriko jaietan kantatzen baiña txapelketarik ez zan aipatzen ere.

1.954-ko Irailaren 12-an Hazparnen sariketa bat antolatu zuten. Partaideak ondorengo hauek izan ziran: Basarri, Xalbador, Uztapide, Xanpun, Mattin, Lizaso, Lasarte, Zubikoa, Felix Iriarte, eta Alkat.

Irabazlea: Basarri eta Bigarren Xalbador izan ziran.

Ondoren utsune aundi bat nabaitzen da. Beste lau bat urtetan ez da orrelako sariketa berezirik antolatzen. Azkenik Euskaltzaindiak artuko du bere gain bertsolariaren ardura eta txapelketen bidez xuspertzea.

Euskaltzaindiaren garrantzia ondorengo txapelketetan.

Garai aietan kontu aundiarekin ibili bearra zegoan. "Regimeneko" gizonen bat beti bear zan gauzak antolatzeko. Norbaiten babesean edo baimenarekin antolatzen ziran Euskalerriko ekintza guziak. Euskaltzaindiak bazuan bere itzala eta bertsolaritza euskerarekin lotua zegoenez bere eginkizunen tartean sartu zuan. Merittoa izugarria Alfonso Irigoienek du. Bere eskutik agertu bai ziran Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta azkenik Euskalerriko txapelketa mordoa. Ala ere berak naiko errexa izan zala esaten digu, bere omenaldiko liburuxkan. Pentsatzen degu laguntzaille onak ere izango zituala baiña garai aietan ainbat txapelketa antolatzeari ez zala oso errexa izango, ez diru aldetik, ez baimen aldetik.

Alfonso Irigoienek itzak jarriko dizkizuet segidan, ikus dezazuen nola sortu ziran txapelketa aiek...

(1) "Orain gatozen zure omenadiari zuzenen datorcion motibora, bertsolaritza alegia. Gerrosteko txapelketak hasi zirenetik, zure irudia bertsozale guztian begietan zegoen. Nola izan zen txapelketen hasera hori?"

Nahiko hasera simplea izan zen. Orduan Bizkaian bertsolariak ez ze-

biltzan. Gipuzkoan Basarri, Uztapide eta beste zenbait bazebiltzan. Emen Balendin Enbeita apur bat, baina ez gehiegi. Gerra aurrean izan ziren txapelketak, eta aurrerago, joan zen mendean eta mende honen lehen zatian, baziren Lore jokoak, bertsolariak bultzatzeko. Baina jende ikasien artean, bertsolariak ez zeuden oso ondo ikusiak, euren euskaragatik eta abar. Azkuek ere ez dut uste bertsolariak maiteegi zituenik. Aitzolek, ostera, gerra aurrean lan handia egin zuen, bertsolaritza bultzatzen. Teodoro Hernandezena bide horretatik zetorren, eta honek gerrostean bertsolariak Parisera eramane eta halako txapelketak edo demak antolatu zituen. Guk horren entzutea bagenuen, eta behin esan genuen: "Zergatik ez dugu hemen ere zerbait egiten?". Eta pentsatu eta egin.

Errez kontatu duzu, baina ez zen hain erreza izango.

Zaila ere ez. Bizkaiko txapelketa egitea pentsatu genuen, Bilboko Arenalean. Bertsolariak deitu eta puntu. Denak pozik etorri ziren. Lehenengo hartan ez zen eskualdekako saiarik izan.

Baina hura antolatu egin beharko zen: propaganda, epaimahai, gaiak, etab.

Bai, jakina. Baina ez zen hain zaila. Epaimahai osatzeko, Erkiaga, Aita Onaindia, Aita Martzel eta halako batzuri esan eta pozik hartu zuten.

Eta gaiak eta abar nork egiten zuen?

Ah, bai. Neuk, jakina! Dena neuk egiten nuen. Gaiak asmatzea ez zen

(1). Bere omenaldiko liburuxkatik

hain zaila, edozer ipinita ere, dena berria bait zen. Orduan alde horretatik ez zegoen oraingo koskarik

Orduan dena zen berria eta dena onartua.

Eta propaganda nola zabaltzen zenuen?

Hori ere ez zen hain zaila. Telefonogidan, herrietan Bar ipintzen zuten guztietara sobre bat bidaltzen nuen, eta gero eurek jartzen zuten tabernan. Jendea oso ondo enteratzen zen. Batzuren batzuk sobreaki muzin egingo zioten, baina gehienek pozik jartzen zituzten kartelak euren tabernan.

Eta baimen edo kontrol aldetik trabarik izan al zenuten?

Hortxe ibili behar zen argi. Inoiz gertatu zitzaigun igande batean altabozak ukatu eta Arenalkada guztia etxera bidali beharra. Baina hurrengo igandean berriz egin genuen, eta jende gehiago etorri zen, ordurako altaboz kontuak ondo argituta.

Durangoko abade karlista bat ere. Don Jose Etxeandia, horregatik sartuko zenuten epaimahaian agian.

Bai. Hura Durangoko Santa Anako parrokoa zen. Karlista gogorra. Gerrostean abertzaleen aurka liburu bat ere idatzia zuen. Baina pozik etortzen zen epaimahaiko, eta hori pentsa dezakezu zergatik egiten genuen. Halakoak tartean zirela, agintarien susmo txarrak errezago uxatzen ziren. Egia esan, zuhurtzia pixka batekin jokatzen genuelako-edo, baimen aldetik ez zen oztopo gehiegi izan.

Bigarren txapelketa, eta gero denak

halaxe, aurretik eskualdeka kanporaketak eginez burutu zenuten. Gogoan al daukazu nola izan zen hori?

Bai. Xehetasun batzuk joanak ditut, baina lehenengo fasea eskualdeka egin genuen. Gogoan daukat Urkiolan hasi ginela, San Antonio egunean, han jende asko batzen zela-ta. Lau eskualde egin genituen: Durangaldea, Markinaldea, Busturialdea edo Gernikaldea, eta Arratia. Eta gero horietako lehen-bigarrenekin Bilboko Arenalean azkena. Bigarren hau ere Balendin Enbeitak irabazi zuen. Hirurogeian Zezen Plaza aldatu ginen eta han Mugartegik irabazi zuen. Hurrengo Azpillagak irabaztea gertatu zen, eta gero hurrengo hirurak Lopategik. Gero txapelketen etena etorri zen, eta hurrengo Bizkaikoa oraintsuko kontua da. Hau ere Lopategik irabazi zuen.

Alfontso Irigoienek batzutan geldialdiak egiten ditu, oroimena arakatzan bezala. Datak eta gauza horiek ez ditu oso gogoan. Inguruan ibili ziren pertsonen ere sarritan zalantzak agiri zaizkio, baina ibilera eta egikera eta txapelketa haien filosofia orokorra oso zehatz eta argi azalduko dizu. Eta gehien harritzen nauena, bere lanari batere garrantzirik eman gabe. Oso errez egiten omen zuen dena.

Agian dena bakarrik egiten zenuelako errezago?

Ez dakit. Gehien kostatu zitzaidana Gipuzkoako lehen txapelketarako Uztapide konbentzitzea izan zen. Urriaren azken astelehen batez, Uztapide Gernikan zen beste batzurenkin. Egun osoan atzetik ibili nintzaion. "Nik txapelketa horretan asko gal ne-

zake ta irabazi ezer ere ez” esaten zidan. Hori betiko arazoa da. Orain nuen ere araso bera dago, zuk ondo jakingo duzunez. Baina nik ere ez esten, bertsolaritzari bultzada bat eman behar zitzaiola eta abar. Baina Uztapidek ezetz eta ezetz. Nik ekin: “Gero Euskal Herri osokoa prestatu behar dugu eta bertsolaritzari indar handi bat eman behar diogu”. Azkenean, asper-tuta-edo, esan zidan: “Beno, beno! Jar nazazu, ba!”. Eta jarri eta aurrera. Inor ez zen ausartu ez etortzen. Eibarko Unzaga plazan agian hamabost mila lagun izango ziren, denak zutik eta adi. Uztapidek berak irabazi zuen.

“Jarri eta aurrera” esan duzu. Izenak aurretik kontsultatu gabe jarri al zenituen kartelean?

Ba, ez naiz ondo gogoratzen nola egin nuen.

Ondo gogoratzen ez bazara, seinalea zerrenda jarri eta kito egin zenuela.

Ba, agian bai. Gipuzkoan orduan ezagutzen genituenak jarri nituen. Denak etorri ziren, eh? Eta jendea erruz. Hor egongo da kartela. Zortzi-hamar izango ziren. Eta gero, jakina, Gipuzkoan bertsolariak perretxikoak bezala irteten hasi ziren.

Eta Nafarroan?

Bai. Bizkaiko txapelketen entzutea asko zabaldu zen, eta Nafarroan horretan arazo politiko gutxiago zegoen hemen baino.

Nafarroako Diputazioan bazen “Sección del Fomento del Vascuence” saila, eta horren inguruan “Príncipe de Viana” aldizkaria. Behin Pedro Díez de Unzurrunek idatzi zidan, ea aholku-

lari eta puntu jartzaile egingo nuen. Eta halaxe antolatatu genuen han ere, lehenbizi eskualdeka, eta gero onenekin Iruñako Gayarre antzokian.

Eta zer ibilera egiten zenuen, zeren Nafarroako zenbait alderdi Bilbotik urrun izango ziren orduan.

Ah. bai. Bezperan autobusa hartu eta Iruñera joaten nintzen. Han Unzurrunek itxoin eta hotelera eramaten ninduen. Biharamonean berak autoz eramaten ninduen behar zen lekura. Gauean berriz hotelera eta biharamonean autobusa hartu eta Bilbora. Han gainera milako bat-edo ematen zidaten eta pozik. Bizkaikoetan ez nuen ezer kobratzen.

Gipuzkoako txapelketen hasera Arantzazuko biltzar famatuak ekarri omen zuen. Han beste biltzar bat egitea pentsatu zen, eta herrizat Eibar hautatu zuten, Mogelen omenez. Hori zela-ta, Gipuzkoako txapelketa bertan antolatzea ondo legokeela eta halaxe hasi ziren eragiten. Hasi eta egin, eta itzel irten gainera.

Txapelketa inguruko giroa nolakoa izaten zen?

Jarraitzaile aldetik bikaina. Bilbo-ko Arenala bete-bete egiten zen. Orduan ez zegoen ez telebistarik ez ezer, eta euskaldunek bazuten halako egarri gorde bat, eta zerbait euskaraz jarri ezkerro, jendea aisa erakartzen zen, eta bertsolaritzan bezala, txapelketa usaina izanez gero, askoz gehiago. Nafarroan ere giro handia sortzen zen, baina Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere ikaragarria izaten zen.

Hainbeste lan-mota eta gai asma-

tzeko, burua ere pixka bat nekatu beharko zenuen.

Lehen ere esan dizut hain zaila ez zela. Gauzarik simpleenak ere berri gertatzen ziren. Gero, batez ere Gipuzkoako finalean eta Euskal Herrikoan, epaimahaikoak ere jarri genituen lanean, gaiak asmatzen eta abar.

Eta saioen diseinua nork egiten zuen edo nola atera zenuen? Zeren gutxi gora behera orduantxe jarritako gai-jartze eskemak jarraitzen du orain ere.

Hori dena neuk egin nuen, jakina. Puntuak ipintzea eta abar, ba, tradizio-tik, edo ikasita edo, halako itxura bat baneukan. Nik ez dakit neuk zer asmatu nuen. Nahiko espontaneo izan zen dena, teman, puntuak eta abar. Gero gartzelakoa Gipuzkoarren batek asmatu zuela uste dut.

Bertsolariei asko tiratu behar al zeni-
en, parte har zezaten?

Ez, ez, ez! Eurek ematen zuten izena. Nik iragarri bakarrik. Bazen kasuren bat edo beste, Uztapiderena bezala, baina hori beste arrazoi bategatik zen.

Eta protestarik?

Orduan inork ez zuen protestatzen. Gauza berria zen, eta nik uste Euskal Herriak bazeukala horren gosea.

Eta zuk zeuk ere bertsotan egiten zenuen. Neuk ere entzun zaitut behin baino gehiagotan. Nola ikasi zenuen?

Ba, hainbeste ibili eta hainbeste entzunda, ergela ez denari zerbait itsasten zaio.

(1)Amuritzak egindako elkarrizketatik jaso

Baina zuri zerbait baino gehiago itsatsi zitzaizun. Nik gogoan daukat zuk taka-taka egiten zenuela bertsotan.

Ba, hara. Gogoan daukat bazkalondo batean neu ere hasi nintzela eta ekin.

Aizu, baina hori hasi eta ekin beste gabe ez da egiten, eh?

Ba, egingo nuen. Ez naiz gogoratzten. Hainbeste entzunik, teknika eta hainbat formula ere buruz ikasten dira. Eta gero aplikatu. Nik ez dakit onak ala txarrak egiten nituen, baina egin bai.”

Bizkaiko bertsolarien lenengo txapelketa. (Euskaltzaindiak antolatua) 1.958-ko Abuztuaren 24-an Bilboko Areatza-Arenalean.

Ordurarte Bizkaian bertsolariak izan arren, txapelketarik antolatzeko ausardirik ez zuten izan. Alfonso Irigoienek berak Bizkaiko bertsolari ezagunenak bildu eta inongo kanporaketa gabe, berak gaiak eta puntuak prestatuak, Bilboko Arenalean ospatu zuan lenengo txapelketa. Euskaltzaindiaren izenean prestatu zuan. Izugarriko arrakasta izan zuan, jendez beterik Arenal guzia, zortzi bat mila persona izango zirala esaten digu “La Gaceta del Norte” egunkariak. Alfonso Irigoienek berak ematen digu txapelketa aien zeaztasunak “Euskera” Aldizkarian. Ikus ezazute nola dion.

BIZKAIKO BERTSOLARIEN LENENGO SARIKETE

“Aurten Bilbo-n Euskaltzaindiak antolatuta, Bilbo-ko jaien barruan, Bizkaiko bertsolarien lenengo sarikete



Balendin Enbeita - Arriola - Alfonso Irigoyen

egin da. Ama Virgiñaren egunean, agustuko amabostean egitekoa zan, baiña euriagatik atzeratu egin behar izan zen eta agustuko 24-an egin zen Arenala puntatik puntara beterik zegoala. Bizkaiko txapeldun Valentín Embeita jauna gelditu zen eta Bizkaiko Diputaziñoaren kopa eta iru milla peseta eman zitzaizkan; bigarren, Juan Ormaetxe jauna eta Bizkaiko Ahorro-Kaxaren kopa eta bi milla peseta; irugarren, Jose Alberdi jauna eta Bilbo-ko Ahorro-Kaxaren kopa eta zaspireun eta berrogeita amar peseta; laugarren, Asensio Bidaurrezaga jauna, bosteun peseta; bosgarren, Eusebio Zubiaga jauna, bosteun peseta; eta azkenez Pedro Kastrejana eta Florenzio Zarraga, bosteun peseta bakoitzari. Bizkaiko errietatik gente asko eta asko etorri zen eta datorren urterako beste bertsolari asko prest daude su ta ke ekiteko, leenbizi errietan, ia nor geldituko Bilbo-ko finalerako".

Urrengo urtean, 1949-an, berriro ospatu zan Bilbon bigarren txapelketa. Baiña ez zan lenengoa bezela egin, onenak edo ezagunenak aukeratu eta bale..! Bigarrena askoz obeto antolatu zuten. Errialdeka kanporaketak egin zituzten final Bilbon jokatzeko. Kanporaketak bost errialdetan jokatu ziran. Urkiola, Mungia, Bermeo, Markiña, eta Zeanurin. Danera 28 bertsolarik parte artu zuten eta jaialdi ederrak ere izan ziran. Orra Azpillagaren bertso bat puntua jarrita:

Zer egingo zenuke
txoria baziña...?
Laster egingo neuke

egazkada fiña,
mundu guzia ikusten
egin alegiña,
gura izanagatik
ezin joan baiña.

Epai maian auek ibiltzen ziran:
Nazario de Oleaga, buru.

Alfonso irigoien, idazkari eta gai jar-
tzaille.

Eusebio Erquiaga

Marcelo de Ardrinua

José de Echeandia.

Geienetan erriko alkatea eta parro-
koa ere epai maian edo buruekin ego-
ten ziran. Diru laguntzat Diputazioak,
Aurrezki Kutxak eta Udaletxeak ema-
ten zituzten.

Ikus dezagun txapelketa onen berri
nola ematen digun Alfonso Irigienek
"Euskera" aldizkarian...

"BIZKAIKO BERTSOLARIEN

BIGARREN SARIKETA"

Uda osoan ekin da Bizkaiko
Bertsolarien Bigarren Sariketa egiten.
Aurten Bizkaia bost zatitan partitu da
eta toki bakoitzetik txapeldun bat atera
da Bilboko azken txapelketa nagusira-
ko. Valentín Enbeitia igazko txapeldu-
na, libre gelditzen zan Bilborako.
Txapelketak egin diran erriak hauek
dira. Urkiolan, San Antonietan, bagil-
laren 13-an. Bost bertsolarik parte ar-
tu zuten eta Jose Alberdi Mañarian bi-
zi danak irabazi zuen. Mungian. San
Pedro bezperan, bagillaren 28-an.
Zazpi bertsolarik parte artu eta Juan
Ormaeche Larrauri-koa txapeldun.

Bermeon, San Pedroetan, bagillaren 29-an. Bost bertsolarik parte artu eta Deunoro Sarduy Muxikakoa txapel-dun. Markiñan, Karmenetan, garagarillaren 18-an. Zortzi bertsolarik parte artu eta Juan Azpillaga Ondarrun bizi dana txapeldun. Zeanurin, Andra Marietan, agustuaren 15-ean. Iruk parte hartu eta Basilio Pujana bertako semea, txapeldun. Errietako sariak auek ziran: Lendabizikoa milla pesetako eta Ayuntamientoaren kopa alkatearen estutik artua. Gaiñerako guziak bosteun peseta bakoitzak. Zenurin bertako familia batek emanikako kopa bat ere izan zan puntua ondoen bukatzen zuen bertsolariarentzat eta Jose Maria Artechek irabazi zuen.

Txapelketa auen inguruan, egin dira beste toki batzuetan ere, sariketarik kanpo. Ondarrun Agustuaren 16-an bertako Ayuntamientoak jarri zuen sariketa bat joan nai zuten bizkaitar guztientzat eta Juan Mugartegui-k irabazi zuen Azpillaga-ren haurretik gelditurik. Urrengo egunean Bilborako aukeratuta zeuden bertsolariak ekitaldi eder bat egin zuten Gernikan alkar probatu eta gertatzen ziran bitartean. Eta azkenez allegatu zan Bilbokoa, Agustuauren ogeitamarrerako izendatua zegoan Ayuntamientoak prestatzen dituen Bilboko jaien barruan, baiña altabozakin estroposo bat izanik aste bete atzeratu behar izan zan. Bilboko Arenalean amar milla personatik gora zeuden Bizkaiko erri askotatik etorriak adi adi entzuteko bertsolarien ateraldiak eta zurtasunak. Valentín enbeita-k irabazi zuen txapela. Artaz gaiñera Bizkaiko Diputazioaren kopa nagusia, eta

Bizkaiko Ahorro Kaxa-ren iru milla peseta. Bigarrena Azpillaga-k, Bilboko Ahorro Kaxa-ren kopa ederra eta milla peseta. Gaiñerako guziak, berriz, milla peseta bakoitzak.

Bizkaiko Ahorro Kaxa-k Bilboko sariaz gaiñera amar milla peseta eman zituen errietako sarietarako.

Bilbon azken txapelketa nagusia egin zan egun berean, goizean, Lekeition izan ziran seirak. Eta azkenez urrillaren 11-an durangoko frontoian, eta egun artan txapelketetan parte artu zuten bertsolari guziak, juradukoekin batera, bazkari bat izan zuten Hotel Alzaa-n, batzarre polit bat gertaturik.

Bilboko azken txapelketa nagusian Euskaltzaindiak euskeraz eta erderaz orri bat zabaldu zuen. Ona emen ziona, euskeraz:

“Euskaltzaindiak Bizkaiko Bertsolarien Bigarren Sariketearen amaieran esker beroak emoten deusiez Bizkaiko Diputazio, Bilboko Ayuntamiento, Bizkaiko Ahorro-Kaxa, txapelketak egin direan errietako alkate jaun, eta baita euren eikintzeagaz gure izkuntzearen edertasun oneri bizia emoten alegindu direaneri.

Gure herriaren aberastasun au gordetan alegiñak egin doguz orainarte, eta komeni danean be bardin ekingo deusagu, izkuntzea zainduteko, gordetako eta aberastuteko benetako gogoia iminirik. Gura geunke gure ekin-tza onek euskaldun guziak batuteko balio daien, edozein dala bere pentsetako modua eta bizimodua, guztiona dalako gure aurretikoengandik artu dogun aberastasun parebagea.

Guztieri dei egiten deusagu eta baita euskaldun eztireaneri be, gugaz bizi izanik eurenak legez artzen ditue- zalako gure gauzak.

Gure gurasoen izkuntzea gordetako lan egitea eskubideagaitik lan egitea da, eta baita berezko gauza bategaitik be.”

1.958-ko urtean bertsolaritza munduan, naiko gauza bitxia gertatu zan. Bertsolari onenak Parixera eraman zituzten an bertsoak kantatzeko. Aurrez, Urruñan kanporaketa moduko bat antolatu zuten, Parixera joango ziran bertsolariak autatzeko.

Urruñan 1.958-ko Apirilaren 13-an ospatu zan jaialdi ori, Irungo olerkari famatuari, Basurko Jaunari, omenaldia egiten zitzaion eta bide batez bertsolariak aukeratu. Parte artu zuten bertsolariak auek ziran:

Basarri
Uztapide
Mattin
Xalbador
Aintziart eta
Errexil.

Lenengo aipatu ditudan laurak joan ziran Parixera. Hernandorena Jaunak gidaturik, lenengo aldiz bertsolariak Parixen izan ziran, telebistan eta irrati askotan parte artuaz.

Parixen bertan, Euskal-etxean, frontoi eder bat zuten eta jendea gainezka zelarik ospatu zuten sariketa edo txapelketa ura eta Basarriri eman zioten lenengo saria. Ura izendatu zuten kanpeon, dio Uztapidek. Beste irurak berdin utzi zituzten. Au, Maiatzaren 18-an gertatu zan.

Uztapidek zeaztasun asko ematen digu bidai orretaz, ikus zazue...

"Parisen ere izan giñan bertsotan. Milla ta bederatzireun da berrogei ta hemezortzian da Loreillaren emezortzian izan zan Parisko au, baña ortara-

ko Urruñan egin genduan lenbizi eliminatoria-moduko bat.

Au Apirillaren lauan zan, Urruñako au. Irungo olerkari bati, Basurko zanari, omenaldi bat egin zitzaion, eta bide batez Parisera joan bear zuten lau bertsolariak aukeratu.

Jai-aldi bikaña egin zan. Lenbizi meza nagusia, ta elizkizun ederrak egiten dira an, mugaz aruntzik. Elizako kantuak ere danak jakiten dituzte an; danak egiten zuten an kantuan.

Orain emen ere, euskeraz meza ematen asi ziran ezkeru, geiago jarraitzen zaio mezari; baña an lenago ere bai. Gustoa ematen zuan ango elizkizunetara joateak: erri guztia kantuan.

Meza nagusia eman zuan Urruñako bikarioak, Etxeberri jaunak; sermoia, berriz, Aita Lartzabal'ek, Zokoako bikarioak, eta ederki goratu zituan Basurkok egin zituan lanak; eta bukatu zan meza nagusia.

Gero bazkaria Hotel Mendi-bixta izeneko etxean. Garaiz izaten da an bazkaria ere, eta bazkaltzeko denboran bertsolariak Basurkoren gorantzan kantatu giñuzen bertsoak.

Gizon ona zan ura. Oso ezaguna genduan guk ere. Sendoa geiago zan ura, luzea baño; bere bigotetxoarekin, da euskaldun ona. Orregatik, il da gero ere, oroitzen zan jendea arekin.

Gero bazkaldu ta joan giñan parrokkiko saloira bertsotara. Gu joan giñanerako, betea zegoan jendez Urruñako saloia, eta, pakerik izango bazan, atepak zabalik utzi bear izan ziran. Barru-



Hernandorena, Mattin, Xalbador eta Uztapide

an baño kanpoan jende geiago zan, eta altabozik ez. Lastima! kanpoan egon ziranak, ezin aditu ongi.

An giñan bertsolariak: Xalbador, Mattin, Errexill, Xanpun, Aintziart, andik, mugaz arunzkoak; eta Basarri eta ni, Uztapide, mugaz emendik.

Basarri gona luzeak pamatzen eta Mattin denbora berean motzen alde, saio polita egin zuten oso.

Xalbador kontrabandista eta Errexill karabineroa; aiek ere ederki zaitu zuten bakoitzak beren alderdia.

Gero Xanpun da ni; ura automobilen alde eta ni astoen alde. Hartan egin genduan geure saioa.

Gero atzenean, berriz, Aintziar bakarrik gelditzen zan da Mattin jarri zioten kontra. Loreak pamatu bear zituana, eta bien bitartean Aintziart tipula pamatzen jardun zan.

Orrelaxe egin genduan geure saioa, eta gero puntuak jarrita ere egin genduan beste saio bat.

Atzenean, epai-maia an zegoan: Dassance, Aita Lafitte eta Aita Lartzabal, eta aiek eman zuten erabakia, finalerako zein gelditu ziran Parisera joateko, munduko kanpeonatoa jokatzenko: Basarri, Mattin, Xalbador eta Uztapide aukeratu zituzten. Eta, ala, etxera etorri giñan, gero bere egunean Parisera joatekotan.

Emen daukazute orain bina bertso, Basarrik eta nik Basurko zanari kantatuak Urruñako Mendi-bixta'n. Egun ortan da bazkalondoan kantatu giñuzen:

Basarrik:

Basurko jaunak omenaldia
degu gaurko egun ontan,
denbora asko ez dala oraindik
betiko gelditu lotan;
Yauna, zure izen saindura
ark jaso zuen bertsoan,
erruki onez goxoki artu
zazula zeure besotan!

Uztapidek:

Basurko jauna laguna izan
gendun oso luzaruan,
egon liteke oraindik gure
laguntzaren esperuan;
nik gaur goizian otoitz egin det,
bai, nere biotz beruan:
komeni bada gure Jainkuak
gorde dezala zeruan.

Basarrik:

Urte askotan giñan irurok
alkarri itza emanak;
toki aunitzez billatzen giñan,
artaño lagun laztanak;
zuzenbidezko izaten ziran
Basurko zanen esanak,
betiko aintza merezia du
era artako gizonak.

Uztapidek:

Gure artian esaten zitun
makiña bat itz tajuzko,
nere ustetan ura zeguan
bertsolaien maiorazko;
lagun artian ark bazekien,
Basarri, mintzatzen presto,
obe genduke baldin bagiñuz
alako euskaldun asko.

Gero, bere eguna etorri zanean,
Parisera joan giñan. Endaian trenea ar-

tu genduan, eta gau batean joan giñan. Trenean coche-cama edo alakoak giñuzen, eta, berriketan aspertu giñanean, lo joan giñan bidean.

Goizerako Parisen giñan. Zortzi-reun kilometro pasiak daude Endaiatik Parisera, eta amar ordu eskasak egin giñuzen bidean. Ez genduan ezer ikusi, gabean joan giñan da.

Ara iritxi giñan, da, gero, egon bear genduan etxera eramán giñuzen Ernandorena'k, eta an geure maletak utzi giñuzen; gure izenak-eta eman giñuzen, eta abitazioko giltzak artu geurrekin.

Lenbiziko lana Torre Eiffel ikustea egin genduan. Gora igo puntara, andik bera begira jarri eta lurrean gizona txikia gelditzen zan, txindurria bezela.

An, zerbait artuaz, egon giñan piska batean. An bazegoan kantina-moduko bat, eta edaritik-eta aukera egoten da an. Gero piska bat egon giñan da jetxi egin giñan.

Paris ederki andik ikusten da. Erdi-erdian dago ori, torre ori, ta alde guzietara begiratu eta urruti zeuden aren egalak.

Gero, arratsaldean, bertsotan egin bear genduan. Euskaldunak beren biltokia badute; propaganda ere egiña izango zuten eta jendea ondo bildu zan. Parisen, Oiartzunen ainbat euskaldun urrean egongo da. Egun artan aña euskaldun ez da an ere bilduko sarri, baña orduan beintzat ni arrituta gelditu nintzan.

Arratsaldean joan giñan, da pelota-leku ederra dago eusko-etxe orretan; eta antxe egin genduan gure kanpeonatoa.

Basarriri eman zioten lendabiziko premioa. Ura zan kanpeon. Beste irurok berdín gelditu giñan: Mattin, Xalbador eta ni, Uztapide. Ortantxe bukatu zan gure kanpeonatoa".

GIPUZKOAKO LENENGO TXAPELKETA

1.959-an Eibarren, Azaroaren 8-an ospatu zan Gipuzkoako lenengo txapelketa. Uztapide zana, ez zan zalea baiña Irigoenek bultzaturik azkenean ausartu zan parte artzen.

Juan Antonio Mogel-en omenaldia ospatu zan Eibarren eta Euskaltzaindiak ekintza askoren artean bertsolari txapelketa antolatu zuan.

Zazpi bertsolariak artu zuten parte:

Uztapide

Lasarte

Lizaso

Zepai

Garmendia ("Villafranca de Orian" Ordizian txapeldun gelditutakoa)

Mitxelena

Agirre "Oranda" (Aginagan txapeldun gelditutakoa)

Basarrik ez zuan parte artu. Unzaga enparantzan ospatu zan, jendez leporaiño beteta.

Epai maia auek osatzen zuten: Arrue eta Mitxelena Euskaltzaindikoak. "Bordari" Aita Zavala, J. San Martin, Alfonso Irigoien gai jartzaille.

Jaialdiaren egitura onela izan zan: Agurra denak,

Gaia emanda iruna bertso.

Ofizioak emanda

Puntuak jarrita

Bertso bat (Bederatzi puntukoa)

Azkenengo saio ontan sesioa sortu zan. Uztapidek gai jartzailleari esan zion ez zuala kantatuko eta ondoren beste batzuk ere bai eta epai-maiak atzera jo bearra izan zuan eta lau puntuko bertso bat kantatzeko esan. Ala ere Mitxelenak bederatzi puntukoa kantatu zuan.

Basarri naikoa aserre agertzen zan urrengo eguneko kronikan, begira zer zion...

"En mi crónica del domingo, precisamente, decía yo que nunca se debía obligar a los bersolaris a utilizar la melodía de las nueve consonancias, o lo que de otra manera decimos, a cantar "versos de nueve puntos". Y recalaba que, en tal caso, el fracaso sería estrepitoso ante la imposibilidad de los bersolaris en vencer la gran dificultad. Mi extrañeza fue total en cuanto el jurado dio la orden de que los bersolaris cantasen en nueve puntos el tema obligado del día.

Y ... ocurrió lo que yo me presentía. Que los bersolaris protestaron enérgicamente de la decisión y el jurado tuvo que revocar la orden.

Conociendo el complicado mecanismo de las estrofas de nueve puntos, en ninguna parte cabe esta exigencia. Sólo un bersolari cantó los nueve puntos y ninguna obligación de hacerlo, ya que el jurado había revocado la orden y se había anunciado que se cantasen "versos de cuatro puntos".

Y el único que se atrevió con la estrofa de nueve puntos, la comenzó y la terminó, eso sí, pero sin mencionar el tema obligado y sin contenido eficaz.



Zepai



Jose Lizaso



Jose Agirre



Mitxelena



Txomin Garmendia

Si se quiere guardar la brillantez de la fiesta, y si se quiere que acudan bersolaris a participar en concursos y campeonatos, nunca más se debe repetir el caso.

De lo contrario, yo estoy seguro que será solamente el jurado quien suba al tablado".

Gipuzkoako lenengo txapelketa Uztapidek irabazi zuan. Bigarren Mitxelena. Uztapide, txapeldun. 3.000 pta. eta makilla eder bat

Mitxelena, bigarren. 2.000 pta. eta kopa bat Diputazioak emana.

Beste bostak berdin juzgatu zituzten eta bostai 600 bana pta. eman zizkien.

Ona emen bi puntu Uztapideri jarritakoak:

Eibar'ko txapelketan jarri zioten puntu bat:

Eibar'en egiten da
eskopeta piña...

Erantzuna:

Nik badaukat aspaldi
ementxo egiña;
aspaldi izango dezu
zedorrek jakiña:
"oker" tirata ere,
"botatzen" dakiña.

Beste puntu bat:

Tren onak, erruberak,
zenbat ote ditu?

Erantzuna:

jakitia naidunak
azpira begitu;
jarritako guziak
or izango ditu:
baldin norbaitek, orain:
kendu ezpaditu.



Uztapide




M. Lasarte - Uztapide

Foto Plazaola - Eibar



Jesús Lete "Ibaiertz" eta M. Lasarte



Epai Maia: Jesús Lete "Ibaiertz", "Bordari" F. Artola, A. Arrue, Mitxelena, Zavala A., J.S. Martín eta abar...



1959ko Azaroaren 8'an egin zan txapelketa au. Zazpi bertsolari azaldu ziran: Lasarte, Uztapide (ona bertsoak botatzen), Lizaso, Garmendia, Mítxelena, Agirre ta Zepai.



Bertso ederrik entzun zan. Guda gogorra zazpi bertsolariena. Azkencan mai-burukoak epaia eman zuten Uztapide txapeldun, Mítxelena bigarren. Ona emen biak Aita Larrañaga Obispo Jaun kaputxinoarekin.

Fotos Plazaola Eibar




Aurrena agur egiñaz, gero Eibar'en egun aietan izan ziran jaiei buruz, ondoren binaka alkarrri puntuak jarri ta zegokieten ofizioak aipatuaz, amaika bertso bota zituzten. Ona eman Mitxelena, asmatzen...



Jendea erruz izan zan. Millaka entzule bazeuden, Gipuzkoa osotik eta beste tokietatik etorriak. Antxe egon ziran danak zutik, adi-adi, arratsalde osoan. Aien artean, umetxoak ere bai (Ojanguren argazkiak).

Fotos Plazaola-Eibar



DONOSTIKO TXAPELKETA NAGUSIA 1.960

1.960-ko Txapelketaren zeaztasu-nak

Izugarrizko sona izan zuan Txapelketa onek. Egunkari guzietan (Campeonato mundial de bertsolaris) ipintzen zuan. Ez dakigu "Mundial" orrek zer esan nai zuan, mundu guziko trobado-reak parte artu zezaketela edo...!

Beti bezela lekua oso txikia gertatu zan. "Victoria Eugenia" nai zuten erdiak ez ziran sartzen eta goragailuak edo altabozak jarri zituzten kanpokaldean.

Sariak erakunde ofizialak eta jende "partikularrak" ere eman zituan, parte artutako denak eraman zuten kopa bana.

Epai-maian ere aldaketa txikiren bat egon zan: Bezpera arte Eusebio Erquiaga epaimaiko bezela agertzen zan eta igandean Juan Mari Lekuona exeri zan bere lekuan, ez da agertzen zergatik...!

Saioa oso luzea izan zala; bost ordu t'erdi diote orduko egunkariak. Goizeko amaiketatik ordubietara eta arratsaldetik lauretatik ia zazpirak arte.

1.960-tik atzera bertsolari txapelketak ez dute galbiderik liburu eder eta marduletan jaso baiziran, eta irratiren

batek jaso ere egin omen zuan "Radio San Sebastian, por cortesia de Muebles Amara, conectará con el teatro Victoria Eugenia hasta el final del concurso y entrega de premios..." jartzen dute orduko egunkariak.

Itxaropena argiltaletxeak "kuliska sortan" 43-44 zenbakian argitaratu zituan bertso danak eta ez dut uste galtzeko bildurrik dagonik. "Magnetofoiak aurrerapen aundiak ekarri zituan gauza auetarako".

Ez dakigu Basarri finalerako, azken saiorako bakarrik izatea; nork eta nola erabaki zuten... onela zion "Herriak" (22-12-60)

"Chapelketako legea zen Basarri zuzenez finalichta izanen zela. Ez zaiote hori ongi iduritu orori".

Bizkaian eta Nafarroan aurrez kanporaketak izan ziran.

Nafarroan 21 bertsolarik parte artu zuten eta Bizkaian beste ogeita amar bat izan ziran partaideak. Ikusi nola dion Irigoienek...(1)

Bizkaiko bertsolarien irugarren azken txapelketa nagusia Bilboko zezen plazan egin zan irailaren 11-an. Parte artu zuten zortzirak dira: Valentin

(1) "Euskera" VI



Basarri

Enbeita Muxika-koa, 1959 urteko Bizkaiko txapelduna, Juan Azpillaga Berriatua-koa, 1959 urteko Bizkaiko bigarrena, Ireneo Ajuria Muxika-koa, Jose Alberdi Mañaria-koa, Juan Mugartegi Berriatua-koa, Juan Ormaeche Larraurikoa. Basilio Pujana Zea-nuri-ko semea, Deunoro Sarduy Muxika-koa, Ondarroa-n azkenerako geldituak. Zezen plazan Juan Mugartegi gelditu zan txapeldun eta Bizkaiko Diputazioaren kopa nagusia eta diruzko saria artu zituen. Bigarren Juan Azpillaga, Bizkaiko Ahorro Kaxaren kopa eta diruzko saria. Gaiñerakoak diruzko sariak. Jende asko egon zan entzuten. Euskaltzaindiak Bilboko Ayuntamentuarekin batera prestatu zuen zezen plazakoa.

Euskalerra guziko txapelketa nagusia Donostian. 1.960-an. “Victoria Eugenia”

Esan genezake benetako Euskalerra guziko txapelketa au izan zala. Parte artzailleen aldetik Nafarroa, Bizkaia, Ifar aldea eta Gipuzkoa. Antolatzaileen aldetik kanporaketa asko aurrez eginda eta Euskaltzaindiak ematen zion babesa garrantzi aundikoa zan.

Euskaltzaindiak 1.958-tik asita zegoan bertsolari txapelketak antolatzen.

Bizkaian bi aldiz eta bietan Balentin Enbeita gelditu zan txapeldun, 1.958 eta 1.959-an beraz. Ala ere txapelketa ontarako berriro errialdeka kanporaketak egin zituzten eta azken saioa Bilbon, Iraillaren 11-an: Txapeldun Juan Mugartegi eta bigarren Azpillaga Juan geldituaz, biak Donos-

tirako aukeratuaz. Nafarroan ere beste ainbeste egin zuten, kanporaketak egiteko erriak Lekunberri eta Elizondo izan ziran eta azken saioa Lesakan Iraillaren 25-an. Andrés Narbarte txapeldun eta Juan Perurena bigarren, auek biak ere Donostirako aukeratuak. Gipuzkoan ez zuten orrela egin, naiz eta bertsolaririk geiena egon, zazpi bertsolari ezagunenak edo famatuenak aukeratu eta aiekin Eibarren txapelketa bat antolatu, 1.959 Azaroaren 8-an eta emendik ere bi aukeratu zituzten Donostira joateko. Txapeldun. Manuel Olaizola “Uztapide” eta bigarrena José Joakin Mitxelena.

Ifar aldetik berriz, bi bertsolari famatuenak ekarri zituzten, naiko trebatuak ifar aldeko txapelketetan: Fernando Aire “Xalbador” eta Mattin Trecou.

Basarri txapelketa guzietan gailen gelditua (1.952 ezik) inongo kanporaketetan parte artu gabe sartu zen txapelketa nagusira eta gaiñera onenarekin txapela jokatzera (erabaki au ez dakigu nork eta nola artu zuan).

Beraz, parte artu zuten bertsolariak auek ziran:

Manuel Olaizola “Uztapide”

José Joakin Mitxelena

Juan Mugartegi

Juan Azpillaga

Fernando Aire “Xalbador”

Mattin Trecou

Andrés Narbarte eta

Juan Perurena.




Uztapide



J.J. Mitxelena




J. Perurena



J. Azpillaga



A. Narbarte



J. Mugartegi



Mattin



Xalbador

Ignacio Eizmendi “Basarri” Txapela onenarekin jokatzeko.

Epai-maia au izan zan: Antonio Arrue, Luis Mitxelena, Angel Irigaray, Michel Labegerie, Aita Antonio Zabala, Fernando Artola “Bordari”, Antonio Pagola, Miguel Goitia, Pedro Diez de Ulzurrun, Juan Mari Lekuona, Aita Marcelo Andrinua.

Gai-jartzaille: Alfonso Irigoien.

Jaialdiaren egitura eta zeaztasunak: Goiz eta arratsalde izan ziran saioak. Goizetik kanporaketak, arratsalderako iru bakarrik aukeratu zituzten, Basarri-rekin txapela jokatzeko.

Goizean denak: Agurra

Puntu bat erantzuteko.

2 bertso gai librean elkarrekin teman.

4 bertso ofizioak emanda.

Juraduak erabaki zuan Uztapide, Xalbador eta Mattin aurrera pasatzea baiña laugarrena izendatzeko dudak zituzten eta Mitxelena, Azpillaga eta Narbarte, elkarrekin probatzea erabaki zuten.

Iruentzat gai berdina “Antxinako bertsolari zaarrak” eta puntu famatu bat, Belgatarren erregin egin da Fabiola “Narbartek ez baizekien nor zen...?”

Juraduak aurrera pasatzeko Azpillaga aukeratu zuan.

Bigarren partea, laurak elkarrekin. Mattin eta Uztapide; Xalbador eta Azpillaga.

Saioa: Puntu bat erantzuteko

Bina bertso gai librean

Lau bertso ofizioak emanda.

Arratsalderako iru bakarrik aukeratu zituzten: Uztapide; Xalbador eta Azpillaga.

Arratsaldean: Agurra Basarri, Uztapide, Xalbador eta Azpillagak egin zuten. Basarrik ez du parte artzen, beste irurak gai bati buruz lau bertso eta puntu bat. Ondoren Juraduaren erabakia: Uztapide eta Azpillaga aurrera pasatzen dira. Bien artean, 2 puntu, 4 bertso gai bati buruz teman, 3 bertso gai bat emanda.

Erabakia: Uztapide aurrera pasatzen da Basarrirekin txapela jokatzeko.

Basarri eta Uztapidek lan au izan zuten: 2 bertso puntuak emanda, 4 ofizioak emanda, 2 oiñak emanda, 5 gai berdin bati (Basarri “kartzelara” eramanda) eta azkenik bederatzitako puntuko bat.


(Oarra: nik entzun dedanez “kartzela” eramate ori “Bordarik” asmatua omen da.) Antonio Arrue Jaunaren itzalditxoarekin bukatu zan jaialdia, bertsolariak onela sailkatuaz: Txapeldun, Basarri 10.000 pta.kopa eta beste erregali ugari. Txapela D. Ignacio de Etxaide Jaunak, Euskaltzaindiko lendakariak, jarri zion.

Bigarrena, Uztapide 5.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.

Irugarren, Azpillaga 3.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.

Laugarren, Xalbador 1.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.

Bosgarren, Mattin 1.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.



Antonio Pagola, Miguel Goitia, Pedro Díez de Ulzurrun, J.M. Lekuona, A. M. Andrinua.



Epai Maia: Michel Labegerie, Angel Irigarai, (izkutuan dagoena) A. Arrue, J. Mitxelena, A. Zabala, Fernando Artola "Bordari".

Seigarren, Narbarte 1.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.

Zazpigarren, Mitxelena 1.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.

Zortzigarren, Mugartegi 1.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.

Bederatzigarren, Perurena 1.000 pta. kopa eta beste erregali batzuk.

Txapelketa onetan Basarri eta Uztapide goi-maillan egon zirala esan bear, saio oso ona egin baizuten. Uztapide bederatzi puntukoan jetsi zan pixka bat “poto” egin baizuan eta ori epaimaiarentzat naiko irtenbide ona izaten da. Eibarren ezezkoa eman zuan baiña ainbeste jenderen aurrean ez zan nonbait ausartu ezetz esatea. Edozein modutara azken saioan oso bertso onak bota zituzten biak, eta Uztapidek zioen bezela “Merezi dezu ta gorde zazu, Basarri, urte askuan”.

Azpillaga izan zan saltorik aundie-

na eman zuana, denak arrituta utzi zituan, gazte bikaiña eta abots ederra, geroztik beti lenengo maillan ibili da.

Andik denbora gutxira Basarriri omenaldi batzuk egin zizkioten eta garrantzitsuena Zarautzen bertan garagarillaren (ekainaren) 4-an.

Ondoren txapelketa artan kantatutako bertsorik onentxoena jarri nai nizkizukee, bidezkoa dan bezala bertsolari danen zerbait agertuaz.

Ona emen Uztapidek eta Perurenak egin zuten saio polita...

3'gn. saioa: ofizioa emanda alkarrekin teman.

PERURENA: korbata erabiltzen duena.

UZTAPIDE: Korbata erabiltzen ez-tuena.

Perurena Aldrebestasunen beti laiteke
gure atiaren giltza;
artako ezpadago biotza,
beti arrazoi murrizta;
igual alde guzietara
auntzera onontz balantza;
irri ‘ingo’ izute denak onela
gorbatik gabe bazabiltza.

Uztapide Ez al tzerate arritzen, jaunak,
gazte oneren sarreran?
Bizi izatia ote dago ba
korbataren goraberan?
Nik’e jantzi nai baldin banitu,
ba-dauzkat oiek aukeran.
Zuk’e obe dezu korbata baño

Perurena Gure odola beti izaten da
punduan sofritutzeko;
egi garbi bat esango 'izutet
guziak entenditzeko;
bitarteko izketa onek
baditu amaika tako;
baña gorbatakin dotoreago da
kalian paseatzeko.

Uztapide Gai orren bidez esan nitezke
nik al dakit zenbat egi.
Baserri eta kalietara
maiz bota izan det begi;
ikusitzen det jarri degula
oraintzen lujo geiegi;
obe genduke zarraren eran
korbatarik gabe segi.

Perurena Gorputz aundiyak urruneraño
beti iten du itzala
Badakizute zek dakarkion
mundu onetako gala;
txorakeriak esaten alperrik
ari gerade bestela;
Nik uste det geienxkona orain
gorbatakin jazten dala.

Uztapide Korbatarekin dabiltzanak'e
danak ez dira abillak;
batzuk lezatekenak dirade,
bestiak berriz umillak.
Baserritarrak ikusten ditut
diruriela jentillak.
Berriro ere lege orretara
albait jarraitu, motillak.

Perurena Berriz'e beste bat eman biar det
denari serbituzeko;
eta al bada izan deillela
memoriz entenditzeko;
oso aldrebes ez tet asi nai
itz gutxitan kunplitzeko:
baserriko jantziak ez tu balio
kalian ibillitzeko.

Uztapide Nik ez ote det erantzuteko
gaur izango biotzikan?
Gere jatorria aitortzeko
guk ezteu beste pozikan.
Baserritarren boltsan askotan
ezta faltatzen sosikan.
Brusa beltzak'e kalian ez tu,
gizona, bate lotsikan.

Ona emen Mitxelenak eta Mattin-ek egin
zuten saioa.

3'gn. saioa: ofizioa emanda alkarrekin
teman.

MITXELENA: apustu ta jokoaren kon-
trario

MATTIN: apustu ta joko-zalea.

Mitxelena Aizazu, nere lagun Mattin, gaur
eman beaizut aditza;
errukarri da zuk aspaldian
damakizuan bizitza;
bide txarrari eldu zenion
da ezin zerade zintza;
zorioneko joku oiekin
leku gaiztuan zabilta.

- Mattin Mitxeleun'hunek leku onian
derauka bere burua;
eta nik ere ireki beaut
orain nere liburua;
neri betitik gustatu baizait
yoko edo pariyua.
Lekuz aldatzeko ez ote da
egiña gure dirua?
- Mitxelena Dirua dagon bitarte, jaunak,
bat ibiltzen da dotore;
baña diroak naigabe txarrak
ekartzen ditu gero're;
etxiari galduazte'izka
zenbat puska ta labore;
ondorenen bat sortu lezake
etxian egoteko're.
- Mattin Hunek dionaz, ez omen zaio
gustatzen apusturik;
jokua dagon leku oieri
ez du egin nai kasurik.
Ni berriz izen nindake ezpanu
ematen arat pausurik;
berriz ere zuk egon bearko'zu
etxe zokuan sarturik.
- Mitxelena Jokukaria beti izan da,
jauna, kristau illuna;
alderdi orrek zorionikan
ezdu ekartzen iñuna;
au ere iru beita'jetxi da
lenago zazpi zittuna;
berarengatik enaiz erruki,
pena det andre kuttuna.

Mattin Sekulan santan ezta kexatzen
 andria nere aldian;
 askotan orek ikusten bainau
 segur omore onian;
 galtzen dudanian serio xamar
 asitzen naiz ni lanian;
 eta berriz jai iten degu
 irabazten dutanian.

Mitxelena Begira, Mattin, nere bertsoa
 botako dizut kolkotik;
 zenbait jokulai ikusi ditut
 beren begiak malkotik;
 erremedioik ez dagoala
 denbora joanda ondotik;
 orain bitarte aberastua
 nor ikusi da jokutik?

Mattin Ni beti afizio onian
 joku ortako lanian;
 eta jarraitzeko gogua daukat
 oindik gaurko egunian;
 au beti yokorik gabe bizi da
 an bere etxe barnian,
 antxe dituen diru pitarrak
 galdutzeko bildurrian.

Ondoren gai librean Mugartegi eta
Narbartek botatako bina bertso.

2'gn. saioa: gaia libre dutela alkarrekin
teman.



- Mugarategi Euskalerriyak sortu dituan
lorerikan mardulenak
seguru asko izango dira
gaur Donostian daudenak.
Au ikusita kenduko ditu
askok biotzeko penak.
Orregatikan poztu gaitezen,
zorioneko euskaldunak.
- Narbate Pentsatutzen det emen geienak
geradela euskaldunak.
Esate bateko norla baigeran
auzo bateko lagunak,
biotzez gera batek bestia
ondo maitatzen degunak;
gaur, jaunak, ez du gutxi baliyo
olako anaitasunak.
- Mugarategi Bersolariak dirala eta
beterik be eta goyak;
ixil-ixilik jarrita pozez
bete ditu gure deyak.
Au ikusita negar malkotan
isurtzen ditut begiyak.
Esker beroak ematen nator,
geure euskaldun anayak.
- Narbate Ni Donostian oso gutxitan
izana naiz oraindikan;
biotz barrendik gaur'e ez daukat
etortako damurikan.
Neure denboran ez tet ikusi
onelako lorerikan;
gaur mundu ontan ez da izango
leku ederragorikan.

Ona emen Narbartek Belgatarren
erregiñari botatako puntua. (geroztik ja-
kin genuan ez zekiala nor zan Fabiola)

PUNTUA.- Belgatarren erregin
egin da Fabiola.

Nabartek Igerri diot, Alfonso,
egiya diyola;
beste gañekoan etzan
mintzatuko orla
antxen pensatutzen det
zerbait badagola.

"Lengo bertsolari zarrei" Azpillagak
kantatutako bertsoak.

Azpillaga Nik zer esango dizuet bada
lengo zar aiei begira?
Penagarri da baño emendik
aspaldi samar juañ dira.
Eta gazteak eman nai degu
al dan ondoen segira;
baño oraindik askozaz obe
zar aiek bizi balira.

Izen batzuek kondairak ditu
oroimengarriz jarrita,
gu baño askoz obeak ziran:
ori nago igarrita;
Garai bateko Pello ta Otaño
eta urrena Txirrita;
guk zer arraio egiten degu
toki ontara etorrita?

Pello Otaño'ren bertsuak entzun
ta bat artzen du beldurak;
Ameriketan gelditu ziran
bertsolai onen ezurak;
zertako dira etsaiak eta
zertako gauza maltzurak,
bertsolaririk onena antxen
estali bazuan lurak?

Arratsaldez Xalbadorren agurra eta aurrerapenei kantatutako lau bertsoak.

XALBADOR

Eskual amodioak nau hunat
ekarri edo ereman;
au baino pauso debaldeagorik
ene bizian dut eman;
anai-arrebak ementxe ditut
biotzekoak atzeman;
eta eskuaraz bezik eztugu
elgarri itzikan erran;
egun goxoagorik gaurkoa
baino nik ez dut iragan.

XALBADOR

GAIA: lengoarena, "Aurrerapenak"

Xalbador Bizi den batek aurrerapena
beti izanen du maite;
ikusiz gero eztela izanen
izan den bezanbat neke;
alarik ere orren gainian
zerbait erteko ba daike;
eta urrun yuan gaberik
nihauk erran nai nuke;
aurrerapenak ekarzen dauku
bai abantail ta bai kalte.

Aurrerapenak ene persutan
erten ahal ezpaitira;
nik etzaitzuet gaur ezarriko
ilunetikan argira;
itzez bezik eztakizkigu,
urrunetik ari dira;
lehen bezala gaudelarikan
gure lurrari begira;
berzeño batzu abiatuak
ditugu gaur ilargira.

Ene sorzeak emanik daukat
kar aundi bat biotzian;
aurreratua bizi ez naiz ni
bizitzen naizen etxian;
ni beti antxe nago tristerik
ezarri nauten beltzean;
besteak berriz aurrera doaz
baita abantal gaitzean;
heiek ain urrun yoanak eta
ni antxe nago atzean.

Bazkal ondoan etorri gera
aitzinean bezain fresko;
eta badugu goizean ginaukan
bezanbatu erraiteko;
adelantuak badirela or
mintzo zeraizkigu asko;
bide guzian nik emaiten dut
heieri baliatzeko;
deusik ez egitekotz guretzat
eskuara onaren galtzeko.

Azkenik Basarri eta Uztapidek txapela
jokatzerakoan, ofizioa emanda kantatuta-
koak ona emen:

UZTAPIDE: bertsolaria.

BASARRI: juradu gizona, bertsolarien txapelketetan ibiltzen dana.

- Uztapide Beraz ni naiz gaur bersolari ta
Basarri au da juradu.
Len bezalaxe gaur ere egin
bearko zerbait erregu.
Lagun zarrari guk konfiantzan
au eskatutzen diogu:
geiena danak txapelketa au
irabazi biar degu.
- Basarri O adiskide, ez nazazula
aldamenetik tentatu.
Guk biok alkar ola jotzian
Badaukagu zer kontatu:
bertsolariak juraduakin
sarri ez dira kontentu;
lenengo egin biar dana da
bertsoak ondo kantatu.
- Uztapide Barka zaidazu, juez maitia,
nik esan badizut broma;
ongi dakizu ni zuretzako
gorrotuan ez nagona.
Ni izan arren barrunpe ontan
ustez bertsolari ona,
askoz obia izango degu
nere jueza dagona.
- Basarri Manuel maite, etzazu artu
estuasun eta presa;
juezak duten opiziyua
oso baita aldrebasa.
Errespeto aundiz esaten dana
itz bat auxen da: jueza.
Oien gustua egiten beti
eztek izaten erreza.

- Uztapide Auxen esango dizut, Basarri,
nik urrengo irrintzian.
Juezak egin ber duna au da,
Uztapide'n iritzian:
gauz asko erabaki bear dira
emen denbora gutxiyan;
gauzik bearren bearrena da,
ibili kontzientzian.
- Basarri Eztet pentsatzen kontzientzitik
oiek daudenik aulduak.
Sarri olaxe sortzen zaizkigu
izketarako moduak;
Pasionista ta Jesuita,
gañera apaiz ondraduak;
gu juzgatutzen dauden gizonak
ez dira barranderuak.
- Uztapide Ni gaur goizian jaiki nitzaden
lo egin dedan oitikan;
pentsatutzen det Basarri erten da
berak artu dun gaitikan;
ez dezazula zuk lagunikan
or aukeratu maitikan:
zu zaude juez, arrazoirikan
ezta bertso oietatikan.
- Basarri Bakoitzak beria esaten du
emen nola edo ala.
Manuel maite, nik pentsatzen det
ori jende ona dala.
Lagunak gera baña alkarri
azaldu biar azala;
auxen opa det, geiena danak
gaur irabazi dezala.

3'gn. Saioa: Lau puntu emanda
bertsoa osatu. Bi bertso bakoitzak.

Batela, txapela, kandela, berdela.

Uztapide Arrantzara juateko
 artu nun batela,
 bai eta ere piztu
 neronek kandela;
 arrapatu nai nuan
 oiekin berdela,
 eta bidian galdu
 zitzaidan txapela.

Ainbeste bertso eder bota zituzten
baina denak ezin sartu.

“Ezkontzera dijoan alabari” Basa-
rrik botatakoak orra emen:


Basarri Aita batek baditu
 milla eginkizun;
 biotzeko pusketa,
 ez dakit dakizun.
 Lengan zeuk esana
 zer asmo artu zendun,
 orri ondo beiratu;
 bada or estuasun;
 begira, alaba maite,
 ze egin biar dezun.

Senargai batek dauka
zuri itz emana.
Pentsatuzten det ondo
izango zerana;
ainbestetxo kostata
aziya, laztana,
munduko urregorritz
pagatze'etzerana,
ez ditzazula aztu
aita eta ama.

Erljio batean
baiziñan zu azi;
aita ta amaren mende
beti zintzo ezi;
ezkonduta biziya
bear dezu irabazi;
senarrari obeditzen
ondo-ondo ikasi;
Jaunaren bildur santuz
mundu ontan bizi.

Alaba maite, nua
orain esatera:
bukatu da bakarka
zure izakera;
bi izango zerate
emendik aurrera;
aurtxorikan badator
zure magalera,
lendabizi, gaixoa,
erakutsi euskera.

Gorde famili goxo
ta zero bildurra;
alkarri beti goxo
egin zuek agurra;
maitatu egiya ta
gorrota gezurra;
ezpañetan ibili
izkuntza xamurra;
ezdezazutela aztu
jaiotako lurra.



Basarrik txapela irabazi zuan eta jartzearekin batera bertso ederra bota zuan.

BASARRI

Pozak txoratzen ementxen dago
une ontan bertsolaria.
Etzaio, noski, asko damutu
gaur onuntza etorriya;
neu ez naiz ezer, Jaunaren graziz
lendabiziko sariya.
Eskerrik asko entzuten egon
dan jende ongi-aziya;
jaialdi auek ematen dute
txertua eta biziya;
era ontako billeratxo bat
noiz ote zan ikusiya?
Izan'e txoko berezi onek
badu grazi bereziya:
lur zati bat esan diteke
zerutatik ixuriya;
gozotasunen gozotasuna,
ezti guziyen eztiya,
zeure eskutan daukazu beti
nai dan aukera guztiya,
iñuntxo ere eztezu berdiñik,
biotzeko Donostiya.

Eta Uztapiden erantzuna denak agurtuaz

UZTAPIDE

Kantatu nai det nik'e berso bat
oso era tajuzkuan;
nola lagun zar txit maitatua
nik banuen Gipuzkuan;
len tzan tokira, berriro ere,
txapela zakigu juan;
iruritzen zait ongi zegola
lenago zegon eskuan;
merezi dezu ta gorde zatzu,
Baserri, urte askuan.

1.962-ko SARIKETA DONOSTIAN

Urrengo txapelketa nagusiaren aurretik, gogoangarrizko saio eder bat izan zan 1.962-ko errege egunean, eta aipamen labur bat egingo dizuet. Ausporen 10-garren liburuan dakartz bertso danak eta norbaitek bertso aiek dastatu nai baditu jo dezala liburu ortara.

Jaialdia onela antolatu zuten: goizetik gazteen txapelketa eta arratsaldetik, aurreko txapelketa nagusian lau lenengo gelditu ziranen bertso saio eder bat.

Goizetik bertsolari auek artu zuten parte:

Jose Luis Lekuona “Lexoti” Oiarzun.

Kasiano Iburguren “Lizartzako itxua”.

Domingo Garmendia. Berrobi.

José Agirre “Oranda” Azpeitia.

Kosme Lizaso. Oiarzun.

Jesus Basoarte. Zumaia.

Jose Miguel Iztueta. “Lazkao Txiki”.

Bizente Mújika. Ormaiztegi.

Txapelketa eder bat egin ondoren José Luis Lekuona “Lexoti” gelditu

zan txapeldun, Jose Agirre “Oranda”-rekin finala edo azken saioa egin ondoren. Basarrik dio azken gaia “Orandak” ez ote zuan ulertu edo...Oso ongi egon baizan goiz guzian.

Arratsaldeko saioan auek artu zuten parte:

Basarri txapelduna.

Uztapide bigarrena.

Azpillaga irugarrena.

Xalbador laugarrena.

Saioa biñaka izan zan: lenengoa (Basarri) eta laugarrena (Xalbador)

Bigarrena (Uztapide) eta irugarrena (Azpillaga).

Alako gai ederrak eman zizkioten eta jaialdi borobilla irten zuan.

Gaiak auek izan ziran: Muslariak, pelotariak, guardia zibillak eta ijitoak, beltzak eta zuriak. Lau bertsolariak gutxitan bezain ondo egon ziran, alaxoxe eguna tokatu...!

Benetan egun ederra bertsolari eta bertso zaleentzat!

Xalbadorren bertso eder bat jarriko dut emen:



Basarri

XALBADOR

Egun Erregen eguna da ta
nik ere hartu indarra,
nunbait ni ere Erregen gisa
bidean asi bearra,
goizean etxetik erten eta
abiatu naiz azkarra,
gero Donostiren par-parean
gelditu zeraut izarra.

Basarrik onela zion...

"Y... queridos lectores, ¡qué grandioso bersolari es el vasco-francés "Xalbador"! Hay mucha elevación en sus pensamientos; es de un lirismo subyugador.

La lástima es que la mayoría de los que le escuchan en nuestra tierra tropiezan con dificultades para entender todo cuanto va improvisando "Xalbador". Pero para quienes estamos habituados a los giros y modismos del "euskera" o vascuence del otro lado del Bidasoa, "Xalbador" es algo exquisito.

No sabemos nosotros si muchos se dieron exacta cuenta de aquella estrofa de "Xalbador", digna de figurar en las mejores antologías y tan propia del día. He salido de los escabrosos montes de la Baja Navarra (Francia) - comenzó diciendo-, y la estrella que me guiaba al igual que los Magos del Oriente un día como hoy, se ha posado sobre esta incomparable ciudad de San Sebastián.

Todo lo dijo empleando una melodía pegadiza, en perfecta medida de sílabas y rimando como mandan los cánones del bersolarismo. Con media docena de bersolaris que tuviésemos en el país de la altura de "Xalbador", ¡cuán valioso servicio se le prestaría a la lengua vernácula!

1.962-ko TXAPELKETA NAGUSIA DONOSTIAN, Astoria Antzokian, abenduaren 30-an.

Euskaltzaindiak, irurogeiko txapelketan bezela kanporaketak egitea erabaki zuan, baiña askoz geiago eta eskualdeka. Amazazpi kanporaketa egin ziran, Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan, esan dedan bezela, lenengo eskualdeka eta gero finalerako, Donostirako, bi aukeratuaz.

Basarri eta Uztapide, txapelduna eta ordekoa, besterik gabe zijoazen finalera. Kanporaketa edo eliminatoria guzien zerrenda "Auspoa 22" liburuan dakartza eta andik jasota jarriko dituten, 84 bertsolarik parte artu zuten, ikusi nor ziran:

BIZKAYAN

Garagarrillaren 13-an, Urkiola-n:

Julian Martitegi, Mañari-koa, txapeldun.

German Uriguen, Ermua-koa, bigarren.

Manuel Sarrionandia, Iyorreta-koa.

Frantzisko Mandiola, Mallabi-koa.

Iñazio Urkidi, Iyorreta-koa.

Jose Zabala, Iyorreta-koa (1).

(1) Toki bakoitzean ez degu txapelduna ta bigarren besterik adierazten.

Uztailaren 15-an, Mungia-n:

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapeldun.

Abel Enbeita, Muxika-koa, bigarren.

Pedro Ortuzar, Muxika-koa.

Manuel Basabe, Lumo-koa.

Felix Ortuzar, Muxika-koa.

Pedro Kastrejana, Loiu-koa.

Juan José Uriarte, Errigoiti-koa.

Nikolas Ibarguengoitia, Muxika-koa.

Eusebio Olalde, Larrauri-koa.

Florentzio Zarraga, Berango-koa.

Uztaiellaren 18-an, Markiña-n:

Jose Maria Arregi, Berriatua-koa, txapeldun.

Domingo Iriondo, Markiña-koa, bigarren.

Justo Longarte, Aulesti-koa.

Liborio Urrutia, Ondarro-koa.

Eusebio Urresti, Elgoibarren bizi dana.

Abuztuaren 12-an, Iyorre-n:

Basilio Pujana, Zeanuri-n jayo ta Bilbo-n bizi dana, txapeldun.

Jose Maria Gurtubay, Lemona-koa, bigarren.

Faustino Etxebarria, Dima-koa.

Jesus Uriarte, Dima-koa.

Meltxor Uribe, Otxandio-koa.

Jose Manuel Arruabarrena, Otxandio-koa.

Juan Ramon Petralanda, Dima-koa.

Ramon Iturriaga, Dima-koa.

Inazio Artetxe, Zeanuri-koa.

Jose Maria Artetxe, Zeanuri-koa.

Abuztuaren 20-an, Gernika-n (azkenaren aurreko sayoa)

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapeldun.

(Bilbo-ko azkenerako aukeratuak:)

Juan Mugartegi, Berriatua-koa.

Ireneo Ajuria, Muxika-koa.

Juan Ibarzabal, Markiña-koa.

Balentin Enbeita, Muxika-koa.

Jose Maria Arregi, Berriatua-koa.

(Gañerakoak:)

Julian Martitegi, Mañari-koa.

Jose Alberdi, Mañari-koa.

Basilio Pujana, Zeanuri-n jayo ta Bilbo-n bizi dana.

Abuztuaren 26-an, Bilbo-n (azken sayoa):

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapeldun.

Juan Azpillaga, Berriatua-koa, bigarrena.

Juan Mugartegi, Berriatua-koa.

Deunoro Sarduy, Muxika-koa.

Juan Ibarzabal, Markiña-koa.

Balentin Enbeita, Muxika-koa.

Jose Maria Arregi, Berriatua-koa.

Ireneo Ajuria, Muxika-koa.

NAPARROAN

Uztailaren 1-an, Errazu-n:

Bautista Madariaga, Arantza-koa, txapeldun.

Migel Arozamena, Lesaka-n jayo ta Astigarraga-n bizi dana, bigarren.

Simon Ibarra, Sunbilla-koa.

Juan Perurena, Goizueta-n jayo ta Arizkun-en bizi dana.

Klemente Ezkurdia, Elizondo-koa.

Inazio Rekondo, Mugaire-koa.

Abuztuaren 19-an, Goizueta-n:

Andres Narbarte "Xalto", Goizueta-koa, txapeldun.

Manuel Huizi, Arano-koa, bigarrena.

Martin Oreja, Errazkin-go.

Migel Zabaleta, Areso-koa.

Juan Zabaleta, Areso-koa.

Juan Bautista Perurena, Goizueta-koa.

Angel Aldaz, Yaben-go.

Martin Azpiroz, Areso-koa.

Moises Jaso, Gaintza-koa.

Bautista Arribillaga, Leitze-koa.

Agorraren 23-an, Bera-n:
Migel Arozamena, txapeldun.
Migel Zabaleta, Areso-koa, bigarren.
Manuel Huizi, Arano-koa.
Andres Narbarte “Xalto”, Goizueta-koa, txapeldun.
Bautista Madariaga, Arantza-koa.
Martin Oreja, Errazkin-goia.
Martin Azpiroz, Areso-koa.
Juan Perurena, Arizkun-goia.

GIPUZKOAN

Uztailaren 8-an, Bergara-n:
Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa, txapeldun.
Jose Maria Gabilondo, Anzuola-koa, bigarren.
Bitoriano Barrena, Anzuola-koa.
Martin Egileor Alberdi, Osintxu-koa.
Santiago Iparragirre, Errenteri-n jayo ta Eskoriaza-n bizi dana.
Jose Mari Zubinaga, Bergara-koa.

Uztailaren 22-an, Deba-n:
Manuel Uranga, Iziar-en jayo ta Eibar-en bizi dana, txapeldun.
Jose Zubizarreta, Elgoibar-koa, bigarren.
Luis Manzisidor, Deba-koa.
Sebastian Salegi, Lastur-koa.
Tiburzio Zubizarreta, Elgoibar-koa.

(2) Santiago Iparragirre onek Bergara-n kantatu zuen eta Oyartzun-en ere bai, bañan ontan bikoteak osatzeagatik bakarrik.

Abuztuaren 2-an, Azpeitia-n:
Manuel Lazkano, Azpeiti-koa, txapeldun.
Manuel Olaizola, Zestua-koa, bigarren.
Jesus Azkune, Azpeiti-koa.

Abuztuaren 4-an, Oyartzun-en:
Kosme Lizaso, Oyartzun-goia, txapeldun.
Jose Luis Lekuona “Lexoti”, Oyartzungoa, bigarren. (Au ere Eibarko sayorako aukeratua.)

Frantzisko Etxeberria, Orio-n jayo ta Lasarte-n bizi dana.
Jose Usabiaga, Errenteri-koa.
Jose Antonio Lazkano, Donostia-koa.
Santiago Iparragirre (2).
Agorraren 30-an, Beasain-en:
Jose Migel Iztueta “Lazkao-Txiki”, Lazkao-koa, txapeldun.
Jose Intxausti, Segura-koa, bigarrena.

Jose Antonio Aranzadi, Ezkioga-koa.
Jesus Eskisabel, Legorreta-koa.
Gregorio Etxeberria, Abalzisketa-koa.
Jose Antonio Luluaga, Legorreta-koa.
Jesus Alberro, Brinkola-koa.
Jesus Maria Imaz, Segura-koa.
Bizente Mujika, Ormaiztegi-koa.
Jose Tellería, Beasain-goia.
Bitor Agirre, Brinkola-koa.

Urriaren 7-an, Tolosa-n:

Kasiano Iburguren, Lizartza-koa, txapeldun.

Fermin Muñoa, Berrobi-koa, bigarren. (Au ere Eibarko sayorako auke-ratua)

Jose Garaikoetxea, Lizartza-koa.

Inazio Regillaga, Albiztur-koa.

Patrizio Sarasola, Billabona-koa.

Lazaro Azurmendi, Berastegi-koa.

Azaroaren 11-an, Eibar-en (azkenaren aurreko sayoa):

Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki", Lazkao-koa, txapeldun.

Joakin Mitxelena, Oyartzun-goa, bigarren.

Domingo Garmendia, Berrobi-koa.

Manuel Lazkano, Azpeiti-koa.

Akilino Izagirre "Zepai", Errezill-en jayo ta Idiazabal-en bizi dana.

Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa.

Jose Luis Lekuona "Letxoti", Oyartzun-goa.

Manuel Uranga, Iziar-en jayo ta Eibar-en bizi dana.

Kosme Lizaso, Oyartzun-goa.

Fermin Muñoa, Berrobi-koa.

Kasiano Iburguren, Lizartza-koa.

Abenduaren 9-an, Ermani-n (Gipuzkoa-ko azken sayoa):

Joakin Mitxelena, Oyartzun-goa, txapeldun.

Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki", bigarren.

Domingo Garmendia, Berrobi-koa.

Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa.

Akilino Izagirre "Zepai".

Manuel Uranga.

Jose Luis Lekuona "Lexoti".

Kanporaketa oiek egin ondoren amar bertsolari gelditzen ziran Donostirako, auek ziran:

Juan Azpillaga.

José Joakin Mitxelena.

Zabaleta Migel

José Migel Iztueta "Lazkao-txiki"

Mattin Trecou.

Migel Arozamena.

Juan Lopategi.

Fernando Aire "Xalbador".

Manuel Olaizola "Uztapide".

Ignacio Eizmendi "Basarri".

Goizean bi saio izan ziran, lenengoan ez dira sartuko Basarri eta Uztapide.

Besteak lan au egin zuten goizetik:

Agurra: Azpillagak bakarrik denan izenean.

2 bertso puntuak jarrita.

3 bertso ofizioak emanda.

1 oiñak emanda.

3 bertso gai bat emanda.

Aurrera pasatu ziran onoko auek: Mitxelena, Lazkao-txiki eta Xalbador. Beste bat aukeratzeko Mattin eta Arozamenak saio bat egin zuten nor pasatu jakiteko... Azkenik Arozamena aurrera pasatu zan.

Goizeko bigarren saioa: Mitxelena, Arozamena, Uztapide, Xalbador, Lazkao-txiki, eta Basarri. Egin zuten lana au da:

- 2 bertso puntua jarrita.
- 3 bertso ofizioak emanda.
- 1 oiñak emanda.

Denak gai berdiñari bertso bat "Bixiguari" baiña doiñu berezian, sei puntutik gorakoa, edo Iparragirrenen doiñukoa.

Pasatu ziran arratsalderako ondorengo aukerak:

- Xalbador.
- Uztapide.
- Lazkao-txiki.
- Basarri.

Arratsaldean saio au egin zuten: Agurra. Xalbadorrek bakarrik.

- 2 bertso puntuak jarrita.
- 1 oiñak emanda.
- 3 bertso gai bat emanda.
- 3 bertso laurak gai bat emanda "Aitaren testamentua"

Txapela jokatzeko biak Basarri eta Uztapide dira, aurreko txapelketan bezela.

- Egin zuten saioa au izan zan:
- 2 bertso puntuak jarrita.
- 1 bana oiñak emanda.

Basarri "kartzelara" eramaten dute ez dezan entzun eta Uztapidek ondoren:

- 3 bertso bere bizitzari
- 3 bertso bertsolarien patroiarri.

Bertso bat doiñu berezian "Urte zarrari"

3 bertso "Ama itzari"

Basarrik etorritakoan lan berdina.

Juradua bildu da eta naikoa eztabaiada, Irigoen Jaunak onela dio "Juradua etorritakoan" "Bildu da Juradua, eta orixtilluak nolako erabakia eman. Nik sekula ez det ikusi Juradua ain seriyo bakoitzak bere iritzia ematen. Bota du bakoitzak bere papera, eta gertatu da Euskalerrri osoko txapeldun: Uztapide."

Bigarren Basarri. Baiña Juraduak ez luke esango txarragoa danikan..."

Ondoren: Xalbador, Lazkao txiki, Mitxelena, Arozamena, Mattin, Azpillaga, Lopategi eta Zabaleta. Ordena orretan.

Ikusten dezutenez ixtillu aundiko txapelketa izan zan, ondorengo epaimai au zan erabaki gogora edo zuzena artu zuena:

- Antonio Arrue.
- Koldo Mitxelena.
- Antonio Zabala.
- Bordari.
- Juan Mari Lekuona.
- Marcelo Andrinua.
- Antonio Valverde.
- Pedro Diez de Ulzurrun.
- Juan S. Martin.
- Alfonso Irigoien (Gai jartzailea)
- Emile Larre
- (Mixel Itzaina edo Pierres Lafitte?)
- Ziur ez dakigu zein)

Txapelketa ontan agertzen da bakarrik bakoitza bere botoa ematen, non-



Uztapide

bait duda aundiak zeuden eta Basarri-ri txapela kentzea ez zan txantxetako lana! Ondorenak ere naiko luzeak izan zituan: Antonio Valverde eta Basarri-ren artean artikulo batzuk zirala eta... eztabaida luzatu egin baizan. Gero agertuko dira eztabaida oiek. Orain txapelketa ontako bertsorik onentxoek jarriko dizkitzuet, iñor baztertu gabe.

Juan Azpillaga

"Irigoyenek: Orain bakoitzari gai bana emango diegu. Lendabiziko Azpillagari, eta ematen zayon gayaren gañean kantatu bear ditu iru bertso.

Or aurrean daukazu sobre bat amar milla pezetakoa. Amar milla pezeta oriek gaur emen txapeldun gelditzen danarentzat izango dira. Ta baldin zuretzat gertatuko balira, diru orrekin zer egingo zendukean kantatu bear dezu iru bertsotan".

Azpillagak:

Onuntz etorri ordurako gu jarriak giñan kezketan,
amar bat milla pezeta ortxe jarriak daude sobretan,
amar bertsolaritatik danak estimatuak benetan,
neretzat izan ezkeru danak gastauko ditut festetan,
bañan nolatan izango ez dan zertan egin ametsetan?

Gastatze orrek izaten ditu txit ondoren itxusiak,
ta pena aundia ematen bai-dulanian irabaziak,
neri ezpavidit afiziyorik iñoiz eman gordetziak
iñork eztaki zer etorkizun izango duan atziak,
emen utzita juanak dira orain arteko guziak.

Gu beti izan genezakela ejenpluaren peskisan batzuk dutena kalean eta beste batzuek elizan,
oso jakintsu aundi batekin ni lenguan egon nintzan,
ta arrek ere itz eder auek eman zizkidan eskeintzan:
ondo gastatutako diruen damurik beñere ez izan.

José Joaquin Mitxelena

"Irigoyenek: Mitxelenak beste iru bertso. Atzo zure semetxo bakarra trenak arrapatu zuan ta gaur erdi illean dago. Ama Birjiña Arantzazukoari otoitz egiten diozu aurrarentzat osasuna eskatuaz. Iru bertsotan".

Mitxelenak:

Pentsa zazute zer naigabea beraz daukan Mitxelenak,
gure etxera eldu dirade iñongo naigabe denak,
geren aingeru orrekin gindun geuren zoririk onenak,
momentu batez negartu gera len poz-irritan geundenak,
seme txiki bat izaki eta au arrapatu nau trenak.

Oraindik ere bizi da bañon
naiko lanak, bai, baditu,
nik nai nukena da beñepian
bera bizirik arkitu,
zeru gañeko Aman bitartez
Arantzazuk oik or ditu,
zenbait naigabe-atsekabeak
lezazkienak ornitu,
ni oraintxen naiz premian eta
gaur emango al ditu!

Nik eztadukat ezer gordetzeik
eta dauzkaten guzirik
Ama, zuretzat dauzkat biotzez
gaur emen erakutsirik,
zorion danak galduta dauzkat
semeik gabetan utzirik,
beste laguntzik ez det eskatzen
ta ez det bear besterik,
eriotzean deten seme oi
gorde dezala bizirik.

Miguel Zabaleta

"Irigoyenek: Zabaletari lau puntu
jarriko dizkiogu zortziko txikian ber-
tsoa osatu dezan: larri, sarri, jarri, al-
karri. Berriz diot: larri, sarri, jarri, al-
karri".

Zabaletak:

Zutikan emen gertatzen naiz
orain ni're franko larri,
ta juraduak erabakiya
artuko baitute sarri,
eta orain emen atakak
iten dazkigue jarri,
eta guk ziri galantak sartu
dizkagu emen elkarri.

Lazkao-Txiki

"Irigoyenek: Lazkao-Txikiri gaya.
Urtebete da ezkondu ziñala, ta orain
illabete zure emazteak lenengo semea
ekarri zitzun mundura. Bañan aurra el-
barria da eta gañera itxua noski".

Lazkao-Txikik:

Ezkon berriak bere barruan
badu ondoren adurra
bañan poz ori geyentxuetan
izan oi degu laburra,
gure lenengo landaretxuak
egin orduko agurra,
guztiya oso ez ote dagon
badaukat naiko bildurra.

Zorionaren jabe ustez ta
engaño baten modura,
nere lenengo landaretxuak
au ekarri du mundura,
sano ta garbi etorri balitz
ortan etzizon ardura,
o, nere Jauna, lagun zaidazu
jasotzen dedan tristura.

Sinis zazute guraso batek
berekin duen pixua
oinbeste egunez amets egiñik
espero zuen usua,
mundu ontara betiko gaeuz
sortu baitzaigu gaxua,
arren pozetan egon gera ta
ta aizkenian itxua.

Arozamenari:

Zer dezu nayago zuk
ardo ala wiski?

ortatik erateko
ibiltzen naiz gaizki,
ardua merke degu,
oi berriz garizti,
askorik eran gabe
bearko deu noski.

Irigoyenek: Ofizioa emango diegu
orain alkarrekin teman egiteko. Biok
orain amabost urte ezkondu zifiaten.
Mattinek amabi seme-alaba ditu, ta
Arozamenak bat ere ez.

Mattinek:

Ofizioaren esplikatzeko
ethorri da tenoria,
amabi umekua baita
Mattinek dun familia,
gure etxian arrats guziez
badago bai umoria,
eta lagun hau bethi triste da
bate umerik gabia.

Arozamenak:

Orain dala amabost urte
biyok giñaden ezkondu,
eta Jaungoikuak gui eztigu
biyori berdin lagundu,
nik seme-alabik eztet eta
onek amabi izandu,
gau eta egun, Mattin maitia,
etzera geldik egondu.

Mattinek:

Amabost urthe eztitut pasa
nekean edo penetan,
alegrantzia izaten baita
haurrak diren familetan,
batian dela batayua ta
bestian komunietan,
ni bestaz-besta ortxen nabila
orai nere umietan.

Arozamenak:

Zure izketai bear bezela
orain nai diot erantzun,
familirikan eztegu bañan
konsueloz pasa zagun,
gizon txikiyak bizkorrak dira,
begiratu ta ezagun,
fabrikan baten lan eiten bezu
ai zer jornala daukazun.

Mattinek:

Jakin beazu ni haur oiekin
arras kontentu nagola,
eta nai nuke luzaro bizi
segur oino hola-hola,
ta gero ere zabalduko da
Mattin gaizoaren odola,
eta hau berriz zertarako da
fruitu gabeko arbola?

Arozamenak:

Fruturikan gabeko arbola
naiz ta sayatu lanian,
gure Jainkuak ez gaitu ikusten
danak begi berdiñian,
bañan, Mattin, ez nuke egon nai
zure larrun barrenian,
ai zer etorkizuna daukazun
ezkontzen aste'iranian.

Irigoyenek: Orain ofizioa jarriko diegu alkarrekin teman egin dezaten. Iruna bertso. Biak baserritarrak izango dira. Lopategi baserri baten jabea eta Xalbador baserri ortan berrogei urtean bizi izan dan maizterra. Eta nagusiak, berak erabili nai zuela baserriya ta juzgaduz bota egin du maizterra oraintsu baserritikan.

Lopategik:

Baserritikan kanpora leno
bizi izan nintzan suabe,
ta nere lurrak onen eskutan
arkitu izan dirade,
oain asi bear lurra landutzen
nago bizimodu-jabe
nerekin bear derrigorrezkoz
zaude zu etxerik gabe.

Xalbadorrek:

Lehen nagusi ona ziñan ta
orain txartu ahal zera?
berrogoi urthe badut ni jinik
lanera zure etxera,
etzaut gustatzen zure aldetik
hartu dautazun manera,
utziko othe nauzu orai hortxe
kanpuan gosez hiltzera?

Lopategik:

Nere lagunak orretan badu
nola-alako arrazoi,
bañan niretzat nolatan izan
etxe au gasturikan doi,
derrigorrian eldu zitzaigun
gura ez genduan sasoi,
baña oaindikan nai baldin bazu
izan zaite nere morroi.

Xalbadorrek:

Zer naiz bada ni orain arthean
zuretzat txarra izandu?
zure baserri ori ez du-ta
egin ahala zabaldu
inposible da zuretzat ere
gauza orrek igual du,
zendako behar dut bada orain
lenagotik nik aphaltu?

Lopategik:

Nere eskeintza ez duala nai
modu orretan esan du,
arrokeriyak probetxurikan
sekula ez du izandu,
nikin traturik nai ezpadezu
ainbat ariñen aldendu,
aberastuta ondo ziñake
len lana egin bazendu.

Xalbadorrek:

Zendako egin, oi nagusia,
zuk ere hola bekatu?
zure baserri on ori ez dut
santa sekulan ondatu,
lana egiñez aberasterik
izan zaiken ez pentsatu,
zer naiz bada ni aberastu ta
nagusi jauna pobretu?

Irigoyenek: Orain sei bertsolariak gai bere emango diegu eta bana-banaka kantatuko dute, baña bertso bat bakarria izango da, eta doñuak izan bear du edo bederatzi puntukoa, edo Iparragirren doñukoa, edo "Aizak i, motel, mañontzi" doñu ortakoa, edo "Ai gure antziñako - guraso nobliak". Berak aukeratu lezakete doñua, nai dutena.

Ta sei bertsolariok or aurrean daukazute bixigu eder bat, bixigu fresko-fresko bat. Oraintxe bertan arranparri-llan errea, eta baita olioarekin, ozpiñarekin eta barazuriarekin maneatutako salsa beroa. Or dago ori ere. Bertso bat bakoitzak.

Basarrik:
Oliyo eta piperrarekin
zein ez du orrek gozatuko?
bazkari eder bat ez ote degu
egun ontan osatuko?
bixigu begi-gorri,
begira danok orri,
nor ez da inguratuko?
nik desapiyo egiten dizut
etzerala sobratuko.

Irigoyenek: Uztapideri: zurea, nere-
rea, berea, gurea. Berriz diot: zurea,
nerea, berea, gurea.

Uztapidek:
Gaurko egun au bada
gogoan zurea,
ala izan litake
baita ere nerea,
eman bearra dago
bakoitzai berea,
euskerazko gauza da ta
ez al da gurea?

Irigoyenek: Xalbadorri gaya iru
bertso kantatu ditzan gai ori gogoan
artuta. Xalbador, bart Joxeri etxera zi-
joala sorgin bat atera zitzaion, ta tiratu
zion arria ta sorgiñak karraxika ta bu-
ruari elduaz iges egin zuen. Bañan

gaur goizean auzoko Mikela burua lo-
tuta agertu da. Zu zera Joxe sorgiñari
arria bota zeniona. Iru bertso kantatu
bear dituzu Joxeren izenean.

Xalbadorrek:

Huna mutil bat eta hura ni
gauak etxerat derama,
hantxe pausatu behar nuela
oihanean hartu zama,
sorgin bat ortxet athera zeraut
ene maitearen ama,
bazuen harek lendikan ere
sorgin haundiaren fama.

Gero zonbaitek erraiten dute
orai ez dela sorginik,
huna ni zuer mintzo asia
pruebak ontsa eginik,
ez da, ez, sorgin horietan
Mikela orren berdinek,
bi arri ere botako nazkon
ilko nuela jakinik.

Mikela, ez ahal zaizu dolutu
bart egin duzun ertera?
hobeto duzu hemendik goitik
etxean egoiten bazera,
zurea pasatu zen eta
hola ibiltzia kalte da,
zugur baduzu berriz ez jalgi
amoros baten bidera.

Irigoyenek: Lazkao-Txikiri lau
puntu bertsoa osatu dezan zortziko txi-
kian, len esan degun bezela: laguna,
kutuna, eguna, biguna. Berriz diot: la-
guna, kutuna, eguna, biguna.

Lazkao-Txikik:

Nere onduan daukat
Basarri laguna,
aspalditxotik nuen
aiskide kutuna,
gaur ere iritxi da
biltzeko eguna,
gizon gogorra bañan
biotzez biguna.

Irigoyenek: Orain Basarriri gaya:
Zure auzoan Maritxu izena duen neska-
katxa gazte eta eder bat bizi zan. Orain
urte batzuek dirala, Donostiara neska-
me etorri zan, ta gaur egunean emaku-
me galdua da, esaten dutenez.
Neskame izatetikan atera zan eta gaur
egunean ez dauka lan ezagunik. Gaur
eguardian Avenida kaletik barrena iku-
si dezu automobil batean dotore pasea-
tzen pintatuta eta apain-apain. Iru ber-
tso kantatu bear dizkiozu emakume
orri.

Basarrik:

Donostin egin biar
zendula serbitzu,
neri esan zidazun,
ene, itxu-itxu,
egun arretan ziñan
artaño berritsu,
infernuko indar ori
zeñek eman dizu?
orretaraño jatxi
al zera, Maritxu?

Avenida kalia
begira nenguan,
sonbrerokiko jaun bat
zenduen onduan,
Maritxu, jetxi zera
galtzeko graduan,
ezin egon ninteke,
ni zure onduan,
amaika zure antzeko
badago munduan.

Gazia ziñan eta
apain da kuttuna,
parre goxokua ta
alako iztuna,
norbait izandua da
zu galdu zaituna
au da Jaunan legiak
eskatzen diguna:
lendabiziko gorde
zer? garbitasuna!

UZTAPIDE

Irigoyenek: Uztapide, etorri onera.
Iru bertsotan zure bizitza kontatu zazu.

Uztapidek:

Nere bizitza esplikaturzen
egin biar zerbait kantu,
aditzalliak emen daude ta
artu dezatela kontu,
bizimodu onak bazira baño
guk ainbeste fundamentu,
beti pobriak izan gerade
baño bai bizi kontentu.

Zortzi seme ta alabarena
guraso aita ta amak,
gure era ayen babes batian
azi izandu geranak,
premier nuen da nik ontzat artu
nituen ayen esanak,
beti eziñian gabiltza baño
pazientziz pasa danak.

Esan dizutet pobre sortu ta
pobre izana naizela,
ta sinisten det urte obiak
geroztik ez datozela,
bañan nik beti bizi nai nuke,
jaun maitiak, bai, onela,
pobrezan Kristo Nazaren bertan
bizi izan zan bezela.

Irigoyenek: Eta bukatzeko beste gai
bat. Gaya de “ama”. “Ama” itza gogo-
an artu ta iru bertso.

Uztapidek:

Auxen da gai polita
orain neregana
alboko lagunendik
etorri zaidana,
bertsoak bota bear
emen iru bana,
ortan esango nuke
nik naitasun dana
beste ze esanik ez ta
esanikan: ama.

Amak eman ziraden
lenengo bularra,
andik artua nuen
bertsotako indarra,
geroztik biotzera
datorkit su-garra,
egunsentia joan zan,
laiste illunabarra,
gero ta beerago
Uztapide zarra.

Ama oraindik ere
daukat nik goguan,
pena ez egotia
gaur nere onduan,
Jaungoikuak zerura
eraman zinduan,
laister izango zera
iya saminduan,
baña ni ere or nazu
laistertxo zeruan.

Irigoyenek: Basarri, biyar bukatuko
dan urte oni bertso bat bota bear dio-
zu, bañan len, goizean egin degun be-
zela, doñu auetan izan liteke: bederatzi
puntukoa, Iparragirrerren doñukoa,
“Aitzak i, motel mañontzi” edo “Ai
gure antziñako - guraso nobliak”.

Basarrik:

Anai-arrebok, pasatu zaigu,
pasatu zaigu urte bete,
zartutzen ari gera guztiok,
orrekin daukagu kalte,
gaztetasun nun ziñan?
gu're or izan giñan,
ta orain zaude aparte,
ain urte txarra etzera izan
ta ondo ezkutatu zaite.

Irigoyenek: Orain beste gai bat emango diogu, eta gaya da “ama”. “Ama” izen orrek burura ekartzen dizun asmoa iru bertsotan kantatu bear dezu.

Basarrik:

Argitu nazazula,
Jaungoiko laztana,
badakizu Basarri
gaur kapaz eztana,
aua betetzen duen
izena da “ama”,
nola emango diot
merezi dun dana?

Ama ziñan zu ere,
zeruko Birjiña,
Espiritu Santuen
bidez asko egiña,
amatxo, agertzen dizut
nere atsegiña,
nik ez nun kantatuko
zu izan ez baziña.

Ez al du bertso onek
zerutar itxurik?
zeñek neurtu lezake
amaren pixurik?
aitortu zagun danok
ementxe bildurik
ama bat pagatzeko
ez dala dirurik.

Bukatu da txapelketa.

Basarriren agurra txapela galdu ondoren.

Irigoyenek: Basarri, emen dezu mikrofonoa nai dezuna kantatzeko.

Basarrik:

Nere burura datorren dana
esan bear det berela,
ez gero pentsa fallo orrekin
nik penik artu detela,
urte askuan nebillen
ta gaizkitxo nebillen,
gaur billatu du epela,
nere lagunik maitienari
eman bai diot txapela.

Irigoyenek: Euskalerriko irugarren, Xalbador. Xalbadorrek jasoko du Donostiako Ayuntamentuko kopa ederra; gañera iru milla pezeta eta Irutxulo-k ematen duen txapel bikaña. Ortaz gañera beste bi milla pezeta Fanderiko pentsuak emanak. Joan medez jasotzera sariok.

Mugaz alderdi ontako zure anayei kantatu zerbait.

Xalbadorrek:

Ni zorionez bethe-bethea
hemen naiz umil-umila,
ez nuen uste gain hartarikan
nindagon orren urbila,
ez pentsa gero jina nintzenik
sari eder auen bila,
bainan eskaini daizkitanari
bihotzetik esker mila.

Len esan dedan bezela txapelketa

onek naiko ondoren itxillutsua izan zuan. Bukatu eta egun gutxiren barruan Antonio Valverde Jaunak “Ayalde”-k “Diario Vasco” egunkarian artikululu luze bat idatzi zuan Basarri eta Uztapide goraipatuaz “Dije una vez que Basarri es el Iparraguirre de nuestra época...” eta abar (zoritxarrez erderaz daude lau artikululuak).

Basarrik erantzun egin zion bere iritzia agertuaz baiña erabaki garratz bat artuaz... ez zuela geiago parte artuko bertsolari txapelketetan...

“Caros lectores míos, Basarri ha finalizado su obra. No sé los años que me tendrá reservados el bondadoso Dios, pero he tomado la radical determinación de no participar nunca más en un certamen o en un campeonato de

bersolaris...”

Ondoren Ayaldek idatzi zion berriro, (Artikulu naiko mingarria) eta azkenik Basarrik erantzun zion “Puntuallizando las cosas” beste artikululu baten.

Uste degu naiko dokumentu interesgarriak dirala eta naizta erderaz egon emen atxikita jarriko ditugu gauzak kontestotik atera gabe irakurleak osorik ikusi eta dastatu ditzan.

Ontan bukatu zan txapelketa zaratatsu ura. Basarriren erabakia gogorra izan zan Euskalerrirako, pena aundi bat beraz, baiña pentsatzen degu orduan ere “buruberotzailleren batzuk” izango zituala inguruan ain erabaki latza artzeko.

Esan bezela emen dituzu lau artikululuak...

BASARRI Y UZTAPIDE

Por AYALDE

ESTAMOS ante dos grandes figuras del bersolarismo de todos los tiempos. Uztapide ha conseguido recientemente la categoría de campeón, pero su triunfo no merma para nada el prestigio de Basarri, el versificador de "Granada-koerrika", de Régil.

Dije una vez que Basarri es el Iparraguirre de nuestra época. Un Iparraguirre motorizado, que en su 4-4 (si no es ya un "Dofin") va de plaza en plaza para asisitir y ser alma de los juegos populares, que escribe en vasco y castellano en diversas publicaciones, que semanalmente, desde la Radio, envía sus consejos, sus comentarios, sus canciones, hasta los hogares más apartados de nuestros montes.

Basarri es la figura providencial que, en momentos harto delicados para la lengua nativa, entregó sus afanes y su vida a ella, creando una manera nueva de ser bersolari y una escuela fructífera.

Uztapide siempre reconoció la valía de Basarri. "Es hombre leído", suele comentar con respeto y admiración.

La humildad de Uztapide es tan grande como su bondad y sus dotes de improvisador poético. En alguna de sus actuaciones llega a momentos de arrebató, y entonces, para él, ya no existen oyentes, ni rivales, ni Juradó, ni dificultades técnicas, fluyéndole los versos espontáneamente, expresando sentimientos íntimos cargados de auténtica ternura y exentos de toda sensiblería. Así ocurrió en el torneo último en diversos pasajes, y sobre todo al desarrollar el tema final "Ama" (tema que, sorprendentemente, dejó de citar el locutor "Egui aundi" al comentar la fase final del campeonato. "La Voz de Guipúzcoa", 31-12-62).

Pues hemos comparado a Basarri con Iparraguirre, bueno estará parangonar a Uztapide con Xepelar, y tan sólo por considerar a estos últimos como los representantes del bersolarismo agreste y tradicional.

Es curioso como perviven las ideas y prejuicios antiguos. A Iparraguirre, los rústicos de su tiempo lo tenían por "señorito" porque cantaba con estilo y hacía música. Pues bien, esta misma tarde, un vigoroso abuelo de Oyarzun, comentando el tan sonado torneo último y declarándose acérrimo partidario de "Uztapide", me decía, en tono entre admirativo y despectivo, de Basarri:

"Ori solfeo-ko gizona da" (es un hombre de solfeo). El viejo Mathías caía en el mismo prejuicio de Xepelar y seguidores con respecto al bardo de Villarreal.

En cierta ocasión, Iparraguirre propuso a Xepelar asociarse para ganarse la vida con la música de uno y los versos del otro. ¡Lástima que el renteriano no aceptara! La negativa, debió de molestar a Joshe Mari, quien le dijo "No aceptas porque eres incapaz de hacer versos con mis nuevas tonadas". Xepelar contestó rápidamente, en verso y con la música nueva de Joshé Mari:

Iparraguirre abilla dela
askori diyot aditzen.
Eskola ona eta musika
ori oyekin serbitzen...
Atoz gure kalera,
baserritar legera,
musika oyek utzi ta...

(Mucho se habla de la maestría de Iparraguirre. Se vale de su música y de su buena escuela). Y a continuación, el reto: (Ven a mi calle, a la manera de los aldeanos y dejando de lado esas tonadas).

No sólo el amigo Mathías, que también entre algunos intelectuales hay prevención hacia el bersolari letrado y hacia la culturización de esta faceta poética, creyendo al bersolarismo consustancial con el analfabetismo, la haraganería y la inadaptación social. Por mi parte, siempre sostuve lo contrario. El bersolarismo es como la tosca piedra sillar de nuestra poesía en lengua eúskara; un buen pulido puede convertirla en joya de brillo universal. La cultura podrá, en todo caso, hacer perder ciertas facultades estimables y sorprendentes propias de los analfabetos, como es la retención mental, pero en otros aspectos prestará al bersolari multitud de ideas y de conceptos nuevos, enriquecerá su léxico (y mejorará el idioma), le pondrá en contacto con la literatura de todos los tiempos y de todos los países.

En este inesperado resurgir del bersolarismo hemos visto la influencia de la nueva escuela en poetas y público. De no ser de la excepcional categoría de Uztapide, el vate al modo antiguo no agrada ya como el joven bersolari que canta afinadamente y vierte expresiones elegantes. El pú-

blico de hoy y los jóvenes bersolaris actuales saben leer, leen y leerán cada vez más. Es inevitable.

En Uztapide veo el esplendor, la llamada última de una Euskal-erria entrañable que se nos va

por momentos. La cultura nos traerá una etapa nueva -puesto que al bersolarismo y al euskera les ha dado por no morirse- de poesía popular, de la que Basarri es el precursor.

EN DEFENSA PROPIA

Por BASARRI

Mucho se está escribiendo, y muchísimo más hablando, sobre el último Campeonato de Bersolaris celebrado en el Teatro Astoria.

Ayer mismo no pude ocultar mi sorpresa leyendo el artículo que escribió mi amigo Ayalde en "El Diario Vasco". Las comparaciones siempre son un tanto odiosas y, la verdad sea dicha, me quedé de una pieza al ver que se me comparaba con el bardo Iparaguirre. Pero, vamos a ver: ¿es que puede haber alguno que crea que Iparaguirre fue bersolari, improvisador, repentizador?

Iparaguirre componía versos y los cantaba, como los compositores que escriben música y luego la interpretan al órgano.

¿En qué litigios bersolarísticos intervino el bardo de Villarreal de Urrechua?

¿Qué temas le pusieron, cuántos pies forzados, cuántas terminaciones obligatorias?

Iparaguirre se merece el respeto y la admiración de todos por la inmensa labor que desarrolló valiéndose de sus espléndidos resortes, aunque éstos no fueran, ni mucho menos, resortes de bersolari.

Hay que saber distinguir las cosas, ya que es de pésimo efecto mezclar el remo cuando se habla y se debate de pelota. Bien sé yo que el amigo Ayalde sabrá hacer la distinción necesaria, pero muchos lectores tienen un concepto equivocadísimo de las cosas. Para salir al paso de tanta superchería y falsedad que circula a través del país, es ineludible una confesión sincera y verídica.

El amigo Ayalde puede comunicar al viejo Mathías y a todos los habitantes del Globo que "Basarri", desgraciadamente, es un ignorante en solfeo y música; incapaz de leer las notas del pentagrama. También andan equivocadísimos quienes me creen un hombre culto, un hombre de formación, un intelectual.

La insignificancia que soy en la actualidad se la debo a los dones que me ha otorgado el Todopoderoso.

Sean todos los que me leen que "Basarri" solamente pisó la escuela hasta los once años de edad; que tuvo que abandonarla forzosamente al hacer su primera comunión, para atender a las necesidades de la familia. Quien tenga alguna duda puede llegar hasta Zarauz, donde le informarán al respecto.

¿Qué culpa tengo yo porque me haya gustado tanto la lectura y porque haya devorado tantos libros?

Doy constantemente gracias a Dios por haber sentido esta vocación detestando el analfabetismo y la ramplonería.

Desde los diecisiete años de edad, que empecé a cantar en las plazas públicas, hasta hoy (49 años cumplidos), he puesto todo mi interés y toda mi alma en elevar un poco el verso improvisado.

Sufría horrores con el bajo e intolerable lenguaje que empleaban los antiguos bersolaris en las plazas públicas. No acertaban a versificar sino atacándose mutuamente y en tonos muy groseros e impertinentes. Las borracheras, los latrocinios, los adulterios eran los temas de aceptación. Cuanto mayores disparates soltaban, más celebraban los oyentes.

Pero la gente de respeto, la gente de sentido común, la gente un poco culta, huía del bersolari. Este pertenecía a la última escala de la sociedad.

He podido comprobar que aún existen quienes opinan que el verso tiene que ser eso; que el bersolari ha de ser una especie de bufón, el hazmerreir de las gentes. Muy negro veo el horizonte de nuestro país si la tendencia de las gentes es favorable a este criterio.

Caros lectores míos, "Basarri" ha finalizado su obra. No sé los años que me tendrá reservados el bondadoso Dios, pero he tomado la radical determinación de no participar nunca más en un certamen o en un campeonato de bersolaris.

Siempre estaré dispuesto a laborar por la unión y con fraternidad de todos los vascos, pero jamás dividirlos y enfrentarlos unos contra otros, como ha ocurrido en esta ocasión.

No negaré mi colaboración a los pueblos que me soliciten como número de fiesta, ni a cuantos actos se organicen para cantar en plan de camaradería con los demás bersolaris. Pero que no me hablen de concursos y campeonatos. Bien está la "chapela" de campeón cubriendo la cabeza del gran bersolari y excelente caballero Uztapide.

Mi misión esta terminada. Queda campo libre para la juventud.

La posteridad me juzgará adversa o favorablemente. Lo que nadie podrá negar es que he puesto toda mi alma en una empresa que yo la consideraba muy noble.

Esta es la sincera confesión del más humilde autodidacto que suscribe esta sección de LA VOZ DE ESPAÑA. Y, mientras tanto, la gente me censura por "letrado" y "músico". ¡Así se escribe la Historia!

“La Voz de España” 6.1 1963

EN TORNO A IPARRAGUIRRE

Por AYALDE

Al parecer estuve poco afortunado al comparar a Basarri con aquel barbudo bohemio tañedor de guitarra, compositor y creador de canciones que fue José María Iparraguirre. ¡Qué disparate! Iparraguirre no fue bersolari.

“¿En qué litigios bersolarísticos intervino el bardo de Villarreal de Urrechura? -pregunta Basarri-, ¿qué temas le pusieron, cuántos pies forzados, cuántas terminaciones obligatorias?”

Respondo sumisamente que creo que no debió de intervenir en ningún litigio de tal clase y que me figuro que jamás le impusieron esas obligaciones.

No, Iparraguirre no fue un bersolari en el sentido que nosotros damos a la palabra, es decir, no fue un improvisador, aunque si un autor de versos más o menos buenos, pero de una emoción, de una intención y sentimiento tales, que calaron hondamente en el pueblo.

Como Basarri puede figurarse, yo ya conocía la manera de actuar de Iparraguirre. ¿A qué, pues, la comparación? Yo sólo pretendía enaltecer la figura de Basarri al compararle con un personaje que tengo en gran estima y consideración, dada la influencia que su obra ejerció y ejerce aún en el país.

Iparraguirre fue un aventurero, un romántico que recorrió el mundo llevando a sus paisanos expatriados, al conjuro de su guitarra, la emoción de los valles húmedos, de los bosques dorados, de los solitarios caseríos patrios. Fue el creador de canciones aún vigentes en nuestros días, entre ellas el “Gernica’ko arbola”, que exalta la libertad, la universalidad, y condena de guerra, himno que hoy se escucha con respeto por gentes de diverso pensamiento y condición. Músico y poeta, fue un artista vehemente, con alma, que hizo vibrar a las multitudes.

Con mi comparación quise honrar a Basarri, no a Iparraguirre.

Establecí hace años ese poco afortunado paralelismo porque he visto viajar mucho a Basarri (claro que en vuelos más limitados), siempre de un lado para otro, para asistir y organizar los juegos y deportes populares, las danzas al suelto, actuar de bersolari en las fiestas de los pueblos, etc. Como él canta muy bien, tiene una hermosa voz y gusta e influye en las gentes, por eso me atreví a compararlo con aquel señor de otro tiempo. Mil perdonos. Barkatu.

Pero dejando ahora de lado esa “mezcla de remo” mía, ¿qué otro pecado pudo haber cometido este continuo admirador y defensor de Basarri, tanto de su obra como de su persona? Porque en mi artículo todo fueron elogios para él, desde llamarle hombre providencial para el vascoence hasta decir que es el precursor de una etapa nueva de la poesía popular. Lo que yo ya no podía decir es que en el concurso último, el fallo del Jurado me pareciera injusto, porque, como miembro de él, hubo de someterme al sentir de la mayoría, que se inclinó por Uztapide por ocho votos contra dos, aparte de cuatro abstenciones o peticiones de empate, y, por tanto, de una nueva prueba decisoria.

Sinceramente creo que la respuesta de Basarri a mi artículo ha sido injusta y totalmente injustificada. Hay un párrafo en su escrito -cuyo título, “En defensa propia”, es ya improcedente, porque nadie le ha atacado ni ofendido- que quiere comentar. Dice así:

“Siempre estaré dispuesto a laborar por la unión y confraternidad de todos los vascos, pero jamás dividirlos y enfrentarlos unos contra otros, como ha ocurrido en esta ocasión”.

Se refiere, claro está, al certamen último. A mí me parece, y creo que a cualquiera, que no darle a él el primer premio no significa, ni mucho menos, un intento de dividir a los vascos ni de enfrentar a nadie contra nadie. Cualquier otro bersolari no vencedor podría alegar lo mismo. Hasta el pensarlo resulta pueril.

No debemos olvidar que a las competiciones se acude corriendo el riesgo de quedar el segundo, o el último. Hay que estar preparados para todo, y las decisiones -aunque íntimamente nos parezcan injustas- deben de ser aceptadas, al menos, con serenidad. Anunciar una retirada definitiva de los concursos por el hecho de no haber ganado uno de ellos, puede hacer suponer que tal decisión no se tomaría de haber sido el fallo favorable.

Renuncio a seguir comentando otras particularidades de la respuesta de Basarri. Yo espero que se serene y que no tome demasiado a mal estas cosas que aquí le digo, y que son, tal vez, algo desagradables, no como las de mi artículo

anterior. Mientras tanto, yo estrecho efusivamente la mano que, desde la página de un periódico, nos ofrece un joven bersolari a quien siempre admiré.

"Puntualizando las cosas" por "Basarri"

Es bien desagradable el hecho de que dos amigos que tan bien se quieren y se aprecian mutuamente, se vean obligados a enzarzarse en una polémica periodística.

Su primer artículo, como todos los suyos, estaba muy bien escrito y tenía un fondo admirable.

Yo aproveché aquella comparación con Iparraguirre, no para dejarle a usted en mal lugar, sino para hacer una confesión sincera y verídica, puesto que estaba al tanto de las inexactitudes que circulaban por el país. Me tiene que que perdonar, admirado, Ayalde, por haber escogido su magnífico artículo para una confesión propia. Bien decía que usted sabría hacer las distinciones necesarias.

Me dirigía al público, en general; para que tuviese un conocimiento exacto de la realidad.

Eran tantos los que me consideraban como músico, ó con formación universitaria...

Ahora, nuevamente, vamos a hablar en plan de franca camaradería.

Los que asisten a un torneo de bersolaris, los oyentes, no se dan cuenta del proceso interno de los concursantes. La tensión de los nervios, el sufrimiento moral, la inexplicable angustia...

Aunque exteriormente aparentemos otra cosa, la procesión va por dentro, como vulgarmente decimos.

Se habrá dado cuenta, amigo Ayalde, que este año, un trío de bersolaris de primera línea no compareció en la semifinal de Eibar. Me refiero a Lasarte, Lizaso y Aguirre. Por evitar, sencillamente, todo esto que voy exponiendo; por no pasar el suplicio que comento. Si el nerviosismo tanto influye en un pelotari o en un aizkolari, que van a exponer sus facultades físicas, en un cantante, acordeonista o chistulari, que va a ejecutar en un concurso o campeonato la partitura estudiada, figurense ustedes lo que es el ejercicio cerebral del bersolari, que desconoce en absoluto por dónde ha de empezar y terminar; los temas que tendrá que desarrollar, los pies forzados o las terminaciones obligatorias que le tocarán en suerte.

Uno que está al margen, uno que no pertenece a la familia bersolari, no se imagina lo que se habla y se comenta entre nosotros. Porque los bersolaris, gracias a Dios, salvo algún aisladísimo caso que confirma la regla, como acertadamente apuntaba ayer el gran Arteche, constituimos una

familia ejemplar; nos queremos mutuamente: somos verdaderos hermanos.

Quien menos ganas tenía de participar en el último campeonato era el amigo "Uztapide". En dos o tres ocasiones me insinuó que estaba por no presentarse.

Yo estaba obligado a poner en juego el título; y tengo una satisfacción indecible en haberlo entregado a ese gran bersolari y caballero que se llama "Uztapide".

"Anunciar una retirada definitiva de los concursos por el hecho de no haber ganado uno de ellos, puede hacer suponer que tal decisión no se tomaría de haber sido el fallo favorable."

Aquí disentimos radicalmente, admirado Ayalde.

Si tanto me halagara el título o la boina de campeón, creo que aún me queda una mínima posibilidad de poder recuperarla, de prodigarse mucho los campeonatos. Pero mi determinación está tomada tras madura reflexión. Tan contento, mejor dicho, más contento que antes, me hallo en el puesto que ocupo.

La Fandería, de Rentería, tiene el proyecto de organizar en el Frontón Beolibar, de Tolosa, un gran festival de bersolaris. No será un concurso, ni menos un campeonato. Un técnico, un miembro del jurado en la última competición, el amigo "Bordari", se encargará de establecer los temas, así como los pies forzados. Habrá similares ejercicios; se parecerán a los del campeonato, pero los bersolaris actuaremos con otra tranquilidad, con otro estado de ánimo.

Usted sabe, caro Ayalde, que en el país vasco-francés se prodigan esta clase de festivales. Precisamente tengo sobre mi mesa de trabajo una cariñosa carta de Urrugne. Me ruegan participe en el "Día del Bersolari", que se celebrará en la mencionada villa el día 17 de febrero.

Para el festival de Tolosa fui el primero en dar mi asentimiento y haré lo posible por asistir a Urrugne.

Quiero decir con todo esto, sin necesidad de concursos y campeonatos, se puede mantener viva la afición y se pueden organizar festivales de primer rango. No niego, por otra parte, que los concursos celebrados en Vizcaya, Navarra y Guipúzcoa han influido notablemente en el resurgimiento del bersolarismo, y que la Academia de la Lengua Vasca se ha apuntado un gran éxito

con los mismos. En varias ocasiones ha recibido la Academia mi efusiva felicitación, y una vez más se la quiero hacer patente.

"Hay que estar preparados para todo y las decisiones deben ser aceptadas, al menos, con serenidad".

Si, amigo Ayalde. Yo fui preparado para todo, y con toda serenidad felicité al gran campeón y acepté el honroso segundo puesto. Cualquiera puede tener un mal día, y de ser así, aunque me hubiese correspondido el cuarto lugar, lo hubiese aceptado con serenidad.

Muchas veces, lo que le hace perder a uno la serenidad no es el fallo del jurado, sino las habladurías de la gente; el propalar noticias falsas, el tergiversar las cosas, el sembrar la confusión y el

desorden. Es lo que ha ocurrido, desgraciadamente, en esta ocasión, sin que usted ni yo fuésemos la menor culpa.

En mi caso particular no ver la necesidad de padecer tantos sin sabores y disgustos con anterioridad y posterioridad a los campeonatos. Mi temperamento es totalmente pacífico. El amor y la confraternidad son mis postulados. Existen en sumo grado en el seno de la familia bersolari, y por nada del mundo quisiera enemistarme con ninguno de ellos. Ni con usted, caro amigo Ayalde. No hago más que exponer con toda franqueza lo que siento en el fondo del alma. Cada cual es muy dueño de sus actos.

"La Voz de España" 16.1 1963

1.965-ko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA, Anoeta pelota-lekuan.

1.965-ko Txapelketa nagusia. Aurreko txapelketan bezela, ia urte osoa kanporaketak egiten pasa zuten, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan. Txapelketa au ere Euskaltzaindiak antolatu zuan, eta lengo oiturari jarraituz Maiatzean asi eta urtea bukatu arte eskualdeka txapelketak egin zituzten Donostiko finalerako parte artzailleak aukeratzeko. 115 bertsolarik artu zuten parte kanporaketa oietan, orra alderdi bakoitzetik zenbait:

Agertu diran bertsolariak:

Lapurditik: 1

Baxenabarratik: 1

Naparroatik: 16

Bizkaiatik: 26

Gipuzkoatik: 71

Guzira 115 bertsolari

Kanporaketa aietan parte artu zuten bertsolarien zerrendak, egunak eta lekukak "Auspoa 43" liburuak dakazki txukun eta arretaz jasoak, beraz emen jarriko dizkizuet danak:

NAPARROAN

Beruate-n, 1964-ngo Maiatzaren 3-an:

Andres Narbarte "Xalto", Goizuetakoa, txapeldun.

Anjel Aldaz, Yaben-goa.

Martin Oreja, Errazkin-goa.

Felix Mariezkurrena. Goizueta-koa.

Jose Maria Mutuberria, Elzaburu-koa.

Migel Rekalde, Arruiz-koa.

Moises Jaso, Gainza-koa.

Manuel Huizi, Arano-koa. (1)

Lesakan-n, 1964-ngo Garragarri-llaren 14-an:

Miguel Arozamena, Lesaka-koa, txapeldun,

Manuel Arozamena, Lesaka-koa, bigarren.

Roman Mihura, Lekaroz-koa.

Bautista Madariaga, Arantza-koa.

Frantzisko Latasa, Mugaire-koa.

Felix Iriarte, Arizkun-goa.

Klemente Ezkurdia, Elizondo-koa.

Inazio Rekondo, Mugaire-koa.

Iruñan-n, 1964-ngo Agorraren 27-an, Nafarroa-ko txapelketa nagusia:

Andres Narbarte, "Xalto", txapeldun.

Migel Arozamena, bigarren.

Bautista Madariaga.

Anjel Aldaz.

Manuel Arozamena.

Roman Mihura.

Jose Maria Mutuberria.

Moises Jaso.

(1) Txapelketa bakoitzeko txapel-duna ta bigarrena nor izan ziran, ize-naren ondoan esaten degu. Baña gañe-rako bertsolarien izenak nolanai ja-riak dira. Dauden tokiak ez du, beraz, zenbatgarren gelditu ziran adierazten.

BIZKAIAN

Urkiola-n, 1964 Garagarrillaren 13-an:

Julian Martitegi, Mañariko, txapel-dun.

Jerman Iriguen, Ermua-koa.

Frantzisko Mandiola, Mallabi-koa.

Jose Alberdi, Mañari-koa.

Manuel Sarrionandia, Iyurreta-koa.

Inazio Urkidi, Iyurretakoa.

Mungia-n, 1964-ngo Uztailaren 19-an:

Felix Ortuzar, Muxika-koa, txapel-dun.

Jon Enbeita, Muxika-koa.

Manuel Basabe, Lumo-koa.

Pedro Ortuzar, Muxika-koa.

Juan Jose Aguirre, Gernika-koa.

Pedro Kastrejana, Loiu-koa.

Juan Ormaetxe, Mungi-koa.

Markiña-n, Larruskain-en, 1964-ngo Uztailaren 31-an:

Abel Muniategi, Ereño-koa, txapel-dun.

Domingo Iriondo, Larruskain-goa.

Justo Longarte, Murelaga-koa.

Gregorio Larrañaga, Larruskain-goa.

Igorre-n. 1964-ngo Abuztuaren 16-an:

Basilio Pujana. Zeanuri-koa, txapel-dun.

Jose Maria Gurtubay. Lemona-koa, bigarren.

Gernika-n. 1964-ngo Abuztuaren 17-an, goizean, Bizkaiko txapelketa nagusiaren aurrekoa:

Juan Mugartegi, Beriatua-koa, txapel-dun.

Jose Maria Arregi, Berriatua-koa, txapelketa nagusirako aukeratua.

Ireneo Ajuria, Muxika-koa, berdin.

Deunoro Sarduy. Muxika-koa, berdin.

Basilio Pujana, berdin.

Abel Muniategi, berdin.

Felix Ortuzar.

Julian Martitegi.

Ondarroa-n. 1964-ngo Abuztuaren 17-an, arratsaldean. Bizkaiko txapelketa nagusia:

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapel-dun.

Juan Mugartegi, bigarren.

Juan Azpillaga, Berriatu-koa.

Jose Maria Arregi.

Ireneo Ajuria.

Deunoro Sarduy.
Basilio Pujana.
Abel Muniategi.

GIPUZKOAN

Andoain-en, 1964-ngo Garagarri-
llaren 21-an:

Domingo Garmendia, Berrobi-koa.
Kasiano Iburguren, Anzuola-n jai-
ta Lizartza-n bizi dana. (1)
Patrizio Sarasola, Billabona-koa.
Migel Esnaola, Abalzisketa-koa.
Fermin Muñoa, Berrobi-koa.
Bitor Ibarbia, Berrobi-koa.
Antonio Bidaola, Lizartza-koa.
Juan Jose Zubiaurre, Alkiza-koa.
Inazio Odriozola, Alzo-koa.
Lazaro Azurmendi, Berastegi-koa.

Mondragon-en, 1964-ngo Garaga-
rri-llaren 28-an:

Jose Maria Gabilondo, Anzuola-
koa, txapeldun.
Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa,
bigarren.

(1) Txapelketa ontan etzan txapel-
dunik eta bigarrenik izan. Garmendia
ta Iburguren gelditu zira biak berdin
beste guzien aurretik.

Bizente Iribekanos, Bergara-koa.
Jose Luis Gorrotxategi, Osintxu-
koa.
Bitor Agirre, Brinkola-koa.
Jesus Alberro, Brinkola-koa.
Bitoriano Barrena, Anzuola-koa.
Jose Suinaga, Angiozar-koa.

Iñaki Azarola, Brinkola-koa.
Santiago Iparraguirre, Oiartzun-go
semea, Eskoriaza-n bizi dana.

Martin Egileor Alberdi, Osintxu-
koa.

Gregorio Etxeberria, Mondragoe-
koa.

Errenteria-n, 1964-ngo Uztailaren
23-an:

Frantzisko Etxeberria, Orio-ko se-
mea, Lasarte-n bizi dana, txapeldun.

Kosme Lizaso, Oiartzun-go, biga-
rren.

Santiago Zabala, Lezo-koa.

Pedro iturain, Oiartzun-go.

Pablo Zubiarraín, Ernani-koa.

Agustín Unsain, Herrera-koa.

Jose Usabiaga, Errenteri-koa.

Inazio Alkain, Urnieta-koa.

Antonio Lizaso, Errenteri-koa.

Azkoiti-n, 1964-ngo Abuztuaren 9-
an:

Manuel Olaizola, Arrua-koa,
Uztapideren illoba, txapeldun.

Pedro Aizpurua, "Lilibé", Zestua-
koa, bigarren.

Rafael Zubizarreta, Azkoiti-koa.

Inazio Lizarralde, Azkoiti-koa.

Roberto Arregi, Azkoiti-koa.

Antonio Aranbarri, Azkoiti-koa.

Antonio Aranbarri, Azkoiti-koa.

Nikolas Zendoia, Azpeiti-koa.

Jesus Etxabe, Azpeiti-koa.

Jose Antonio Salegi, Azpeiti-koa.

Jose Aranbarri, Azkoiti-koa.

Jesus Azkune, Azpeiti-koa.

Beasain-en, 1964-ngo Agorraren 20-an:

Jose Intxausti, Segura-koa, txapel-dun.

Jose Antonio Aranzadi, Eskio-koa, bigarren.

Jesus maria Imaz, Segura-koa.

Zeferino Agirre, Segura-koa.

Jesus Eskisabel, Legorreta-koa.

Jose Maria Aranburu, Zaldibi-koa.

Eusebio Ibarzabal, Gabiri-koa.

Inazio Intxausti, Segura-koa.

Antonio Barandiaran, Olaberri-koa.

Felipe Barandiaran, Lazkao-koa.

Jose Antonio Luluaga, Legorreta-koa.

Zarautz-en, 1964-ngo Azaroaren 15-an:

Jose Maria Lertxundi, Aya-koa, txapeldun.

Jose Maria Roteta, Aya-koa, bigarren.

Markos Manterola, Aya-koa.

Tiburzio Zubizarreta, Elgoibar-koa.

Santiago Olasagasti, Usurbil-koa.

Migel Esnaola, arautz-koa.

Antonio Larra, Endoya-koa.

Jose Antonio Astigarraga, Endoya-koa.

Jose Makazaga, Endoya-koa.

Inazio Jauregi, Zumaya-koa.

Segundo Etxeberria, Errezil-ko semea, Zarautz-en bizi dana.

Joseba Ostolaza, Zarautz-koa.

Jaime Manterola, Aya-koa.

Jose Antonio zulaika, Zarautz-koa.

Eibarren, 1964-ngo Abenduaren 6-an, Gipuzkoa-ko txapelketa nagusiaren aurrekoa:

Jose Migel Iztueta, "Lazkao-txiki", Lazkao-koa.

Jose Joakin Mitxelena, Oiartzungoa. (1)

Domingo Garmendia.

Kasiano Iburguren.

Frantzisko Etxeberria.

Kosme Lizaso.

Manuel Olaizola.

Pedro Aizpurua, "Lilibere".

Jose Intxausti.

(1) Txapelketa ontan etzan txapelduna ta bigarrena izendatu. Gipuzko-ako txapelketa nagusian kantatu bear zutenak aukeratzeko egin zan saioa. Mitxelena ta Lazkao-txiki, azkeneko txapelketan txapeldun ta bigarren atera baitziran, besterik gabe aukeratuak zeuden. Bañan Eibar-ko Erriko Etxeak kopa bat emana zuan, eta ura nork irabaziko ote zuan kantatu zuten, Garmendia ta Lertxundi-rekin batera. Lazkao-txikik irabazi zuan.

José Antono Aranzadi.

José Maria Lertxundi.

Markos Manterola.(2)

(2)Roteta-k kantatu bear zuan, bañan motoarekin iztarra autsi zuan, ta onen ordeiz Markos Manterola, Zarautz-en irugarren gelditutakoa, etorri zan.

Tolosa-n, 1964-ngo Abenduaren 13-an, Gipuzkoa-ko Txapelketa Nagusia:

Jose Migel Iztueta, "Lazkao-txiki", txapeldun.

Domingo Garmendia, bigarren.

Jose Joakin Mitxelena, irugarren.

Jose Intxausti

Frantzisko Etxeberria.

Kasiano Ibareguren.

Kosme Lizaso.

Jose Maria Lertxundi.

Bilbo-n, 1964-ngo Abenduaren 20-an, Euskalerrri guziko txapelketa nagusiaren aurrekoa:

Jose Migel Iztueta, "Lazkao-txiki".

Jose Joakin Mitxelena.

Domingo Garmendia.

Fernando Aire, "Xalbador".

Mattin Trecou.

Andres Narbarte, "Xalto".

Migel Arozamena.

Juan Lopategi.

Juan Mugartegi. (1)

(1) Guziak aukeratu ziran Donostirako, eta bertako kopa Lazkao-txikik irabazi zuan.

Azken saioa urte berri egunean ospatu zan. Maiatzaren 3-an asi ziran kanporaketak eta Urte-berrira arte 19 jaialdiren ondoren aukeratu ziran 10 bertsolaririk onenak txapelketa nagusia jokatzeko. Ondoren datozenak aukeratuak izan ziran: (Uztapidek azken saioa bakarrik egin zuan)

Mugartegi

Arozamena

Garmendia

Narbarte

Lazkao-txiki

Xalbador

Mattin

Mitxelena

Lopategi

Txapelketa ontako epai-maia au izan zan:

Mugaz gorakoak dira Emile Larre Hazpandarra, eta Mixel Itzaina, Aldudarra. Emengoak, Pedro Díez de Ulzurrun, apaiza, Euskaltzaindiko urgazlea; Jose Maria Satrustegi, euskaltzaiña; Aita Martzel Andrinua, Euskaltzaindiko urgazlea; Gabriel Aresti, Euskaltzaindiko urgazlea; Antonio Arrue, euskaltzaiña; Juan San Martin, euskaltzaiña; Fernando Artola. "Bordari", Euskaltzaindiko urgazlea; Eusebio Eizmendi, "Txapel", bertsolari zarra, gaur egunean plazetan kantatzen ez duena; eta azkenez, dakizuten bezela, ni, Alfonso Irigoyen, euskaltzaiña ni ere.

Txapelketaren egitura onela izan zan: Goizetik bederatzi bertsolariak parte artuko dute (Uztapidek azken saioan bakarrik, arratsaldetik). Bederatzi aietatik, lau bertsolari aukeratuko dira arratsaldeko saiorako. Arratsaldean laurak beren artean arituko dira eta gailen geratzen danak Uztapidekin jokatu du txapela.

Goizeko saioak zati auek eduki zituau:

Agurra: bertsolari guziak.

Oiñak emanda bertso bana denak.

Biñaka: 2 puntu erantzuteko. 3 bertso ofizioak emanda. 3 bertso gai bati.

Lan au denak berdin, baiña azkenean hirukote bat berdin.

Ondoren, juraduaren erabakia: Pasatzen dira Lazkao-txiki, Mitxelena, Xalbador.

Beste birekin saio bat egin zan nor aurrera pasatu: Lopategi eta Mattinekin. Alkarri pare bana puntu jarri zizkioten eta gero kartzelara eramana...3 bertso gai bati "Semeari aurrak nola sortzen diran esplikatu...Aurrera pasatu zan Mattin.

Arratsaldeko saioa: Laurak agurra egiten dute.

2 puntu bakoitzari erantzuteko.

3 bertso laurak ofizio emanda.

3 bertso biñaka (beste biak kartzelara eramanda) Ofizioak emanda.

Azkenik, banaka (besteak kartzelara eramanda) lan berdiñean.

Puntu bat.

2 bertso "Bildurrari"

2 bertso "Emaztearen soñekoari"

3 bertso "Txiste bat kontatuz"

Pasatu zan finalera: Lazkao-txiki

Azken saioa: Uztapide eta Lazkao-txikik. Uztapidek agurra egiten du.

Egin zuten lana:

Puntu bana.

3 bertso ofizioak emanda "Aitona eta billoba"

Gero, bat kartzelara eramanda.

3 puntu erantzuteko.

1 oiñak emanda.

2 bertso gaia emanda "neskatxa gazteei"

2 bertso "Zure erriko elizako ponte-ari"

3 bertso "Il-kanpaiari"

Biak lan berdiña egin zuten eta juraduaren erabakia au izan zan:

Txapeldun: Uztapide: Ara nola dion Alfonso Irigoienek...


SARIAK

Irigoyen: (Juradua agertutakoan) "Txapelak UZTAPIDE-ren buruan segitzen du.

Emen daukagu gañera Gipuzkoako Gobernadore jauna, Gipuzkoako Diputazioako Presidente jauna ta Donostiako Alkate jauna, sariak partitzeko.

Au da Uztapidek jasoko duan guttia: lenbizi, Euskaltzaindiaren txapela; jasoko ditu gañera Informazio ta Turismoko Ministro jaunaren zillarrezko kopa, Euskaltzaindiaren amar milla pezeta, bi milla ta bosteun pezeta Donostiako Ahorro-Kaxarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, eta Fanderia-koak emandako magnetofon bat.

Bigarren saria, Lazkao-txiki: Gipuzkoako Gobernadore jaunaren kopa, bost milla pezeta Euskaltzaindiarenak, bi milla ta bosteun pezeta Donostiako Ahorro-Kaxarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, eta Itxaropenak emandako liburu-pilla bat.



Uztapide



Lazkao Txiki

Irugarren saria, Xalbador: Gipuzkoako Diputazioaren kopa, iru milla pezeta Euskaltzaindiarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, milla pezeta Jose Lizarazu jaunak emanak.

Laugarren saria, Mitxelena: Donostiako Ayuntamentuak emandako kopa, bi milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, milla pezeta Jose Lizarazu jaunak emanak.

Bostgarren saria, Mattin: Gisasola etxeak emandako tabako-toxa; bi milla pezeta Euskaltzaindiarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, eta bosteun pezeta euskaltzale batenak.

Seigarrena, Lopategi: bi milla pezeta Euskaltzaindiarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzi-

alarenak, eta Club Deportivo Añorga-k emandako erloju esnatzallea.

Eta gañerako beste laurak, bakoi-tzak artuko ditu bi milla pezeta Euskaltzaindiarenak, eta milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak.

Badaude beste sari batzuek ere:

Iru bertsolari gazteenai milla bana pezeta Bizkaiko Bankuak emanak. Eta oiek dira Lopategi, Garmendia eta Mugartegi.

Gañera, bertsolari gazteenak jasoko du Zubiria jaunaren kopa, eta bersolari gazteena, gaur kantatu dutenetan, Lopategi da.

Gaurko bertsorik onenari bi milla pezeta Gurelesa-k emanak. Sari ori irabazi du Lopategik.

1.965-ko bertsolari txapelketa nagusiko bertsorik onentxoena jartzen ditut ondoren inor baztertu gabe.

AGURRA

Arozamena:

Lenago ere gure Donostik
bazitun olako egunak,
Euskalerriya goratziarren
pasa izan ditugunak,
gure erriyan radiotikan
len e baituzte entzunak,
gaur ere entzuten egondo dira
Lesakar on da txukunak,
urte berri on opa dizutet,
biotzeko euskaldunak.

oiñak emanda:

Irigoyen: Seigarren, Xalbador: gorriya, larriya, urriya, berriya. Berriz esango dizut: gorriya, larriya, urriya, berriya.

Xalbador:

Urte zaharra enetzat
izan da urriya,
ez da nik nahi baino
len hasi berriya,
harekin ibili naiz
askotan larriya,
hartan ikusia det
ifernu gorriya.

oinak emanda:

Irigoyen: Laugarren, Andres Narbarte: eragin, txakolin, berdin, arin. Berriz esango dizut: eragin, txakolin, berdin, arin.

Narbarte:

Goizetik txurrutak ez dit
askorik eragin,
nola eran baituan
baso bat txakolin,
moxkorra ez nagola
entzun dute berdin,
orain norla nabillen
tripatetik arin.

Puntua jarrita:

Irigoyen:

Gure lan bakarra da
euskerari eustea,
Arozamena:
tristia genduke oi
beraño jextea
oraindikan arkitzen da
gogor da gaztea,
denborakin baleike
goraño irixtea.

gaia emanda.

Irigoyen: Orain Mugartegik iru bertso kantatuko ditu. Gaur gure elizetan lenengo aldiz entzun dira euskeraz ebanjelioa ta epistola. Zure iritzia eman bear dezu iru bertsoetan.

Mugartegi:

Nere buruan jarria dago
Jangoikoak dakarrena,
da zorionez bilduak gera
Donostian alkarrena,
eleiz-gizonen laguna naiz ni
da ezta izango txarrena,
euskeraz bertan mintzatutzia
da legerikan zarrena.

Fedeko itzak ondo autortzen
izango det atsegiña,
Ebanjelio ta epistola
nola zeuden gaur jarriña,
Jesukristoren legea degu
eginkizunik aundiña,
zerua irabazi nai bada
egin daigun alegiña.

Anai t'arrebak, danok daukagu
guk aita baten odola,
Jesukristoren erentzia da,
ezin ukatu iñola,
Euskalerrriyan ebanjelio
euskeraz da epistola,
aurrera ere segi dezala
jarraitutzen, bai, orrela.

Irigoyen: Ofizioa emango die-
gu orain:

Domingo Garmendia, zu zera ka-
mion baten jabea, eta Andres Narbarte
berdin; kamion baten jabea zu ere.
Zeren kamionakin Donostian barrena
zoaztela, txoke bat egin dezute, oso
gogorra. Ez dezute miñik artu, baña bi
kamionak txikituta gelditu dira. Batak
besteari errua, kulpa, botatzen diozute.

Garmendia:
Ara, Narbarte, gaizki ez artu
Garmendiak itzegiña,
gaur biok emen topatutzea
ez da izan atsegiña,
zenbaitek ofiziyoa dauka
beti ikasi-eziña.
guk txokerikan gaur ez genduan
zuzen etorri baziña.

Narbarte:
Onen bertsuak ez du izandu
asiera ta puntikan,
erdiyan ere iñork ez diyo
arrapatuko juntikan,
ni eskuñetik nebillen bañan
zu sartu ezkerretikan.
Berrobotarrak ditu aitzakik.
Narbartek ez du kulpikan.

Garmendia:
Ara, Narbarte, oaindik etzera
zeure okerraren jabe?
zu bezelaxen mundu onetan
asko ikusten dirade,
ta zintzo xamar gabiltzanak
erruz erruz supritzeko gaude,
argi gorriya dagon garaian
zertako pasa zerade?

Narbarte:
Goizuetarra txartzat jotzen gaur
Domingoren alegiña,
neure urtetan beti izan naiz
izugarri txofer fiña,
nere kulpara bota nai luken
argi gorrin utsegiña,
zuk e neria etzendun joko
zuzen ibilli baziña.

Garmendia:
Txoper ikasi ta obligaziok
bete bear lendabizi,
norbere gustora ibiltze orrek
nei ez dit ematen grazi,
artzantzako egoki diranak
kamioi zar oikiñ asi,
berriz ere pasako da, bai,
makiñatxo bat desgrazi.

Narbarate:

Sinistatua izango uzute
onek egiya esanda,
lenago txutik gaunden gizonak
an jarri giñan etzanda,
txofertzara zertako juan giñan
biyok artzaiak izanda?
ezertxok ere ez du kulparik,
biek mozkorrek giñan-da

gaia emanda

Irigoyen: Xalbadorrek bertsolari on
bat izateko doairik premizkoenak
zeintzuk diran esango digu iru bertso-
tan.

Xalbador:

Ni erantzuten zuri, Alfontxo,
orai bainago hasia.
Jainkoak eni ere eman daut
bertsolarizko grazia,
gauza bat bada denen aurrean
hortako premi hartzia,
segurtamena bere buruaz
ta gainera ausartzia.

Bertze bat ere erranen nuke
banerauka ahalmenik,
ote da hemen nik baino hobeki
gauza hori dakienik?
bertsolariak umila izan
behar bailuke maizenik,
eta bertzeri alaz ez esan
entzun nahi eztuenik.

Nik bertsolari ederra franko
denboran badut entzuna,
eta beti nik bilatu izan dut
haiekin alkartasuna,
bertsolari bat ezpada ere
indarrez handi ta una,
ez bedi izan, Jainkoaz otoi,
bere eletan lizuna.

gaia emanda:

Irigoyen: Lopategi: gaur dan egu-
nean nekazariaren alde asko itzegiten
da; bañan egin, ezer gutxi. Iru bertso
kantatu bear dituzu ortaz.

Lopategi:

Nekazarien alde beti da
guzurra edo demanda,
ori berela ikusiko zue
baserri aldera juanda,
alperrik gabiliz beti lanian
daukagun dana emanda,
diru guztiyak kalera duaz
kopla batzuek esanda.

Aspaldi baten izan genduen
guk zertsobaiten ustia,
baña penetan jartzekua da
kasu auxe ikustia,
txalarengatik ez dogu artzen
iñoiz bear dan guztia,
eta (i) alan be karnazeritan
okela oso garestia.

segurtamena=segurantzia.
banerauka=baneuka.
alaz=ahalar, al bada.
eletan=itzetan.

Zerbait ein bear dogu guztiyok,
galduak gera bestela,
gure biotza garbiya degu,
ezta ezertan ustela,
begira ortik koperatiba
asko sortu direzela,
guk ere danok bat egin daigun
beste batzuek bezela.

Puntua jarrita:

Irigoyen:

Zuk egiten al dezu
oiean ametsik?

Xalbador:

gauza hortan ez daizut
esango ezetzik,
gaur ere atzartua
han nindagon goizik,
barta ere ez dut egin
ametsikan baizik.

MATTIN ETA MITXELENA

Ofizioak emanda

Irigoyen: Biok langilleak zerate, ta Alemaniara joateko atera zaizute kontratu on bat. Emen baño bost aldiz geiagoko jornala eskeintzen dizute. Mattin, zu Alemaniara zoaz; baño zu, Mitxelena, naiago dezu emen segitu, gutxiago irabazita ere. Bakoitzak alkarrekin iruna bertso.

Mattin:

Ai, Mitxelena, lagun maitea,
gaur nago zuri begira,
hau baño leku askoz hobiak
irabasteko badira,
bainan zure begiek dute
hor gelditzeko dirdira,
nik beldurrik ez daukat eta
banoa Alemanira.

Mitxelena:

Esaten dute urruti oitan
dagola bizi samurra,
ni neroni're ez nago, jaunak,
aruntz juateko beldurra,
bañon ainbeste lagun oneri
ein behar diot agurra,
da lenbiziko gorde nai nuke
neure jaio nitzan lurra.

Mattin:

Ai, Mitxelena, esango zaitut
arrazoin horren gainian
zure lekurat etorriko naiz
gero ni're azkenian,
andregaiakin nahi du egon
beti aldamenian,
ni berriz askoz nahiago nauk
berriz heldu naizenian.

Mitxelena:

Andregairikan ez daukat eta
ez leza illundu kopetik,
gizonak bere asmoak beti
beurekin izaten ditik,
aita ta ama dauzkat zartuak
daudezenak erdi zutik,
eta ni bertan geldituko naiz
aiei laguntziatik.

Mattin:

Mundu hunetan bizi-bearrak
baditu bere konduak,
gu gira askoetan
erriz kanpo egonduak,
eta zerbait irakusten du
kurritzen degun mundoak,
Mitxelenak e ara juan eta
galduko luzke kiluak.

Mitxelena:

Sekulan ez naiz aberats izan
da gaur e nazu pobrea,
bañan etxian zer gerta ere
pezetatxo bat gordea,
gaitz gaiztoren bat sortu bailaiko
osasunaren ordea,
eta pakean bizi ezkeru
zer dezute gauz ohea?

Gaia emanda:

Irigoyen: Orain zure emazte il za-
naren soñekoari beste bi bertso.

Xalbador:

Pentsa zazute alargundu bat
ez daiko izan urusa,
dolamen hunek, oi!, ez dezala
ainitz gehiago luza,
orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hesterik,
ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan besterik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.

dolamen=naigabe, samintasan.
dilindan=zilintzik.
nihaur=nerau, neroni.
hesterik=ixterik.
nehoiz=inoiz.
urusa=zorionekoa (heureux).

Irigoyen: Orain, zure emazte il za-
naren soñekoari bi bertso.

Lazkao-txiki:

nerre emaztea falta det eta
ara soñekotxo bera,
sarritan ura ez dedalarik
etortzen zera aurrera,
zu etxean emen gelditu ziñan
ta emaztia lurpera,
len txuria ta alai ziñana
orain illun biurtu zera.

Baña anima egongo al da
Jaungoikoaren onduan,
ain gaiztua ez baizan izan
eriotzako orduan,
nerre emazte maitagarria
bizi zanian munduan
-milla esker, soñekotxo,-
zuk estalitzen zenduan.

Irigoyen: Eta, azkenez, kontatu igu-
zu iru bertsoan izkirimiri bat, txiste
bat. Ez du ajolarik gordin samarra ba-
da ere, baldin txukun kontatzen bade-
zu. Minutu bat daukazu txistea auke-
ratzeko.

Lazkao-txiki:

Euskalerrian bein gertatua
aitortu nai dizutet nik,
baldarrak geran gutxi ikusi
eta zaharrak izanik,
baserritar bat bein korreuan
feri alderuntz juanik,
itxaron apur-apur batean
ta kontatuko' izutet nik.

Polizia sekreta zan-da
eta trenean zijuan,
bizkar-gañean baserritarra
ukuitu zuen orduan,
ta ark eskuba an sartu zuen
txamarrako poltxekuan,
iru errial eman zizkion
eskalia zalakuan.

Ta poliziak ipiñi zion
zenbait aserrezko seta,
bere begira jarri zitzaion
zitaltasunez beteta,
gero zer gauza gerta zitzaion
txapatxua azaldu-eta,
muñ eman zion baserritarrak
santua zala uste-ta.

Gaia emanda

Irigoyen: Orain zure erriko elizako
ponteari bi bertso.

Uztapide:

Bein da berriro gogoratzen naiz,
Arruako eleiza zarra,
zurengandikan artu bainuen
kristau-izaeran indarra,
oraindik ere nere fediak
badauka bere giarra,
Euskalerrri au serbitutzeko
izan det zure biarra.

Ni Arruako semia bainaiz
esaera baterako,
lotsarik izan banu enitzan
ni andikan aterako:
zertako utzi bear nuen nik
barriyo ura berako,
bean aurrian sortu bainintzan
Jaungoikuen aurrerako?

Irigoyen: Orain gaua da, ta oiean
lotan zaudela, esnatzen zaituzte il-kan-
paiak. Iru bertso kantatzen dituzu.

Uztapide:

Auxen da lana!, gezur au orain
ezin biurtu egira,
ni ametsetan ibilli eta
gero esnatzian, begira,
pentsatu nuen: emaztia ta
semetxua emen dira,
eriotzak e ainbeste pena
eztu ematen urrutira.

Pena aundiya artu nuan, bai,
ni nola naizen umilla,
eta asiya nintzan aguro
oraziyo baten billa,
iru Aita-gure errezatutzen
ai nintzan ixill-ixilla.
nik esan nuen: oi, dana dala,
zeruan gerta dedilla.

Esan bezela, gerta dedilla
aingeruakin batian,
zeiñ elitzake pozez beteko
alako leku maitian?
guk ere gero sartu nai degu
zeruetako atian,
arratsian zein il dan jakingo'et
geok aruntza juatian.

Irigoyen: Lau puntu emango dizki-
zugu orain zortziko txikian bertsoa
osatzeko.

Auek dira: aukera, aurrera, minbe-
ra, euskera. Berriz esango dizut: auke-
ra, aurrera, minbera, euskera.

Lazkao-txiki:

Asko egonagaitik
onekin minbera,
nik gauza ontan segi
nai nuke aurrera,
beste izkuntzetan ere
badaukat aukera,
bañan nik geiagona
maite det euskera.

Irigoyen: Lazkao-txiki: gaua da, ta,
oiean lotan zaudela, esnatzen zaituzte
il-kanpaiak. Ta iru bertso kantatzen
dituzu.

Lazkao-txiki:

Lotan lasairik negularik
au da gertatu zaidana,
au da pentsatzen buru austia!
au nere buruko lana!
banaka eta triste jotzen or
dago elizako kanpana,
nere buruai galdetzen diot:
nor ote degu il dana?

Au entzutean baten biotza
beti jartzen da minbera,
arriku ori denok daukagu
emen urtetik urtera,
baldin lo dala, Jauna, badezu
mundu ontatik atera,
kulpa guztiak etzitzen eta
ar zazu aldamenera.

Kanpantorreko kanpai zakarra,
batere etzaitut maite,
doñu tristiak orrela jotzen
kontuan ibilli zaite,
neri're berdin gerta nezaikit,
nik noski bate ez uste,
arren, kanpanik etzazula jo
ni lotan nagon bitarte.

Txapelketa guzietan bezela 1.965-
koan ere eztabaida nabarmenak agertu
ziran txapelketa bukatu bezain laster.

Lopategi arratsaldera pasatu bear
zuela, Mattin baño obeto egon zalako.
Ondorengo egunetan Basarrik "La Voz
de España" egunkarian txapelketaren
iritzia ematerakoan onela zion "El te-
ma que no me convenció en absoluto,
el de soltar un chiste gracioso...en tres
estrofas..."

Iritzi onen aurka, Antonio Arrue
euskaltzainak, naiko gogor idatzi
zuan. Emen bere iritzia osorik jartzea
ez da oso erreza, beraz, eranskin bate-
an, naizta erderaz egon, jarriko det,
irakurleak berak zuzen juzga dezan.

MI IMPRESION

Por BASARRI

No puedo ser tan extenso como quisiera co-
mentando la grandiosa jornada de ayer en el
Frontón de Anoeta. Una vez más, eso sí, se ha
puesto de manifiesto que el bersolarismo es único
para la movilización de la masas. Solamente le
superan los grandes acontecimientos deportivos
en lo que respecta a congregar gente.

La Academia de la Lengua Vasca puede sen-
tirse bien orgullosa. Se apuntó ayer un éxito colo-
sal. Servirá -qué duda cabe- como fuerte estímulo
para proyectos más ambiciosos. No es la pri-
mera vez que demuestra el pueblo vasco cuales
son los espectáculos de su preferencia. No hay
que abusar de los mismos, organizándolos sin
son y medida, pero sí que apreciarlos y conside-
rarlos cual se merecen para satisfacer los legiti-
mos anhelos de ese pueblo.

Me tocó un día de intensa tarea.

Era día festivo, desde luego, pero el que esto
escribe tuvo más labor que nunca.

La emisión vasca, como viernes que era, y la
crónica diaria que es preciso redactarla. Solamen
principalmente en la sesión de la tarde.

He de declarar, en honor de la verdad y de la
sinceridad, que los pies forzados impuestos por el

Jurado calificador, eran más apropiados que nunca. Rimas que se prestaban para el lucimiento de los bersolaris y sufre el público entendido, que al momento se percata de la enorme dificultad que encierran las mismas.

En cuanto a los demás temas obligados, varios de ellos me parecieron estupendos para sacar partido y cuajar una buena actuación. El tema que no me convenció en absoluto, el de soltar un chiste gracioso, sin reparos al número 4, en tres estrofas.

No se le puede encomendar esta labor a un bersolari.

Usted me dirá, maestro, cuando tengo que reirme, repicó Miguel de Unamuno a uno que se consideraba muy gracioso en contar chistes. Al bersolari le basta y sobra con la preocupación de redondear una buena estrofa, sin que se le obligue a que tenga la sal y gracia de un recitador de chistes. Hecha esta excepción, vuelvo a repetir, el resto del temario lo juzgué muy aceptable.

Michelena, de Oyarzun, hasta el momento que le toco abordar el tema del “vestido de su esposa difunta”, para mi apreciación particular, merecía ir a la cabeza de la clasificación.

Es aquí donde dió un bajón impresionante. Empezó y terminó con su difunta esposa, sin hacer mención de su vestido, que es al que debía referirse.

No es de extrañar. Los nervios, en un campeonato, no están en su sitio. Pudo también que no entendiera debidamente las palabras de don Alfonso Irigoyen, aunque las repitió dos veces.

“Lazkao-Chiki”, el subcampeón, tiene la excelente virtud de seguir en todo momento a los ejercicios obligados. Con esto consigue muchos puntos a su favor.

Es como el perro libre -si vale el simil- que sigue atentamente las huellas de la pieza.

En la última fase del Campeonato, cuando tuvo que competir “mano a mano” con “Uztapide”, no se mostró tan regular como momentos antes.

Mi buen amigo “Uztapide” no tuvo altibajos. Se defendió bien en todas las ocasiones y ello le condujo al triunfo.

“Xalbador”, tercero en la clasificación improvisó dos estrofas de antología al “vestido de su difunta esposa”.

Cuarto, Michelena: quinto, Mattin.

Un festival de inenarrable entusiasmo y emoción.

“La Voz de España”, 2.1. 1965

ESCRIBEN LOS LECTORES

Más sobre la final de bersolaris

Debidamente firmado recibimos para su publicación el siguiente texto:

Al Jurado de la final del Campeonato de Bersolaris, con afecto y admiración.

DEBE ser muy ingrato el “oficio” de “jurado” de los certámenes y torneos literarios.

Lo decimos a propósito de la final del del último Campeonato de Bersolaris del País Vasco celebrado el día de Año Nuevo en el Frontón Anoeta.

Claro está que conocemos a algunos miembros del Jurado que actuó en dicha final y también sus “anchas espaldas”, y estamos seguros de que no habrán perdido el sueño por las censuras -totalmente injustas por otra parte, a nuestro juicio- de que han sido objeto. Aparte de que hay que suponer que no les ha faltado ni la tranquilidad de conciencia ni, como decía el clásico, la “sonrisa de Dios”. Y hay que suponerlo todo esto porque indudablemente, con los actos del día de Año Nuevo, han batido holgadamente, como tales jurados y organizadores al propio tiempo, todos los “records” de esta clase de competiciones.

Como dice un amigo nuestro, en el bersolarismo vasco hay que señalar el día uno de enero de 1965 con la castiza indicación de “hasta aquí llegaron las aguas”.

Desde luego, y con relación a las aludidas censuras, lo que más nos ha llamado la atención es esta afirmación rotunda que hemos visto estampada en letras de molde: “Para cuentos, chistes, relatos de graciosos sucesos, etcétera, se debe utilizar la prosa común y no el verso medido” (?).

Cuando nosotros estudiábamos el bachillerato existía una asignatura que se llamaba “Preceptiva literaria” o cosa así, y aunque nos costó bastante aprobarla, recordamos que aprendimos en ella que existe una composición poética llamada “epigrama” y que consiste en eso, en una composición poética en que se expone breve y agudamente un pensamiento festivo o burlesco. Es más, recordamos perfectamente que el catedrático

co nos obligó a aprender de memoria un epigrama de un tal Baltasar del Alcázar que lo hemos olvidado ya, pero que se titulaba, sobre poco más o menos, "Un jiboso al revés". Más todavía, y es que al año siguiente nos enteramos en una asignatura que se llamaba "Historia literaria" que, allá por el primer siglo de nuestra Era, Marco Valerio Marcial, que había nacido en Calatayud -por cierto que un compañero de clase decía que el Marcial éste debía de ser medio vasco- escribió nada menos que catorce o quince libros de epigramas.

Posteriormente, y aunque nuestra afición a la literatura festiva no es demasiado grande, hemos leído infinidad de veces sucedidos graciosos y chistes contados en verso, tanto en castellano como en vascuence. De los en castellano nos vienen a la memoria en este momento algunos de Taboada y Pérez-Zúñiga, y de los en vascuence, varios -y algunos de ellos además sencillamente "formidable" - de Marcelino Soroa y Victoriano Iraola, también los conocidísimos titulados "Konfesorriagana" y "Bein batian Loyolan", del gran Vilinch...

Por ello, y dicho sea sinceramente, no creemos que es para rasgarse las vestiduras ante el hecho de que el Jurado de Año Nuevo impusiera a algunos bersolaris, entre otros muchos temas serios, uno festivo, uno de epigramas, uno de "izkirimiris" (según Azcue, la palabra "izkirimir" significa en castellano chascarrillo, esto es, cuento breve y gracioso).

Y es que además, y como dice Manuel Lecuona, los rasgos más apropiados para el pueblo en los bersolaris con el ingenio, la agudeza, la "feliz ocurrencia", la oportunidad, la "chispa" -nosotros añadiríamos además el "humor" y la "gracia", empleada ésta última palabra en todas sus acepciones- que tiene al público que les escucha en perenne regocijo "desbordado de vez en cuando en incoercibles explosiones de risa y carcajadas" (sic).

Nada tiene de extraño por tanto -repetimos- que el Jurado del Frontón Anoeta impusiera a algunos concursantes un ejercicio de "izkirimiris", dándoles así pie precisamente para que pudieran lucir sus características condiciones de bersolaris.

Un buen día preguntaron al torero andaluz Cagancho qué opinaba de su compañero el castellano Domingo Ortega, y después de ponerse a pensar un rato, contestó el "gitano"

-De Despeñaperros para arriba no se torea: se trabaja.

Y algo de esto ocurre también en el bersolarismo. Algunos bersolaris "torean" y otros "trabajan" solamente.

"Torear" en el bersolarismo es lo que hacen por ejemplo, DON Manuel Uztapide -así, con el DON en mayúsculas-, Lazkao-txiki, Mattin y Narbarte, como pudimos observar todos claramente en el Frontón Anoeta el día uno. Y lo demás, es "trabajar".

"Y es probado", como diría Quevedo, que también era un tío muy grande en componer "izkirimiris" en verso.

ESCRIBEN LOS LECTORES 8/1/65

Más sobre bersolaris

¿Por qué no se puede improvisar sobre temas jocosos?

La final de bersolaris tiene cola. Al artículo publicado en estas columnas el pasado miércoles, ha contestado "Basarri" con otro. Bueno, ha intentado contestar. El autor que nos envió el artículo de hace dos días, vuelve hoy sobre el tema. Y concreta más, formulando a "Basarri" una pregunta que esperamos sea contestada.

He aquí las cuartillas de "Un espontáneo":

HEMOS leído la contestación de Basarri a nuestro articulillo "Más sobre la final de bersolaris", publicado el día de Reyes en estas columnas. Y, la verdad, no sabemos quién es el que en realidad confunde la velocidad con el tocino...

Nuevamente insiste el bersolari regildarra en que "para cuentos, chistes y relatos de graciosos sucedidos, etc., se debe utilizar la prosa común, la conversación corriente, y no el verso medido" (textual).

Pues bien; una pregunta, una sola pregunta, una única pregunta, Basarri; querido Basarri, gran Basarri. Y mucho le agradeceríamos que nos contestara a ella concreta y taxativamente, sin salirse por la tangente de...las estrofas de nueve puntos y consonancias.

La pregunta es ésta: "¿Por qué el bersolari vasco, cuyas características principales son precisamente la agudeza, la feliz ocurrencia y la "chispa" -en esto parece que estamos todos de acuerdo-, no puede improvisar sobre temas jocosos y festivos, al igual que lo hace sobre temas religiosos, sentimentales o dramáticos?" "That is the question", que dicen que dijo un inglés.

Y a propósito de las estrofas de nueve puntos o consonancias. Quizá sea porque nosotros sabemos poco de bersolarismo o sencillamente porque tenemos mal gusto, pero es lo cierto que a nosotros nos "chifla" la estrofa de nueve rimas. Es más: tenemos entendido que los mejores bersolaris guipuzcoanos de la pasada generación - Pello Errota, Udarregui y José Bernardo Otaño, por ejemplo- empleaban siempre en las grandes solemnidades esta métrica clásica tan "apaña", como llegó a calificarla el gran Pello Mari Otaño.

Pero, en fin, y sea de ello lo que fuere, ¡qué pena, Basarri, y lo decimos con el corazón el la

mano; qué pena, Basarri -y sabemos además que esta nuestra pena es compartida por muchos euskaltzaies-, que se vaya perdiendo el "bederatzi puntuko bertsoa", de tanta raigambre en el castizo bersolarismo tradicional de nuestra querida Guipúzcoa!...

Pero esta es otra historia. Lo que importa e interesa en estos momentos es que se conteste, concreta y taxativamente, a la pregunta que ha quedado precedentemente formulada.

Para Basarri

"Defendella y no enmendalla"

Basarri vuelve a la carga. Y nuestro espontáneo comunicante le contesta en estas cuartillas, que no tienen desperdicio:

TERMINAMOS. Nos referimos a nuestra polémica -o lo que fuere- con Basarri sobre la última final del Campeonato de Bersolaris del País Vasco. Y la terminamos por inútil, toda vez que, a este paso, no llegaríamos al mutuo acuerdo ni en todo lo que resta del año entrante. Y es que el método Ollendorf, del que parece servirse Basarri para sus contestaciones, no es el más adecuado para una controversia. Aparte de que parece que ambas partes nos hallamos ya conformes de conformidad en lo fundamental: que el aludido concurso de bersolaris constituyó un éxito completo.

De todos modos y antes de poner el punto final, vamos a ver si aclaramos algunos extremos.

Y así diremos que, según nuestro contradictor, los bersolaris vascos no pueden en modo alguno improvisar sobre cuentos, chistes y sucedidos, y nosotros entendemos, por el contrario, que sí pueden, siempre que el bersolari de que se trate tenga "clase" y posea, además, una auténtica vena humorística. Una buena prueba de ello la constituye incontestablemente la intervención de Lazkao-chiqui en el repetido concurso "cantando" un conocido cuento -no se trata allí de INVENTAR nada, amigo Basarri, sino de relatar eso, un cuento, un chiste o un sucedido festivo, original o "copiado"; intervención de la que escribió en este mismo periódico una persona tan ponderada y de tan refinados gustos artísticos como Ayalde -¡de nada, don Antonio!-, literalmente lo que sigue: "El cuento gracioso que hubo de relatar -se entiende. Lazkao-chiqui- en tres estrofas fue SENSACIONAL Y APOTEOSICO".

Otra aclaración. No tenemos inconveniente alguno en reconocer que no entendemos nosotros gran cosa de bersolarismo; pero no porque no seamos bersolaris, sino sencillamente porque no tenemos demasiados conocimientos en la materia; pero hay personas que, sin ser bersolaris poseen esos conocimientos y, consecuentemente, pueden ser tan buenos críticos del bersolarismo como pueden serlo los mejores bersolaris. Exatamente igual como puede ser uno un buen crítico de pintura sin ser pintor, o de coreografía sin ser un Sergio Lifar o una Pastora Imperio. Otro ejemplo aclaratorio. En España ha habido siempre unos críticos taurinos colosales, como Pérez Lugín,

Corrochano, Cossio, Díaz Cañabate y nuestro "Pepe Luis"; pero ninguno de ellos fue jamás torero ni toro...

Es más: El solo hecho de que la crítica sea ejercida por un "profesional" hace disminuir notoriamente el valor de la misma cuando recae sobre algo relacionado con la profesión respectiva, por la sencilla razón de que, como dijo no recordamos quién, "sólo podemos dar una opinión imparcial sobre las cosas que no nos interesan directamente". Aparte de que lo que verdaderamente importa en esta clase de cuestiones son las "razones", y no las personas que los exponen, ni sus méritos.

Vamos a intentar también puntualizar de una vez otro extremo: el relativo a la tan castizamente guipuzcoana estrofa de nueve rimas.

Dice a este respecto nuestro contradictor: "No nos debe dar pena la desaparición (?) de las improvisaciones de nueve puntos o consonancias, porque nunca estuvieron en activo" -nos parece bastante raro esto de la desaparición de algo que nunca existió-, y que dichas improvisaciones "solamente tuvieron vida en el papel".

Dicho sea con todos los respetos y las debidas consideraciones, estas gratuitas afirmaciones constituyen, a nuestro juicio, una auténtica "chirristada". Contestaremos brevísimamente a ellas.

Es de notar, ante todo, que un Iztueta escribía hace ciento cuarenta y tantos años que la métrica en cuestión era usual por aquel entonces entre los buenos o grandes ("bikiñas") bersolaris de Guipúzcoa. Por otra parte, don Manuel Lecuona, en su "Literatura oral euskérica", transcribe varias estrofas "improvisadas" de nueve puntos por Xenpelar, Larraburu, etcétera. Más todavía, y es que en un artículo de don José de Arteche publicado por éste el año 1936 en cierto periódico de Bilbao, reseñando un concurso de bersolaris celebrado el mes de enero de dicho año en el Teatro del Kursal, de San Sebastián, artículo que copia íntegramente el señor Lecuona en su precitada obra, se dice literalmente:

"Empezado el ejercicio, faltaban aún los dos contendientes de allende el Bidasoa, Matxin y Larralde, los cuales llegaron justamente en el momento preciso en que iba a cantar el urnietarra Alkain, tras del cual le tocaba su turno a Matxin. Este no tuvo tiempo de enterarse de las condiciones del ejercicio que se estaba verificando. Alkain cantó bellísima estrofa de las de nueve puntos, con la tonada de "Betroi baten tratua". Matxin la

escuchó atentamente, y luego, en la creencia de que la tonada y el asunto eran obligados, siguió sin inmutarse el hilo del asunto iniciado por Alkain, empleando la misma tonada, sin fallar en ninguna de las nueve consonantes obligadas de la estrofa...”

Por lo demás, es también sabido que aún hoy día, son bastantes los bersolaris -el oyarzuarra Michelena, por ejemplo- que “saben cantar” con sujeción a la discutida métrica, siendo conocidas, por otra parte, de todos los aficionados “jatorras” las tonadillas correspondientes y sus nombres específicos de “Betroi baten tratua” y “Manuel tra-tuen astua”.

Terminamos, y esta vez definitivamente. No pretendemos convencer a nadie. Además, todos aquí somos muy vascos, pero también, y al propio tiempo, muy “ibéricos”. Y a mucha honra, ¡qué caray! Y como buenos “ibéricos”, a nadie nos

gusta dar nuestro brazo a torcer, como no le gustaba tampoco a Unamuno, el gran “vasco-ibérico” tan traído y llevado últimamente.

Y ya que hemos citado a Unamuno y estamos tratando, además, de versos, ahí van unos de Guillén de Castro que le agradaban sobremanera a don Miguel -en uno de sus ensayos dice éste de ellos: “versos que tantas veces he citado y tantas otras me queda por citar”- y que brindamos de todo corazón a nuestro impugnador Basarri:

“Procure siempre acertalla
el honrado y principal;
pero si la acierta mal,
defendella y no enmendalla.”

Agur, amigo Basarri. Y hasta otra.

Epai-maiarentzat ere etorri ziran kritika gogorak, beraz ez dira gaurkoak. Epaimaian apaizak eta prailleak geiegi zeudela esanez...Erriak ere mai-koen artean tarte geiago bear lukela. Ikasiak eta apaizak baiño egokiagoak ez al-genituzke erriko seme soillak maiko...?

Ori zan “Zeruko argiatik” egiten zuten galdera eta erantzuna zorrotza eman zion Juan San Martin Jaunak.

Erantzun au ere luzeegia danez eranskin batean jarriko det batez ere irakurleen mesedetan, bakoitzak juzga dezan.

Irakurleen iritzia Bertsolari txapelketa

Edozein leiaketa, bertsoan dala, aizkoran dala, proban dala, TXAPELKETA itzez adierazten degu gaur. Gure txikitan, jokoa irabazten zuanak, “ostro beltza” irabazi zuala esan oigenduan, ez “txapela”. Gero jakin degunez, “ostro beltz” ori, karraskillarena oi-zan. Antziña gure artean karraskillaren ostoz apaintzen ote-zan irabazlearen kopeta? Ba-diteke.

Gure bertsolariak, ain zuzen ere, oraintxe dabilzkigu Euskalerriko “ostro beltza” jaso nairik. Entzun degunez, Urteberriz jokatuko omen-da Donostia'n 1964'garren urteko bertsolarien gaitasuna. Leiaketa berotzen ari da azkeneko saioekin, eta oraingoan gaillurra zapaldu bearko du norbaitek bertsolaritzan.

Goierriin “Lazkao Txiki”k jendearen borondatea irabazia dauka, ta Donosti'ko azken saioan, lanak eman-go dituan otsa dago. Oraintxe gaude, beraz, gai oni begiratu bat botatzeko sasioan.

Bertsolariok, ordea, xaltxa bizia eskatzen digute ta gai au bertanbera iltzen lagatzeko ez gaude. Jarri dezagun, ba, gure alea auzi ontan. Gure iritziz, bertsolaritza mailla batera igoa da. Basarri'k eman dion goimailla ortan, sapaia jo degu, ta ba-dirudi goragoko-rik ezin degula espero. Gurdia erretenean sartuta ote-degun bildurra sartu zaigu.

Gauza guziak, ilko ezpadira, berritu bearra dute. Geldiak erdoitu, ugertu, egiten du nornai. Bertso-auzi onek ere berrialdi bat eskatzen digu, jendea “lena berriz, lena berriz” entzunda, asper-tu ez dedin.

Ta lenengo berritua, puntu-emaille ta maikoetan eskatuko genduke. Jainkoak ez dizkigu doai berdiñak eman guziori. Onek ontarako du aparteko grazia, ta arek artarako ezpala. Gobernurik onena, luzaro agintzen badi, auldu egin oi-da: asmamena ta eskua moteltzen zaio ari danari.

Bertsolaritzan ere beste ainbeste gertatuko zaigu. Orregatik, guk esango genieke ortan dabiltzanei: “Alda itzatzue puntu-emaillea ta maikoak. Denborale batean utzi besteren bati puntuak ipintzen eta gaia asmatzen. Arek ere izango ditu maixiatzailleak, baiña gizon berriak aidea berritu dezaioke bertso tratuari. Urrengoaldi lu-

ze baten ondoren, biur ditzakegu lengoak lan ontara. Gaur konserbadoreak eta biar laboristak, txandaka erakutsi dezakete beren eragiña.

Len bertso-leiaketako juez, bertsolariak izan oi-ziran. Gaur ere, ez luke bide okerretik joko, esate baterako Basarri puntu emaille jarriko lukenak. Erriak ere maikoen artean tarte geiago ta ordezkari geiago bear lituzke. Ikasiak eta apaizak baiño egokiagoak ez al-genituzke erriko seme soillak maiko?

Nik uste det, Euskaltzaindia beste goi-mailla batean dagoela ta bertsolaritzari itzala ematekotan, goi-ikuspegi batetik eman bear diola Erri maillako gauzetan, erriak erabaki dezala. Ori bai, erria okertzen asten ba-da an dagoke Euskaltzaindia erria neurritan sartzeko. Baiña au atzetik. Onela, ez-tabaidarik sortzen bada, Euskaltzaindia beti eskuak garbitzeko aukeran geldituko da. Onek eztu esan nai, euskaltzain izateak, maiko izatea itxusitzen duanik. Bakar-bakarrik esan nai deguna, au da; erriak maikoen artean ordezkari geiago izan ditzala.

Ezer esan al-degu? Baietz uste det. Gero, mamiari begiratuaz eta jantzia aztu gabe neurtu bearko dute maikoak bertsolari bakoitzaren lana. Mamia, gai biziagoa, goragoko arnasekoa, argitasun aundiagoduna ba-da, ari eman bearko diogu aurrenengo lekua erabakitzerakoan. Gaiaren jantzia ere: bertsoaren neurria ta puntuaren balioa, kontuan artzekoak izango ditugu. Ontan guk erakutsi bearrik ez degu lendik ortan ari diranei. Ortan aituak eta zailduak dauzkagu, gu maixu-aidez emendik asteko.

Bearrena, au da: bertsolaritza ez dedilla moteldu ta aspergarri biurtu. Gaiak aldatzea komeni al-da? Puntu emaillea noizean bein berritu ta bakoitzaren ontarako eskua agertzeko bidean jarriko al-degu? Ontan ere milla iritzi ta buru aiña aburu izan ditezke. Bertsolaritza, gaur arte gure artean bizirik ekarri degun doai arrigarria da. Eutsi dezaiogun gerokoan ere, bizi-bizi ta arnas aundiko.

Txapelketari Buruzko iritzi Batzuek.

Mai-buruko baten oarpenak

J.SAN MARTIN

Bein baiño geiagotan esan didate bertso saioretan mai-burukook eta erriak ez ditugula iritzi berdiñak. Ori bedori da orain Z.ARGIA-ren zuzendaritzak ere galdetzen didana. Baiña nere iritzian, galdera oien premiarik etzan izango astekari onek bere zergak garaiz tajutu balitu. Orduan P. Egigurenen idazkirik etzuen argitaratuko, edo ondoren joan ziran erantzunak ere eskubide berdiñak izango zituzten egiaren bidera-ko. Baiña, joanak-joan. Orain alperrikakoa da auzi zaarrerri eragitzea.

Mai-burukook, guzien iritziak entzuten eta ausnartzen dakizkigu, beti gaude ade baliozko kontsejuak aintzat artu ta tajutzeko. Baiña zoritxarrez, baliozkorik oso gutxi jasotzen degu. Errian bertan milla eratako iritzi desberdiñak dira. Erria eztago erriarekin. Batzuk eta besteak, era askotariko usteak dituzte. Onekin ez det esan nai mai-burukoak bat gatozenik, ez. Gure artean ere, ez gera gusiok aburu berdi-



J. Mugartegi, J. Azpillaga, J. Lizaso, Uztapide, Basarri, M. Lasarte, I. Lazkano, Egileor, J. Agirre.

ñekoak. Baiña erriko jenderik geienagandik gauza batek berezten gaitu: guk, gutxienez, bertsogintzaren legerik premiazkoenak ezagutzen ditugu: eta errik geienak, ez.

Bertsolaritza, guzien gain, arte bat da. Artea dan aldetik ezta lege estu batzuen barnean jartzeko gauza, jakiña. Baiña bai estetika ta etorkizunaren legen barnean, oiek eskatzen duten neurri, puntu, eginera eta inspirazioaren barnean. Ta, entzule asko konturatzten ez tiran legeak dira oiek. Amaika uste okerreko utzi izan ditut, neronek, agoa bete agiñekin, auzi oieri buruzko tentelkeriren bat entzun dedanean. Adibidez, bere iritzian, Urliak Beredija baiño obeto egon zala, onegaitik eta aregaitik, naizta diferentzi gutxi izan. Olakoari erantzuten bazaio: bai, bien arteko diferentziak oso txikiak ziren, gaiak berdintzu eraman dituzte, bear bada, zotz egiterakoan ere, Urliak Berendijak baiño suerte ohea izan du, edo berakin teman ari zena etzan bere maillakoa ta ori ere aintzat izan bear zala; baiña, estukuak ziranez, diferentzi gutxi egoanez, orduan aztertu genitala potoa, neurrien utsegiteak bertsoen egienera nola eraman duten eta argi ikusi genuela Berendijak aurrerago jartzea merezi zuela bertsolari ofizioa obeto betetzen zuelako, pota gutxiago zuelako, bertsoak obeto osotuak zirelako, egineran gauzak sustarretik artuaz landuz joanaz bukaera elburutzten zuelako gaia batasun batean biribilduaz. Ta, orduan, errazoi guzien jabe zala uste zuan erritarrak, au erantzuten du: “A! bueno. Orrek kontu guztiok goguan izatera, orrela izango dek”. Zenbat eta zenbat aldiz gertatu zaidan au.

Gauza guzietan bezela, batedonbategen aburu ona izango badu, lenengo eginkizuna da, ikasi. Ala ere, geiengeienetan mai-burukoak eta erria bat etortzen dira; ta orrela ez tanean ezta mai-burukoen erruz -geienetan gertau oi dan bezela nai det-, erriaren ez jakitzez baizik. Epaimaiak ere oker erabagi lezake, baiña erriak maizago, arestian jarri ditudan errazoiengaitik.

Saioak, eretan errez bereizten dira ta orduan ezta izaten prolemarik, baiña geienetan estukua ezaten da, batez ere probintziatiko txapelketa nagusietan eta Euskalerrikoan. Orduan, gure larritasunak ez tira izaten iñori opa izatekoak. Bertsolari batek baiño geiagok beren lana ondo betetzen dutenean gaiez, eraz, ofizioz... Orduan kontuak. Mai-burukook ere nekez bat etorri gindezke. Orduan dator geron arteko alkartu eziña. Alkartu ezin, baiña erabagia artu bear... saioa luzatu... ordua aurrera... erabagi bear! Orduan jokatzten dira artearen barnetikako misteriozko sentipenen bereizkuntzak. Arte erak bakoitzaren gustoak dituzte lege. Ta, bertsolari bakoitzak bere joera bereziak dituan, batzuek batan aldekoak gera eta besteak bestearen aldekoak. Zein eta Velázquez zaleak eta Greko zaleak diran bezela. Bietan dago errazoa, baiña nere botoa Grekoren alde dijoa, zintzoki, egiazki, bai errazoiz eta bai biotzez. Zergaitik? Emen lerro gutxitan adierazi ezin nintekean barnetikako milla errazoigaitik. Orri buruz oraindik idatziko det astekari oenen orrialdeetan. Baldin ortarako baimenik ematen badidate.

Baiña, ara; nere botoa Grekoren alde joanarren, Velázquez zaleak geiago

zirelarik, aiek irabazi dute. Gaurkoz, txapela; Velázquez-entzat izango da, baiña nere kolkorako ondo dakit Velázquez ezta Greko baiño geiago. Bi eratakoak izanik, biak dira buru. Suertea alde batera joan da, bestera joan zitzakean bezela. Mai-buruko batzuk amor eman degu. Ori da erriak berak ere alkarren artean egin bear duana, amor eman, bere lera ta kerriak alde batera utziaz.

Lege estuago batzuetan finkatu ezin danez, gaurkoz eztago beste biderik.

Maiz entzun degu, mai-buruko, bertsolariak egin bear zukeala ere. Egia esan, beti edo geienetan izan da epailleen artean bertsolarien bat, ta ondotoxo dakigu beren iritziak noraiño eltzen diran. Ez pentsa zurrenak diranik. Jakintsutzat sartu izan ditugun bat baiño geiago ezagutu ditugu txepel beren aburuetan. Gaiñera, ateak idikiak dauzkagu epaikaritzara sartu nai duentzat. Aituen premian gera. Baita alxia utzi bear badegu ere gertu gaude obeerri tokia uzteko. Ta, norbait ausartzen ez bada, bestek proposaturik etorri dedilla Euskaltzaindira. Ongi-etorria emango diogu. Pozik gaiñera.

Gure jokabidea ezta gaberdiko auntzaren ezta. Bertsolariak berek

ere iritzi berdiñak ez dituzten artean epaikari egin bearra. Eta, bertsolariak beren artean uste berdiñak ez badituzte, nortzuk dira jakitun? Izenik ezta eman nai, baiña erriarentzat nor dan onena erabagitzea oso erraza da. Ori baiño ez balitz. Gusto ori egitea oso erreza litzake. Baiña gure errazoiak besterik dira. Bertsolariak ere aintza artu bear digutu neurri batean. Baiña guzien gain, gaieri jartzen diet mamia, bertsoa biribiltzeko era, potoak, neurriak eta abar. Naiz eta azken auk bertsolari onenak ondo eramane beti azaltzen da desberdintasuna.

Oiñarri auk mugatzeko, epailari on batek, bearrezkoak ditu Lekuonaren Literatura oral euskérico Lafitteen Koblakarien legea, eta milla bertsozar eta berri zerbait ezagutu ondoren, urteetan belarria erne erabilli bertsolari askoren artean -askoren artean esan det eta ez bi edo iruren artean, itsutasunik ez sortzeko-, beren funtsezko erekin jabetzeko. Erriak ere ori egingo balu, Xalbador aundiak ere arrera obea izango luke gure Gipuzkoan. Ontaz ere gauza asko esango nituke. Baiña eskatu didaten neurria baiño luzatu naiz ta bertsolari banintz mai-burukoen aurrean zenbait puntu galduak nituan.

* * * *

Jadanik bertso-doiñuekin arduratzen ari ziran bai bertsolariak eta bai epaimaikoak, urrengo txapelketan doiñu denak jaso ziran eta liburuan ezarri, aberastasun aundia zegoelako eta garrantzia ematen asi zirelako. Gai oni buruz Juan Mari Lekuonak artikulua eder bat idatzi zuan “Zeruko Argian” 1.964-ko Abenduan eta oraingotasuna ere baduanetz beste eranskin batean jarriko dut.

Doñuari Buruz

Lekuona'tar Juan Mari

Zaharretakoak gogoan dute txapelketa ura: “Victoria Eugenia, 1935”. Ba-da orduko gertakizun goguanga-rria, musika dala ta, Txirrita'ren kidekoak musika berdintsua zerabilkiten jai artan, dotoretasuna galdua ta kantuzko-taju eskasean emana Asten da Lapurdi'ko Mattin... Aingeruzkoa aren doña! Seaska kanta: “Lo-lo, ene maita” bezela. Gaur ere oroigarri da entzunleen orduko zirrara.

Lengo igandean ere berdin gertatu da Tolosa'n Lazkao-txiki'k, Josafat'eko zelaian, emen asarrezko zuan andreari an ikustean zer esango lioken aditzera emateko, orixen egin zuan: gisazko musika artu, Basarri'k sortutako zortziko negartia. Benetakoa entzunleen atsegiña. Izan ere kantuzko lanean musika garrantzizkoa da. Ta trebetasun aundia azaltzen du bertso lanerako, gaiari dagokion doña ondo aukeratzen duanak.

Lehenagoko bertsolariak, bat-bateko jardunetan, nor beren doñuak zituzten. Gutxi, ori bai. Kanta-paperak jartzerakoan berriz, aberastasun aun-

diagoa ageri oi da. Era askotakoak daude. Nik ez-dakit zenbat musika-bira ditugun gure bertso bildumetan. Ikus, adibidez, Makazaga'ren bilduma. Geientsuenak doña ez-berdiñean. Eta nolakoak batzuek!

Gaurkoen jokaera lege beretsuetan dabil; bañan gaurkotasunak eskatzen duan eran. Bidaso'z onuntzkoak artu ditugu ibaiaz gorako ahaira zar asko. Gaur musika apain ugari entzuten da. Beste bertsolarizko zenbait ataletan bezela, prantzes-musika emen txertatzen ere Basarri izan da gidari aparta. Gañera berriak sortzen ere egin du proba, lehen ahipatu detan doña negartiarekin. Baita ere ezagutzen dut Lazkao-txiki'k sortutako beste melodi bat, triste antzeko etorri aldietan erabiltzekoa.

Geroari begira zer pentsa? Gure gerokoa norañoko ta nolakoa leikean ezin aurrera-juzgu aundirik eman. Beraz ez-dago urrutiegi begiratz erik; ez eta aldaketa sakonetan amets egiterik ere. Bakar-bakarrik, lehendik gaurrera, (euskeraz kanta berrietan arrastaka gabiltz askotan) egin leikean saltoa egin. Bilintx zanak erakusten digu nundik-norako zuzena, bide eroso. Aren bertso-doiñuak garai artan Donostia'n entzun oi ziran kale-kanta edo abesti-ariñen melodiak, zertxu bat eratuak, ote diralakoan nago. Ez gaude euskal-musika bilduma jatorretan arruntetan. Bañan gaiaz ezezik aharez ere ba-dute berri-giroa. Ta au da gauza bearrezkoa: bertso-abestian gaurkotasuna. Bilintxek egin zuana: erromantiku eresiak erabili gisa ontako sentipentzat.

Nola egin, ordea, musika gauzetan gaur dagoan naspillarekin? Ez da beste mundukoa lortu dezakegun aurrerapena. Bañan, besteak beste, ba-daude bi bide, aitatu nai nituzkeanak: gaurko melodi onak erabiltzea ta gure musikagilleeri melodi berriak, oraingo erara, egin araztea. Neronek badut zinema-musika batekin paperetan emana, "Zergatik, aitona" izenekoa. Bertsoak jartzeko ba-du edertasuna; eta kanturako izan lezake, ez eztabaidarako bañan bai bakarrik abesten danean, alako zertxu berezia. Gure ereslariek egiñikoetan ahipa dezadan Olaizola'ren bat. Bere "Oleskari zarra'n" entzuten da "Onintza"ri erromantza egokia, oin neurritz zortziko nagusian. Nik uste melodi zoragarria litzakeala bertsolari-entzat. Eta zergatik ez aberastu bide onetatik kantuzko soroa? Entzun dut, baita ere, dizka berriko "Pakearen ur-xoa" rekin bertso jardun ederra Mitxelena'ren abotik. Auxen da berri-
tzeko bidea: kanta berriak sortu ta,

entzunaren entzunez, zabalkundea egi-
tea bertsolarien artean.

Ba-dator, berriro, Euskalerriko bertsolari txapelketa. Musika aldetik au da esan nai nukeana. Ondo aukeratu gaia bakoitzari dagokion doñua. Lan guztiak, umoredunak eta negartiak, e-litezke graziz eman, jardunaldi berean, eresi berarekin. Beraz gaia aldatzerakoan musika ere alda. Ta gauza jakiña ba-dirudi ere, askok ez dute jakiten, gaiak azkartasuna, grazia, ta zorrotasuna eskatzen duanean, obe dala bertso laburra edo puntu motza; ta gaiak arnasa, dotoretasuna ta biotzondo eskatzean, berriz, mesedegarri bertso luze ta oparoa. Ta batez ere, gaiaren sentipenak duan kolore bear du musikak ere: gai tristeak musika tristea, alaiak alaiak. Au egin da dotor musikaren miraria: sorrera ona eman bertsolari aozko iturrian; ta sarrera obea entzunleen biotzean.

"Zeruko Argia", 96, 1964 abenduak 27

1.967-ko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA DONOSTIAN, Anoeta pelota-lekuan.

Kanporaketak, beti bezela Abendurako amaitu ziran, baiña ez dakigu zergatik atzeratu zan Garagarrillerarte (Ekaina) txapelketa nagusia.

Eta partak azken txapelketa izan zan au. Gorabera aundiak sortu ziran, txapelketa onen ondoren.

Juradua, eztabaidatua izan zan aurreko txapelketan ere, gaiak ere bai eta azkenik Xalbadorri jo zioten txistuak (inongo arrazoirik gabe) errotik jota utzi zuan bertsolari txapelketa nagusia. Beste puska batean ez zan egingo eta beste sistema batzuk asmatzen asi ziran (Sariketak, dirutza aundiko premioak, puntuak bistan ematen eta abar...)

Nolabait ere Euskaltzaindiaren eskutatik bertsolari txapelketa kentzea zan kuestioa...! Eta naiko arazo ezku-tuak erabilliaz lortu egin zuten, bertan bera txapelketa guziak utziaz eta Euskaltzaindia baztertuaz.

Egia da Euskaltzaindiak aldaketa aundiegirik ere ez zuala egin txapelketa oietan, baiña zertarako aldatu gauza ongi bazijoan...?

Kanpotik kritikatzan ari zirenak ikusten degu zer egin zuten, sariketa aundinaiko bat jarri eta ortan bukatu zan dana.

Beste txapelketa nagusi onetan Euskaltzaindiak Gabon ingurutik Garragarilera (Ekaina) aldatu zuan eta ez dut zergatik jakin, agian norbaitek jakingo du.

Bertsolari txapelketa guzietan bezela, oraingoan ere aurrez kanporaketak egin ziran errialdeka, txapelketa nagusirako onenak aukeratzeko.

Oien berri "Auspoa 67" liburuan ematen digu zeatz eta andik jasoko ditugu. Liburu ontan berezitasun bat agertzen da: kantatutako doiñu danak jaso eta paperera Manuel Yaben eta Anbrosio Zatarainek ekarri zituztela, liburuan azkenean datoz danak. Gauza txalogarria!

Ondoren kanporaketetan parte artu zutenen izen-abizenak, egunak eta erriak...

BIZKAIAN

Euba'n, 1966'ngo. Maiatzaren 1'an Julian Martitegi, Mañaria'koa, txapeldun.

Jose Alberdi, Mañaria'koa, bigarren.

Manuel Sarrionandia, Iyorreta'koa
(1).

(1) Lenengo ta bigarren lekuan, txapelketa bakoitzeko txapelduna ta bigarrena jartzen degu. Andik aurrera izenak nolana jarriak daude. Tokiak ez du esan nai bertsolari bakoitza zenbatgarren gelditu zan. Guziak berdin, beraz, besterik gaztiatzen ez bada beintzat.

Markiña'n, 1966'ngo. Uztaillaren 24'an:

Gregorio Larrañaga, Markiña'koa, txapeldun.

Anastasio Egia, Markiña'koa, bigarren.

Anjel Korkostegi, Etxeberria'koa.

Inazio Unamuno, Etxeberria'koa.

Zeanuri, 1966'ngo. Abuztuaren 15'an.

Jose Maria Gurtubay, Lemona'koa, txapeldun.

Pablo Intxaurreaga, Zeberio'koa, bigarren.

Sabino Bilbao, Zeanuri'koa.

Ramon Iturriaga, Dima'koa.

Mungia'n, 1966'ngo. Abuztuaren 21'an:

Abel Enbeita, Muxika'koa, txapeldun.

Felix Ortuzar, Muxika'koa, bigarren.

Nicolas Ibarguengoitia, Muxika'koa.

Juan Ormaetxe, Mungia'koa.

Eusebio Zubiaga, Urduliz'koa.

Lekeitio'n, 1966'ngo. Agorraren 8'an, Azkenaren aurrekoa:

Jose Maria Arregi, Berriatua'koa, txapeldun, azkenerako aukeratua.

Abel Muniategi, Ereño'koa, bigarren, azkenerako aukeratua.

Abel Enbeita, au ere bigarren, azkenerako aukeratua.

Jose Maria Gurtubay, azkenerako aukeratua.

Gregorio Larrañaga, azkenerako aukeratua.

Julian Martitegi, azkenerako aukeratua.

Basilio Pujana, Zeanuri'koa.

Durango'n, 1966'ngo. Urriaren 30'an, Azkena:

Juan Lopategi, Muxika'koa, txapeldun.

Juan Mugartegi, Berriatua'koa, bigarren.

Abel Muniategi.

Jose Maria Arregi.

Abel Enbeita.

Jose Maria Gurtubay.

Gregorio Larrañaga.

Julian Martitegi.

NAPARROAN

Igantzi'n, 1966'ngo. Maiatzaren 15'an:

Migel Arozamena, Lesaka'koa, txapeldun.

Manuel Arozamena, Lesaka'koa, bigarren.

Bautista Madariaga, Arantza'koa.

Dionisio Mujika, Asteasu'n jaiotako ta Lesaka'n bizi dana.

Roman Mihura, Lekaroz'koa.

Juan Sansiñena, Arantza'koa.

Lakuntza'n, 1966'ngo. Garagarri-llaren 19'an:

Andres Narbarte "Xalto", Goizuetako'koa, txapeldun.

Martin Oreja, Errazkin'goa, bigarren.

Anjel Aldaz, Yaben'goa.

Martin Goikoetxea, Gorriti'koa.

Iruñea'n, 1966'ngo. Azaroaren 13'an:

Migel Arozamena, txapeldun.

Andres Narbarte "Xalto", bigarren.

Bautista Madariaga, irugarren.

Anjel Aldaz.

Manuel Arozamena.

Manuel Huizi, Arano'koa.

Martin Oreja.

GIPUZKOAN

Bergara'n, 1966'ngo. Maiatzaren 30'an:

Jose Luis Gorrotxategi, Osintxu-ko'koa (Bergara), txapeldun.

Bitor Agirre, Brinkola'koa, bigarren.

Jesus Alberro, Brinkola'koa.

Iñaki Azarola, Brinkola'koa.

Gregorio Etxeberria, Abalzisketa'n jaiotako Mondragon'en bizi dana.

Santiago Iparragirre, Oiartzun'en jaiotako ta Eskoriaza'n bizi dana:

Billabona'n, 1966'ngo. Uztailaren 17'an:

Fermin Muñoa, Berrobi'koa, txapeldun.

Bitor Ibarbia, Berrobi'koa, bigarren.

Iñaki Odriozola, Alzo'koa.

Juan Artola, Bedaio'koa.

Lazaro Azurmendi, Berastegi'koa.

Jesus Egiguren, Tolosa,koa.

Ramon Etxeberria, Errialde'koa.

Antonio Bidaola, Lizartza'koa.

Patrizio Sarasola, Billabona'koa.

Ordizia'n, 1966'ngo. Uztailaren 27'an:

Jose Intxausti, Segura'koa, txapeldun.

Franzisko Iraola, Zaldibia'koa, bigarren.

Ibon Goikoetxea, Ataun'goa.

Jose Maria Aranburu, Zaldibia'koa.

Juan Bautista Artano, Zaldibia'koa.

Antonio Barandiaran, Olaberri'koa.

Inazio Intxausti, Segura'koa.

Jose Antonio Luluaga, Legorreta'koa.

Marzelino Murua, Zaldibia'koa.

Errenteria'n, 1967'ngo. Otsaillaren 26'an:

Kosme Lizaso, Oiartzun'goa, txapeldun.

Santiago Zabala, Lezo'koa, bigarren.

Jose Usabiaga "Zamalbide", Errenteria'koa.

Agustin Unsain, Errera'koa.

Jose Antonio Lazkano, Alza'koa.

Orio'n, 1967'ngo. Martxoaren 5'an:

Franzisko Etxeberria, Orio'koa, txapeldun.

Luis Asea, Aia'koa, bigarren.

Franzisko Beloki, Zarauz'koa.

Jose Maria Mitxelena, Oiartzun'goa, bañan, gaxorik zegoalako, Errenteria'ra ezin etorri izan zana.

Aurelio Zendoia, Aia'koa.

Azpeitia'n, 1967'ngo. Martxoaren 12'an:

Nikolas Zendoia, Aia'n jaiotako, Azpeitia'n bizi dana, txapeldun.

Pedro Aizpurua "Lilibe", Zestua'koa, bigarren.

Jesus Etxabe "Errezabal", Azpeitia'koa.

Antonio Larrarte, Orio'koa.

Patxi Larrañaga, Azkoitia'koa.

Jesus Saizar, Orio'koa.

Jose Antonio Salegi "Kortatxo", Azpeitia'koa.

Markos Manterola, Aia'koa.

Franzisko Zelaia, Bidania'koa.

Jose Maria Zelaia, Bidania'koa.

Rafael Zubizarreta, Azkoitia'koa.

Jose Antonio Zulaika, Aizarnabal'koa.

EUSKALERRI GUZIKO AZKENA

Donostia'n, 1967'ngo. Garagarriaren 11'an:

Manuel Olaizola "Uztapide", Zestua'koa, txapeldun.

Fernando Aire "Xalbador", Urepel'ekoa, bigarren.

Juan Lopategi, irugarren.

Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki", Lazkao'koa, laugarren.

Jose Luis Gorrotxategi, bostgarren.

Migel Arozamena, seigarren.

Domingo Garmendia, zazpigarren.

Mattin Treku, Ahetze'koa.

Juan Mugartegi.

Bautista Madariaga.

Txapelketa osoan agertu ziran bertsolariak auek izan ziran:

Agertutako bertsolariak:

Guztira

Lapurditik:	1
Baxenabarretik:	1
Bizkaiatik:	21
Naparroatik:	11
Gipuzkoatik:	49

	83

Donostiko azken saiorako aukeratu ziranak auek ziran:

Mattin.

Lopategi.

Gorrotxategi.

Xalbador.

Garmendia.

Arozamena.

Mugartegi.

Madariaga Bautista (Narbarte gai-xorik gertatu zalako)

Lazkao-txiki eta Uztapide arratsaldeko saiorako.

Epai-maia auek osatu zuten:

Antonio Arrue.

"Bordari". (Fernando Artola)

J.M. Satrustegi.

J.M. Lekuona.

Mixel Itzaina.

Emile Larre.

Mariano Izeta.

Anbrosio Zatarain.

"Zepai" Akilino Izagirre.

Antonio Zabala.

Aita Andrinua.

Xabier Amuritza.

Alfonso Irigoien. (gai jartzaillea)

Bertsolari txapelketa onen egitura onela izan zan:

Goizetik zortzi bertsolari jardun ziran, arratsalderako iru bakarrik pasatuko ziran. Arratsaldeko lenengo saioan

iru oiekin, Lazkao-txikik parte artu zuan eta azkenean bat bakarrik aukeratu, Uztapiderekin txapela jokatzeko.

Goiz partean saio auek egin zituzten:

Agurra: Zepaik lenengo eta ondoren banan banan gaia emanez denak agurra.

Ondoren denai puntu bana erantzuteko.

Biñaka 2 puntu: 3 bertso ofizioak emanda: 3 bertso gai bat emanda, 1 oiñak emanda, beraz bakoitzak 9 bertso.

Ondoren Juraduaren erabakia; iru pasatzen dira arratsalderako: Lopategi, Xalbador eta Gorrotxategi.

Bertsolari batzuk goizeko agurra egiten dute, sorteo bat ere egiten dute, Bautista Madariagari silloi aundi bat tokatuaz. Denak bazkaltzera sekula baiño leenago.

Arratsaldeko saioa: Zepaik eta beste lau bertsolarien agurrak.

Egin zuten lana: Lazkao-txiki eta Lopategi; Gorrotxategi eta Xalbadorrek.

Biñaka: 2 puntu erantzuteko: 3 Ofizioak emanda: 3 bertso gai bat emanda. 1 oiñak emanda.

- Laurak (Bat kantatzen, besteak kartzelara eramanda; au Bordarik asmatua da.)

Lana: 2 puntu erantzuteko:

3 bertso gaia emanda "Kontzientziari"

2 bertso gaia emanda "Parrari"

Denak lan berdiña eta bukatzean Juraduaren erabakia.

Xalbadorrek jokatuko du txapela Uztapidekin.

Azken saioa: Puntu bana erantzuteko. 3 bertso gai bat emanda. 3 bertso ofizioak emanda alkarrekin teman.

Bakarka (Uztapide kartzelera eramanda):

4 puntu erantzuteko.

2 bertso oiñak emanda.

2 bertso gai bat emanda “Bankuko kobradore ijito bat”

3 bertso gai bati “Oiari”.

Lan berdiña Xalbadorrek.

Juraduaren erabakia onela izan zan: “Alfonso Irigoienek dion bezela jarriko det sari asko eta desberdiñak izan baiziren, ikusi nola...”

1.967-ko Bertsolari txapelketa nagusiaren sari banaketa:

SARIAK

Irigoyen'ek: (Juradua atzera etorritakoan) Txapeldun izendatu da Uztapide.

Artu bear ditu: txapela, La Fandera'k emandako makilla bat; Información y Turismo'ko Ministroak emandako kopa, eta Gipuzkoako Gobernadoreak emandakoa; amabost milla pezeta Euskal Akademiakoak; bi milla ta bosteun pezeta Donostia'ko Ahorro-kaja Munizipalekoak; eta milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-kaja Probintzialekoak.

Uztapiden agurra:

Agur bat egin bear dizutet
biotza bete-betian,
bai al dakit ba zer pentsatzen e
naguen nere artian?
sekulan enaiz egon izanda
ola poztasun batian,
ia berriro juntatzen geran
danok datorren urtian.

Irigoyen:

Bigarren saria, Xalbador: Gipuzkoako Diputazioko Presidentearen kopa; amar milla pezeta Euskal Akademiakoak; bi milla ta bosteun pezeta Donosti'ko Ahorro-Kaja Munizipalekoak; eta milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaja Probintzialekoak.

Xalbador:

Ez dakit egun zer pasatu den
nik frontoi unen barruan,
olako gauza ez-berdin batzuk
pasatzen dira munduan;
bertzen txistuak entzunik ez naiz
ni oso pozikan juan,
txapela beti ondo dagola
lenago zagon lekuan.

Irigoyen:

Irugarren saria, Juan Lopategi: Donostiako Ayuntamentuaren kopa; bost milla pezeta Euskal Akademiakoak; iru milla pezeta Etxeberria Patriziok ematen dituanak; eta milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaja Probintzialarenak.



Xalbador - Uztapide

Lopategi:

Gaur gugana jatsi da
geure eguzkiya,
beroturik biyotza
ta gure ustiya;
besarkada batekin
agur, Donostiya,
zugan maitatu dot nik
aberri guztiya.

Irigoyen: Laugarren, Lazkao-Txiki:
Iruñeko Príncipe de Viana'ren kopa;
iru milla pezeta Euskal Akademiako-
ak; bi milla pezeta Donostiako
Bankukoak; milla pezeta Gipuzkoako
Ahorro-Kaja Probintzialekoak; eta
bosteun pezeta euskaltzale batek emana-
nak.

Lazkao-txiki:

Eskerrik asko, jaun da andreak,
biotz dana zabaldurik;
esan nai nuke: berriz ez jarri
len bezela zapuzturik;
denok anaiak gerala zuek
ipiñi konturaturik,
Xalbador ere ala degu ta
geiago ez jo txisturik.

Irigoyen: Bostgarren, Gorrotxategi:
Gipuzkoako Bankuaren Kopa; iru mi-
lla pezeta Euskal Akademiakoak; bi
milla pezeta Jose Lizarazu jaunak
emanak; eta milla pezeta Gipuzkoako
Ahorro-Kaja Probintzialekoak.

Gorrotxategi:

Danok agurtutzero
nua azkenean,
nua azkenean,
egun guzia pasa
bertsoko lanean;
euskera zarra jarri
ain leku onean,
Euskalerritik banua,
pena barrenean...
berriz e deitu zuek
nai dezutenean,
berriz e deitu zuek
nai dezutenean.

Irigoyen: Seigarren, Arozamena:
Jose Luis Miner'ek emandako kasko
bat, buruko kasko bat motorrean joate-
ko; iru milla pezeta Euskal akademia-
koak; milla pezeta Gipuzkoako
Ahorro-Kaja Probintzialekoak; eta mi-
lla pezeta Antonio Valverde jaunak
emandakoak.

Arozamena:

Iru-Txulo'ren izena dezu
asaba zarrak jarriya,
eguna pasa zu ikustera
emen nitzan etorriya;
mundu giztiyan ezagun zera,
gañera maitagarriya,
agur bero bat eskeintzen dizut,
Donosti zoragarriya.

Irigoyen: Zazpigarren, Garmendia:
iru milla pezeta Euskal Akademiako-
ak; milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-
Kaja Probintzialak emanak; eta milla
pezeta Santander'ko Bankuak.

Garmendia:

Sei aurretikan badira eta
ni naiz zazpigarrena,
badakizute batek bakarrak
bear duela aurrena;
gorrotoik gabe gu berriz ere,
bai, bilduaz alkarrena,
gaur baña suerte obeago bat
izango baidet urrena.

Irigoyen: Eta zortzigarren, bedera-
tzigarren eta amargarren, irurak ber-
din, Mugartegi, Mattin eta Madariaga:
iru milla pezeta Euskal Akademiako-
ak; eta milla pezeta Gipuzkoako
Ahorro-Kaja Probintzialak emanak.

Oraindik sari geiago daude: egune-
ko bertsolaririk onena ta beste batzuk:

Bertsolaririk zarrenari milla ta bos-
teun pezeta ematen dizkio Tolosa'ko
Bankuak; eta zarrena uste det Uztapi-
de dala.

Iru bertsolari gazteenentzat bakoi-
tzari milla pezeta Bizkaiko Bankuak.
Gazteena uste det Gorrotxategi dala.
Berari emango dizkiogu eta iruren ar-
tean partituko dituzte.

Bertsolaririk gazteenari, Joakin
Zubiria jaunak emandako kopa, ta
gazteena Gorrotxategi da.

Eguneko bertsorik onena bota due-
narentzat, Información y Turismo'ko
Ministroak emandako kopa eta milla
pezeta Santander'ko Bankuak emanak.
Eta sari ori ematen zaio, Xalbadorrek
arratsaldeko bigarren saioan lenbizi
kantatu duen bertsoari.

Gañera, bertso-zale batek bosteun
pezeta eman ditu, gaur goizean
Arozamena'k Urumea'ko ibaiari kan-
tatu dion bertsoarentzat.

Bederatzi puntukorik ez da kantatu.
Beraz, oriek dira sari guziak.

Onekin bukatzen da gaurko saioa.

Ondoren bertsolari txapelketa ontako bertsoarik onentxoena jarri nai nituzke, bertsolari guziena zerbaia agertzen delarik...

Irioyen: Ofizioa emango diegu orain, eta alkarrekin teman iruna bertso kantatuko dituzte: Afrikako basamortu batean beltz batzuek gizaseme zuri bat ari dira pertz aundi batean egosten, jateko asmoz jakiña. Zu, Mattin, gizaseme ori izango zera; ta zu, berriz, Lopategi, beltz orietako bat.

Mattin:

Beltz unen aldiaren gelditzen naiz ni gaur lotsa edo erabe,
aragi jaten beltz demonio auk errabiatuak dirade;
bañan, gaizua, ez, otoi, geldi niganik ikasi gabe:
kristaua ola jaten baduzu suan erreko zirade.

Lopategi:

Orregatikan dotriña artzeko nik ez nedukan asmorik,
aukera ederra dadukat eta ez nua galtzen denborik;
zuri agiñak ezarritzeko zelan izan ez gogorik,
aspaldi ontan ezpainuen jan aragi txuriyagorik?

Mattin:

Arrigarri da kristaua ola irstia ortaraino,
auen aldean gertatzeko ni beldurtu naiz egundaino;
kristaua nola izan ditake basatua ortaraino?
auk yendia jan naiago dute lan pixka bat egin baino.

Lopategi:

Beltzarentzako zure dotriña ez da oso atsegiña,
ala balitza aragi-jate au niretzako eziña;
ezurra sakon daukazu eta gañetik sobra maniña,
pixka bateko kenduko dezu nere aragi-premiña.

Mattin:

Aragi jaten ari zera zu gaur animaren kaltian,
ondo entenditu bear zinuke Mattinek au esatian:
beltz oiek ola ibilki dira aspaldi oraiñ artian,
pake santurik ez da izanen auk konbertitu artian.

Lopategi:

Ni konbertitzen asi baño len galdu zazu esperantza,
nere barrua asetutzeko artu baidot konfiyantzaz;
oraintxe eltzari emongo dautsat azkenengoko balantza,
iya-iyian artuta zagoz kapoi eder baten antza.

lotsa edo erabe = bildur edo lotsa

basatua = basati bihurtua.

Irigoyen: Mattin'i beste lau puntu:
arbiya, garbiya, argiya, ardiya.

Mattin:

Neguan frango berandu
sortzen da argiya,
ta norbeitek ateratu
bear du arbiya;
baldin ura balin bada
eder ta garbiya,
aise gizenduko da
etxeko ardiya.

Irigoyen: Gorrotxategi, gaia eman-
da orain iru bertso kantatu bear dituzu:
Gaur munduan jende asko bizi da,
noski, goseak. Jende orren goseari, iru
bertso.

Gorrotxategi:

Auexek dira gauza tristeak
mundu onetan pasiak,
ainbat trepeta illargi aldera
bialtzen ditu Rusiak;
ortan gastatu ludi guzian,
diraden txanpon guziak
ta amar gizonetik bedrazi
il bear ditu gosiak.

Ainbeste gizon munduan zear
daude gaur goseak iltzen,
ta beste asko beren patrikan
milloi sendo asko biltzen;
gezurra esan eta ez dira
besterekin errukitzen,
Aita Santuan nai aundi ori
ez dute asko betetzen.

Gure Jainkuak gu egin gaitu
mundu onetan berdiñak,
eskubide igualak danori
danontzako atsegiñak;
batzuk dirutu beti-betiko,
bestek goseak erkiñak,
azken arnasak eman zituan
Jesukristoren dotriñak.

Irigoyen: Arozamena'ri: ibaia,
arraia, usaia, garaia.

Arozamena:

Etxe onduan daukagu
eundoko ibaia,
bañan urri samar dago
barruan arraia;
Urumea erreka
or dauka usaia,
garbitzeko're mutillak,
badiyeu garaia!

Irigoyen: Garmendia, kitarra-jotza-
lle bati iru bertso kantatu.

Garmendia:

Beste gaia're eman dirate
ta kantuz biar det asi,
nere aukera etorri da ta
iñork ezin galerazi;
Euskalerrian artista asko
aspaldin dira ikusi,
neure bertsoak botako dizkat
Urnietako Lurdesi.

Urnietatik aingerutxo bat
ta ez da azaldu zarra,
Euskalerriko leku askotan
azaldua du gitarra;
alegrantziya ipiñitzen du
naiz aurrez izan negarra,
nere penak e uxatutzeko
bazegon orren biarra.

Neure zorion maitekorrena
zutzat, Lurdes Iriondo,
euskaldunaren biotz apalak
ukuttu dituzu ondo;
zu aingeru bat etzeranikan
iñork ez baidu esango,
gure Jainkuak mundu ontatik
ez al zaitu eramango!

Irigoyen: Arozamena, beste iru
bertso testigu falso bati.

Arozamena:

Gaur dan euneko zenbait gizonek
nola naute ni arritzen!
testigu falsuz gauza askotan
onela gera ibiltzen;
gezurrarekin etorri ziñan
t'ementxen gaude sufritzen,
Jaungoikuaren dotrin santuak
ez digu ori agintzen.

Egik bezela esaten ditu
gutzizko borondatian,
bere burua santutzaz jarri
eta, gezurrak tartian;
gaur zoritxarrez bizi gerade
orrelako suertian,
bizi-modu onik ez daukagu
zu bizi zeran artian.

Aizu, palsua, gezurrak beñe
munduan ez du indarrik,
zu ezpaziña guk ez genduke
gure etxian okerrik;
aldegin zazu orain bistatik,
ez degu zure biarrik,
falsokeriyan etzazu jarri
Euskalerrian negarrik.

Iri.goyen: Mugartegi'k iru bertso
kantatuko ditu orain, eta gaia izango
da bertsolaritza ta euskera.

Mugartegi:

Itzal aundiyaz gordetzen zaitu
izkuntza berdingabea,
bertsolari ta zure izatea
gozoa ta suabea;
euskaldunentzat euskera baño
zer da izbide ohea?
galduko zaigun bildurrez nago,
ortan daukat naigabea.

Gure izkuntza zoragarria,
maitatzen zaitut barrutik,
etzaitu askok ezagutuko
bear bestian urretik;
pixka bat alde eginda zaude
gu sortu giñan lurretik,
lengo lekura etorri zaitetz
geu galdu baño aurretik.

Bertsolaritza eta izkuntza
daukagu oso betea,
gaur Donostiyan, ori dala-ta,
dago euskaldun jentea;
pena artzen det gu utzi eta
beste batera juatea,
pixka bat ori zuzendu dedin
lagundu, ama maitea.

Irigoyen: Madariaga'ri: len, azken, emen, eten.

Madariaga:

Nagusirik aundiña
etzaigula eten,
arratsalde alderako
izango da emen;
juzgatua Uztarpidek
izan bear du len,
gaur ere iruritzen zait
ez degula azken.

GOIZEKO SAIOAREN BUKAERA

Irigoyen: Goizeko saioa bukatu baño len, emen, nere ezker aldean, silloi bat dago, eta zotz egin bear degu kantatu duten bertsolarien artean, ia no-rentzat gelditzen dan.

(Nexka koxkor batek txapel batetik papera atera ondoren:) Silloi ori Madariaga'rentzat da.

(Onek bertso au botatzen du:)

Madariaga bere talentuz
ez da urruti juango,
Donosti ontan lagundutzeko
ez ote iñor izango?
berreun kilo dauzkan silloia,
bai, ni zartutzen naizango,
nere etxeko astuak ez du
oi Arantza'ra eramango.

Irigoyen: Lazkao-Txiki, iru bertso kantatu bear dituzu: or aurrean baserri uts bat daukazu; famili guztia kalera juan da bizitzera. Iru bertso.

Lazkao-Txiki:

O, baserritxo, artuko dezu
biotz barrenetikan min,
eskerrak mirik ez dezu eta
ezin dezu gaur itzegin;
zenbait fameli azi dezuen
Jainkuak bakarrik jakin,
orain bakarrik uzten zaituzte,
ondotik danak aldegin.

Zeure semiak estaltzen artu
dezu amaika endrero,
zure babesez gordetzen ziran
egunero ta gauero;
oinbat fabore egin dezu ta
ta esker txar ori gero,
o, basarriya, gaizki zaude gaur
ondo pentsatu ezkerro.

Zuk eman dezu ainbat aurtxoren
babesa eta epela,
ikusten zaitut gaur egunean
eskerrik gabe zaudela;
bertsolaria minberatzen da
zu ikustian onela,
gaur basarri au ikusten det nik
gure euskera bezela.

Irigoyen: Lopategi, zu barkuko kapitana zera; ontziya ondoratzen dijoa, eta, oitura dan bezela, zu bertan zaude.

zartutzen naizago = zartutzen naizeneko.

Lopategi:

Momentu auek ez dira izaten
itxas barruan onenak,
ontzi (y) onetan segurutikan
laister dira ondamenak;
pasajeru ta gañontzekuak,
aditu nire ordenak:
onen kargua nik daukat eta
atera zaitezte denak.

Itxaso ori jarritzekuan
era oso biurrian,
desio gendun arkitutziya
guztiyok geure lurrian;
oraintxen nago gora begira
sekulako bildurrian,
bakar-bakarrik itxi bainaue
Jaungoikuaren aurrian.

Desgrazi ori azaldua da
gizon batentzat kaltera,
bestiyak denak salbatu dira
neronen borondatera;
baña ez nua itxasuari
ni agurrik esatera,
bere barruban amildu nai dot
neure ontziyakin batera.

Lazkao-txikiri

Iri.: Iru bertso kontzientziari.

Lazkao-Txiki:

Kontzientzia nolakua dan
nai nuke esaten asi,
ez dakienak ikasitzia
komeni baida lenbizi;
zerbait sentitzen dezuten oek
bazterturikan ez utzi
gaizki eginda sortutzen zaigun
moxorrotxo gaizto ori.

Kontzientzia, ongi pentsatu,
ain degu gauza bat miña,
sentitutzen duenantzat ez da
oso gauza atsegiña;
berandu ero goiz oroitzen da
norberez bada bat fiña,
kezkaz beteta gelditzen baita
iñori gaizki egiña.

Kontzientzia nolakua dan
etzaitzela atzendu,
gizonak nola bizi bear dun
ederki erakusten du;
premi danari lagundu eta
iñori ezer ez kendu,
lege bearrik ez genduke guk
ori beteko bagendu.

Egun artako goraberarik gogorrena
azken saioan izan zan. Xalbador finala
jokatzeko autatu zutenean. Denok su-
fritu gendun, bertsolariak, batez ere,
epaimaiak! eta baita ere entzuleak.

Ikus zazute Irigoienek nola dion...

Irigoyen'ek: Juraduak artu du era-
bakia: Uztapiderekin jokatuko du
Xalbadorrek.

(Au entzundakoan, txistu-soñu aun-
dia sortzen da, ta bertsolariak ezin
kantatu dute denbora-puska batean.
Ondoren Uztapidek:)

Orain bi urte emen nitzan da
berriro emen nator gaur,
zertan egongo nazute emen
zuei itzegiteko bildur?
Kopeta beltza dakarkit baña
biotza daukat txit samur,
anai-arreba biotzekuak,
egiten dizutet agur.

(Uztapidek kantatutakoan, Xalbadorren txanda; bañan txistu-soñuak ez diote uzten. Beste asko, berriz, txaloka asten dira. Bulla pixka bat ezitzen danean, Xalbador bertso au kantari asten da:)

Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa
neure gustura nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik;
zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,...

(Jende guzia txaloka asten da, ta ezin jarraitu du denbora-puska batean; gero, onela bukatzen du bertsoa:)

zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet orainik!

(Oraingoan jendea eskuak puska-tzerañoko txalotan asten da, ta, txistu-soñurik gabe, txapelketak aurrera jarraitzen du.)

Irigoyen: Eta orain oiari iru bertso.

Uztapide:

Nere lanetan pasatutzen det
urte guziyan eguna,
baña oiera jua bearra
etorritzian illuna;
nekatutako gerriarentzat
uraxen gauza biguña!
bedeinkatua izan dedilla,
oia, zu egin ziñuna.

Aldrebes edo ongi esaten
jarraituko'iot lanian,
ona zerala len esan degu,
segituko'iot lenian;
bien jua ezkeru luzaro enaiz
egoten aldamenian,
jaian parranda egiñ eta or
gozatu astelenian.

Nere oraingo iru bertsoan
oiaren kontua dabil,
badakizute ni erdi gaixo
eta naguala debil;
bere aurrian aurkeztutzen naiz
eta jarriko naiz umil:
oi zuri baten jaio nitzan da
oi zuriyan nai nuke il.

Irigoyen: Zerraldoan dijoanak
“gero arte” diyo...

Xalbador:

Zure esanak, Alfontxo,
jarri nau seriyo,
yendea tristatzen da
au dela mediyo,
sortzeak iltzea du
beti ondoriyo.

Irigoyen: Beste lau puntu: iñor, gogor, jator, bizkor.

Xalbador:

Neure ustez lanean
jokatu naiz jator,
jakinduri gutxi bainan
solastean bizkor;
txistu jotze, hargatikan,
atzeman dut gogor,
ni baiño tristeagorik
ez du jarri iñor.

ENTZULEEN IRITZIA

"Negargarria benetan"

Bertsolarien artean Xalbador Benaparroa'koa degu ta zoritxarrez euskera oso desberdiña du guregandik. Entzuleak etzeuden, beraz, aren euskera ulertzeko gai. Etorri zan erabakia, zuzen ala oker emana izan zan, eztegu ezer esango. Gauza bat agertu nai degu betiko. An ikusi zanik eztegula geiago gure artean ikusi nai .

Eta beste bat ere bai. XALBADOR'ek bere jardunetan erakutsi duan gaitasuna ta mailla, gauza batzuetan eztegula iñungo bertsolarik gaindu. Askotan, bertsolari ezezik, olerkari ya-ya agertu da. Bere alderdirik ederrena, ematen zaion gaiaren inguruan sortzen dituan burutapen zorrotzak dira. Au ez egun ontan bakarrik, baizik eta beste aldietan oso agirian gelditu da.

AUSPOA saillean agertuko dira bertso guziak, eta an obeto ikusiko dezute bertsolari onen balioa. Bere txalkal-aldiak ere izan zituala, aitortu bearra degu. Nik uste, maikoak beren erabakia ez dutela eman gaurkoagatik bakarrik, baizik eta beste alditan erakutsi izan duan maillagatik.

Ta bitartean auxe esango nieke euskaldun guziei: ikasi dezatela pixka bat Xalbador'en euskera. Onela obeto epaituko dute aren mailla. Baiña beñere ikusi nai ezteguna, egun ortako txistuka negargarri ura da. Jainkoagatik, gure giza-legea ez dedilla ortaraiño jetxi.

Giroa ziara nastua zegoen eta an genduzkan Uztapide ta Xalbador mikrosoiñuaren aurrean beren azken jarduna asi ezinda.

Orduan ezagutu zan Xalbador'en giza-mailla. Jendea baretu zai egon eta ahapaldi eder batean agertu zien entzuleei, berak naiago zukeala beste bertsolari atzeratuen artean egon baltiz. Txistuka arek, gaiñera, etziola gutxitu entzuleendako maitasunik.

Besterik gabe, txistuka ari ziranak, lendik txaloka ari ziranekin batu ziran eta Xalbador Aundiak, biotz guziak bereganatu zituan.

"ENTZULE"
"Zeruko Argia" 225

BRONCA

Una vez acomodado el público y ocupada de nuevo la mesa por el jurado, Alfonso Irigoyen lee el resultado de las deliberaciones del jurado.

Pasa a la fase final para disputar el título de campeón con Uztapide el bertsolari Xalbador.

Este es el momento en que una gran pitada llena todo el ámbito del Frontón Anoeta pitada que dura minuto y medio. Cuando ya se amainaban las muestras de descontento de nuevo surgen los silbidos, pero esta vez mezclados con los aplausos. Los bersolaris, Uztapide y Xalbador, en silencio frente a los micrófonos. El público se halla dividido; parece que los silbidos ahogan los aplausos; es entonces cuando los partidarios de Xalbador puestos en pie aplauden a su partidario. Un miembro del jurado incita a los bersolaris a que comiencen, pero estos continúan callados. Por fin, Uztapide, en medio del griterío, hace oír su voz y canta una estrofa de salutación.

Corresponde el turno a Xalbador, pero al intentar intervenir arrecian los silbidos y arrecian también los aplausos. Xalbador comienza a cantar y se produce el silencio.

Dice lo siguiente:

Anai-arrebak, ez otoi, pentsa
neure gustura nagonik;
poz geiago izango nuen
albotik bia egonik.
Zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat ez nik;
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztek oraindik.

Al llegar a los versos “Zuek ezpazerate kontentu, errua ez daukat nik” hay tal ovación, ahora con unanimidad uniéndose las dos tendencias que Xalbador tiene que repetir ambos versos para continuar la estrofa.

He aquí la traducción: “Hermanos pensad que no me encuentro a gusto; estaría mucho más contento apartado de este asunto. Pero si vosotros no os sentís felices, la culpa no la tengo yo; aunque me hayáis silbado, sabéis que os sigo queriendo.”

Tras esta estrofa de Xalbador el público quiso hacer ver que su descontento no estaba con el bersolari, sino con la determinación tomada por el jurado. Así es que en lo sucesivo redobló sus muestras de cariño con el bersolari ofendido, pero no desperdició ocasión para que el jurado supiera que el disgusto iba con él y así una de las veces que se levantó el jurado fue fuertemente pitado, pita que continuó cuando se dirigía, a través de un pasillo de la cancha, a un reservado a efectuar las votaciones.

Después del incidente, la competición discurre con normalidad.

“La voz de España” 13-06-67

ESKUALERRIKO LEIOA

“Eskualerriko bertsolarien Txapelketa Nagusia ederra izan da. Denbora ona, sayo paregabea eta eskual giro jatorra. Jende asko Anoetan.

“Au da zerua”, aditu nion eskualtzale bati. Goizean zen.”Auxe da ifernua” esango zuen atsaldean. Ortaz mintzatu nahi nuke orai.

ALDERDI ONA: Anoetako txapelketa ikusi ta eskualtzaletasuna goraka dijoala esan behar. Ango giroa!! Bertsolariak goi-goieneko mallan egonak dira. An ez da txarrak baztertzerik: al den obekiena bat aukeratzea baizik. Esan ginezake ez dugula uste ain saio zoragarririk iñoiz ikusi dugunik. An etzen anka baldarreko tresna txarrik.

Erabakiak artzeko garaia garratza sumatzen zen. Denak on eta ezin denak onartu. Mai burukoak ez dituzte erabakiak biotzkadaz artzen. Ba dakite denak argi ta garbi liburutan ateratze-koak direla. Eta bestalde ez da bertsoa behar bezala ausnartzeko erarik. Beste nornahik bezala uts egin dezakete...

NEGARGARRIA: eta oso negargaria, gañera, atsaldeko gertakizuna. Zertako ainbeste zalaparata, ixtillu beltz eta antzarka? Bertsolariak etzuen obenik. Gure txapelketa nagusian gain mailleko saria zama bat bezala artu

behar bertsolariak!! Berak ez duela obenik aitortu beharra, obena balitz bezala eta pekatu bat Xalbadorrek bigarren saria irabaztea...Nun gaude?

Beste bide batetik jo beharko dugu emendik aurrera, gure nortasuna eta jendetasuna anka azpian utzi nahi ez badugu. Orroka ari den jende-alde orren esku utzi behar erabakiak artzea. Elitzake mai burukoen beharrik: erlejutxo bat artu, telebistan noizbait egiten zuten bezala, eta esku-zarten minutoak kontatu... Auntzaiak bezela fixtu egiten ikasi eta erritar geiena sararazten dituen bertsolaria txapeldun. “Reina por un día”, bezela...

EGINGO DA BESTE TXAPEL-KETARIK? Es da aski egin behar dela esatea. Jainkoari esker bertsolari asko dago Eskualerrian. Azkenen baño len, bi urtez lan asko egin beharra izaten da ixilian. Eta dena, erriz erri sayatu ondoan, bi urtez lan egin eta ibili; aztapu guziak zelaitu ta lotsagarrikeri au ikusteko azkenean.

Joko guziak beren legeak ba dituzte eta galtzen jakitea da bat... galtzea balin bada erritarra baño obeago bat aurretik gelditzea. Eta gizontasunik ez balin bada gure artean, Anoetako gertakizuna berriz ikustea baño obe izango litzake bertsolari txapelketak betiko

kentzea. Gaizki gelditzen gera bai gizon eta bai eskualdun bezala.

Ori da etxeko sua bere autsez estaltzea.”

“ Príncipe de Viana” 1967.

GURE LOTSAGARRIA

Gipuzkoatik

Aurtengo Euskalerrri'ko Bertsolarien Txapelketan enaiz izan. Aurreko txandan gertatu zirenak gertatuta, ez neukan gogorik, eta etzait damutu... bildur nintzan eskandalua, arima mingosturik eta oiñazetan odoldurik utzi zidan gertakizun laidogarria berriturik izan baita oraingoan. Berriturik eta haunditurik, esango nuke gaiñera.

Laphurdi'ko, Benaparroa'ko eta Zuberoa'ko anai - arreba maiteak, zue-ri natorkizute, begi-apalik eta bihotz mindurik barka eske, Gipuzkoa bekatari honen izenean, bekatu egin baitugu, behin eta berriz, hauntustez, hutsalkeriz, urguilluz... Eta harrotzeko mutiburik izan ba gendu, gaitz-erdi! Baiñan gure harropuzkeria ez-jakiñaren seme doillorra besterik ezta izan.

Orain aurreko bertsolari txapelketan gure Mattin maitagarriari jo zizkioten txistu-hotsik mingarrienak... Plaza-jende hura, basatien gisa, erotu beharrez txistuka eta oihuka ikusirik, nere onetik atera nintzan eta asmo sendo bat hartu nuen, Gipuzkoa'n eratutako bertsolari saiotara ez gehiago joateko, gure jendea -Gipuzkoa'koa, alegia-, edukatu gabea, hezi gabea baitago eta eztaki iñori errespeturik eta begirunerik gordetzen. Egun hartan, egia

esan, giputz izateaz lotsatu nintzan, ezpainuen uste gure jendea era hortan lokaztu ziteanik eta harrotu nintzan ene Napar jatorri oparoz eta Zubero- tar jatorri apurraz eta areago harrotu, emaztearen bitartez, ene ondorengoe- tan Xalbador'en ibarreko odola txertatu ahal izan dudalako.

Zoritxarrez, orain bi urte Mattin'ekin gertatu zena, agitu da orain Xalbador'ekin. Geronen etxera arrotz ekarri dugun gizona, berak -joan den igandeko bertso batean aitortu bezalaha- hainbeste maite gaituena, harrikatu egin dugu, gurutzean hiltzatu zuten Kristo'ren iduri, eta bere bizi guziko arantza bat sartuta etxera igorri. Zer pentsatuko dute Laphurtar eta Benap- parrek gure gizalegeaz? Zer iritziko diote gure gizontasunari, gure euskal- duntasunari? Noiz eman diote horrela- ko traturik Laphurdi'n edo Benapa- rroa'n Bidaso'z hemengo bertsolariei? Sekula ez. Aitzitik harrerarik beroenak egiten dizkiotela entzun izan diegu be- ti.

Baiñan, lerro mindu hauek egitera- koan, eztitut Mattin eta Xalbador ba- karrik defenditu nahi, baita Euskal- tzaindiak izendatu zuen epaimaia ere. Plaza-jendea -enaiz denez ari, baibai-

takit asko ta asko, gehienak esango nuke, epaimaiaren eta Xalbador'en alde zeudela-, ez-jakiñak eta inkulturak eman oi duen ausardiz jardun bai-tzan protestaka, txistuz eta oihuz bai Xalbador'en kontra eta bai Epaimaiaren kontra. Eta hemen bi bekatu daude. Bai garitate kontrakoa, Xalbador'ek ezpaitzuen ogenik, errurik izan, Epaimaiak bere leikidea baztertuz bera aurrera pasa baldin ba zuen; eta bestea arrokerizkoa, Xalbador'en mintzaira ulertu eta edoski gabe Epaimaiaren gainetik jarri nahi izan zutelako. Eta jakiña, bi bekatuok irugarren bat dakarte erantxirik, justizia kontrakoa Xalbador'ekiko Epaimaiarekiko.

Eta enaiz arinki mintzo gure plazajende horren aurka egin salaketetan, askori entzun baitiet esaten Xalbador'i eztiotela tutik ulertzen. Hontaz enaiz batere harritzen, nik neronek entzunean aunitz galtzen baitut, Laphurdi'ko, Benaparroa'ko eta Zuberota'ko euskalkiak liburuz ikasia naizelarik eta Xalbador'ek ahalegin guziak egiten ditularik gipuzkoarrak ulertzeko eran kantatzeko. Eta errealitate honen sendogarri, Basarri'k bertso saio honen ondoren -eta zenbat alde ez!- esandakoa aldatuko dut: "Mugaz bestaldeko bertsolarieri etzaie emen bear bezela konprenditzen... Erdi baraurik gelditzen da jendea".

Beraz, nola ausartzen da jende ez-jakin hori ulertzen ezteuena juzgatzen? Nola ederretsiko dituzte Xalbador'en bertsoak Lazkao-txiki'renak bezala, baldin haren euskeraren berri ezpa'dakite? Honek gogora ekartzen dit espa-

ñol baten -batena eta askorena bide batez- hizpidea, euskeraganako gorroto-irakiñean, gure mintzaira sasi-hizkuntza bat -"un chapurreedo"-zela esaten baitzuen. Eta nik hari: Nola esan dezakezu hori gure hizkuntza ezagutzen ez baldin ba'duzu? Hots, nola juzga dezake gizonak, ezagutzen ez-tuen gauzaren eder-itxusirik? Postura hontantxe jarria dugu, bada Epaimaiaren eta Xalbador'en kontra jardun zen basatitalde hura.

Gipuzkoa zorretan dago Matin'ekin eta Xalbador'ekin, egindako kaltearen ordaingarri, eta gauzak luzatzen eta ahazten utzi gabe, omenaldi bat egin behar litzaieke asmo honetxekin. Bere etsaiari ahapaldi hunkigarri hau eskeiñi zienak hori ta gehiago merezi baitu:

Anai arrebak, ez otoi, pentsa,
neure gustura nagonik;
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik.
Zuek ezpa'zerate kontentu
erruz ez daukat ez nik;
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet oraindik.

Xalbador, Gipuzkoa'ko seme zintzuak zurekin daude eta oker egin zutenak, nere ustez, damutuak.

Yon ETXAIDE-ITHARTE.

"Herria" 881-1967

Bertsolarien txapelketa, 1967

Maiburuko baten pentsakizunak

Erriaren iritzia errespetagarri da. Erria, bestalde, gauza aundiegia da zipotzkeriz, minberaz eta begirune txarrez artzeko. Txistuka ta asarre bizian artu zuala epai maikoen erabakia? Alare, asitzerako ez dezaket izan Xalbadorren biotzkada baizik:

“txixtua jo diguzute bainan maite zaituztet oraindi”.

“Ez daude zazpiak bat egiñik”, zion Ifar-Euskalerriko epailari batek, Jaialdi zoragarrian, bost euskalkietakoak kantari: Bizkai, Gipuzkoa, Goi-Nafar, Laphurdi, Baxe-Nabarrekoak. Bertso-lari batasuna, literatur batasuna, Erriaren batasuna lortuko bada, Baxe-Nabarreko erri-arnasa bera dan Xalbadorri-Lazkao-txikiz zion bezela ez diogu jo bear geiago txisturik, gurea da ta.

“Erriarekin ez dek jolasten”, esan zidan apaiz lagun batek, epai maikoen erabakiari buruz. Eman dizkat nere baitan milla jirabira egi mardul oni. Xalbador aukeratzea erriarekin jolastea ote da? Ezetz esan bear derriorrez. Orduan, pentsatzen jarri ta, jolastena-go deritzait jakinduri-eza, bertso alorrean lanik-egineza, teknikaren berri jakin-eza... Ez ote dira auek erriarekiko pekatu astunenak eta larrienak? Erori ote gera mai burukoak pekatu onetan? Erori ote dira biziegi ta alde zurretik iritzia artu zutenak? Au da, bakoitzak bere mallan, barruan aztertu bear deguna, erria zifetan artu nai badegu.

“Pozik ariko nitzake ari, emendik illabete batera, ilburuak irakurriaz, zinta entzunaz, astiroko bertso miatzeketa bat egiten gaur txistuka aritu diranekin... “Nik au esandakoan, Txapel-dunak bazterretik: “Orduan, bera (Urepelekoa, alegia) elitzake izango txikiena”. (Lengo urteetan gertatua oroituz?)... Gero, nere baitan buruzbide auekin nabillelarik, jabetu naiz erriak txistu aiekin zerbait esan nai zuala: ez dirala, alegia, nolana uztekoak, baztertzekoak beste iruren saioak, oso goikoak izan zirala. Erabakia, egindako saioa bakarrek artzerik etzeguala... Egia ote da? Edo ez ote zaigu, aurten ere, urtero gertatzen zaiguna gertatuko, Xalbador irakurritakoa?”

Ondo baño obekiago dago erria mai burukoekin bat ez agertzea. Ondo dago txistu jotzea, ados-egona azaltzea. Bañan sekula ere ez bertsolari baten bizkar, errugabea bait-da! Gañera, gure iskanbilla dala ta, ez dezala atzen arnasa eman jaialdiak. Eta nere kolkorako esaten nuan, juradutzan dabillenak bear du, alajaña, iritzia emateko libertadea eta utsegite-ahal-izateko eskubide eta graziya.

Jaialdia, -bai ote du beste bat Euskalerrriak jatorragorik, zainberetia-gorik? -ederregia da, orrelako eztabaidak dirala ta, bein betirako galtzeko...Txapelketak egiteko era au bukatu ote da? Ez ote lirakeke artu bear bide berri batzuek? Beste zuzentzalle batzuek eratua? Mai burukoak erriak jarriak? Nola bildu bertsolari guztiak? Zer egin bein eta berriz txapelketa irabazi dutenekin?

“Apaiz geiegi zeuden mai buruko”... (Amairutik bost) Ez ote da berdin, tekniku lan bat egiteko, edozein klasetakoa izan da ere? (Jakin badaki, noski)... Ta maitasun aldetik? Lanak dira amore, ez itzen kolore.

Iritzi osotorakorreri etzaie abegi geiegi izan bear. Ala ere, au entzun genduan: “arratsaldeko saioa, erabat jota, orain artean ikusi ez dan bezelakoa izan omen zan...” Laurak oso goitik, nunbait. Taldeko sikolojiari begiratz, ain ondo egon ziran orrekin, esplikate liteke atera zan garraxia, erabakia emandakoan. Entzunleentzat kroska aundiegia zan, ain ondo aritu ziran lauretatik, bat aukeratu, ta beste iru, probaketa geiago gabe, bazterrean uzte ori.

Xalbadorrek jaso ditu atzeneko txapelketetan entzun diran txistu ozonenak eta txalo ta eskuzarta urratuenak ere... Txalo, gañera, Lopategi aurrea zala. Anaikortasuna Lazkao-txikiren aotik. Bertsolariak ez dira bakarrik erri-buru, pentsamen eta sentipen aldetik. Oraingoan, gizatasunean ere eman

dute esenplu ederra. Erriak ere eman du berea, txistuka jardun zuan arratsalde ta ordu berean, gizatasun ederra, Xalbadorri, esku, eta biotz, eta begi bete betean emanaz. Eta mai burukoak?

Ba-dakit, illun une artan esan nuala:”gaizki portatu ba-gera nik beintzat ez dut geiago egingo. Egon lasa. Nerekiko lanak bukatu dira txapelketatan...”Bañan egon naiz, -nola ez?-pentsakizunetan. Atzenean era, Aita Larramendi’reñ jokabideak argitu dit barrunbea:

“Guipuzkoa osoa eskertzarreko biurtu ba-litzaida ere, beti nere aberri eta ama izango da. Orregatik, eta su dala meriyo, nere errespetu eta langintza guziaren diñako da. Lan egin nai dut beti ama onen izen on eta gora-penerako...”

Txapelketatan dala? Erriak nai baidu, prest, jaialdi guzizkoak dana merezi du ta. Erriak besterik nai duala? Berak aukera dezala. Bertsolariak eta erriak erakutsi didate igandean nola-koa bear duan izan nere jokabideak.

JUAN MARI LEKUONA

1.968-ko SARIKETA BEREZIA

Azkenengo txapelketa naikoa gaizki bukatu zan. Epaimaia gogor kritikatu izan zan eta baita ere antolatzaileak... Xalbadorri jotako txistuak naiko ondoren txarrak ekarri zituzten.

Jendeak edo antolatzaile berriak aldaketa bat eskatzen zuten eta batez ere Euskaltzaindiaren eskutatik antolatze-lana kentzea.

Auek ziran arrazoi aurkestuak:

1.- Txapelketan ateratako diruak nola banatzen ziran edo nora joaten ziran?

2.- Epaimaiak emaitzak bistan ematea (arbel edo pizarra baten jarri ziran)

3.- Sariak aundiagoak izatea (100.000 pta) izan zan lenengo saria.

4.- Bertsolari onenak parte artzea (askok ez baizuten parte artzen)

Emaitza auek jasotzeko antolatzaile berriak agertu ziran (Oinãtibiatarrak eta abar...) "Piensos Onena" patrozinadore zutela.

Sariak izugarriak jarri ziran garai artako...100.000 pta. lenengoari. 50.000 bigarrenari... eta zortzigarrenari 10.000 pta.

Sari auek naiko tentagarriak ziran eta bertsolari ezagunen eta onenen

partaidetza lortu zuten... Basarri, Lasarte, Oranda... Txapelketari muzin egiten zioten danak parte artu zuten sari onetan. Badakigu elkarrizketak eta promesa onak egon zirala norbaitzuentzako...? Parte artzeagatik, alegia.

Amasei bertsolari onenak aukeratu zituzten eta bi igandetan ospatu ziran jaialdiak Otsaillaren 4-an eta 11-an. Lenengo igandean zortzi kanporatzen ziran eta urrengoan beste zortzirik jokatzen zuten sariketaren finala.

Bertsoak kantatu ondoren epaimaikoek puntuazioa gizon bati ematen zioten eta onek arbel batean denen bistan jartzen zuan.

Epai maikoak auek izan ziran:

Juan Mari Lekuona.

Xabier Amuritza.

Pedro Diez de Ulzurrun.

Emile Larre.

José Mari Iriondo (gai jartzaille)

Bertso moeta guzietan probatu ziran bertsolariak, doiñu bereziak ere izan ziran derrigorrezkoak "Uso txuria" eta "Amak ezkondu ninduen", kanporaketak errezteko eta abar...

Finalera pasatu ziranak auek izan ziran:

Otsailaren 11-an kantatu zutenak

Basarri,
Xalbador,
Lasarte,
Uztapide,
Lopategi,
Mattin,
Mitxelena,
Arozamena.

Azken saiora, puntuazioz oso urre zeuden, iru auek iritxi ziran

Basarri
Xalbador
Lasarte.

Hamar puntu baño gutxiago alkarri ateratzen bazioten azken biak sariak partitu egingo zituzten eta alaxe gertatu zan.

Basarrik 602 puntu.
Xalbadorrek 598 puntu.
Lasartek 585 puntu.

Bi lenengoak 75.000 pta. eraman zituzten naizta Basarrik sariketa irabazi. Anoetako pelota-lekua gaiñezka egon zan bi egunetan eta dirutza ederra jaso zuten antolatzaileak... ala zion beintzat jendeak...!

Sariketa onek ere, beraz, izan ziotuan kritika ederrak...!

Onekin bukatu baiziran txapelketa eta sariketa guziak... (gazteenak ezik)

Orduko egunkarietatik iritzi batzuk jaso ditut...

Badakigu Euskaltzaindia eta txapelketa antolatzaileak oso minduta gelditu zirala ikusi Alfonso Irigoien iritzia "Bertsolari aldizkaritik" jaso (1.992-Apirilla)

"Txapelketara bueltatuz. Zergatik moztu ziren?"

Apur bat delikatua da. PNVko batzuk, izenak ez itzazu jarri, posibilitatea ikusi zuten txapelketen ingurutik dirua lortzeko. Hauek zeharka Lekunaren baimenarekin txapelketa bat egin zuten gure sistematik kanpo. Bertsolari onenekin bakarrik. Gurea moztuta geratu zen. Gero beraiek ere ez zuten jarraitu eta gu baztertuta geratu ginen. Ez dira kontatzeko gustoko gauzak. Alderdikeriaz jokatura, hobe usteko bat egin zuten, goi mailako bertsolariekin, sari haundiekin. Diru asko irabazi zuten antolatzaileek. Zenbait bertsolari irabazi horien kontra gogor mintzatu zen. Baztertuta utzi gintuzten ordurarte horretan ari ginenok. Ni miseria gorrian aritu nintzen beti.

Orain diru pila bat dago eta mangante asko bazterretan".

Basarri egindako elkañizketa bat ere oso interesgarria iruditu zaigu, eta naizta erderaz egon emen jartzen dugu...

Ignacio Eizmendi "Basarri"

"La voz de España" (4-11-68)



Mitxelena, Mattin, Uztapide, Lasarte, Basarri, Xalbador, Lopategi, Arozamena.

"Ni los que siguen de cerca el bersolarismo ni los lectores de LA VOZ DE ESPAÑA necesitan que yo haga aquí una previa presentación de "Basarri". Este bersolari tiene bien probada su maestría en infinitas ocasiones. Por ello, vayamos al grano.

- ¿Qué motivo le ha impulsado a participar en este concurso, cuando hace años ya que no tomaba parte en competiciones?

- No es éste un campeonato, sino un concurso especial. Yo vivía despreocupado de este género de actividades. Soy muy sensible y he visto que participan todos los que no lo hacían desde hace tiempo, tales como Lasarte, Aguirre, Lazcano... He tenido muchas presiones. Hasta última hora no he dado el sí. Cuando he visto que se presentaban los antes citados es cuando he accedido. No quiero que me consideren un desertor. En cuanto al dinero, no tengo ambiciones; soy pobre, pero nada esencial me falta. Luego la ambición no me ha movido al tomar esta decisión.

- ¿Impresiona volver a competir?

- Claro que sí impresiona el volver de nuevo. ¿Cómo no? A mí, más que a nadie.

- Cien mil pesetas, ¿es un buen premio para un certamen de este tipo.

- Yo lo considero hasta excesivo. Hay una marcada diferencia entre el primer premio y el segundo. No debiera existir tan gran salto.

- Hay dos melodías impuestas para esta competición, "Uso zuria" y "Amak ezkondu ninduen". ¿Es acertada la elección de estas melodías?

- Creo que son más propias para cantarlas a coro que para improvisar con ellas. Tiene dificultad de cantidad de sílabas. Habrá tropiezos. Claro que me imagino que las melodías habrán sido elegidas precisamente por su complicación.

- ¿Cuál de las pruebas resulta más difícil?

- Sin duda alguna, el pie forzado, porque pueden dar una rima difícil de buscarle consonantes.

- ¿Por qué temas siente más simpatía? ¿Cuál le gustaría que le impusieran?

- Los temas de alguna profundidad, los que tengan cierto peso.

- ¿Resultará reñida la competición?

- Indudablemente sí. Hay muy buenos elementos.

- ¿Le agrada la modalidad de calificar después de cada actuación y que la puntuación sea expuesta en un tablero?

- Es un sistema muy democrático. Cuajará. El público es más culto y sigue perfectamente las actuaciones.

Basarri, antes de terminar, insiste:

- Dije que no me presentaría a ningún campeonato. Esto no es un campeonato, sino un concurso especial. Los que no tomaban parte se presentan a éste; ello me ha movido a presentarme.

- Enterado, Basarri.

"El Diario Vasco" egunkarian ere irakurleren batzuk kejatu ziran eta emen dioten bezalaxe gertatu zan gaiñera.

ESCRIBEN LOS LECTORES

Sobre bersolaris

Nos escribe un lector algo alarmado.

"Veo anunciado, ya próximo, el "I Gran Premio de Bersolaris". Tras el éxito de una cafetería, vienen siempre la apertura de otra similar.

Fuera de pequeños concursos locales, celebrados en forma reducida, no se había conocido nada importante hasta hace siete años como los "Campeonatos de Bersolaris". El año pasado vimos en Anoeta la cuarta edición. Un grupo de hombres beneméritos emprendió la tarea de fomentar esta capacidad para la poesía popular de nuestros hombres.

Celebrados en forma comarcal y regional, estaban animados del deseo de sacar nuevos valores. Todos conocemos aquellas competiciones, editadas por Auspoa, nacidas de abajo arriba. Partiendo de una base comarcal, casi familiar, se llegaba por diversas etapas a una cumbre interprovincial vasca.

Aparecían voces nuevas, esperanza del género vasco y promesa de futuros campeones.

Este nuevo concurso patrocinado, como es ahora del uso, por una casa comercial, pretende, se supone, la propaganda de un producto entre nuestros baserritarras. También ofrece un espectáculo auténticamente vasco. Pero creo que también mata lo que ya empezaba a arraigar como

"El Diario Vasco", 2.11.1968

acto literario vasco imprescindible. Porque pienso que los antiguos organizadores de los campeonatos de bersolaris no se van a atrever a montar un quinto campeonato, dada la diferencia de premios. Y quizás los que ahora participen, por diversos motivos humanos que pueden ciertamente surgir, los cuales antes con la distancia de dos años intermedios podían olvidarse, no se animarán a otra competición literaria aunque se organizara.

Interesaría una explicación. ¿Ofrece continuidad este "gran premio"? ¿Supone lo que se organiza mayor ventaja? O ¿mayores inconvenientes?

Es un poco extraño el concurso que se nos anuncia: se elige a los participantes a dedo. Hasta ha habido que convencer y sujetar la musa de un poeta. La forma del anuncio parece indicar que todo el bersolarismo depende de un hombre, lo cual puede injuriar no sólo a los demás participantes, sino a los bersolaris en general. ¿Se puede pensar que ya el vendedor está preseleccionado?"

Bertsolari txapelketa nagusiak amaitu ziran puska baterako. Amabi edo amairu urteko tunel luzea ikusiko dezute tarte onetan.

Azkenengo txapelketa naiko gaizki bukatu zan... Xalbadorri jotako txistuak zirala eta... Ondoren 1968-ko Sariketa famatua etorri zan eta gauzak zuzendu bearrean okertu egin zirala esango genduke.

Euskaltzaindia naikoa minduta erretiratu egin zan ixiltasunean, beste antolatzaillie berrien esku dana utziaz, baiña auek ez zuten jarraipenik izan, dana bertan-bera utziaz. Beraz, Euskaltzaindiari kendu eta eurak jarraitu ez...!

Tunel luze orretan beste erakunde xume edo gizon ausarten batzuk beren kontura gazteen txapelketa batzuk antolatu zituzten eta orrek bete zuan amabi urteko utsune luze eta triste ura.

Gero agertuko dan bezela Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, gazteen edo lenengo maillako ez ziranen txapelketa batzuk antolatu ziran: Orixe saria, Zepai saria, Xenpelar saria... Zumaian, Mallabian, Oñatin, Gabirin eta abar, Elkarte edo gizon jatorren batek ardura arturik, bere gain karga guzia zuela, antolatu zituan bertsolari txapelketak lenengo maillakoak ez ziranentzako.

Orri auetan ezin nitzazke aaztu José M. Iriondok (Loyolako irrtiaren bidez egin zuan lana, txapelketak barne). José M. Aranaldek "Orixe" sariarekin, Jexux Azurmendik "Zepai sariarekin" eta ainbat izen ezkutuko Euskalerriak eskertu gabe geratuko diranak...!

Lenengo maillako bertsolariak jaialdiz-jaialdi jarraitu zuten, baiña geientsuenetan berdiñak, dozena batek osatuko zuten taldea eta bertso egarria erri guzietan nola jarraitzen zuan, jaialdi asko izaten zituzten urtean zear. Bertsolari berriak ez zuten ainbat okasio beren burua aundien artean sartzeko, eta utsune ori betetzeko egin ziran ainbat txapelketa gazte oientzako.

Tarte izugarri onetan ainbat aldakuntza egon ziran. Bat euskerarena, 1.968-an Arantzazun "euskeratu" onartu baizan eta Larogeirako ia leku askotan "batuan" idazten zan, emendik aurreko orrietan ikusiko dezuten bezela.

Bigarren, bertsolari zaarrak, txapel-duna eta abar ez ziran geiago azaldu.

Baiña beste aldetik etorri zan baita ere, bertso munduan aldaketa ederrik!

1.967-an Txapelketa nagusiak bukatu ziranean, gizon langille eta ausarta batzuk jarraitu zuten bertsolaritzaren alde lanean. Gazteentzako edo lenengo maillakoak ez zirenentzako txapelketak antolatuaz, laguntza gutxirekin eta afizio aundiarekin. Izen oien lana inoiz aaztu ez dedin, emen agertzen dira ospatzen ziran txapelketak eta arduradunak:

Loiolako Herri irrti saria: José M. Iriondo.

Orixe saria. Añorga. José M. Aranalde.

Saizar saria (errikoentzako) Antton Aranburu.

Zepai saria. Idiazabal. Jesús Azurmendi.

Anpo saria. Idiazabal. Jesús Azurmendi.

Osinalde elkarteko saria. Gabiria. Eusebio Igarzabal.

Artxanberri saria. Zaldibia. Rufino Iraola.

Lizardi saria. Zarautz. Pedro Artetxe.

Bizkaiko Bertsolari Gazteen saria. Mallabia. Bertako gazte talde bat.

Nafarroko bertsolari gazteen saria. Lesaka. Dionisio Mújika.

Xenpelar saria. Errenderi. Elkarteko gazte talde bat.

Ordizia saria. Ordizian. Iraileko festen arduradunak.

Mendaroko saria. Bertako elkarte batek.

Urolaldeko saria. Zumaia. Bertako elkarte batek.

Ala ere ziur gaude sariketa bat baiño geiago pasatu zaigula, Lenitz bailarakoa eta abar... Elkarte askotan egi-ten baiziran erriko eta ingurukoentzako orrelako sariketak.

Beste aldetik, barkamena eskatu bear, ainbat lan ezkutu egin duten aien izenak aipatu ez ditudalako. Gizon batek bakarrik ez baiditu sariketa oiek antolatzen. Baiña agertzen diran oiek beintzat lan aundia egin zutela garbi dago.

1.980-ko Bertsolari txapelketa nagusia, Donostian ospatu zan, "Karmelo Balda" pelota lekuan, Ilbeltzaren 6-an, Errege egunean.

Len esan dedan bezela, ez arritu oraingo txapelketan aurkituko dituzuten aldaketa nabariak ikustean, beraz abixatuta zaudete...!

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA - 1980

1.979-an berriro Euskaltzaindia auzartu zan txapelketa nagusi bat antolatzera. Gogo ori aspalditik zebillen beuren buruan baiña beti atzeraka... beste urte baterako gelditzen zan.

Antolakizun batzordea, arduratu zan dana martxan jartzeko.

Zeaztasun danak orri batzutan aurkeztu zituzten; ona emen baldintzak...

Antolakizun Batzordea

- 1.- San Martin, Juan
- 2.- Beobide, Iñaki
- 3.- Aranburu, Antton
- 4.- Iriondo, Jose Ma
- 5.- Zearreta, Juanjo

Gai jartzaileak

- 1.- Aranalde, Jose Ma
- 2.- Artola, Fernando "Bordari"
- 3.- Aranburu, Antton
- 4.- Iriondo, Jose Ma eta txapelketa osoan gai jartzaille eta gidari.
- 5.- Lekuona, Juan Ma
- 6.- San Martin, Juan
- 7.- Zavala, Antonio

Epai-Mahaia

- 1.- Aranalde, Jose Ma

- 2.- Artola, Fernando "Bordari"
- 3.- Etxezarreta, Jesus Ma
- 4.- Aranburu, Antton
- 5.- Irigoien, Alfonso
- 6.- Itzaina, Mitxel
- 7.- Lekuona, Juan Ma
- 8.- Muniategi, Abel
- 9.- San Martin, Juan
- 10.- Zavala, Antonio

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

1.- Euskaltzaindiak, euskeraren babes eta zabalkunderako erakunde ofiziala denez, bere Bertsolaritza Batzordearen bidez, Bertsolari Txapelketa Nagusi bat eratuko du, hiru urtetik behin, Euskal Herriko bertsolarien artean.

2.- Horrela egitean, batetik, euskeraren eta euskal kontzientziaren zabal-kundearen bertsolaritzak izan duen eta duen garrantziaz jabetzen da Euskaltzaindia. Bestetik, euskal izpirituaren bitxirik berexien eta preziatuenetako bat izanik, bertsolaritza zuzpertz, indartu eta berbaliotu nahi luke Euskaltzaindiak, gure ahozko adierazpen zahar hau gaurko eta biharko bertsolarien ezpainetan bizirik dadin, euskaldunon bertsolari senari erantzunez.

3.- Bertsolari Txapelketa Nagusi-rako deia Bertsolari Batzorde-ari adieraziko dio lehenik Euskaltzaindiak eta honen oniritzia jasotakoan eramango da komunikabideetara beharrezko zabalakundea izan dezan.

Bertsolari Batzordeak Txapelketa ez egiteko arrazoiren bat balu, Euskaltzaindiari adieraziko lioke idatziz, hamabost eguneko epearen barruan.

4.- Bertsolari Txapelketa Nagusi hau eratzeko, Euskal Herriko zenbait erakunde ofizial, Kultur elkarte, aurrerazi kutxa, komunikabide eta abarretara zuzenduko da Euskaltzaindia, erakunde eta elkarte hauen babes eta laguntza izan dezan.

5.- Txapelketaren eraketak berekin dituen gorabehera guztiak Bertsolari

Batzordearekin harremanetan erabakiko ditu Euskaltzaindiak ekonomi aldetikakoak barne dirala.

6.- Txapelketa nagusiko bertsoen jabetasuna Euskaltzaindiari dagokio eta hauekin egin daitekeen erabilkera publikoa elkarte honen ardurapean egingo da.

7.- Epai-mahaiaren izendatzea Euskaltzaindiak egingo du, Bertsolari Elkartearen iritziak jakin ondoren; epai-mahai hau 10 lagunek osatuko dute.

8.- Txapelketa Nagusian erabiliko diren gaiak Euskaltzaindiak hartarako izendatutako talde batek burutu eta ipiniko ditu, Bertsolari Elkartearen iritzia jakin ondoren. Gai jartzailea ere era berdinean aukeratuko da.

SARRERA:

a.- Euskaltzaindiaren iritziz, hiru urtetik behin eratuko den Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusiak, aurretik eratzten diren beste batzuen buru eta gailur izan behar du. Txapelketa Nagusi honek, beraz, herrialdeka edo eskualdeka egingo diren bigarren mailako txapelketetan bertsolari onenak bezala juzgatzen diren bertsolari haiek bilduko ditu. Bertsolari eta bertsozaleek ondo gogoan dutenez, azken urteotako txapelketen erara antolatu nahi litzateke aurrerantz ere bertsolari txapelketa nagusia.

b.- Hala ere, azken txapelketa haien harira biurtzeak berekin lekarken bizpahiru urtetako luzapena gogoan edukirik, berehalako Txapelketa Nagusi bat zuzenki deitzea erabaki du Euskaltzaindiak.

Berehalako Bertsolari Txapelketa Nagusi baten premiaz daukagu herria; horregatik herrialdeka edo eskualdeka egin beharreko txapelketa hoiek oraingoz utzi eta zuzenki egiten da Txapelketa berri baten deia, honako baldintza hauen arabera:

ARAUDIA:

1.- Lehen mailakotzat jotzen diren bertsolariekin egingo litzateke Txapelketa hau. Euskaltzaindiari dagokionez eta 1980ko Txapelketa Nagusirako, orainarteko Txapelketa Nagusietan nahiz 1968ko Sariketean agertu diren bertsolari guztiak jotzen dira lehen mailako bertsolari. Honez gain ba da lehen mailako den beste zenbait bertsolari ere. Hoietatik zeintzuk parte har dezaketen Euskaltzaindiak eraba-

kiko du Bertsolari Batzordearen iritzia ikusiz.

2.- Beren izenak hartarako ematen dituzten bertsolariekin egingo da Txapelketa hau. Bertsolari bakoitzak egingo du Txapelketan eskuhartzeko izen ematea.

3.- Txapelketa Nagusi honetarako izen-ematea 1979ko Azaroaren 15az aurretik egin behar du bertsolari bakoitzak.

4.- Gutxienik, lehen mailako 14 edo 16 ikusten ditu beharrezko Euskaltzaindiak Txapelketa hau egiteko.

5.- Txapelketa honetarako izena ematen duten lehen mailako bertsolariak gutxiago balira, azken urteotako Bertsolari Gazteen Txapelketa eta Sariketetan nabarmendu diren bertsolarietara egingo zaie dei.

6.- Txapelketa honetarako epai-mahai Euskaltzaindiak izendatuko du.

7.- Azken epai, saio nagusiaren ondoren emango du epai-mahaiak eta haren erabakia alda ezinezkoa izango da.

8.- Txapelketa Nagusi honetako gai emaile edo aurkezlaria Euskaltzaindiak jarriko du.

9.- Bertsolariei jarriko zaizkien gaiak Euskaltzaindiak hartarako izendatutako taldeak burutu eta ipiniko ditu.

10.- Bertsolari Txapelketa Nagusia - 1980, 1979ko Abenduaren 23an, 30 eta 1980ko Urtarrilaren 6an jokatu da, hiru bertso saioetan zehar, beraz.

Azken saio nagusia, Urtarrilaren 6an, Donostian izango da. Saio hone-

tara, epai-mahaiaren iritziz aurreko bi igandeetako saioetan puntuaziorik onena lortu duten 8 bertsolari pasatuko dira. Eta lehenbiziko bi bertsolariak TXAPELDUN eta TXAPELDUNOR-DEKO izendatuko dira. Gainerakoak berdintzat jotzen direlarik.

11.- Txapelketa Nagusi honetan, bertsolari bakoitzak zenbat jasoko

duen aparteko orrietan adierazten da, txapeldun eta txapeldunordearen sariak bezala.

Bertsolari txapelketa guztietan ohi denez, beste zenbait sari ere izango dira.

12.- Hemen aipatzen ez den edozer erabakitzea, Euskaltzaindiari dagokio zuzenki.

Saiatuko diren Bertsolariak

- 1.- Amuriza, Xabier
 - 2.- Arregi, Jose Maria
 - 3.- Azpillaga, Jon
 - 4.- Egileor, Jesus
 - 5.- Enbeita, Jon
 - 6.- Etxeberria, Patxi
 - 7.- Ezponda
 - 8.- Garmendia, Txomin
 - 9.- Gorrotxategi, Jose Luis
 - 10.- Iraola, Patxi
 - 11.- Larrañaga, Angel
 - 12.- Lizaso, Kosme
 - 13.- Mitxelena, Jose J.
 - 14.- Mugartegi, Jon
 - 15.- Narbaiza, Jon
 - 16.- Xanpun
- Ordezkoak
- 1.- Zeberio, Xabier

2.- Zabala "Lexo", Santi

3.- Xalbador, Mitxel

4.- Mañukorta

**EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI
TXAPELKETA NAGUSIA - 1980**

SARIEN ZERRENDA

a) 1.- 200.000 pezeta, txapela eta trofeoa

2.- 100.000 pezeta eta trofeoa

3.- 50.000 pezeta eta trofeoa

4.- 50.000 pezeta eta trofeoa

5.- 50.000 pezeta eta trofeoa

6.- 50.000 pezeta eta trofeoa

7.- 50.000 pezeta eta trofeoa

8.- 50.000 pezeta eta trofeoa

b) Arrasateko jaialdia:

Bertsolari bakoitzari 25.000 pezeta

d) Gernikako jaialdia:

Bertsolari bakoitzari 25.000 pezeta

1.980-ko Bertsolari txapelketa nagusia, Donostian, "Karmelo Balda" pelota-lekuan ospatu zan, Ilbeltzaren 6-an, Errege egunez.

Urte bete aurretik amaika tira-bira izan ondoren, bertsolari guziei deitu zitzaien Loiolara, Urriaren 20-ko, batzar bat Euskaltzaindiak eratu zuelako bere asmo eta baldintzak agertzeko.

Gora-bera asko izan ziran billera artan, baiña Euskaltzaindiak aurrera jo zuan eta izenak emateko epea jarri. Orduko bertsolari famatuenak ez zuten izenik eman nai eta ausartu zirenekin egin zan txapelketa.

Zoritarrez Basarri, Lasarte, Joxe Lizaso, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Lopategi, Lazkao txiki, Igartzabal eta abarrek ez zuten izenik eman, bakoi-tzak bere arrazoiak izango zituelako eta pena aundi bat izan epoka berri artarako.

Ala ere 25 bertsolarik eman zuten izena, 10 lenengo maillakoak juzgatzan ziranak eta beste 15 bigarren maillakoak, naiz eta bereizketa ximple samarra izan.

Oietatik 16 bertsolarik artu zuten parte eta bereizketa egiteko batzorde bat egin zan arduradun, beti bezela, denen gustoa egin gabe...egon baiziran protestak.

Iru jaialdietan banatu ziran: Arrasateko polikiroldegian, abenduaren 23-an; Gernikan, pilota-lekuan,

abenduarien 30-an eta Donostian "Karmelo Balda: pilota lekuan finala Ilbeltzaren 6-an.

Bertsolariak bi taldetan banatu ziran, bi zortziko talde: A taldea au zan: Egileor, Garmendia, Etxeberria, Narbaiza, Arregi, Koxme Lizaso, Mitxelena, eta Xanpun.

B taldea berriz auek osatzen zuten: Jon Enbeita, Amuritza, Azpillaga, Mugartegi, Gorrotxategi, Patxi Iraola, Larrañaga, eta Ezponda.

Arrasaten goizetik "A" taldeak parte artu zuan eta arratsalde "B" taldeak. Gernikan alderantziz, goizetik "B" taldeak eta arratsalde "A" taldeak.

Oietatik zortzi aukeratu ziran, auetxek: Azpillaga, Etxeberria, Enbeita, Amuritza, Garmendia, Larrañaga, Xanpun, eta Gorrotxategi.

(Mitxelenari ondoezak eman zion Arrasaten eta Gernikan bere ordezkoa Xabier Zeberio izan zan)

Iru jaialdiak punta-puntakoak izan ziran eta jendetza ere izugarria bildu zuten txapelketa nagusi danak bezela.

Finala Donostian jokatu zan eta angoo bertso onentxoena (Auspoa 141) liburutik pasatuko ditut idatzita dau den bezela, oraindik euskera zaarrean jaso baiziran.

Txapeldun Xabier Amuritza izan zan eta bigarren Jon Enbeita. Beste seirak arautegiak zion bezela denak berdin.

1.980-ko txapelketako bertso onentxoetak:

Xanpunen goizeko agurra:

Xanpun:

Donostia, zu izar harturik
ipar aldetik egorat,
zuzen-zuzena ekarri nauzu
anai-arreben ondorat;
ez dut urretik eskainiko nik
bainan besarkada on bat,
ta hari esker egun sartzen naiz
senidetasun gozorat,
iduritzen zait naizela haur bat
jina amaren altzorat.

Gorrotxategik agurra goizetik
Iriondo: Jose Luis Gorrotxategi.

Gorrotxategi:

Lendabiziko agur ta erdi
Balda'tik Donostia'ri,
eta ondoren besarkada bat
Euskalerrri guztiari;
ta bereziki txapeldun degun
Uztapide aundiari,
Arjentina'tik Donostia'ra
etorri dan izarrari,
ementxe bertso-entzule dugun
Otaño'ren alabari.

Ofizioak emanda.

Iriondo: Eta orain ondoren Etxeberria
eta Larrañaga, mesedez. Zu, Etxebe-

rria, senarra zera. Zu, Larrañaga,
emaztea. Apartatzera, dibortziatzera
zoazte eta zuen aurrak galdetu dizue:
Eta ni? Iruna bertso zortziko nagusian,
txandatur, Etxeberria asita.

Etxeberria:

Ai, emaztea, etorri zaigu
orain une garrantzirik,
bizi nai degu gaurtik aurrera
batek bestea utzirik;
aurrak galdera egiten dute
ontaraño iritxirik,
orain burura etorri zait nei:
eztegu kontzientzirik.

Larrañaga:

Diburtzioak sortuko ditu
orrenbeste izkizun-da,
bañan al bada aurra nik utzi
nai det zerbait erantzunda.
"Ta orain nik zer?" denboralean
leno galdezka jardun da;
oin aurrak sufritu bear al du,
bate errurik etzun-da?

Etxeberria:

Aita ta ama gertatzen gera
okasio-arazoan,
nik derizkiot bizi gindezken
erabat egun gozoan;
amak eztu nai zuekin ezer
mundurako pausoan,
ez ikaratu, biziko zera
goxo aitaren besoan.



Larrañaga:

Ez dezu ondo gaurkoz dantzatu,
aita, zeorren mingaña,
amak umea maitatutzen du
sarri aita batek aña;
zuregandikan apartatzeko
gogua badaukat baña,
nik ere errez jaso niteke
nere semetxo apaña.

Etxeberria:

Ama gaixtoak jarraitu nai du
dotoreziyaz luzitzen,
orregatikan senar zintzo au
eztu ongi ikusitzen;
arro oitu da gaztetan eta
eztaki umil bizitzen,
nik alegiñak egingo ditut
aurtxoak ondo ezitzen.

Larrañaga:

Beti bezela nere senarrak
arrazoi latza eman du,
eztu esaten mozkortu eta
etortzen zala berandu;
baña juzgauak umiak zeñek
bear ditun esan du,
maitetasuna galdu da eta
okerra orrek izan du.

Gaia emanda Amuritzari

Iriondo: Xabier Amuriza orain ondo-
ren. Iru bertso, nai duan doñu eta neu-
rrian: Biotzean min dut.

Amuritzza:

Sentimentua sartu zitzaidan
biotzeraño umetan,
geroztik ainbat gauza mingarri
ikusi mundu onetan;
Euskalerriaz batera nago
biotz barneko penetan:
anaiak alkar artu eziñik,
etsaiak su eta ketan,
esan dudana gezurra bada
urka nazazue bertan.

Sentimentua nola dugun guk
aize otzeko orbela,
mingañetikan biotz barnera
doa erriko kordela;
esperantza dut zerbait oberik
bearbada datorrela,
mundu ontara sortu zen bati
bizitzea ere zor dela,
biur bekizkit esteak arri
ori ez bada orrela.

Zer kolorezko airea ote
da gizonaren samiña?
Ni eta zuen barrena ortan
izan liteke berdiña;
zoriontsuak izan gintezke
erri libre bat bagiña,
baña au ezta orrela eta
orrek sortzen dit sumiña,
argatik Balda ontan uzten dut
nire biotzeko miña.

Gaia emanda Enbeita.

Iriondo: Onelaxe dio gai onek, iru
bertso doñu eta neurri librean: Arran-

tzaldia egin eta txalupa portura eldu danean, Enbeita, zure senarra falta da.

Enbeita:

Gogoratzen naiz ezteguetan
genduen maitasun-garra,
geroztik bizi bear genuen
eta lanaren bearra;
ontzia arraiz betea dator
falta nai detan bakarra,
bizi izateko laguntzat dedan
biotz erdiko senarra.

Zu ezin zera galdu izan,
zoazte nigandik, miñak,
zu ta ni gera mundu onetan
maitatuzeko egiñak
baña alperrik, egia da ta,
ez-siñiste alegiñak,
nere senarra eldu ez bada
zertarako ditut arraiñak?

Zoriontsuak benetan giñan
gu alkarren inguruan
baña derrigor pentsatu bear
janaritako diruan;
nik bear nuen eta zertako,
Jaun, daustazu eruan?
Zure naia zan, ala dedilla,
bildu gaitzazu zeruan.

Ofizioak emanda Azpillaga eta
Etxeberria

Iriondo: Orain ondoren Azpillaga eta
Etxeberria. Amarreko txikian iruna
bertso: i, Azpillaga, galtza berriak egin
nai eta Etxeberria sastrearengana joan
aiz.

Azpillaga:

Etxeberria'k ditu
sastre-lanteriak,
baña beti ez ditu
betetzen begiak;
oker egindakuak
baditu erdiak,
len egin zituzunak
ez ain dotoriak,
ia egiten dituzun
len baiño obiak.

Etxeberria:

Neri gertatzen zaizkit
aldrebeskeriyak,
jakin beaituzute
gaur emen egiyak
sastre batentzat ere
auk komeriyak,
lan txarrak ekartze'itu
gizon aundigiyak,
nik ezin ondo artu
oni negurriyak.

Azpillaga:

Sastre bakarra dala
dago ikusia,
lan orretan errian
bera nagusia;
egiten duen lana
dana itxusia,
ainka bata motza ta
bestia luzia,
ta gero kobratzen du
nai duen guzia.

Etxeberria:

Oni trajia egiten
or nitzaden asi,
bañan ortako ainbat
ez nuen ikasi;
baldarra ta aundiya
ipurdi ta guzi,
gañera jarritzen da
benetan itxusi,
kobratzia besterik
ez dezu merezi.

Azpillaga:

Ez nizuke galdu nai
len daukazu sonik,
baña jantzi txarrakin
ez dezake bromik;
gaizki eginda ez du
kobrauko txanponik,
onek josten ez daki
ez galtza ez gonik,
sastre txarrantzako
ez da gorputz onik.

Etxeberria:

Lotsagabekeria
etzaude motela,
esan nai dezu kulpa
bakarrik detela;
nik garbi esango det
biar dan bezela,
propagandarik ez det
egingo bestela,
nik ez daukat etxian
zutzat ainbat tela.

Oinak emanda

Iri.: Txomin Garmendia'rentzat: an,
dan, jan, zan.

Garmendia:

Aingerutxo polit bat
nik ikusten det an,
eta jakin nai nuke
ori nungoa dan;
berak ez dakiela
bere biotza jan,
gure tratu egitea
nunbait gaurkoan zan.

Arratsaldean

Txomin Garmendiak agurra arratsal-
dez

Garmendia:

Lau gipuzkoar, iru bizkaitar,
mugaz arunztik bestea,
txapelketa onen azken saioa
orain dijoa astea;
plaza onetan ezta errexa
nai dan gisa jolastea,
gutakon bati tokatzen zaio
gaur txapela jaztea,
beste gauzarik ez det eskatzen:
onenak irabaztea.

Gaia emanda Amunitzari (bertso mol-
de berrian 8/7)

Iriondo: Eta orain gaia, iru bertso, nai
duan doñuan eta neurrian libre: "gizo-
na ez da ogiz bakarrik bizi".

Amuritza:

Gai orrek badu mamia
baldin ezpanago gor,
ainbat jende gizaseme
ikusten ari naiz or;
ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu ontara
obe ez gaitezen sor,
ogiaikin justizia
bear dugu derrigor,
au siñisten eztuenik
ba al da emen iñor?

Nik eztakit ogi-puskak
indarrrik baduenetz,
baina beste zerbaitekin
bart egin nuen amets;
esperantza zuri daukat
naiz etorkizuna beltz,
ogi utsez bizitzerik
nik ez nezake sinets,
gizon batek ortxe ditu
biotza ta ainbat saiets,
zuek ezetz esan arren
nik esango dut baietz.

Ogia de familian
gauza maitagarria,
baina orrek bearra du
azpian oinarria;
idi-gisa daramagu
buruan buztarria,
askatasuna da ogi
eta gure neurria,
iñoiiz garbi irekitzen
bada orren iturria,
betiko berdetuko da
semaforo gorria.

Amuritzari gaia emanda.

Iri.: Iru bertso, gai bati buruz eta ama-
rreko aundian. Gaia: aita.

Amuritza:

Aita izena kanta bearrak
jarri dit biotza bero,
aukera eder au izango zenik
ez nuen emen espero;
preso nengoen Zamora'n eta
an gelditu ia ero,
joan nintzen ta bertan nengola
aita il zitzaidan gero,
naiago nuke edozer baño
emen bizirik balego.

Aita nuen nik umoretsua,
iñoiiz geza ta gazia,
arek agertu zidan bidea,
baitzen bertsoz ikasia;
oi, ene aita, nire egunak
ere aurrera doaz ia,
baña zugandik artua baitut
bertsotarako grazia,
nik egingo dut arbola aundi
zuk emandako azia.

Gai au kolpera jarriko zenik
ia ametsa dirudi,
baserri artan izan genduen
ainbat arri eta euri;
zu, aita, ziñen ain on niretzat,
ez gogorra baizik guri,
Euskalerrria nola dagoen
orain Donosti'n ageri,
niri jotako txalo guztiak
bidaltzen dizkizut zuri.

Enbeitari gaia emanda:
Iriondo: Iru bertso, amarreko aundian.
Gaia:aita.

Enbeita:

Itz au batera biurtzen zaigu
maitea eta poztasun,
bion artean igaro dogu
bizitzan ainbat laztasun;
zu izan zera, aita, neretzat
neke-alditan osasun,
nere sorrera, nere indarra,
gaiñera nere maitasun,
biok dakigu, aita, zuk zenbat
neretzat eman daustazun.

Zure laztanak, zure barrea
ta zure zigorrak baita,
danak dituzu biotz barnetik,
alaxe nauzu ni maita;
ta ni zuretzat seme egin naiz
Jaungoikuak ala naita,
poza daroat zure izatea
egizko aitarena baita,
denen aurrean gaur milla esker,
bedeinkatzen zaitut, aita.

Urteak asko ditugu baña
gure adiñen artean,
anai bezela bizi gaitzen
alkar degun bitartean;
zu neretzako guztia ziñan
nere umetza-partean,
orain zuretzat izan nai nuke
ez dakit zenbat urtean,
biok batera bizi izateko
zorion eta pakean.

Agurrak

Azken agurra Gorrotxategik

Gorrotxategi:

Ainbeste urtean txapel aundia
egondu da Gipuzkua'n
eta Errege-egun onetan
Bizkai'raño bera jua;
uste det oso ondo dagola
gaur jarri duten lekuan,
nere anai bat balitz bezela
maite detanan eskuan
merezi dek ta, lagun Xabier,
gorde zak urte askuan.

Azken agurra Amuritzak:

Amuritzak:

Aizak, i, txapel, zer sentitzen duk
ene eskura eltzean?
Ez aut buruan erabiliko
baizik zintzilik iltzean;
iltzea berriz josia diat
nik dakidan biotzean,
an egongo aiz uda beroan
eta neguko otzean,
bizi naizela biontzat eta
berarentzat ni iltzean.

Txapelketaren ondorenak:

1.- Bertsolaritzaren beste aro berri
baten sartu giñan. Basarrik 1.935-an
ekarri zuan berritasuna, emen gainditu

egiten da. Bertsolaritza sagardotegitik plaza eta antzokira jaso bazegoan orain Unibertsitatera eta eskolatuen mundura sartzen da.

Txapeldunak aparteko estilo paregabea ekarri baizuan eta jarraipena eman, Xabier Amuritzak beste mailla batera jaso baizuan bertsolaritza. Amuritzak kultura eta musika aldetik gizon oso jantzia baida, baiña bere liburu, itzaldi eta bertso eskolen bidez jarraipena eman zion beste estilo berri bati.

2.-Entzuleen aldetik aldaketa nabaria. Nekazariak eta zaarrak aldentzen

doaz eta gazteak eta iritarrak betetzen dute beren lekua. Ainbeste gazte sekula ez zan txapelketa baten ikusten.

3.- Bertso molde berriak, musika berriak jendea txundituta utzi zuten. Sekula ez zan ao batez, (epaimaia eta erria) adostasuna ain errez batuko txapelketa batean.



Garbi garbi bertsolaritzaren beste aro berri baten sartzen giñan.

Ondoren txapelketa ortako iritzi batzuk jarriko ditut...


* * * *




Amuriza



EUSKALERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA



1979ko Bertsolari Txapelketa Nagusian eskuburuzkoak izan diren bertsolariek: Etxebarriak ezkerretik; Mitxelena, Kizart, Lizaso, Nartabiz, Arregi, Garmendia, Egilean, Xanpuz eta Itxaberria.



Ezkerretik eskuburura: Irujo, Espinola, Magarregi, Etxebarri, Argillaga, Larrañaga, Lizaso eta Arregi.



Amuriza eta Enbeita



Juan M. Lekuona, Itzaina, Artola, Arana-Martija, Aranalde y Muniategui



A. Zavala, A. Irigoien, Jesús M. Etxezarreta, J. San Martín

Itxaropen berri bat bertsolaritzaren etorkizunaz

"Lehenko Errege Egunean Donostiako Baldan bukatu zen txapelketa hontaz eta beraren inguruaz gauza pranko esan daiteke, noski.

Baino esan daitezkenak alde batera utziz, eta esan beharrak esaterakoan, hona nondik hasiko nintzaken ni: Txapelketa hontan Euskal Herriak izan duela paregabea aukera bertsolari haundi baten buruan txapela jartzeko. Ez dut uste, salbuespenak salbuespen, herriak eta juraduak hain batera eta hain goraki asko-askotan norbaiten garaipena aitortu ahal izan dutenik eta aitortu dutenik.

Nik nerea esango dut; baina ez da nerea bakarrik. Nik ez nuen uste hainbesteko bertsolaria zegoenik.

Idazle paregabea zela bai, banekien nik. Duela urte pare bat, beraren liburu "Menditik mundura" aipatzerakoan DEIA egunkarian. Lizardi eta Orixeren urrengo katemaila bera zela esaten nuen. Hartarainoxe harritu bait ninduen.

Eta nerekiko. Amurizak erakutsi duenak, itxaropen berri bat sortarazten du bertsolaritzaren etorkizunaz. Neri behintzat hala sortu dit. Nor ez gaude hemen kezkatuik bertsolaritzaren geroaz, bertsolariak barne? Nork ez dauka halako susmo bat, bertsolaritza nekazal-giroko fruitu ote den eta industri-giroaren barnean ez ote dezaken iraun?

Nik, nerekiko, lehengoan ikusi dut garbi gai dela bertsolaritza gizarte urbanuan bizitzeko eta zerbait izateko. Eta hori bertsolari landu baten lanari esker. Gero eta ikasiagoa den gizartean, gero eta ikasiagoa izan beharko du bertsolariak ere. Eta ikasiak, edo lantzeak, ez diola gaitzik egiten garbi erakutsi du txapelketa hontan Amuritzak. Berezkoa behar da lehenik.

Hori egia da; baina berezkotasuna eta landutasuna ez direla elkarren etsai erakutsi du bizkaitar bertsolariak.

Hori da nere itxaropen berriaren oinarria.

ARANALDE

* * * *

EGUN GOGOANGARRI HORTAN, MEREZIMENDU GUZIEKIN AL- TXATU ZEN XABIER AMURIZA TXAPELDUN

El pasado día 6 de enero, con el frontón Carmelo Balda repleto de público, se celebró la final del campeonato de bersolaris, con la participación de los ocho seleccionados tras las actuaciones de Mondragón y Guernica los días 23 y 30 de diciembre: Amuriza, Azpillaga y J. Enbeita, de Vizcaya; Echeverría, Garmendia, Gorrochategui y Larrañaga, de Guipúzcoa, y Champún, de Labourdi.

Fue un día memorable para la historia del bersolarismo, que en jornadas de mañana y tarde vino a durar cinco horas de debate. Los bersolaris vinieron muy bien preparados, entregándose al máximo para disputar la "chapela" del campeón y las intervenciones fueron muy reñidas, pues todos ellos se mantuvieron a niveles muy elevados.

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, que vela por toda clase de manifestaciones de la lengua vasca, sea oral o escrita, aunque su principal labor reside en la investigación y normativa, no olvida la tutela de la lengua viva, en esta ocasión mostró una vez más sus dotes de organización para la promoción de este género de la literatura popular, fenómeno único en todo el mundo.

Para que una competición de este tipo sea un festival de gran atracción y salga con éxito, lleva consigo enormes dificultades de montaje y temario, porque ha de ser aceptable por los propios bersolaris al mismo tiempo de preveer que resulte agradable al público asistente. El campeonato es dificultoso, tanto para el jurado como para los bersolaris, y estos últimos llevan la peor parte por lo que les toca sufrir en una constante tensión nerviosa. Creemos que la organización de Euskaltzaindia salió con gran éxito de esta jornada.

Como hemos dicho, la competición fue muy reñida. Hubo que practicar el sistema del encierro de los bersolaris, llamado "la cárcel", que consiste en ponerles el local aparte, donde no puedan oír, y sacarles uno a uno para someterles a una prueba sobre el mismo tema. Amuriza se despuntó, sobre todo en el tema "No sólo de pan vive el hombre". Pasaron a disputar la final los vizcaínos Javier Amuriza y Jon Enbeita. Utilizando el mismo procedimiento de encierro y teniendo por tema principal "Padre". El primero campuso una poesía antológica, aportando a la vez una nueva melodía, que le situó en indiscutible campeón. En esta última tanda también se les exigió cantar una estrofa de nueve consonancias en tema libre, por ser la más difícil en metro y rima; prueba por la que los dos finalistas supieron salir airosamente.

Juan SAN MARTIN



Pedro Mari Otañoren alaba, Donostiako Baldan izan zen, Argentinatik etorrita

1.982-ko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA:

1.982-ko Abenduaren 19-an ospatu zan Donostian Balda pelota lekuan, bertsolari txapelketa nagusia.

Bilera asko egin ondoren Euskaltzaindiak lortu zuan aurreko txapelketa lortu ez zuana. Lopategik eta Lazkanok parte artzea. Pena aundi bat izan zan Lazkao-txikik eta Joxe Agirre "Orandak" parte ez artzea naiz eta be-raiekin egon eta mesedez eskatu...azkenik ezetza eman zuten.

Jakina danez, bialdi edo fasetan jokatu zan Txapelketa Nagusia. Len fasean "B" taldeko 50 bertsolarik artu zuten parte Maiatzean eta Ekainean eta ondoren udazkenean jokatu zan bigarren fasea, Gabonak aurretik bukatuaz.

Zortzi jaialdi leenengo fasean, Maiatzaren 8-an Hernaniko Galarretan asi, 9-an, 15-an, 16-an, 22-an, 30-an eta Ekainaren 6-an eta 12-an ondoren datozen erri auetan: Hernani, Markina, Tolosa, Lesaka, Endaia, Aramaio, Zornotza eta Azkoitian.

Euskaltzaindiak Apirillaren 24-an, goizeko 11-tan Loiolako kiruri jatetxean, bilera batean bildu zituan 50 bertsolariak, txot egin eta bakoitzari non eta norekin tokatzen zitzaion jakinarazteko.

LEHEN ALDIA - "B" TALDEA

HERNANI

Maiatzak 8
Antzinako
Arrosagarai
Begiristain (*)
Laka
Laiola
San Migel, A.
Tellería
Zorrotza

MARKINA

Maiatzak 9
Aurre
Enbeita, A.
Jaka
Mendizabal
Olalde
Sardui, D.
Urretabizkaia
Zeberio II

TOLOSA

Maiatzak 15
Altuna
Arginarena, F.
Enbeita, M.
Mañukorta

Otaño
Urrusti
Ziarda
Ziolar

LESAKA

Maiatzak 22
Agirre
Lasa
Lertxundi, J.M.
Mihura*
Murua
Peñagarikano
Urain
Urrutikoetxea*
Santurtzi

HENDAIA

Maiatzak 29
Alkat
Altzo
Areitio
Etxebarria, J.R.
Lizaso, S.
San Migel, I.
Sarđui, J.M.
Tapia

ARAMAIO

Maiatzak 30
Aittola
Argiñarena, J.
Bilbao
Kaxeta
Lertxundi, M.

Mendiburu
Odriozola
Otamendi
Uraga

Auetatik ogeita lau aukeratu zituzten Zornotzan eta Azkoitian jokatzeko eta ortik sei bakarrik aurrera pasatzeko: Mendizabal, Otaño, Peñagarikano, Telleria, Altuna eta Lizaso Sebastian.

ZORNOTZA

Ekainak 6
Agirre
Aittola
Aurre
Enbeita, A.
Lertxundi, J.M.
Mañukorta
Mendiburu
Mendizabal
Olalde
Otaño
Peñagarikano
Tellería

AZKOITIA

Ekainak 12
Alkat
Altuna
Areitio
Begiristain
Etxebarria, J.R.
Lasa
Lizaso, S.
Murua

Otamendi
Sardui, D.
Zeberio II
Ziarda

Bigarren Faserako 23 bertsolari ziran; 17 aurreko txapelketatik zetozenak eta 6 Azkoitian aukeratuak. Amuritz eta Enbeita semifinalen bakarrik sartu ziran. Beraz, Oiartzunen eta Gernikan parte artu zutenak auek ziran...

BIGARREN ALDIA - "A" + "B"
TALDEAKOAK

OIARTZUN

Azaroak 14
Goiz eta arratsaldez
A Arregi
A Azpillaga
A Gorrotxategi
A Iraola
B Lizaso, S.
B Otaño
B Peñagarikano
B Tellería
A Xanpun
A Zeberio, I.

GERNIKA

Azaroak 21
Goiz eta arratsaldez
B Altuna
A Etxeberria, P.
A Ezponda
A Garmendia
A Larrañaga

A Lazkano, I.
A Lizaso, K.
A Lopategi
B Mendizabal
A Mugartegi
A Narbaiza

Auetatik amalau pasa ziran, gero Amuritz eta Enbeitarekin semifinalak jokatzeko.

14 hautatuak + Amuriza eta Enbeita, J.

IDIAZABAL

Azaroak 28
Goizez
B Altuna
A Amuriza
A Azpillaga
A Gorrotxategi
A Lopategi
B Peñagarikano
B Tellería
A Zeberio, I.
Arratsaldez
A Enbeita, J.
A Garmendia
A Larrañaga
A Lazkano, I.
B Lizaso, S.
B Mendizabal
B Otaño
A Xanpun
DURANGO
Abenduak 5

Goizez

A Enbeita, J.

A Garmendia

A Larrañaga

A Lazkano, I.

B Lizaso, S.

B Mendizabal

B Otaño

A Xanpun

Arratsaldez

B Altuna

A Amuritz

A Azpillaga

A Gorrotxategi

A Lopategi

B Peñagarikano

B Tellería

A Zeberio, I.

Semifinala bi saioetan jokatu zan Idiazabalen eta Durangon.

Idiazabalen Azaroaren 28-an eta Abenduaren 5-an Durangon, goiz eta arratsaldeko saioetan. Batean goizetik jarduten zirenak bestean arratsaldez arituko ziran eta urrengoan alderantziz.

Auetatik 8 finalista pasatu ziran eta azken saioa Donostiko Balda pelotalekuan, Abenduaren 19-an izan zan.

Finalera pasatutakoak auetxek dira:

DONOSTIA

Abenduak 19

Goiz eta arratsaldez

A Amuritz

A Azpillaga

A Enbeita, J.

A Garmendia

A Lazkano, I.

B Lizaso, S.

A Lopategi

B Peñagarikano

Bertsolari txapelketa onen egitura, aurrekoaren antzekoa izan zan. Baina, beti bezela eztabaida batzuk sortu ziran. Batez ere finalean Amuritzak eta Lopategik desentpatea jokatu zutelako. Baina ori iragarrita zegoen aurretik. Ikusi zazute nola dion “Deia” egunkariak, Abenduaren 14-an...”Bertsolari bi edo hiruren artean desentpatea egitea beharrezkoa balitz, beren artean behar-ko lukete jokatu, baina txapelketan egin ez den lanik ez zaie eskatuko..”

Beraz, aurretik egunkarietan ere iragarrita zegoen gero gertatu zan kaso.

Sariak finalerako naikoa onak izan ziran: Lenengoarentzat 225 mila pezeta, Bigarrenarentzat 125 mila pezeta eta beste finalista guziak 65 mila pezeta.

Beste zeaztasun guziak ongiena Euskera XXVIII (1.983-1) ekartzen ditu (eta andik artzen ditut). (Euskera batuan dago eta nik dagon bezela uzten dut) Ikusi nola dion...

LEHEN FASEA (Maiatza-Ekaina)

Hiru urtez behin Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa antolatu behar du Euskaltzaindiak eta azkenengoa 1979.eko Abenduan hasi eta 1980.eko Errege egunean amaitu zenez gero, 1982.eko azken egunetan bukatzeko antolatzea dagokio. Helburu horrekin

bildu zen Euskaltzaindiaren Bertsolari Batzordea bertsolari batzurekin Azpeitiako "Pastorkua" etxean 1981.eko Urriaren hamarrean antolaketaren lehen pausuak emateko. Toki berean egin ziren beste bi bilera 1982.eko Otsailaren 16an eta 27an eta Euskaltzaindiaren Batzordeak, bertsolariekin bat etorrita, eskuhartuko zuten bertsolariak bi taldeetan banatuko zirela erabaki zuen, hots:

"A" taldea: orain arteko Txapelketetan azkenerarte iritsi izan direnek, 1980.eko Txapelketa Nagusian eskuhartu dutenek eta 1968.eko sarike-tan kantatu zuten guztiek, osatuko du-te talde hau.

"B" taldea: lehen aipatutako maila horretaraino heldu ez diren bertsolari guztiek eta orain izena emango dutenek, osatuko dute talde hau.

"A" talde horretan sartuko direnen izenak finkatuak zeuden eta jarritako mugak ikusiz, hauek ziren talde hau osatuko zuten 17 bertsolariak: Amuriza, Arregi, Azpillaga, Enbeita, Jon, Ezponda, Etxeberría Patxi, Garmendia Txomin, Gorrotxategi, Iraola, Larrañaga, Lazkano Imanol, Lizaso Koxme, Lopategi Jon, Mugartegi, Narbaiza, Xanpun eta Zeberio I. "B" talderako izenak emateko epea Apirilarte za-balik uztea erabaki zen.

1982.eko Martxoaren 2an bildu zen berriz Bertsolari Batzordea eta Txapelketa eratzeke bi taldeen eskue-tan uztea erabaki zuen, hots.

Antolakizun Batzordea: Juan San Martín, buru, Jose Mari Iriondo, idaz-kari, eta Jose Antonio Arana, Jose

Mari Aranalde, Antton Aranburu, Rufino Iraola eta Juan Jose Zearreta batzarkide.

Epai-mahaikoak: Jose Maria Aranalde, Antton Aranburu, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Mitxel Itzaina, Emile Larre, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi eta Antonio Zavala. Doinuen saria emateko, Jose Antonio Arana Martija izango zen ar-duraduna.

Euskaltzaindiak, Donostian egin zuen hileroko bileran, Martxoaren 23an, onartu zuen Bertsolari Batzordearen proposamena eta arratsaldean jendeaurreko bileran egin zuen Txapelketaren aurkezpena.

Izendapenok onartuak izan ondo-ren, bildu ziren Antolakizun Batzorde-koek Deban, Apirilaren 21an, eta Euskaltzaindiak jarritako Araudia az-tertu eta onartuz gainera, hainbat pun-tu zehatz eta mehatz aztertu eta marka-tu zituzten antolaketa aldetik.

Berriz bildu zen Antolakizun Batzordea Bertsolariekin Azpeitiako "Kiruri" etxean. Zozketa egin ondo-ren taldeak hala geratu ziren:

Hernanin, Maiatzaren 8an: Begiris-tain, Zorroza, San Migel Angel, Laka, Antzinako, Arrosagarai, Loiola, Tellería.

Markinan, Maiatzaren 9an: Zeberio II, Jaka, Mendizabal, Sardui Deunoro, Urretabizkaia, Aurre, Olalde, Enbeita Abel.

Tolosan, Maiatzaren 15an: Argiña-rena, J.F. Ziolar, Mañukorta, Ziarda, Altuna, Urrusti, Enbeita Moises, Otaño.

Lesakan, Maiatzaren 22an: Peñagarikano, Lasa, Agirre, Mihura, Urrutikoetxea, Santurtzi, Lertxundi J.M., Urain, Murua.

Hendaian Maiatzaren 29an: Altzo, Lizaso Sebastian, San Migel Isidro, Etxebarria Jose Ramon, Alkat, Sardui Jesus Mari, Areitio, Tapia.

Aramaion, Maiatzaren 30an: Zelaia, Bilbao, Mandiburu, Odriozola, Uraga, Argiñarena J.M., Aittola, otamendi, Kaxeta, Lertxundi M.

Hurrengo egunetan Antolakizun Batzordeak hainbat pausu eman behar zituen toki guztietan gauzak gertu uzteko.

Beraien aldetik Epai-mahaikoak Maiatzaren 4an bildu ziren Txapelketarako egitaraua eta gaiak jartzeko. Aipatutako lehen sei saioetarako hau izan zen erabakitako egitaraua:

1. Agurra.

2. Kartzela, binaka, zortziko nagusian launa bertso.

3. Lau oinak, zortziko txikian eta puntuak, bina bertso.

4. Ofizioak, binaka, zortziko txikian, hiruna bertso.

5. Kartzela, bakarka, neurri eta doinu librean.

6. Azken agurra.

Aramaioko saioa bukatu ondoren, Epai-mahaikoek, bakoitzak emandako puntuak kontutan hartuz, hurrengo saioetara 24 bertsolari pasatzea erabaki zuten eta bertan zozketa eginez, hala osatu ziren taldeak:

Zornotzan, Ekainaren 6an: Mañu-korta, Olalde, Mendizabal, Abel

Enbeita, Telleria, Peñagarikano, J.M. Lertxundi, Aurre, Aittola, Agirre, Mendiburu, Otaño.

Azkoitian, Ekainaren 12an: Jose R. Etxebarria, Deunoro, Sardui, Murua, Sebastian Lizaso, Alkat, Areitio, Lasa, Ziarda, Zeberio II, Altuna, Otamendi, Begiristain.

Bi saio hauetarako egitaraua hala izatea erabaki zuten Epai-mahaikoek:

1. Agurra

2. Kartzela, binaka, zortziko nagusian, hiruna bertso.

3. Puntuak.

4. Ofizioak: binaka, hamarreko txikian, hiruna bertso.

5. Kartzela: bakarka, neurri eta doinu librean.

6. Azken agurra.

Azkoitiako saioa amaitu zenean, bertsolariek puntutan jarraitu zuten Epaimahaikoek epaiketa burutu arte. Azkenean erabaki zutena hau izan zen, hots, udazkaneko saioetara, "A" taldekoekin sei bertsolari bakarrik pasatzea: Altuna, Sebastian, Lizaso, Mendizabal, Otaño, Peñagarikano eta Tellería. Eta honekin bukatu zen Euzkal Herriko Txapelketaren lehen fasea.

BIGARREN FASEA (Azaroa-Abendua)

Bigarren fase hau antolatzeke asmoetan, Irailaren 14an bildu zen Batzordea Donostiako Diputazioan, hainbat oinarritzko puntuak finkatuz. Bigarren fase honetan parte hartuko zuten bertsolariekin hitz egitea kome-niko zela ikusiz, Irailaren 25ean bildu

zen Batzordea hamasei bertsolarirekin Loiolako Kiruri jatetxean. Lehenagoko Txapelketan txapeldun eta txapeldun-orde geratu ziren Amuriza eta Enbeitak erabaki zuten aurtengo finalean ez ezik aurreko saioetan, hots, Idiazabal eta Durangon hasita parte hartzea. Beraz, Erreterian eta Gernikan egiteko ziren saioetan parte hartuko zutenen taldeak osatzeko zozketa bat egin zen bilera horretan eta "A" taldekoei Zornotzan eta Azkoitian hautatutako seiak gehituz, talde bitako banaketa hau egin zen:

Erreterian, Azaroaren 14an, 10 bertsolari: Arregi, Azpillaga, Gorrotxategi, Iraola, Lizaso Sebastian, Otaño, Peñagarikano, Tellería, Xanpun eta Zeberio I.

Gernikan, Azaroaren 21ean, 11 bertsolari: Altuna, Etxeberria, Ezponda, Garmendia, Larrañaga, Lazkano, Lizaso Koxme, Lopategi, Mendizabal, Mugartegi, Narbaiza.

Talde bi hauetatik 14 bertsolari hautatuko dira, Amuriza eta Enbeitak gehituz, 16ko talde bat semifinaletara pasatzeko. Egun bereko arratsaldean Batzordeak jarraitu zuen bere bilera hurrengo saioetarako tokiak eta egitarauak finkatuz. Erreterian eta Gernikan egingo ziren saioetarako egitaraua halako hau izatea erabaki zen. Hona hemen agiriak dioena:

Goizean: 1. Agurra

2. Ofizioak: binaka launa bertso zortziko nagusian.

3. 2 puntu: bakarka, zortziko txikian.

4. Kartzela: binaka launa bertso, hamarreko txikian.

5. Azken agurra.

Arratsaldean:

1. Agurra.

2. Ofizioak: binaka launa bertso zortziko txikian.

3. Kartzela: bakarka, lau oinak (dენტzat berdinak), 2 bertso.

4. Kartzela: bakarka, hiruna bertso, neurri librean.

5. Azken agurra.

Gernikako saioa bukatu ondoren Epai-mahaikoek hautatuko dituzte semifinaletara pasatuko diren hamalau bertsolariak. Zortzi bertsolarik osatuko dute talde bakoitza, jendaurrean zozketa egin ondoren. Eta Ordizian, Azaroaren 27an eta Durangon Abenduaren 5ean, goiz eta arratsaldeko saioetan, hautatuko dira Donostiako finalera pasatuko diren zortziak. Semifinaletan, goizean Ordizian kantatuko dutenak arratsaldean Durangon agertuko dira, eta alderantziz. Semifinaletako egitaraua halako hau izatea erabaki zen:

Goizean: 1. Agurra

2. Ofizioak: binaka launa bertso, zortziko nagusian.

3. 2 puntu: bakarka, zortziko txikian.

4. Ofizioak: binaka, hiruna bertso, hamarreko txikian.

5. Kartzela: bakarka hiruna bertso neurri librean.

6. Azken agurra.

Arratsaldean:

1. Agurra.

2. Ofizioak: binaka launa bertso, zortziko txikian.

3. 2 puntu: bakarka, zortziko nagusian.

4. Puntutik puntura: binaka hiruna bertso, zortziko txikian.

5. Kartzela: banaka iruna bertso, hamarreko nagusian.

6. Azken agurra.

Urriaren 2an bildu zen berriz Batzordea Loiolako Herri Irratian proposatutako tokietan antolakizunak egiteko eta Urriaren 6an Lankide Aurrezkiko Juan Jose Berasategi jauna ikustera joan ziren Batzordekoak propaganda, aurrekontu eta prentsa arazok aztertu eta erabakitzeke.

Urriaren 27an berriz bildu zen Batzordea Donostiako Diputazioan, tokiak eta egutegia behin betiko finkatzeke. Erreterian eta Ordizian saioak antolatzerik posible ez zelako, hala geratu zen azkenean toki eta egutegiaren arazoa:

Azaroaren 14an - Oiartzungo Madalensoro Frontoioa.

Azaroaren 21ean - Gernikan Santanape Frontoian.

Azaroaren 27an - Idiazabalen Igarondo Frontoian (Semifinala).

Abenduaren 5ean - Durangon Ezkurdi Frontoian (Semifinala).

Abenduaren 19an - Donostian Karmelo Balda Frontoian (Finala).

Epai-mahaiko eta ordainketen arazoak ere estudiatu ziren bilera honetan. Eta Azaroaren 3an, gutun baten bitartez bertsolari guztiei eman zitzaien erabakitakoaren berri.

Azaroaren 3an bildu zen berriz Batzordea Loiolako Herri Irratian, Oiartzungo gaiak prestatzeko.

Azaroaren 10ean Donostiako Diputazioan bildu zen Batzordea Gernikako gaiak prestatzeko.

Azaroaren 14an, Oiartzungo Madalensoro Frontoian ospatu zen goiz eta arratsaldean bertsolari saioa. Nahiz eta Erreteriarako Lankide Aurrezkikoek hainbat kartel zabaldu, Oiartzunen ez zen ikusten bat ere, herrikoek ez zutelako horretarako ardurarik izan. Frontoiko berogailuak ere ez zituzten biztu eta hotz zegoen giroa egun hartako goizean. Hamar bertsolari azaldu ziren: Arregi, Azpillaga, Gorrotxategi, Iraola, Sebastian Lizaso, Otaño, Peñagarikano, Telleria, Xanpun eta Zeberio I.

Azaroaren 17an, berriz bildu zen Batzordea Loiolako Herri Irratian, Idiazabaldeko gaiak prestatzeko.

Azaroaren 21ean, Gernikako Santanape Frontoian ospatu zen bigarren saioa, goiz eta arratsaldean. Kartelak hemen ugari ikusten ziren eta berogailuari esker giro oso ona zegoen Frontoian. Beste hamaika bertsolariak azaldu ziren: Altuna, Etxeberria, Ezponda, Garmendia, Larrañaga, Lazkano, Koxme Lizaso, Lopategi, Mendizabal, Mugartegi eta Narbaitza.

Saioa bukatu ondoren, semifinalerara pasatuko ziren 14 bertsolarien izenak eman zituzten Epai-mahaikoek eta bertan jendaurrean zozketa eginez, talde bitan hala banatuta geratu ziren, Amuriza eta Enbeita gehitu ondoren:

A taldea: Altuna, Amuriza, Azpillaga, Gorrotxategi, Lopategi, Peñagarikano, Telleria eta Zeberio I.

B taldea: Enbeita, Garmendia, Larrañaga, Lazkano, Sebastian Lizaso, Mendizabal, Otaño eta Xanpun.

Azaroaren 23an bildu zen Batzordea Loiolako Herri Irratian, Durango-ko gaiak prestatzeko.

Azaroaren 28an, Idiazabalgo Igarondo Frontoian ospatu zen, goiz eta arratsaldeko saioetan, lehen semifinalla. Goizekoan “A taldea” azaldu zen, eta arratsaldekoan, “B taldea”. Saioa bukatuta bertsolariek onartu zuten Batzordearen proposamena, hots, Abenduaren 19an, Donostian finala ospatzea nahiz eta egun berean Real Sociedad-Athletik futbol partidua jokatu.

Abenduaren 1.ean, Donostiako Diputazioan bildu zen Batzordea Finaleko gaiak prestatzeko eta beste zenbait gai erabakitzeko.

Abenduaren 5an, Durangoko Ezkurdi Frontoian ospatu zen goiz eta arratsaldez bigarren semifinala, goizean “B taldeak” parte hartuz eta arratsaldean “A taldeak”. Orain arteko girorik onena izan zen Durangon entzuleen artean. Saioa bukatu ondoren Epai-mahaikoek finalera pasatzeko zortzi bertsolari hauek hautatu zituzten:

Azpillaga, Amuriza, Enbeita, Garmendia, Lazkano, Sebastian Lizaso, Lopategi eta Peñagarikano.

Abenduaren 19an, Donostiako Karmelo Balda Frontoian ospatu zen, goiz eta arratsaldeko saioetan, Idiazabalen eta Duragon hautatutako zortzi bertsolarien artean, 1982.eko Txapelketaren finala. Egun honetako egitaraua, gai Batzorde bereziak prestatutakoa, hau zen:

Goizean:

1. Agurra:
2. Ofizioak: binaka, launa bertso, zortziko nagusian.
3. Lau oinak: banaka, bi bertso, zortziko txikian.
4. Ofizioak: binaka, hiruna bertso, hamarrekotxikian.
5. 2 puntu: bakarka, zortziko txikian.
6. Kartzela: bakarka, hiruna bertso neurri eta doinu librean.
7. Sebastian Lizasoren agur bakarra.

Arratsaldean:

1. Agurra.
2. Ofizioak: binaka, hiruna bertso, zortziko txikian.
3. Ofizioak: binaka, hiruna bertso, hamarrekotxikian.
4. Kartzela:
 - a) azkena emanda, 2 bertso, hamarrekotxikian.
 - b) hiru bertso sei edo gehiagoko puntutako bertsoetan.

Lan hau amaitu ondoren, Epai-mahaikoak erabakia hartzera joan ziren artean, Txapelketan parte hartu zuten 66 bertsolariei Euskaltzaindiaren dominak eman zizkieten Juan San Martin, Juan Jose Zearreta eta Jose Maria Satrustegi jaunek.

Epai-mahaikoen erabakia zera izan zen: Amuriza eta Lopategiren artean ezparetzea egin behar zela, biei lan hau egitera behartuz:

1. Launa bertso, zortziko txikian.
2. 2 puntu.

3. Hiruna bertso neurri eta doinu librean.

4. Batak besteari bertso bat bederatziz puntuakoa.

Lan hau bukatu zutenean, berriz bildu ziren Epai-mahaikoak azken erabaki hau hartuz: 1982.eko Txapelketaren irabazle, Xabier Amuriza, eta bigarren Jon Lopategi.

Lehen fasean, doinu gehien erabili zuenaren saria Jose Maria Altunak irabazi zuen; eta bigarren fasekoa, Xabier Amurizak.

Sari ematea Jean Haritschelhar, Jose Maria Satrustegi, Endrike Knörr, Juan Jose Zearreta eta Jose Maria Aristegi (Donostiako Udalekoa) jaiuek egin zuten.

Eta azken agur bana kantatuz, amaitu zen arratsaldeko jaialdia, eta baita, aurtengo Txapelketa ere.

Ez da erreza, baiña Txapelketako edo finaleko bertsorik onentxoena jasoko ditut, geroak muestra bat bezela izan ditzan.

Garmendiaren goizeko Agurra.
Garmendia:

Agurtzen zaitut zu uri tarra
eta berdin menditarra
irradi bidez guri entzuten
zauden gazte edo zarra
urrutietan edo kartzelan
triste dagon euskotarra
aurrekalde au ikusirikan
daukat aitortu bearra
euskaldun utsez egiten degun
bilera klase bakarra.

Ofizioak emanda Lazkano eta Lopategi.

Eta orain Lazkano eta Lopategi doaz. Launa bertso. Eta gaiak honelaxe dio: hi Lazkano, Bilboko hibaiaren ezker aldeko langile bat haiz, ke zikina darion lantoki batetan lan egiten duena. Gaur goizez mendira joan haiz eta hemen aurrean duan artzain honekin, Lopategirekin, topo egin duk.


Gaia horixe da. Launa bertso zortziko nagusian:

Lazkano:

Nere lan eta izardi danek
daukaten ordain merkea
horretarako pasatu behar
lantoa eta nekea
bere ordaina nik izaten det
sarri gosea ta kea
horren aldean gauz polita da
zuk dadukazun pakea.

Lopategi:

Pake ederra daukat bene
naiz ta poltsikoa hutsa
mendi eder hau ke zikinakin
oraindik ez baita kutsa
alai daukat nik nere bihotza
ta sano daukat gorputza
osasun ona gura baduzu
etzaite jetsi berutza.



Amuriza

Lazkano:

Ofizinista argi bat ez naiz
nere lana da peontza
horregatik arkitutzen zait
horren bizi modu motza
mendi aldeko pake ederran
bila da nere bihotza
haurrik ez banu zugana etorri
niteke gaurtik morrontza.

Lopategi:

Zuk etzazula horrela hartu
morrontzarako ajola
nagusi batek lenago ere
xurgatu dizu odola
lagun antzera biziko gara
alkartu gaitezen hola
euskaldun ona baldin bazara
zabalik daukat txabola.

Lazkano:

Mendi gainean egingo nuke
biziz polita hain justu
ni bizi naizen paraje horrek
honen itxurarik ez du
noiz bait euskeraz hasita ere
igual albotikan txistu
Euskal Herrian bizi naizenik
ia ezin det sinistu.

Lopategi:

Goi hauetan guk baditugu gaur
oraindik euskeraz hotsak
diru pizka bat ba omen dauka
Lazkano gaur zure poltsak
odol bateko gizonak gera
ez gera elkarren arrotzak
bion artean zati dizagun
ardiak eta bildotsak.

Lazkano:

Ez dakit zeinek izango duen
nere bizitzan ardura
bainan zerua maiteagatik
jaio nintzan inpernura
mantenua ere izaten degu
bizi moduan modura
hango esnerik onena baino
hobe da zuregaz ura.

Lopategi:

Elkarte on bat egin dugu ta
hasi gaitezen lanera
egun bat hemen pasa ezker
ez zera joango bera
biok batera kantatuzeko
etorri zaigu aukera
gora artzaiak gora euskaldunak
eta mendiko euskera.


Amuriza eta Azpillaga orain. Gai
bakarra dago aukera:

Gaiak honelaxe dio: biok langileak
zarete, baina zuen eskuak ikusita, bada
zuen artean diferentziarik. Amuriza
hire eskuak olio eta koipez zikinduak,
eskulan gogor batek zahartatu eta pus-
katu dituen eskuak dira; hireak aldiz,
Azpillaga, beti paper artean garbi eta
lirain gorde diren eskuak dira.

Launa bertso zortziko nagusian:

Amuriza:

Paperak orain aldatu behar
hau da komeri sorgina
nire laguna guri dago ta
lengo apaiza zikina
esku horiei begiraturik
etzaude langile fina
beste itxura bat izango zundun
nire puestuan bazina.



Lopategi

Azpillaga:

Lan gogorrean ari dalata
horren beste negar malko
zein lantegitan lanean hasi
aurretik pentsa beharko
papel artean nere eskuak
daude legun eta bapo
nik ez dadukat bat ere errurik
zu tontua zeralako.

Amuriza:

Arrazoi hoiek paper artetik
zuk aterako zinuzen
karrera ere egina zaude
Donostin eta Tulusen
esku zikinak ditudalata
tontotzat jo nauzu zuzen
zu jaio zinan egun haretan
lapur galanta sortu zen.

Azpillaga:

Uste gabeko arrazoi txarra
ez da gauza egokia
gizon alperrak beti berekin
du antsi ta aitzekia
nai baldin baezu nik hartuko det
zuk dadukazun tokia
eta orduan egingo degu
lagun arteko pakia.

Amuriza:

Len kontra zegon ta orain alde
bakea dela suertez
langile on bat ez duk saldutzen
horrelako tratu merkez
Jainkuak ere lotsa behar du
zure egile izatez
karpeta hoiek hartu ta zuzen
parlamentura joan zaitez.

Azpillaga:

Alde ez nago zure antsia
sartu zat nere kolkuan
gainera ez da nere beharrik
izango parlamentuan
bizar zuriak erten zaizkio
eta zipotza lepuan
berak geiago ostuko luke
balego nere lekuan.

Amuriza:

Lapurretako leku txarra da
Amuritzaren langintza
eskuak zikin dituelako
ezin hor goietan mintza
baina ez uste naizenik gero
holako tonto murrizta
nik ere ostuko nuke zu bezain
lapurra izan banintza.

Azpillaga:

Alperkerian dabilen batek
ditu bere desgraziak
bere eskuak olio eta
grasaz daduzka jantziak
gizon alperrak zeintzuk diraden
gaude pentsatzen hasiak
alperkeriak berekin ditu
beste defekto guziak.

Garmendia lan oinak emanda.

Eta orain Garmendiarentzat lau oi-
nak: kai, gai, zai, bai.

Garmendia:

Bisitatu izandu
ditut ainbeste kai
bertan ikusi ere bai
milaka ezkongai
ainbeste urte pasata
ementxe nago zai
berriz ere egon bearko
esan artean bai.

Lopategi eta Amuriza gaiak eman-
da

Eta oraingoan gaia, Lopategirentzat
doa. Hiru bertso.

Lopategi, hirekin haserre zegoen
lagun batengandik txanpain kaja bat
jaso duk:

Lopategi:

Hasarre ginan eta
nik banuen kezka
bainan erregalirik
ez nuen eska
kaja txapanarekin
zatozkit galdezka
barruan dituala
botila erreska
jo nai det orkesta
ezin jo protesta
ein dezagun festa
jarri zaitte presta
adiskidetutzeko lagun
txarra ez da.

Txanpan botila kaja
adiskideen gai
orain egingo degu
guk gustora jai
bihotza jarri bai zait
zabal eta alai
etorkizuna hobetu
bidea da zelai
biok gera anai
jarri gaiten ernai
eta esan denai
gero eta orai
guk hasarrerik geiago
ez dugula nai.

Hasarretze kasuak
hainbeste gaur egun
baina bildu gerade
goxo ta lagun
zeuk azaldu didazu
zer ein dezakegun
orain etorkizuna
ez daukagu ilun
lainorik ez da inun
ene aiskide kuttun
behar dugu jardun
beti hola lagun
Gabon jaia elkarrekin
egin dezagun.

Amurizaren txanda da orain.
Amuriza, neguaren atarian ez da bera
baino txori sinpatikoagorik; heuk ere
ikusia izango duk hamaika aldiz,
txantxangorria.

Amuriza:

Negua horra dago
jaunak etorria
txoritxo bat saltoka
ez da berria
lumak harroak eta
paparra gorria
horixe da neronen
amets iturria
nire aldarria
eskari garbia
hor hago jarria
pozen oinarria
ongi etorri hadi
txantxangorria.

Bere itzala han du
gaineko arbola
badaki zeharkatzen
beko ujola
maite du pisua naiz
artzaien etxola
esan dudana ez da
jaunak parabola
txori hori hola
ikusiz dagola
ez dakigu nola
gintezken kotsola
kanta zak eta ez hadi
ixil inola.

Txantxangorria degu
oso txori fina
neguan-e laguntzat
den krabelina
elur zuri gainean
ai zer atsegina
ez haiz kantari abila
hala ere berdina
guretzat egina
haizela jakina
hona nere grina
barruko burdina
kanta zak libre nai ta
izan ezina.

Zortziko txikian ofizioak emanda:

Orain, Azpillaga eta Peñagarikano.
Oraintxe bertan abisua ematen didate
eta ez da gezurra, alegia, partidua hasi
dela, Atotxan Athletik eta Realaren ar-
teko futbol partidua; eta lehen denpo-
raldiko minutu gutxi hauetan, orain-
goz, erresultadua hauxe da: hutxean
doaz. Eta ez goizean Lopategik esan
digun bezala, hamabi eta hutsa.

Eta Azpillagarentzat eta Peñagari-
kanorentzat hauxe da gaia: hain zuzen
zer diozu zuk, Klemente, eta zer diozu
zuk Ormaetxea. Klemente Azpillaga,
eta Ormaetxea Peñagarikano:

Azpillaga:

Oraindik Ormaetxea
badago astia
nik daukat ekipo bat
ona ta gaztia
gaur nai nuke bi puntu
hemen iristia
ta aurten Espainiko
liga irabazia.

Peñagarikano:

Hainbeste jende etorri da
Atotxa zelaira
danok jarri zaitezke
partidui begira
Gorrizek hartzen badu
eta fuerte tira
Bilboko galtza beltzak
marroitu dira.

Azpillaga:

Zure esanak ez dit
egin bate grazi
euskaldunak alkarri
nola hezurak hausi
bi euskaldun eta batek
bear degu irabazi
gaurkua irabazten
behar didazu utzi.

Peñagarikano:

Kontrariak gera
zuri ta marroiak
on haundik ez dik egingo
Eguarrin turroiak
prueban jartzen badira
Donostiar sasoiak
katu bihurtuko dira
Bilboko leoiak.

Azpillaga:

Orain ere hitz egiten
nagusi antzera
bilbotarrak ez dizu
egingo atzera
hainbat kopa ta liga
ekarri etxera
guk haina egin orduko
umilduko zera.

Peñagarikano:

Lengo urtean Real
txapelan jabia
aurten ere Uefan
sartu izango dia
Zubizarreta De Andres
edo Sarabia
Bilbao ona da bainan
Reala hobia.

Arratsaldeko Agurra.

Lizaso:

Egunon entzuleak
agur Donostia
pozgarri da hainbeste
jende ikustia
bi gazteok zail degu
zar hauek haustia
bainan egingo degu
al degun guztia.

Hamarreko haundian ofizioa eman-
da.

Gaiak honelaxe dio: Amuriza eta
Lazkano biok lagunak eta biok gazte-
ak zarete, noski, egia da hori ere.
Beltz ikusten duzue gaurko mundua,
hain beltz ere irtenbide baten bila hasi
eta hire lagun honek, Lazkanok, droga
bideari heldu dio.

Amuriza:

Zorionean jarri gaituzte
kolpe batez gazte biak
hala ere gure pozak ez dira
munduan haundiegiak
aizak laguna beltz eta triste
zeudek gaur hire begiak
bide txarretik sartu haiz baina
barkatu beharko diat
hortako haina arrazoi hemen
badagola bazekiat.

Lazkano:

Zoriona ta zer jana inola
nik ezin ditut korapil
mundu honetan bada neretzat
aterik hainbat maratil
besteak beste hizkuntza ere
azken arnasetan dabil
hau ikusita sentitzen duna
ezin egon leike trankil
beste biderik ez dut arkitzen
burua galdu edo hil.

Lazkano:

Bizi moduaz ezin gindezke
nai dan erara jolastu
haurtxo bezela gozoa nintzan
ta gerora naiz garrastu
lan egin nai ta inun lanik ez
bizi modua dut estu
bide bat daukat mozkortu edo
bestelarik odolustu
nik ere jakin beharra daukat
nere penak nola aztu.

Amuriza:

Burua galdu edo hil dio
eta hori da kaosa
utzi zak droga hori ta jan zak
kalabaza naiz arroza
gazte batentzat Euskal Herrian
ez daukak antz aproposa
etorri adi burrukara ta
aberri minetan goza
burruka horrek emango baitik
droga horrez ez dun poza

Amuriza:

Mutil bat hola ikusi eta
ez al duzu hartzen mina
droga hori da Euskal Herria
hondatutzeko egina
honuntza dator ez dakit nondik
horko opio zikina
gazte laguna ez haiz errudun
ni nago hori jakina
honek ez luke drogarik jango
herri libre bat bagina.

Lazkano:

Akatsa nundik etorria dan
hori badakigu sobra
ziur badakit dena degula
gure etsaiaren obra
salbamen hori izan diteke
betirako nere onra
al baldin bada agintzen dezun
askatasun hori logra
orduan pozik bein betirako
nik ere utziko det droga.

Lopategi eta Enbeita Hamarreko
haundian.

Lopategi eta Enbeita orain, bi ariatzarrak, biok auzokoak. Oraingo hone-tan, Lopategi hasiko da. Lopategi eta Enbeita, zuek biok ere gazteak zarete hemeretzi eta hogeitertietako maitale bi zarete, hain zuzen; neska Lopategi eta mutila Enbeita. Zuenganako maitasuna proba berri baten aurrean aurkitzen da, hain zuzen ere, mutila soldaduzkara doa. Beraz bihar soldaduzkara doa Lopategi.

Hiruna bertso:

Lopategi:

Ene maitea azkenengo aldiz
behar zaitut gaur ikusi
zer sentimentu dudan barruan
orain nola adierazi,
hitz hutsak urri gelditzen zaizkit
hargatikan bertsoz hasi
derrigor batek eramango nau
zure ondotik igesi
soldaduzkara nioa baina
zu gabe ezingo naiz bizi.

Enbeita:

Nere mosuen kontra maitea
ezarri zure ezpana
biok dakigu erdibitzea
bihotzarentzat latz dana
zu gudarira joan beharrak
hau mina eman daustana
besarkada bat eman dezagun
hartzazu nere lastana
hemen lotzen da etorri arte
bizi izango ezтана.

Lopategi:

Geure gogorik ezin bete ta
besten esanez gabiltza
kanpo aldeko haizkolariak
jotzen bai dute haritza
zer pena dedan adirazteko
ni zurekin nola mintza
Espaini horri botatzen diot
madarikazio hitza
soldaduzkaren premirik etzan
Euskadi libre balitza.

Enbeita:

Ilunabarrez estalia da
gure maitasun dirdira
nolako lantza sartu diguten
gure bihotzen erdira
eta txarrena joan beharra
gudaritzan atzerrira
zenbat arantza itsatsi duten
gure larrosa garbira
lasai joan zaite ni izango naiz
nere maiteai begira.

Lopategi:

Erantzun on bat daukat zuregan
ba dut hor naiko suerte
kanpotar hoiek gu menderatzen
badaukate naiko arte
baina denbora pasatu arren
elkarrengandik aparte
pasatuko da geienez edo
gutxienean bi urte
nere bihotz hau gorde zaidazu
berrito etorri arte.

Enbeita:

Nere bihotza zeureak laztan
maitez josia darama
ta espirituz zure bideak
bere atzetik narama
maitasun honek lagunduko du
naiz ta banatzea zama
ikasi zazu nola ibili
militarrek duten arma
ordua bada jakin dezazun
defenditzen zure ama

Orain, gaia hiru bertso osatzeko.
Hiru bertso neurri librean. Hemen duk
Enbeita hiru bertso kantatzeko gai
haundi eta eder bat: emakumea.

Hiru bertso:

Enbeita:

Arantza artetik gora dijoan
larrosa gorri berria
mundu latz hontan goiz argi gun
izar argi pozgarria
herria bezain tristerik zaude
seme neketaz ler ia
baina zuri da esperantzakin
begira gure herria
gaurko semeen ejenplu zera
biharkoen oinarria.

Zugan sarritan gozatua dut
nere bihotzaren mina
bakardadean dagon gizonak
zugan bai du atsegina
bide galduko gau ilunetan
zaitut oskarbi urdina
diferentziak naiz eta euki
gu baino berau egina
mundu honetan bizi izateko
gizonezkoen berdina.

Nigaz batera eraman duzu
bizitza latzaren zama
gure bidea maitasunean
helburu berak darama
nere bertsoen olerki umilak
andre zuregan narama
eman dizute sarri askotan
izate debilen fama
kontra txaloak zuretzat ditut
nere emazte nere ama.

Lopategi hemen duk hiru ber-
tso kantatzeko gai haundi eta eder bat:
emakumea.

Neurri eta doinu librean:

Lopategi:

Gustogarria gertatu zait gaur
albotik datorren hitza
hoiek daukate gaur eguneko
etorkizunaren giltza
hargatik nere amodioan
nai nuke berentzat mintza
beren artean dagoelako
gure semeen emaitza
sarri hoiekin konpondutzea
gertatuagatik gaitza
denok saletu gabiltza
neurria hartu al balitza
al dan ondoen bete nai nuke
eskatzen duten baldintza
emakumeei begira baita
gaur Lopategin bizitza.

Etzaituztet nik irainduko ta
mantendu zaitezte lasa
elkar harturik egiten dugu
maitasunezko jolasa
izan ditugu geure bizitzan
hamaika denbora pasa
eta zuengan nere oroimena
sekula ez da eskasa
mantenduko dut gerora ere
eskatzen duzuen jasa
gizon zintzoaren traza
hala jokutzen dut baza
faministetan zabilzatenak
har ezazue arnasa
zuekin lagun ondra nai bai dut
neure ijitto arraza.

Nai zintuzket nik bizi moduan
gizon denak bezain aske
eta harreman neurri onekoak
laister eratu daitezke
izate batek merezi baitu
gutxienez horrenbeste
handik ta hemendik azaldu dira
gugana zenbait albiste
Jaungoikuarren ez zaitezte
gaur nerekin jarri triste
berdin zar ta berdin gazte
nerekin bildu zaitezte
proposizio txarra dugunik
inola ez dut nik uste
denok batera joan gaitezen
etorkizunaren eske.

Lopategi hiru bertso eta gaia: hi
naufrago bat haiz itsasoaren erdian
ohol baten gainean. Badator itsasuntzi
bat, ikusten hau, eta aurrera segitzen
du.

Lopategi:

Entzun dut sirena hotsa
iruditutzen zait motza
nai nuen baina horren laguntzaz
ez nezake goza
nunbait zen barku arrotza
baina behar zuen lotsa
horra noraino heldu diteken
gizonen bihotza.

Biztu bait nion zuzia
ke beltz gabe biluzia
baina hutsean gelditu zaigu
amets nagusia
hau orain nire auzia
ezin mantendu bizi
kapitan horrek desondratu du
bizitza guzia.

Estu buru ta hestea
ez da helduko bestea
lotsagarriri bertan utzi du
nik nuen eskea
galdu da nire ustea
ta munduko albistea
agur semea agur alaba
agur emaztea.

Amuriza, hiru bertso, Gaia: hi nau-
frago bat haiz itsasoaren erdian, ohol
baten gainean; badator itsasuntzi bat,
ikusten hau, eta aurrera segitzen du.

Amuriza:

Itxaso hori dago zatarra
nire oihua eta negarra
untzi bat horra nun azaltzen den
nik behar nuen izarra
oraintxe sartu zait arra
berriz piztutzeko garra
baina hau da zori txarra
ikusi naute aurrean eta
ai hau destino baldarra
laguna ondotik pasatu eta
nik hemen ito beharra

Une honetan ez dago errez
hemen jartzea oso haserrez
itxasoaren erdian nago
laguntza horren beharrez
untzi bat hor daukat aurrez
lenengo hasi naiz negarrez
ta azkenean didarrez
nora zoazte hemen utzita
nora zuen gizalegez
bihotz apurrik hor baldin bada
salbatu, otoi mesedez.

Urak bete dit ia sabela
ito zorian nago honela
untzi haundi bat pasatzen eta
niri ukatu batela
hau da hilaren eskela
hori da bihotz ustela
biziagatik oso gustora
galduko nuke txapela
baina munduak hor jakingo du
kriminalak zeratela

Eta orain, azkenik, agur bana egin-
go dute. Lehen Amurizak eta gero,
Lopategik.

Amuritza:

Lengo txapela nuelarikan
iltze batean jarria
hura gorde zun maitearekin
badaukat kezka larria
biak berari eskaini ala
bilatu maite berria
ez da berria baizik zaharra
nik maite dudan herria
gaurkoa zuri eskaintzen dizut
publiku agurgarria

Lopategi:

Gaurko jaiaren burrundada hauek
urrun joan ditezela
lagun maiteak gorde dezala
merezi duen txapela
nire itxaropena
erdi poz erdi pena
baina ez gero edozela
maite bakarrak bi anaitatik
bat onartzean bezela.

1986-ko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA.

Beti edo geienetan bezela txapelketa onetan ere izan ziran eztabaidak. Euskaltzaindiak txapelketa osoa antolatu eta iragarri ondoren atzera egin bear izan zuan ixtillurik ez sortzearren. Nonbait bertsolari batzuk ez zeuden ados orain artean antolatu ziran txapelketen sistemarekin eta normala danez, aldatu egin nai zuten, txapelketaren egitura, epaimaia, puntuaketa eta abar...

Euskaltzaindiak, 1.985-ko Otsaillean zeaztasun danekin iragarri zuan txapelketa berria, iru urtetik bein ospatzen zana. Ikusi zazute nola dion "Deia" egunkariak...

"Urriaren 19an hasi eta abenduaren 22an bukatuko da.

Bertsolari Txapelketa Nagusia antolatu du Euskaltzaindiak.

Hiru urtetik behin Euskaltzaindiak antolatzen duen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia udazkenean jokatu da, urriaren 19an hasi eta abenduaren 22an bukatuz. Izenak emateko epea martxoaren 30an amaituko da. Txapeldunak 300.000 pezeta eta txapela eskuratuko ditu. Txapeldunordeak, berriz, 175.000 pezeta.

Juan San Martin, Juanjo Zearreta, Joxe Antonio Arana eta Antton

Haranburuk argitu zituzten txapelketa-ko oinarriak eta baldintzak, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian atzo eguerdian eman zuten presntsurrekoan. Gaiarekiko lotura, sakontasuna, zehaztasuna eta ugaritasuna, hizkuntzarekiko edertasuna, bertso-egitura eta tolestura, neurriak eta puntuak balioztatuko ditu epai-mahaiak erabakia ematerakoan. Etenaldiak eta itxoinaldiak bapatekotasunaren kontra direnez kaltegarri gertatuko zaizkio bertsolariari. Baita bertsogintzarako baliabide urritasuna ere. Ofizioari ez lotzea eta elkarrekin ez kateatzea ere kaltetzat suertatuko dira.

Hemezortzi urte beterik dituen edozein bertsolarik eman dezake izena. Aurreko txapelketan Zornotza eta Azkoitiko ekinaldietataik igaro ziren 41 bertsolariek besterik gabe dute txapelketan parte hartzeko eskubidea. Besteek, aldiz, gaitasun frogata egin beharko dute aurrez. Urriaren 19,20 eta 27an egingo dira lehen kanporaketa saioak. Bertsolari bakoitzak hamar mila pezetako laguntza jasoko du trukean. Bigarren kanporaketa saioetara iristen direnek hamabosna mila pezeta eskuratuko dituzte eta azaroaren 10ean eta 17an lehiatuko dira.

Hirugarren kanporaketa, azaroaren 23 eta 24ean jokatu da. Azken txa-

pelketan azken saiora iritsi ziren zortzietatik txapelduna eta txapeldunordea ez beste seiak ere hementxe hasiko dira neurtzen. Lehiaketa honetan hogeina mila pezeta eskainiko dira. Amuriza eta Lopategi, berriz, abenduaren 8an eta 15ean jokatu den laugarren kanporaketan sartuko dira sailera. Saio honetan 40.000 pezeta jasoko ditu bertsolari bakoitzak.

Abenduaren 22an jokatu da txapela Donostiako Balda pelotalekuan,

zortzi bertsolariren artean. Hirugarrenetik atzera bakoitzak 90.000 pezeta etxeratuko ditu. Dozenerdi bat milioi joko duen txapelketa honetarako dirua Eusko Jaurlaritza, Diputazio, Udal, Lankide Aurrezki eta sarreretatik bilduko da. Epai-mahaia, berriz, Aldana, Aranalde, Aranburu, Arruti, Etxezarreta, Irigoien, Itzaina, Larre, Muniategi eta Zabalak osatuko dute.

DEIA, 1985 otsailak 23

Txapelketa osoa iragarri ondoren eztabaidak sortu ziran. Agian, orretzek bultzata sortu zan “Euskal Herriko Bertsolari Elkarte” eta denok dakigunez, mesede aundia bertso munduari egin diona.

Berrikuntza batzuk sartu nai zituzten; puntuaketa bistan eman, puntutako saiotoxo bat jarri, partaidetza zabala goa lortu, epaimaia aldatu eta abar. Beraz, aldaketa nabarmenak egon ziran.

Ori dana antolatzeke denbora bear zan eta txapelketa atzeratzea erabaki zuten, Martxoan finala jarriaz, Abenduaren ordez.

Txapelketa bi fasetan jokatu zan: lenengo fasean Gipuzkoa eta Bizkai-Araba kanporaketak egin ziran eta Bigarren fasean azken laurdenak asi ziran. Ikusi zazute partaidetza eta antolakizun batzordearen eginkizuna, txapelketako liburuak esaten digu garbiena. Beraz, ikusi...

Parte artu zuten bertsolariak.

1 Biktor Agirre “Bitxi”	G	14 Antton Arriola	B
2 Mixel Aire “Xalbador II”	I	15 Josu Arriola	B
3 Ireneo Ajuria	B	16 Jabier Arrizabalaga “Ziarda”	G
4 Justo Alberdi	B	17 Jon Arrizabalaga	B
5 Koldo Alberdi “Egileor II”	G	18 Jean Arrosagarai	I
6 Ernest Alkat	I	19 Jesus Arzaluz	I
7 Xabier Amuriza	B	20 Jon Aurre	B
8 Jose Luis Anakabe	B	21 Jose Luis Bazterretxea “Altzelei”	B
9 Jose Mari Aranberri	B	22 Juan Ignazio Begiristain	G
10 Juan Mari Areitio “Gaztelu”	B	23 Xabier Bidaburu “Txirri”	B
11 Jose Fermin Argiñarena	N	24 Jose Mari Bilbao	B
12 Xabier Arriaga “Bizkaigane”	B	25 Jose Ramon Bilbao	B
13 Agustin Arrieta “Ibargun”	G	26 Kepa Bizkarguenaga “Bizkar”	A
		27 Andoni Egaña	G
		28 Juan José Eizmendi “Loidisaletxe II”	G
		29 Abel Enbeita	A
		30 Jon Enbeita	B
		31 Moises Enbeita	B
		32 Damian Erdaide “Okana”	B
		33 Jose Ma Etxaluze	G
		34 Jose Ramon Etxebarria	B
		35 Patxi Etxeberria	G
		36 Pedro Etxezarreta	G
		37 Txomin Ezponda	I
		38 Txomin Garmendia	G
		39 Jose Antonio Gesalaga “Zaldubi”	G
		40 Florentino Goiburu	G
		41 Jose Ant. Gonzalez “Urrusti”	B
		42 Rikardo Gonzalez de Durana	A
		43 Jose Luis Gorrotxategi	G
		44 Jean Louis Hiriñordoki “Laka”	I
		45 Eusebio Igartzabal	G
		46 Jose Intxausti	G
		47 Xanti Iparragirre	I

48 Jesus Iribar "Olalde"	G	82 Manuel Urretabizkaia	G
49 Jose Izagirre "Attola"	G	83 Kepa Urrutikoetxea	B
50 Moises Jaso	N	84 Josetxo Jantzi	N
51 Jesus Ma Jauregi "Altzo Txiki"	G	85 Manuel Xanpun	I
52 Ignazio Jauregi	G	86 Santi Zabala "Lexo"	G
53 Anjel Larrañaga	G	87 Jabier Zeberio "Zeberio I"	G
54 Gregorio Larrañaga "Mañukorta"	B	88 Nikolas Zeberio "Zeberio II"	I
55 Eusebio Lasarte	G	89 Andoni Zelaia	I
56 Imanol Lazkano	G	90 Jose Zelaia	G
57 Kosme Lizaso	G	91 Koldo Zelaia "Etxeberri"	G
58 Sebastian Lizaso	G		
59 Jon Lopategi	B	Lenengo fasean parte artu zuten	
60 Jesus Lopetegi	G	bertsolariak, egunak eta errien izenak	
61 Serapio Lopez	A	emen jartzen ditugu liburuak dakar-	
62 Bautista Madariaga	N	tzen bezela...	
63 Salvador Madariaga	N	LEHEN FASEA: GIPUZKOAKO	
64 Jose Makazaga "Ziolar"	G	KANPORAKETA	
65 Kristina Mardaraz	B	"A" TALDEA	
66 Anjel Martirikorena	N	Azaroak 2 - AZKOITI / Abenduak	
67 Jokin Matxinandiarena	G	1 - OIARTZUN	
68 Mikel Mendizabal	G	Narbaiza - Euzkitze - Zeberio II -	
69 Fermin Miura	I	Sarasua - Lexo - Olalde - Egaña -	
70 Jon Mugartegi	B	Ziolar.	
71 Jose Luis Mugarza "Elgetzu"	B	"B" TALDEA	
72 Iñaki Murua	G	Azaroak 3 - BEASAIN / Azaroak	
73 Juan Mari Narbaiza	G	30 - EIBAR	
74 Manuel Olaizola "Uztapide II"	G	Begiristain - Murua - Egileor II -	
75 Luis Otamendi	G	Koldo Zelaia - Otamendi - Josu Zelaia	
76 Anjel Mari Peñagarikano	G	- Attola - Zaldubi.	
77 Xabier Perez "Euzkitze"	G	"C" TALDEA	
78 Juanjo Respalditza	B	Azaroak 16 - OÑATI / Abenduak	
79 Jon Sarasua	G	15 - ZARAUTZ	
80 Millan Telleria	G	Intxausti - Igarzabal - Lasarte II -	
81 Bittor Uraga	B	Jauregi - K. Lizaso - Uztapide II -	
		Loidisaletxe - P. Etxeberria - Urreta-	
		bizkaia.	

“D” TALDEA

Azaroak 17 - HERNANI /
Abenduak 14 - URRETXU

Lopetegi - Ibergun - Ziarda - B.
Agirre - Goiburu - Etxaluze -
Etxexarreta - Altzo-Txiki -
Matxinandiarena.

LEHEN FASEA: BIZKAIA /
ARABAKO KANPORAKETA

“A” TALDEA

Urriak 27 - GERNIKA

I. Ajuria - M. Enbeita - A. Arriola -
J. Arriola - J. Arriaga - Damian -
Txirri.

“B” TALDEA

Azaroak 3 - LAUDIO

A. Enbeita - Rikardo - Bizkar -
Serapio - J. Respaldiza - Areitio -
Kristina - Justo Alberdi.

“C” TALDEA

Azaroak 10 - ONDARRU

Mugartegi - Mañukorta - Elgetzu -
Altzalei - Arrizabalaga - Aranbarri -
Anakabe.

“D” TALDEA

Azaroa 17 - MUNGIA

Urrusti - K. Urrutikoetxea - J.M.
Bilbao - J.R. Bilbao - B. Uruga - Jon
Aurre - J.R. Etxebarria.

Talde bakoitzeko bi lehenekin eta
puntuazio hoberenak lortu duten beste
zortzirekin bi talde osatuko dira.

“A” TALDEA

Abenduak 15 - MARKINA

J.R. Etxebarria - A. Arriola - J.M.
Areitio - J. Arriaga - Jon Aurre - Jon

Mugartegi - Bizkar.

“B” TALDEA

Abenduak 16 - ALGORTA

Mañukorta - J. Arriola - M. Enbeita
- B. Uruga - I. Ajuria - Altzalei -
Elgetzu - J. Respaldiza.

Bigarren fasean parte artu zuten
bertsolariak, egunak eta errien izenak.

BIGARREN FASEA: AZKEN
LAURDENAK

Aurreko txapelketan finalerdira iri-
tsi zirenak, oraingo honetan azken
laurdenetan sartuko dira zuzenean,
aurten parte hartuko ez duten Otaño
eta Altuna ezik. Hauek dira hain zu-
zen: Zeberio I, Gorrotxategi, Telleria,
Xanpun, Larrañaga eta Mendizabal.

Hauetaz gain, Gipuzkoako lehen
faseko 11 bertsolari hoberenak,
Bizkaiko 8 hoberenak eta Nafarroan
eta Iparraldean sailkatutako 7.ak sortu-
ko dira.

Denetara 32 bertsolari.

“A” TALDEA

Otsailak 2 - GASTEIZ / Otsailak
16 - BERGARA

Sarasua - Mañukorta - Iantzi - J.R.
Etxebarria - Argiñarena - Areitio -
Loidisaletxe - Martikorena.

“B” TALDEA

Otsailak 2 - GASTEIZ / Otsailak
16 - BERGARA

Ezponda - A. Enbeita - Olalde - I.
Murua - Attola - Elgetzu - Igarzabal -
Gorrotxategi.

“C” TALDEA

Otsailak 9 - SARA / Otsailak 23 -
DURANGO

Alkat - Telleria - A. Arriola -
Zeberio I - Narbaiza - Egaña - Xanpun
- Euzkitze.

“D” TALDEA

Otsailak 9 - SARA / Otsailak 23 -
DURANGO

Otamendi - A. Ajuria - J. Arriola -
Xalbador - Mendizabal - Laka -
Goiburu - Larrañaga.

BIGARREN FASEA: FINALERDIA

Azken Laurdenetan puntuaziorik
hoberena lortu duten 11 bertsolariaz
gain, aurreko txapelketan finalean sar-
tu zirenak (Amuriza eta Lopategi ezik)
oraingo honetan finalerdian sartu dira,
bi talde osatuz:

“A” TALDEA

Martxoak 9 - TOLOSA / Martxoak
16 - BILBO

Sebastian Lizaso - Olalde (Txomin
Garmendiaren ordezt) - Mikel Mendi-
zabal - Iñaki Murua - Luis Otamendi -
Jon Enbeita - Anjel Larrañaga -
Mañukorta.

Nahiz eta Txomin Garmendia fina-
lerdirako sailkatua egon, ezinezkoa
izan zuen Tolosako saiora agertzea.
Beraren ordezt eta kasu hauetarako
dauden araudiak jarraituz Olalde
kantatu zuen.

“B” TALDEA

Martxoak 9 - TOLOSA / Martxoak
16 - BILBO

Egaña - Euzkitze - Gorrotxategi -
Telleria - Sarasua - I. Lazkano -
Peñagarikano - Narbaiza.

BIGARREN FASEA: FINALA

Aurreko txapelketako txapeldun eta txapelordea, hau da Amuriza eta Lopategi, zuzenean sartu dira final honetara. Lehiakide izan dituzte, 2 finalerditan puntuaziorik hobereana lortu duten 6 bertsolariak.

TALDEA

Martxoak 23 - DONOSTIA

Amuriza - Lopategi - Lizaso - Egaña - Murua - Sarasua - Enbeita - Peñagarikano.

Txapelduna : SEBASTIAN LIZASO

EPAI-MAHAIA

Trino Azkoitia

Nikolas Segurola

Anton Ma Aldekoaotalora

Patxi Goikolea

Fermin Miura

Eusebio Osa

Jose Ma Arrieta

Iñaki Sarriugarte

Rufino Iraola

AURKEZLEAK

Laxaro Azkune

Bernardo Mandaluniz

DOINU EPAILEAK

Juanito Dorronsoro

Jose Ramon Arbe

Txapelketa ireki, zabal eta eraberri-tu onetan aldaketa batzuk agertu ziran eta aipatu nai nituzke.

Lenengo: antolaketa “Euskal Herriko Bertsolarien Elkarteak” egin zuala. Partaidetza inoiz baiño aundiagoa izan zala.

Entzuleen erantzuna izugarria eta Belodromoan izan zan finala ikusi dugun arrigarriena; 8.000 pertsona baiño geiago izan baiziran.

Bigarren: egituraren aldetik.

Epaimaia zearo berria. Aurkesleak berdin.

Epaimaiak puntuazioa bistan bertso bakoitzari edo multzoari ematen zion eta eztabaidak laster sortu ziran.

Bertsolariak puntuka, biñaka jarri zituzten eta zailtasun aundiak puntuak emateko. (Saio au geiago ez da egin)

Apustu gogorrak egin zituzten eta batzuk ongi atera zitzaizkien. Ezin ziranak, poliki poliki galtzen joan ziran.

Donostiko finala, antolaketa, aldetik oso ongi egon zan. Agian, arratsaldetik, bertsolarien mailla ez zan neurri berdiñean egon. Utsune ori askok ikusi zuten.

Geroztik bertsolaritzak bide auetatik jarraitu du “Bertsolari Elkarteak” bere esku artu baizuen txapelketen ardua guzia. Dudarik gabe mesede aundia egin dio bertsolaritzari.



S. Lizaso

Ondoren, Donostiko finaleko bertso-rik onentxoena jarriko ditugu.

Goizeko Agurrak:

Sarasua:

Nere ustian hau ez da neri
tokatzen zaidan nibela,
segun ze egun ta segun ze gai
hor jokutzen zan txartela,
inportantzia ken dezaigun,
ez al da hobe horrela?
Sinistazue detaile batek
ondo kezkatzen nauela:
ni baino hobe diranak ere
hortik begira daudela.

Amuriza:

Lenago Balda bezala.
gaur Belodromo zabala,
ez da azaña makala,
zortzi gerlari frentera gatoz
Txapel bat kapitan dala,
baita jendetza leiala,
begiek ikusi ala,
hau duk festa mundiala.

Murua:

Ongi etorri esanaz nai dut
betiko legez hastea,
giroa degu pare gabea
hala da nere ustea,
Udaberria lagun hartuta
iritsi zaigu astea,
Udaberriak odol berriaz
hornitu oi du gaztea,
halare naiko lan izango da
zarrenei irabaztea.

Enbeita:

Zer txiki garan gaur azaltzean
kantari zuen aurrera,
nola eskertu egin duzuen
pare gabeko harrera,
gogor hasi da eta ez bedi
gelditu gure karrera,
gaur Anoeta izan dadilla
batasunaren sorrera,
zuek zerate gure bihotza,
gu zuen abotza gera,
sortaldetik sartaldera,
ta hegotik iparrera,
herri osoa kantari dago
bertso hauekin batera:
gora bertsoa, gora Herria,
ta gora ama euskera.

Oinak emanda:

Oinak

Arbola, eskola, dagola, ajola.

Egaña:

Alemaniar haiek
suntsitzen eskola,
gure herri xumeak (bis)
nunbait bost ajola,
haustu zuten Gernika
baina han arbola
sinis zazute denok (bis)
zutikan dagola.

Oinak

Naizela, bezela, kartzela, bestela.

Lizaso:

Kantura etorri naiz
zertara bestela?
Atzean dauden zazpi
lagunak bezela,
haundi, txiki, puntuak
ta berdin kartzela,
hitz ematen det egiz
jardungo naizela.

Puntua

Lizaso:

Utziozu hizketan
zure bihotzari...
Len ere hemen bera
ez ote da ari?
Herriaren aurrean
bihotza kantari,
bestela ez nitzake
inoiz bertsolari.

Oinak

Jueza, laineza, erreza, beza.

Amuriza:

Gaurko eginkizuna
ez dugu erreza,
batzutan talentua,
bestetan laineza,
hor dago epaimahaia,
hor dago jueza,
txapela nori eman
horrek esan beza.

Oinak emanda:

Oinak

Hil, dabil, trankil, hurbil.

Murua:

Makinatxo bat anai
arrixkuan dabil,
batzuek bizi dira
beste batzuek hil,
baina lagun jatorrak
gaur zaudete trankil,
askatasun eguna
bait daukagu hurbil.

Oinak

Truke, nuke, duke, luke.

Enbeita:

Nere herri maiteak
aske behar luke,
ez dut izan nai markes
ezta ere duke,
nere bizi osoa
eskainiko nuke,
diñodan askatasun
osoaren truke.

Ofizioak emanda teman:

XABIER AMURIZA / JON LOPA-
TEGI

Hamarreko txikian - Hiruna bertso

GAIA

Herri bateko kale berean aurrez au-
rre dituzue zuen negozioak. Zuk,
Xabier Amuriza, botika duzū (farma-
zia) eta zuk, Lopategi, taberna.

Doinua: Antton eta Maria



Enbeita, Peñagarikano, Murua, Lopategi, Amuriza, Lizaso, Egaña, Sarasua.



Manuel Lekuona, S. Lizaso,ri txapela jazten.

Amuriza:

Hau da tokatu zaigun
motibo alua,
beltz honek badarabil
gaur eskandalua,
ni naiz botika asko
aspaldi saldua,
zenbai gizon hortikan
honuntza heldua,
botikak sendatzen du
tabernak galdua. (bis)

Lopategi:

Taberna honek badu
beronen disdira,
pobrea gendun baiña
ederra segira,
kliente bat bera ere
ez da erretira,
hemen saiaturikan
buelta eta jira,
zugana doazenean
hil egiten dira. (bis)

Amuriza:

Hara tabernaria
zuk daukazu denda,
hor sartzen ikusten dut
mozkorti zerrenda,
nagusia ere dabil
senetik ertenda,
hiltzea aipatzen du...
Hau gure agenda!
Hemengo heriotza
tabernan hasten da. (bis)

Lopategi:

Neure alde jo nai dut
neure irrintzia,
bakoitza beranak gaur
baitu garrantzia,
zuk bezain lasai daukat
nik kontzientzia,
era ezberdinetik
dator ganantzia,
zuk pena saltzen duzu,
nik alegantzia. (bis)

Amuriza:

Alegantziak zerbait
badu bere alde,
baina humore hori
ez dago debalde,
ustez baldin bazara
zentzunaren jabe,
gaurko txapelik ere
dudarikan gabe,
ez duzu irabaziko
edanda bazaude. (bis)

Lopategi:

Behar bezela egin
nahiean tratuak,
tabernariak ditu
joko ondratuak,
hainbat kliente pozik
nerekin hartuak,
eta txapek kontuak
zertan azalduak,
txapela ez dit emango
bikarbonatuak. (bis)

Ofizioak emanda teman:

ANDONI EGAÑA / ANGEL Ma
PEÑAGARIKANO

Hamarreko txikian - Hiruna bertso

GAIA: Peñagarikanok gaur egun-
doko parranda bota du, eta etxera
etortzean emaztearen ohean sartu or-
dez, Egaña amonaren ohean sartu da.

Doinua: Antton eta Maria

Egaña:

Batetikan korrozka,
bestetik errena,
oia okupatu du
hori da txarrena,
ez da pinta kabala
honek dakarrena,
kantzontzilorik gabe
ohean barrena,
pixkat gutxio edan
ezazu urrena. (bis)

Peñagarikano:

Gaur parrandan jo ta ke
hor dabil gizona,
lenen pasilloa jo
ta gero komona,
uste nuen hau zala
nik nere moñoña,
laztanten hasi naiz ta
ez da horren ona,
mozkorra nator eta
barkatu amona. (bis)

Egaña:

Ez diot txartzat hartu
muxuka hastea,
naiz oraindik ez egon
holako gaztea,
ez da gauza ederra
buru eskastea,
hari tokatu behar
holako trastea,
martiri bihurtu du
bere emaztea. (bis)

Peñagarikano:

Nun ibili naizen ni
esan det lenago,
amonaren ondoan
ederki ez nago,
izan ere edan det
horrenbeste ardo,
gutxienez bazitun
hoitazazpi grado,
bota egin bear det eta
oñala nun dago? (bis)

Egaña:

Ohean sartu zaigu
kolpera orduan,
lapur gaizto ta trakets
hoietxen moduan,
pixa egin ezazu
toki seguruan;
kordea banatzeko
hemen inguruan,
poltsa beroarekin
joko det buruan. (bis)

Peñagarikano:

Poltsa beroarekin
hortxe jo nau danba!
Ni ez naiz lotsatuko
egia esanda,
amonan errezoa
holaxe izan da:
“Requiem est domine
virgo beneranda”,
gehio ez naiz etorriko
amona edanda. (bis)

Gaia eman eta bakarka.

JON LOPATEGI

Hiru bertso - Sei puntu edo gehia-
gokoak

GAIA: Zahartutako zeure erropak
basurara bota dituzu eta hara non ikus-
ten duzun beste gizon bat zuk botatako
erropak jasotzen.

Doinua: Gaztalondo handian

Erropa zar hoiekin
etsian nengoen,
beti jantzi ohi naiz
aldenik ondoen,
akaso bota ditut
behar zen baino len,
baina ondorioa
horra hor nabarmen,
triste nago zeren
aitona zar horren
jokoa gaur zer den
ikusi ondoren
miseria gehiegi
daukagu hemen. (bis)

Triste ikusten zaitut
aitona izanik,
gaizki hartu zaituzte
egia esanik
zer eman nezake nik
zuretzat nigandik?
Ez nuen uste kasu
hori inun zanik,
hartzazu dohainik,
ez eman ordainik,
bihotza jadanik
lertua daukat nik,
erropa gehiago ere
badut oraindik. (bis)

Besteok sarri juergan
egun eta gaba,
eta zuretzat berriz
hainbeste traba.
Nere etxe ondoan
jo duzu aldaba,
hau da nere bihotzak
dakarren algara,
ta hori non, hara
nere abiada,
juztizirik bada,
zu hola nola laga?
Nere traje onenez
jantziko zara. (bis)

IÑAKI MURUA

Hiru bertso - Sei puntu edo gehia-
gokoak

GAIA: Gañ neska gazte batek hau-
xe galdetu dizu: “Egingo al didazu le-
ku pixka bat zure bihotzean?”

Doinua: Ai zak hi mutil mainontzi

Gaur emana det pausoa,
ta gerturatu usoa,
gazte gaztea nere albora
hau zan arazoa,
arrazoia det jasoa,
hara erantzun gozoa,
leku pixka bat bakarrikan ez
zeuretzat osoa. (bis)

Gaur jaiki naiz aldartean
eta halako batean,
neska gazte hau neri begira
hor jende artean,
naiz ta ibili nekean,
bihotza bete betean,
maiteko zaitut, zu klabelina,
al dudan artean. (bis)

Zuk eman didazu poza
ta bera behar det goza,
noiznai ez degu gertuan izan
holako arrosa,
arrazoia aproposa,
zu zaitut lagun airoa,
bestela zeini eman leioke
gizonak bihotza? (bis)

Gaia emanda

JON ENBEITA

Hiru bertso - Sei puntu edo gehia-
gokoak

GAIA: Ijito kastako haurtxo bat
aurkitu duzu kalean, hotzez, dardarka
eta gosez, ia hilean, besotan hartu du-
zu eta kantaizkiozu hiru bertso.

Doinua: aztalondo handian

Ene haurtxo maitea
ez duzu atsegin,
kale ertzean hotzik
txakurren berdin,
zure ama zer gauzak
ote du eragin?

Bere haurra honela
bastertua zedin,
duzu mila samin,
zaite nigana jin,
egiten dizut zin:
saiatuko naiz fin
mundua zuretzako
ederra dedin. (bis)

Zuretzat izan nai dut
aita eta galai,
zuri kantuz dagoen
goiz txori alai,
maitez laztan itzazu
lore eta zelai,
haziko zaitut haurtxo
sendo eta ernai,
ni nauzu zure kai,
nauzu irrien zai,
nai nuke izan gai,
esan eidazu bai,
ta gehiago malkorik
ez dut entzun nai. (bis)

Haur txiki bat honela
baztertu beharra,
ama zintzo batentzat
ez al da larra?

Baina bukatu zaizu
zure ezbeharra,
eta jaso egizu
ta zabal bularra,
bizi nahien garra,
da zure indarra;
ta gure izarra,
bihotzeko haurra;
nik irri egingo dut
zure negarra. (bis)

Bertsoaren bukaera emanda

JON SARASUA

Doinua: "Hara nun diran"

Bertsolariok gure barrua
gura genduke berriztu,
guk al deguna egiten degu
inori ez egin txistu,
txistu hotsakin gure barnea
inola ezin da piztu,
gezurrik ez det batere esan
nai baduzue sinistu.

Kartzelako gaia

Hiru bertso nahi den doinu eta neurrian kantatzeko.

GAIA: Udaletxean hartu dituzuen azken erabakien berri emanez, bandoa jo behar duzu zeure herriko kaleetan zehar.

ANDONI EGAÑA

Doinua: "Begira nago jarria bera"

Tarrapatatan bandoa joaz
beharko degu hitzegin,
gure udalak orain artean
ez du askorik hutsegin,
natura zaintzen jokatu behar
dugu denok zintzo ta fin,
horretan gogoz aletin.(bis)
Gure herria pixka pixkana
berdeago izan dedin,
lorategiak zainduko dira
eta berri gehio egin. (bis)

Esana ongi bete zazute
ta horreinbestean tira,
gure agindu egoki hoiek
papelerara ez tira,
ia uxoak bueltatzen diran
lenoko hiri ez tira,
ez da gehiegi guztira. (bis)
Sano daudenak zaindu ta eri
daudenetaz izan mira,
animaliak zain itzazute
geure lagunak baitira. (bis)

Ez dakit ziur gure hizkuntza
ote dagon horren lerden,
gure kaletan erdera degu
jaun eta jabe nabarmen,
gure ustetan geure hizkuntzak
nagusi behar du hemen,
ez ote da naiko krimen. (bis)
Damu guztiak alperrik dira
garaia pasa ondoren,
ikastetxetan D eredu
sar ezazute lenbailen. (bis)

Kartzelako gaia: Bandoarena
SEBASTIAN LIZASO

Batzar batean izaten dira
sari askotan hauziak,
gure bilerak izan oi dira
gogorak eta luziak,
erabaki hau hartu genduen
jakin dezala jendiak,
gaurtik aurrera hemen euskeraz
oi dira batzar guziak.

Zenek ez daki obra batzuek
herrian daude gertuko,
eta lanean, han nor hasten dan,
entzun hau jakin orduko,
esaminetan guztiak dira
banan banan probatuko,
baina euskeraz ez dakienik
ez da lanean hartuko.

Batzar horretan ibili gendun
hainbat bulla ta zarata,
azken orduko erabaki bat
hartzea nola zan falta,
eta albiste pozgarriena
neukan geroko lagata,
multa guztiak barkatu dira
erramu eguna dalata.

Agurrak

Imanol Lazkanok batzordeko le-
hendakari bezala botatakoa.

Doinua: Mutil koxkor bat (eratua)

Zeinek esan du gure herriak
azkena gertu duela,
zeinek esan du negarrez dala
amaren bihotz goibela,
zeinek esan du euskal anaiak
zaiturikan gaudela,
galde berari beste herri bat
nun elkartzen dan horrela,
hau giroaren zoragarria,
hau giroaren epela,
sinistu gero gaurko motorrak
zuek izan zeratela,
zuen indarrez abestu dute
mutu ziraden bestela,
baina uste dut mutuak ere
gaur abestu zezakela,
ta iritzi hau eman nai nuke
nik batzordeko bezela,
Xebastianen baimenarekin
zuentzat gaurko txapela.

Sebastian Lizasok txapela jasotzean
bota zuena:

Doinua: "Pello Josepe tabernan de-
la"

Merezi edo merezi gabe
txapel ta guzti kantari,
bere zati bat eskeintzen diot
hurbildu dan jendetzari,
beste zati bat bihotz bihotzez
eskeintzen diot aitari,
txaloak parte hartu dezuten
bertsolari guziari.

Bertsolaritzan urte gogoangarria izango da 1.987-garrena.

MANUEL LEKUONA, Uztaillaren 30-an il zan. Bizitza oso bat bertsolaritzari eskeinia.

Bertsolaritzaren Patriarka. Histori labur onetan bera aipatu gabe ezin genezake utzi eta omenik onena, berari lau bertsolari auek kantatu zioten bertsoak, bere izakera eta biografia adieraziz.

Aurreko urtean berak azken-txapela ezarri zion S.Lizasori eta ikusi gorai-pena.

SEBASTIAN LIZASO

Aipagarriak izan dirade berak egindako lanak bertso maitale bihurtzeraino lehenago etsai izanak belodromoan neri txapela jarri zidan Lekuonak jaso zuenak hainbat meritu bazuen eman zuanak

JON LOPATEGI

Agur ahozko literatura argitu digun izarra agur euskaldun nortasunaren ibai hertzeko lizarra gaua zabaldu zuen ordutik heriotzaren izparra euskaldunaren begietatik ez da aldendu nigarra zure haziak gugan dezala iraupenaren indarra

A.M. PEÑAGARIKANO

Egietako gizona bertsolarien aitona apaiza ere danona. Bertsolaritzan berdin gabeko zimendu habe ta horma artaldeko artzai ona gu euskaldun guztiona hara nor den Lekuona.

IÑAKI MURUA

Bertsolaritza zihoanean guztiz hertzetik hertzera jaso nahiean esku zabal bat urreratu zen heltzera zahar zegona atondu zuen jauregitxoan antzera erein haziak iritsi dira izan berriz loratzera haien usaiak gogoraturik atsedean bila joan zera

Bere lagun batzuen idazki edo artikulak

"Baiki baiki don Manuel"

Onela asi oi gera izketan, ixil-aldi-txo baten ondoren. Alaxe asi natzaizu ni Don Manuel, zure illetakoan, Oiartzun-en, Oiartzun'go elizan. Antxe zeneukan erria, zure Erria, fedekantutan agurka biotz-biotzetik: "Zure Etxera..." ari zan erri guzia kanta-kantari. Zerbait ba zan oso bestelakoa, gutxitan bezelakoa, nabari zana. Ba zirudin, antza, aingeruren bat ba zebillela "txingo txingo txingo" malkoak eta irrifarrak, beltzak eta txuriak biltzen



J.M. Barandiaran, "Eusko Ikaskuntzako" saria ematen, D.M. Lekuona,ri, tartean Edorta Kortadi.

biltzen, zuri eskeintzeko; ba zirudin, antza, aingeruak bildutako guzia bere zerutar biotzeko errotan eioturik, maitasun biurturik eskeintzen zizula. Bitartean, “biotzak dio”... “Beti-betiko zoriona... eman Jauna” fede-pozetan, otoitzean Euskal-Erria.

Zenbat oroitzapen, elkar-joskera biguñean! Bat edo beste berezi nai nik emen agertzeko, emendik zertxoren bat adierazteko. Jaka'n zan. Beñ-ere aazten ez diran ibillaldi aietako batean. Edermiñez ikuska, jakin-miñez adi-adi. Katedral famatua bixitatzera ginjoazen. Aldez aurretik, arratsaldea zan, ostatura joan giñan kafexka bat artzera, oiartzuar ezagun baten ostatura. Elkarri gure ezaguerak opa genizkion eta, iñularrean, Meza ematera goazela, Don Manuel'ek, begiak ñir-ñir:

- Antxieta aundiaren Trinitade-Aldarean eman bear dugu Meza. Aipagarria da, ikusgarria, Antxieta'ren eskultura au (eta argi-jario izketan, edo-ta argitan itz-jario) Aizute, euskeraz eman bear dugu Meza, gure “artista euskalduna” gogoan...

Elkarri begira noski, pozaren pozez, Antxieta eta Don Manuel eta Trinitadeko UXOA

Alabaiña Zorionak bere inguruan zorigaitza ta zoritxarra edo-ta zorigaitza; eta biotza bere pake onean izango bada, bere goi-pozetan biziko bada, beregan sorturiko edo ingurutik sarturiko miñak eta minkatzak garbitu egin bear kristau-fedearen ur garbietan. Eta ez izaki ain-ain erraxa; ez izaki lanik gabeko egitekoa. Noizean bein nabari zitzaion alako zerbait, biotza estutuaz, ur garbietan garbituaz... lorturiko pake-poza, pozaren gazi-geza. Ala entzuten genion bein batean, emen Donostia'n, gure arteko kezkek eta kezka-miñak, fede-ezak ospinduriko miñak aipatzen genizkion batean:

- Aserreak eta gorrotoak ez dute beñ-ere gauza onik, ondoren onik. Gurutze Santuaren aurrean aipatzekoak eta itzegitekoak dira gauza oiek. Otoitz ixilla, Gurutzeari begira egindakoa... bai ona ta ongarrria alako otoitza.

P. BERRONDO

Agur, Don Manuel

Joxemari Aranalde

Nahiago nuke nondik hasi baneki, Don Manuel. Azkena entzun nizkizun hitzetatik hasiko naiz. “Eskarrik asko atentzioarengatik” esan zenidan duela hamar bat egun egin nizun bixitaren ondoren. Eskarrik asko hitz horiengatik, Don Manuel. Gogoan izango ditut; baina badut besterik ere gororatzeko.

Eta zure esan guztien gainetik, zu zerorri izango zaitut gogoan. Hitzak ere izango ditut, jakina. Nola ez? Nola ez izan gogoan harako harek esaten omen zuena eta nik zuri ikasi nizuna? “Onestidatetik urten barik” esaten omen zuen norbaitek ibili behar zela. Nik zuri ikasi nizun. Ez litzateke neurri txarra gure arterako. Nola ez gogoan izan fruta ogiarekin jan behar dela, zuen amonak zioen bezela? Nola ez gogoan izan harako “Errege banintz, errege banintz” hura? Bai gogoan izango dut zuri ikasitako hainbat eta hainbat gauza polit.

Baina zu izango zaitut batez ere gogoan. Behin, zure omenez Euskarazaintzakoek atera nahi zuten libururako, zerbait idatz nezan eskatu zidaten. Idatziz geroz ez dut irakurri, baina gogoan dut zer titulu jarri nion lantxo hari. “Don Manuel jaun fina” jarri nion izenburu. Nik horrela gogoratuko zaitut, nere bizitzako urterik ederrenetakoak zure inguruan igarota gero.

Eta zerorri “jaun fina” zinelako, beste inork gutxik bezala jakin duzu zuk gure herri ez-aberats honetan zegoen edertasun guztia ixtimatzen eta jasotzen. Don Lorentzo Bereziartua gotzai zenak, Oiartzungo elizan egin zitzaiz-

zun omenaldi hartan, zure begiak aipatu eta goraipatu zituen bere hitzaldian. Gogoan gelditu zitzaidan aipamen hura. Arrazoi zuen. Baina ez ziren begiak bakarrik. Zentzu guztiak zenituen zuk onerako eta ederrerako eginak. Zeorri zinen zu eder-bera eta on-bera. Eta horri esker deskubritu duzu hainbat eta hainbat edertasun gure herri ez-aberats honetan zehar. Eta gero bildu eta jaso egin duzu. Besteok ikusi ez duguna, zuk ikusi duzu, eta besteon hankapean galdua zitekeena, zuk jaso. Ez naiz hasiko xehetasunetan sartzen. Ez daukat denborarik gaur.

Zure fintasun hori orde, Don Manuel, ez da gauza politak aurkitzeko bakarrik izan. Pertsonetarako ere begi bera zenuen. Zure ondoan inor ez ginen alferrik. Denok bagenuen zerbait ematekorik. Denok bagenuen zerbait onik zuretzat. Ez duzu inor, ez ezer baztertu. Milesker, Don Manuel.

Bai, Don Manuel, gogoan izango zaitugu, egin duzunarengatik ez ezik, zinen zinelako.

Eta zure lan haundietan sartuz gero, nondik hasi eta non buka? Barka ieza dazu nik bat bakarra gogoratzea gaur.

Zu, Don Manuel, eliz-euskararen maisu izango zara beti. Dotrina eta liturgia euskaraz zureak izango dira beti Hego Euskal Herrian. Aparteko zentzua erakutsi duzu euskararen erabilpenean eliz gauzetarako. Denek ederra dela aitortzen duten hori, zurea duzu. Badakit gehiegi esaten dudala erantzungo didazula. Badakit Don Anizeto Zugasti bederen aipatzea nahiko zenukeela. Konforme. Izendatu dut. Eta badu meriturik gure altzarrak. Ez al du herriak gustorik haundienaz, inoiz nekatu ga-


be, berak ekarri zigun “Gure Aita” behin eta berriz kantatzen? Horregatik bakarrik ere merezi zuen zerua gure Don Anizetok. Konforme.

Hala eta guztiz ere, Don Manuel, gure elizetako euskarak zu zaitu guraso. Ez dizugu zor makala euskaldun eliztarrok.

Beste mila gauza ere aipatu nitzake;

baina ez dut nahi. Hemen bukatu nahi dut. Badakizu zenbat ixtimatzen zaituen lehendik ere zure Joxemarik. Gaurtik aurrera euskaldun fededun guztiek ere hala egitea nahi nuke, zu bait zaitu guraso gure elizetako euskarak.

Agur, Don Manuel, eta goraintziak hor.



M. Lekuona

"Don Manuel Lekuona".

Oiartzungo "Etxetxiki" baserrian jaio zen orain 93 urte, eta lehen letrak "Morrontxona"n ikasi zituen; orduan herriko 100 etxe eta 500 baserrietan 4.000 oiartzuar inguru bizi ziren.

Geroztik egin ditu on Manuel Lekuonak ikas-lanak, jaso ditu zama handiak gerran; herriari itsasita bizi izan da beti. Inazio Deuna bezperan joan zaigun arte, bere herriaren eta bere Elizaren zerbitzuan. Eliza izan zuen bere lehen eta azken bokazioa. Deia, Migel Antonio Iñarra osaba-apaiza izan zen; euskal idazle hau Pasai Antzion apaiz zazpi urtez ari eta bertan hil zenean, kutxabete liburu utzi zion.

Horiek izan zituen on Manuelek lehen liburuak:

Apezkuntzarako irakasketak Balia-rrainen hasi zituen; dagoeneko han zeuden Joxe Migel Barandiaran eta Dabid Esnal. Gero, Gasteizeko euskal giro makalera, baina 1915an, maisutzan ari zirela, antolatu zituzten euskal klaseak; Pildainek erdaraz egindako dotrina ere don Manuelek euskaratu zuen, eta "Orixe", Azkue, Altube eta Eguskitzak onartu zuten hau izan genuen Errepublikara garaiko haurrok; "Aitzol" Mixiolaritzako lanetan ari zela eskatu zion dagoeneko euskal arloetan maisu zen don Manueli laguntza, eta ordukoak dira, baitere, "Kardaberraz" taldea sortu eta apaizgaiak euskaraz alfabetatzeko egin zituen lehen ahaleginak.

Gerra madarikatu hura gure bizkarretan lehertu zigutenean, larri ibili zen.

Mateo gotzaiarekin Arabako herrizka batean bixita pastoralean zebilen, eta Gasteizera itzuli nahi izan zutenean, ohar bi, eta latzak! jaso zituen Gotzai jaunak: 1) Zuzenean Burgosera abiatzeko, eta 2) Ez joateko, bidean hiltzeko asmoa zutela. Azkenean Generalak Frantzira herbesteratu zuen Gotzaia, eta don Manuel, salaketak dagoeneko hasiak zirenez gero, laster jakin zuen bere anai Martin, txikiena, zortzigarrena, Errenderin apaiz zegoela hemen hartu eta Hernanin hil zutela, eta Julian, zazpigarrena, Oiartzundik eramane eta Gaintxurizketa-Lezo aldean bota zuela. Don Manuel, Lasarten, Brigidetako konbentuan ezkutaku zuten, ahaztutzeko ez diren "lau urte eta bost hilabetez"; hementxe idatzi zituen Lasarteko eta Oiartzungo historiak eta gero Egan-en argitaratu zizkieten Hamabi Kantak ere, hamairugarrena zentzurak jan bazuen ere. Lasartetik ihesi, Calahorrara, eta han hamalau urte luzetan izan zuen beste apaiz eta kultur-gizonaren lanez gain Berceo eta Vianako Printzearen monografiak idazteko beta.

Artea izan zen don Manuelen beste alderdi ezagun bat.

Bi Greko aurkitu zituen: bat, Gatzagako Dorleta ermitan 1920an, eta bestea Iraetako kapilan, 1926an. Escudero musikari hospatsuak konposatutako "Zigor"operari hiltzak jarri zizkion. Lehen Oiartzungo elizaren historia idatzia bazuen, Andoainen hogeitau urtean Berrozpeko konbentuan eta Pedro Arregiren etxean bizi izandu zen bitartean herri honetako eliz ederraren historia ere idatzi zigun 1971an.

Jakina da idatzi duen libururik gogoko eta ederrena: Historia de la Literatura Vasca (1935) izan dela. Arlo honetan izan duen eragin handietako bat: “Aitzol”en olerkiaren zabal-kunde eta eboluzionarako egin zituen lanei bertsolaritzarakoak itsasi zizkio-la. Honetarako eragina bere aitagandik jaso zuen don Manuelek: “Nere aita zenak esaten zuena dut nik beti gogoa-n herriko festean, egun eder baten osagarri bezala: lehendabizi, Meza nagusi eder bat; bigarren, Pelota partidu-a, eta arratsaldean, Bertsolariak”.

Beste gauza franko adieraziko genuke, lekurik bagenu.

Halere, aipa dezagun oraindik don Manuelen maitasunetako bat: “Herria, gauza sakona eta errespetagarria da; herri batean, pertsonalitate fisikoak baino Moralak indar gehiago du; herri baten Hizkuntza, gure Jaungoikoak egin duen gauza handienetako bat da”. Honi eskaini dizkion lan handien artean, Euskaltzaindia da bat: 1918an sartu zen, sortu zen une berean; 1950an egin zuen euskaltzain osoaren sarrera (urte gorriak!) irakurri zuen, eta 1966-70an izan zen lehendakari.

Beste izate osoaren muina, Eliza izan du (“Elizari zor diot naizen guz-

tia”): “Gerra denboran -esan zidan behin- gure herrian Eliza izan zen persegitua, gotzai jaunagandik hasita; euskal lanetan egiten genituen pekatu larriak; hemen baziran Franko-ren mendeko zerbitzari batzu, bai noski, baina ez ziren gure herriko apaizen izenean zebiltzenak; gure herriko Eliza jatorra izan zen zanpaketa gogor hau sufritu zuena”. Honetxeagatik izan zuen gaurko gure gotzai den Jose Maria Setien jaunak hiletaren sarrera gisa esan zituen hitz eder askoren artean, barkamena eskatu zien Elizaran ordezkari bezala, eta Honen izenean, une zail ezagunetan don Manuel eta hau bezalako beste apaiz eta gizonek jazan zituzten zuzengabeko errepresalien garaian defendatzen jakin ez zuelako. Gotzai jaunak adierazi zuen aurretik, esatera zihoanak garrantzia berezia zuela, eta batzutan hauek ere esan behar direla.

Eta juraia handiarekin, esan egin zuen.

Don Manuelek poz gozoz hartuko zuen zeruan, lurrean bere gotzai zena-ren aitortpena.

Martín UGALDE

1.989-KO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

“EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEAK” Arduraz eta arretaz antolatu zuan txapelketa au. Iru urte luzetan prestatu baizuan, detaille txikiak ere gogoan izanez. Dudarik gabe ongiena prestatutako txapelketa au izan zan.

Argitaratu zuten liburuan agertzen dira zeaztasun guziak eta nik ez diot ezer erantsiko, ikusi zazute nola dion...

EGITURA

Euskal Herriko bertsolari guziek izan dute EHBE.k antolatu duen II. Bertsolari Txapelketa honetan parte hartzeko aukera, nahiz aurreko Txapelketa Nagusian lortutako emaitzen bitartez, nahiz beren lurraldeetako Kanporaketa edo Txapelketetan lortutakoen bitartez, honetarako Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 86, Araba-Bizkaiko Txapelketa 87, Gipuzkoako Kanporaketa 88 eta Nafarroako Txapelketa 89ko emaitzak kontutan hartu direlarik.

Partaidetzaren osaketa eta erregulaketa, erizpide hauetan oinarriturik egin da:

1.- Berrogei bertsolarik hartuko dute parte: 1986ko Txapelketa Nagusian Finalerdietara eta Finalera heldu ziren

18ak, eta Araba-Bizkaiko Txapelketako 7 hoberenak; Gipuzkoako Kanporaketako 8 hoberenak eta Iparralde-Nafarroako Txapelketako 7 hoberenak.

2.- 1986ko Txapelketa Nagusian Finalerdietara heldu zirenak Finalistak ezik Azken-Laurdenetan hasiko dira; Finalera heldu zirenak, Txapelduna eta bigarrena ezik, Finalerdietan hasiko dira; eta Txapelduna eta bigarrena Finalerako klasifikatuak daude.

EPAI-MAHAIA

Antton M^a Aldekoa-Otalora

Jose M^a Arrieta

Trino Azkoitia

Jesus M^a Etxezarreta

Mixel Itzaina

Joserra Garzia

Rufino Iraola

Abel Muniategi

Iñaki Sarriugarte

IDAZKARIAK

Jose M^a Altuna

Arantxa Arruti

Fermin Olaskoaga (Ordenagailu lanak)

AURKEZLEAK

Laxaro Azkune

Bernardo Mandaluniz

DOINU ERREGISTROA

Juanito Dorronsoro

ANTOLAKUNTZAREN ARDU- RADUNA

Euskal Herriko Bertsolari Elkarte-
ko Zuzendaritza Batzordea

TXAPELKETARAKO BERTSO- LARIEN INSKRIPZIOAK

Zerrenda honetan Herrialde bakoitzeko Txapelketa-Kanporaketetan parte hartu duten guztiak eta aurreko Txapelketa Nagusiko emaitzei esker sailkatu direnak agertzen dira. Letra beltzeagoan fase nagusirako sailkatuak.

ARABA-BIZKAITARRAK:

- 1.- Ajuria Ireneo
- 2.- Amuriza Xabier (1)
- 3.- Anakabe Jose Luis
- 4.- Aranbarri Jose M^a "Botx"
- 5.- Aranburu Jose Antonio "Natxi"
- 6.- Areitio Juan M^a
- 7.- Arriaga Xabier "Txiplas"
- 8.- Arriola Antton
- 9.- Arriola Josu (2)
- 10.- Arrizabalaga Jon
- 11.- Azpillaga Jon (2)
- 12.- Basterretxea Jose Luis
"Altzalei"
- 13.- Bidaburu Xabier "Txirri"

14.- Bizkarguenaga Pedro "Bizkai"

15.- Enbeita Abel

16.- Enbeita Jon

17.- Enbeita Moisés

18.- Etxeberria Faustino

19.- Goenaga Jose Ignazio "Gorri"

20.- Gonzalez de Durana Rikardo

21.- Laka Xalbador

22.- Larrañaga Gregorio
"Mañukorta"

23.- Lopategi Haritz

24.- Lopategi Jon

25.- Lopez Serapio

26.- Mugartegi Jon

27.- Mugarza Jose Luis "Elgetzu"

28.- Pujana Basilio

29.- Respaldiza Juanjo

30.- Urrutia Liborio

31.- Ziluaga Manu

(1) Aukera bazuen ere, eztarriko arazoren batengatik, ez zuen parte hartzerik izan.

(2) Jon Azpillagak parte hartzeari uko egin zionez, Josu Arriolak hartu zuen bere lekua.

GIPUZKOARRAK:

32.- Agirre Bittor

33.- Alberdi Koldo "Egileor II"

34.- Aristorena Paulo Jose (3)

35.- Arrieta Agustin "Ibergun"

36.- Azpillaga Bernardo

37.- Egaña Andoni

38.- Eizmendi Juan Joxe
"Loidisaletxe II"

- 39.- Elorza Joxe Ramon
40.- Etxaluze Joxe M^a
41.- Etxaniz Antton
42.- Etxezarreta Pedro M^a
43.- Gerriko Juan Ramon
44.- Gesalaga Jose Antonio
"Zaldubi"
45.- Goikolea Danel
46.- Gomez Manu
47.- Gorrotxategi Jose Luis (3)
48.- Igarzabal Euxebio
49.- Iñirrategi Felix
50.- Iribar Jesus "Olalde"
51.- Izagirre Santiago "Atola-
Berri"
52.- Izarzelaia Jon Iñaki
53.- Izeta Joxe M^a
54.- Izeta Nikolas
55.- Jauregi Jesus M^a "Altxo-
Txiki"
56.- Kortaberri Jesus "Kaxeta"
57.- Larrañaga Angel
58.- Lazkano Imanol
59.- Lertxundi Jose M^a
60.- Lezea Juan
61.- Lizaso Sebastián
62.- Loidi Arantzazu
63.- Lopetegi Jexux
64.- Loyola Juan
65.- Manterola Jose Antonio
"Zatain"
66.- Manterola Markos
67.- Mendizabal Mikel
68.- Mujika Joxe M^a "Anatx"
69.- Murua Iñaki
70.- Narbaiza Juan M^a
71.- Narbarte Xabier
72.- Oizarzal Jose Manuel
73.- Otamendi Luis
74.- Peñagarikano Angel M^a
75.- Perez Xabier "Euskitze"
76.- Rezabal Martin "Olaso"
77.- Salegi Jose Angel "Lizarreta"
78.- Sarasua Aitor
79.- Sarasua Jon
80.- Sorozabal Jokin
81.- Telleria Millan
82.- Zabala Xanti "Lexo"
83.- Zeberio Xabier "Zeberio I"
84.- Zendoia Nikolas
(3) Jose Luis Gorrotxategik, osasun
arazo batzu merio, Pablo Jose Aristo-
renari utzi zion bere lekua.

IPARTAR-NAFARRAK:

- 85.- Aburuza Lorentxo
86.- Aire Mixel "Xalbador II"
87.- Alkhat Ernest
88.- Amorena Txomin
89.- Argiñarena Joxe Fermin (4)
90.- Argiñarena Joxe Migel (4)
91.- Arozena Manolo
92.- Arzallus Jesus
93.- Eizmendi Jose Luis "Errexil"
94.- Elizagoien Bittor
95.- Ezponda Txomin
96.- Fagoaga Euxebio
97.- Fagoaga Joxe M^a
98.- Harignordoki Jean Louis
"Laka"

99.- Jaso Moises

100.- Madariaga Bautista

101.- Madariaga Xalbador

102.- Martikorena Angel

103.- Mendiburu Jean Pierre

104.- Mihura Fermin

105.- Olaetxea Luis

106.- Olano Antonio

107.- Olaziregi Ignazio

108.- Perurena Bautista

109.- Zeberio Patxi

(4) Jose Migel Argiñarenak osasun arazo batzu merio, bere anaia Jose Fermini utzi zion bere lekua.

AZKEN LAURDENAK

Bertsolari hauek parte hartu dute: Alkhat, J.F. Argiñarena, Arozena, Arzallus, Ezponda, Mendiburu eta "Xalbador II" "Nafarro-Iparraldekoak; Ajuria, Areitio, J. Arriola, "Altzalei", M. Enbeita, "Mañukorta" H. Lopategi eta "Elgetzu" Araba-Bizkaitik; eta "Anatx", Aristorena, Elorza. "Loidisaletxe II", Igarzabal, J.M. Izeta, Larrañaga, Lazkano, Lertxundi, Mendizabal, Narbaiza, "Olalde", Otamendi, "Euskitze", Sorozabal, Telleria eta Zendoia Gipuzkoatik. Guztira 32 bertsolari.

Lau taldeetan banaturik bi saio burutu ditu bakoitzak:

"A" TALDEA

Azaroak 1 - HERNANI/Azaroak 12 - LAUDIO

Ezponda - Telleria - "Loidisaletxe II" - Lazkano - Ajuria - Areitio - M. Enbeita - Arozena.

"B" TALDEA

Azaroak 1 - HERNANI/Azaroak 12 - LAUDIO

"Mañukorta" - "Elgetzu" - Narbaiza - "Altzalei" - "Olalde" - Lertxundi - "Xalbador II" - Alkhat.

"C" TALDEA

Azaroak 5 - HENDAIA/Azaroak 19 - LESAKA

"Euskitze" - Aristorena - Mendizabal - Igarzabal - "Anatx" - Mendiburu - Elorza - Arzallus (Lesakan, Arzallusek muga gainditzerik ez zuelako, Aburuzak hartu zuen parte).

"D" TALDEA

Azaroak 5 - HENDAIA/Azaroak 19 - LESAKA

Otamendi - Sorozabal - Larrañaga - J.Arriola- J.F.Argiñarena - J.M. Izeta - H. Lopategi - Zendoia.

FINALERDIAK

Azken laurdenetako lehen 12 postutan sailkatutako bertsolariak - Lazkano, "Euskitze", Mendizabal, Telleria, Sorozabal, Areitio, "Mañukorta", Otamendi, Zendoia, "Loidisaletxe II", Larrañaga eta Lertxundi eta 86ko Finalistak izaki, Murua, Sarasua, J. Enbeita, eta Egaña heldu dira fase honetara. Guztira 16 bertsolari. Xabier Amuriza eta Angel Peñagarikanok, honek azken orduan erabakirik, ez dute parte hartu osasun arazoak direlata.

Bi taldetan banaturik bina saio burutu dituzte:

“A” TALDEA

azaroal 26 - AZPEITIA/ Abenduak 3 - GERNIKA

Murua - Sarasua - Mendizabal - Areitio - “Mañukorta” - “Loidisaletxe II” - Lertxundi - Telleria.

“B” TALDEA

Azaroak 26 - AZPEITIA / Abenduak 3 - GERNIKA

Egaña - J. Enbeita - Lazkano - “Euskitze” - Sorozabal - Otamendi - Zendoia - Larrañaga.

FINALA

Aurreko Txapelketako Txapelduna eta bigarrena, hau da, Sebastian Lizaso eta Jon Lopategi, zuzenean heldu dira final honetara. Hauei finalerdietako 6 lehenak gehitu zaizkie.

Abenduak 17 - DONOSTIA

Lizaso - Lopategi - Egaña - “Euskitze” - J. Enbeita - Murua - Lazkano - Mendizabal.

Txapelduna: JON LOPATEGI

BERTSOA EPAITZEKO ERIZPI-DE NAGUSIAK

Aurtengo Txapelketa Nagusian epaimahaiak erabili dituen erizpide hauek, Zestoan (1989-04-8an: Joan M^a Lekuona, Joxe M^a Aranalde, Jesus M^a Etxezarreta, Patxi Goikolea, Joxe M^a Arrieta, Rufino Iraola, Joxerra Garzia, Jesus M^a Mendizabal, Joxe M^a Gabiria, Arantxa Arruti, Luis Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Antton M^a Aldekoa-Otalora, Trino Azkoitia eta Joxe Urroz-ek) eta Donostian (1989-04-15ean: Juan M^a Lekuona, Rufino Iraola, Joxerra Garcia, Arantxa Arruti, Jesus M^a Mendizabal, Iñaki Sarri-

ugarte, Trino Azkoitia, Joxe M^a Gabiria, Mixel Itzaina, Inozentzio Olea, Jean Pierre Etxegoin, Jesus M^a Etxezarreta, Joxe Urroz, Patxi Goikolea, Antton M^a Aldekoa-Otalora eta Luis Baraiazarra-k) egindako bileretan eta ondoren Txapelketa honetarako izendatuak izan diren epaimahaiokoe eta ordezkoe landu, eztabaidatu eta ornatuak dira.

ORIENTABIDE NAGUSIAK:

Bertsozaleak berekasa egin ohi duen antzera jokatu behar du, orohar, epaileak: bertsoak entzun, dastatu, eta beregan sortzen duen inpresio hori nolabait kuantifikatu, teknikakerietan galdu gabe.

Honako sailkapen oinarritzko hau proposatzen da, Txapelketarako:

- Bertso aparta.....10/9 puntu
- Bertso oso ona8 puntu
- Bertso ona7 puntu
- Bertso BALEKOA 6/5 puntu
- Bertso txar samarra4 puntu
- Bertso txarra3 puntu
- Bertso oso txarra.....2/1 puntu

Ikusten denez, BALEKO BERTSOAREN konzeptua da sailkapen horren oinarri. BALEKO BERTSOA, akatsik eta meritu nabarmenik gabeko bertsoa izan liteke, baina baita akats hainbat meritu dituen era.

BALEKO BERTSOAK 6tik 5erako puntuazioa izango du, eta hortik GORAKO nahiz BEHERAKO puntuazioak justifikatu, arrazoitu egin beharko dira. Hain zuzen, ondoren zehazten diren erizpideen arauera:

I.- Gaiari dagozkion erizpideak

1.1. Gaiak eskeintzen dituen bide GUZTIAK dira onargarri. Ez dago gaia estu-estuan hartzerik. Gai baten osotasunari helduko dio batek, xehetasun bakar bati bestek... denak ere zuzen.

1.2. Halere, gaia zabaltzea, zehaztea, xehetasun berriz hornitzea baloratu egingo da. Eta gaitik nabarmen aparte aritzea ez da ontzat hartuko.

1.3. Ofiziotako lanean, elkarren arazoiei jarraitzea oso positibotzat joko da, gaiaren barruan beti ere.

1.4. Ofiziotako lagunak okerreko papera hartuko balu, meritu handizat joko da bertso bidez onbideratzea. Zuzenketa egin, eta ahalik azkarren hariari heltzea gomendatzen da, hale-re.

1.5. Topikoen erabilera gehiegia txartzat hartuko da. Baina norberaren nahiz inoren bertsoen aipuak zilegi dira, egoki eta berariaz sartuz gero.

1.6. Bertsolaritza jendaurreko iharduna denez, ez dira txartzat hartuko entzulegoari, giroari, nahiz gaiari eginiko erreferentzia erretorikoak. Adibide ederrik ere bada tradizioan:

“Hauxe da gai polita
orain niregana...” (Uztapide)

II. Hizkerabideari dagozkion erizpideak

Bi dira hemen erizpide nagusiak, gainontzeko guztiak laburbiltzen dituztenak.

1.- Bertsolaritza ahozko iharduna da, eta ez dago, beraz, idatziaren arau fonetiko, gramatikal eta abarrik estu-

estuan ezartzerik. Are gehiago: komeni ere ez da komeni hala egitea.

2.- Baina jendaurreko iharduna ere bada bertsolaritza, eta HIZKERA PUBLIKOARI dagokion maila behar du.

Gainontzeko erizpideak, esan bezala, bi nagusi horien ondorio besterik ez dira:

2.1.- Joskera: hizkuntza behartu gabe, hizkuntzaren berezko taxua bortxatu eta hautsi gabe behar du.

2.2.- Erdal hitzak: Arrazoi estilistikoengatik erabili izan dira maiz, eta horrela denean sarigarri gertatzen dira. Baina arrazoi jakinik gabe, zabarke-riaz edo errazkeriaz sartzen direnean itsusi ematen du oso.

2.3.- Lokalismoak: Euskalki guztiak onartzen dira, baina aipaturiko JENDAURREKO GUTXIENKO maila horren galbahetik paseak, noski.

2.4.- Hitz eraldaketa eta laburduretan, tradizio bat dutenak onartzen dira, beti ere forma osoa hobetsiz. Bakar batzu baino ez aipatzaren:

ez dira eztia
ez ziren etzian
gero ere gerore
egin ein, iñ...
behar dugu biauğu

2.5.- Nolanahi dela ere, laburdura eta hitz jate horiek ez dute bertsoaren nota neurri handiz aldatuko. Hori bai, aukeratutako forma berdina behar du bertso osoan. Ez, adibidez, GERADE lehen puntuan, eta GARA edo GERA bigarrenean.

2.6.- Emandako paperari dagokion erregistroa erabiltzea baloratu egingo da. Noiz HITANOA; noiz BERORRIKA behar duen ...

2.7. Figura literarioetatik datorkio bertsoari bere indarra. Asko dira bertso tradizioan erabiltzen diren baliapide literarioak. Hona hemen horietako batzu, adibide gisan:

IRONIA ez apaiz jaun guztiak
berdin direlako
baizik batek bidurra
saltu zidalako.

METAFORA miseriaren adarrak...
zezena sartu zaie
kala baioneta...

IRUDIA Loreak udan ihintza bezala

ERREPIKAPENA

Hiru relejo, hiruna kate
hiru mailakin bakoitza,
buruan berriz hiru korona
petxuan hiru orratza.
Hiru doblako amoriua
tximista bezain zorrotza,
hiru tirotan utzi zizuten
zuri senarra hilotza...
Hiru ezpatak zulatzen dute
señora, zure bihotza.

PROGRESIOA

(Aurrekoak balio dezake)
Zuretzat ez da eskuarerik
zuretzat ez da arraitzik
zuretzat ez da Iturriotzik
zuretzat ez da Larraitzik.

ERRETIZENTZIA

Gaztek galdu dugula
esan gabe doa.

ONOMATOPEIA

Tarrapatapan bandoa joaz...

III. Metrikari dagozkion erizpideak

3.1. NEURRIA

3.1.1.- Edozein bertso moetak du, berez, 10eko mota iristeko eskubiderik.

3.1.2.- Halere, epaimahaiak kontutan hartuko du aukeratutako (edo ezarritako) bertso moetaen zailatasuna, onerako nahiz txarrerako.

3.1.3.- Zenbait doinuk beste neurri batzutarako bidea ematen duen arren, zortziko txikiaren neurria 7/6 da.

3.1.4.- Etena ere doinuaren arabera erabakitzen da. Zenbait doinuk ez du etena egitera behartzen, eta horietan noski etena egin beharrik ez dago. Nolanahi ere, ez da pekatu larrizat hartzen etena puskatzearena.

3.1.5.- Larriago eta itsusiago da askoz, lerrotik lerrora hitza puskatzea.

3.1.6.- Betegarriak garbi-garbi neurri arazoan konpongarri direnean, itxusi dira oso.

3.1.7.- Azken aldiandian diptongoak puskatzeko joera nabari dugu zenbait bertsolariengan: ga-ur, za-it... eta abar. Garbi dago, hitz guzti horiek SILABA BAKARREKOak direla eta hala erabili behar lirateke.

3.2. ERRIMA

3.2.1.- Atzizkiak eta salbu, zenbat eta hoskidetasun handiagoa, orduan eta errima hobeagoa izango da, noski. Hitzen sustraien hoskidetasunak du garrantzia.

3.2.2.- Potoaz baino potoez hitzegtari egokiago deritzogu, ez baita berdin LAPSUS LINGUAE batez egindakoa (hitz bat pentsatu eta beste bat esan, garbi geratzen delarik), eta bertsoak alde egindakoa ezinbestean sartutakoa. Halere, potoa beti da zigorgarri, besteak beste bertsolariak ere hala sentitzen dutelako, eta puntu batetik hirurako nota jaitziko da.

IV. Beste

4.1.- Doinu egokiak badu bere xarma, eta hori ere balora lezake epaileak.

4.2.- Bertsoa kantatzen hasterako denbora luzeegiak itxusi ematen du, giroa hautsi egiten du. Orobat puntutik punturako gehiegiko isilaldiek.

4.3.- Sei puntu edo gehiagoko bertsoetan, ERRIMA ALDAKETARIK EZ DA ONARTUKO.

Donostian, 1989ko Irailak 21

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEKO EPAILE BILTZARRA

PUNTUAKETA ETA SAILKAPE- NA

Epaimahaikoek ez dute puntuazio-rik erakutsi bapatean eta jedeaurrean gero publikatu badira ere. Bertsoa entzun ala, epaimahaikideek beren puntuazioa idazkariei pasa diete hauen ardua izan delarik batuketak eginesta sailkapena burutzea. Sailkapena egiteko, sistema hau erabili da.

Epaimahaiko bakoitzak emandako puntuazioaren araberrako sailkapena egin da; ondoren, epaimahaiko bakoitzaren sailkapenean bertsolariak lortutako postuak baturik koefiziente txikiena duenetik handiena duenera sailkatuz burutu dira sailkapen orokorrak. Berdinketa, puntu gehien dituenaren alde erabakiko litzateke.

1.989-ko Bertsolari txapelketako bertsorik onentxoena emen agertu nai nituzke, finalean parte artu zuten danak aipatuaz.

Goizeko Agurra.

(Enbeita)

Lizaso, Lopategi,
ditugu txapelgai,
Egaña, Lazkano ta
“Euskitze” ere bai,
Murua, Mendizabal
gaur dituzte etsai,
Enbeitak ere ez du
aukera galdu nai,
bederatzi artzai,
ditugu epaimai,
ezin eman danai,
ta ez daude lasai,
txapel bakarra eta
zortzi buru zai. (bis)

Ofizioak emanda:

Xabier Perez “Euskitze” - Andoni Egaña

Gaia: Egañak, bertsotan entrenatze-ko, entrenatzaile bat behar duela eta periodikoan anuntzio bat jarri du. “Euskitze” aurkeztu zaio entrenatzaile.

Doinua: Pello Joxepe tabernan dala

“Euskitze”

Entrenatzeko anuntzio bat eskura etorri zait neri,
Andoni Egaña ezin lezake nor-nairen eskutan segi,
batetik buru argia eta bestetik sen geiegi,
hutsaren pare utziko ditu Lizaso ta Lopategi.

Egaña:

Txapelketa bat badator eta prestatu nai nuke bapo,
mutil gazte bat urreratu zait naiko txulo, naiko guapo,
kazador bat guztiz snow-a ta galtzetan franja pranko,
piura txarra iruditzen zait esparring on batentzako.

“Euskitze”

Esparringari burla egiten hasi zaio alajaina,
baina besteei babesik gabe ezin hartu die gaina,
dirudienez bere ustetan oso ona da Egaña,
hala(e)re nekez ikasiko du maizuak dakien haina.

Egaña:

Zu maisutzako onartzerikan
ez dezu, bada, usteko
prestakuntzetan hiru-lau saio
egin nahi nitun asteko,
baina gogorik ez det batere
txolin honekin hasteko,
egokiago ematen dezku
lanbada irakaskateko.

“Euskitze”

Nik lanbadaz gain zu hezitzea
hartu nai det nere kargu,
trebe samarra jarri zaitzke
sartu ezkeror mila ordu,
nere buruak zure etsaiak
estudiatzen dihardu,
Azpeitiarre irabazteko
hango maisua behar du.

Egaña:

Iragarki bat erantzun naian
prestatu zera lanera,
zetorren ustez jarri nai dezu
Andoniren esanera,
berriz txapela eraman gura
hauek Azpeiti aldera.
espia lanak egingo ditu
Lizasoren mesedera.

“Euskitze”

Hara Zarauzko gixa(ra)jo honek
ze oilar planta dakarren,
burua arin samarra eta
lojikaz erabat herren,
leziorikan ez dit hartu nai
nik merke eskeni arren,
besterik ez du merezi eta
gera bedi zortzigarren!

Egaña :

Besteak lana egin beharko
neri txapela jateko,
traturik ezin degu egin da
garaia dezu joateko,
baina aurretik badaukat zerbait
zuri lagun esateko,
biboezia jaio zinala
esparringa izateko.

LAU OINAK EMANDA

Jon Lopategi

Oinak: bizio, desio, balio, dio

Txapelketak sortzen du
hainbeste bizio
sari bakarra baina
guztiak desio,
“Beltza txapeldun da gaur
jende denak dio,
baina hainbesterako
nik ez dut balio

Jon Enbeita

Oinak: hondarreta, arreta, erreta,
gordeta

Zeruak ere ez du
gurekin arreta,
ur haundi zikindua
dugu Hondarreta,
eta mendi guztiak
bart suak erreta,
zenbat zigor daukagu
guretzat gordeta. (bis)

Imanol Lazkano

Oinak: hori, askori, erori, histori

Txapel zazar horrekin
hoinbeste histori,
inbiria ematen
bait die askori,
nik helburu bakartzat
ez dadukat hori,
eskatzen dedana da
ez nadila erori.

Xabier Perez "Euskitze"

Oinak: opari, ari, nabari, ugari

Neure gainean badut
presio ugari,
paperean ez al zait
dardara nabari?
Ni neure buruari
ez natzaio ari,
saio hau izan bedi
zuentzat opari.

Sebastian Lizaso - Jon Lopategi

GAIA: Zuek ama-alabak zarete,
Lizaso ama eta Lopategi alaba.
Lopategi, alabak, hemezortzi urte ditu;
negarrez dator gaur etxera nobioak
utzi egin duelako.

Doinua: Espanjan behera

Lizaso: Etxetik irriparrez
zinadena jua,
orain zergatik zatoz
zatozen moduan?
Kontsolatu zaitea
amatxo(re)n onduan,
naizta lengo kuttuna
eduki goguan,
mutil gehiago ere
badaude munduan. (bis)

Lopategi: Lehengoa nuen da
hainbeste arazu,
ama kontsolagarri
beri izan zara zu,
batekin nenbilen ni
gogoz jo eta su,
nere galdera honi
egiozu kasu:
zenbatgarren gizona
etxean daukazu? (bis)

Lizaso: Aukera berekin du
maitasun jokoak,
ez ninun engainatu
lendabizikoak;
kontu izan dotore
tente ta guapoak,
aukeran daduzkaku
hura hainakoak,
irri bihur ditezen
dauzkazun malkoak. (bis)

Lopategi: neska polit ederra
gainera gertuko,
ni galtzean ez dauka
neuk hainbeste luto,
ez dakit zer dadilen
tranpa edo truko,
bakarra maite dut nik
mundua lekuko,
berakin ezin badut
ez naiz ezkonduko. (bis)

Lizaso: Sufritzeko ez zinan
jaioa mundura,
eta aldatu zazu
daukazun itxura,
hau diozut alaba
bihotz ta burura,
berriz etorriko da,
ez izan ardura,
gozo(a)go izaten da
kostatako hura. (bis)

Lopategi: Abisua entzun du,
entzun du ahotsa,
nere deia beti da
bizi ta zorrotza,
malezi gabe egin
nion nik aitortza,
eten hau izango al da
labur edo motza,
bere zain e(d)ukiko dut
nik beti bihotza. (bis)

SEI ERRIMA BERDIN EDO GEHIAGOKO DOINUA ETA NEURRIAN HIRUNA BERTSO

Jon Lopategi

GAIA: Herriko bi lagun atera zineten Everest gailurrera. Mendi ezagun horren azken maldan zure lagunak is-tripu latz bat izan zuen. Zu bakarrik izan zinen bere azkenaren testigu.

Mundu hontako justizia ere
hain gertatzen da urria,
gutxien uste dugun garaian
bait dator gaitz bihurria,
munduan dagon goi altuenari
hartu naiean neurria,
hona bikote oso zalea
martxa haundian jarria,
baino bere(ha)la buka zitzaigun
ilusioen argia,
hau da ene aldarrria
minbera eta larria,
lagunarekin biok genduen
Everesten egarria,
azken boladan hola galtzea
ez al da negargarria?

Ondo betea jarri genuen
jan edaritan saskia,
subentziotan hornitu ere
ibilera garestia,
bion bihotzak sentitzen zuen
espedrantzaren izpia,
Everest gaina ia eskuan,
ibilera amestia,

baina ozpina agertutzen da
aienatu zen eztia,
hargatik nire abestia,
sentimentutaz bustia,
Everest punta genun amesa,
hura gendun eguzkia,
baina laguna eroritzean
itzali zaigu guztia.

Jarraitu naita, jarraitu ezin
bihotza jarri zait armin,
zeinek pentsatu gure irteran
guretzat hainbeste lorrin,
galdu ditugu lagunarekin
gure hainbat ames gordin,
hala ta guztiz Everest berriz
jarri zaigu argi urdin,
ez ninteke ni bide erdietan
gelditu inola erkin,
ez naiz sentitzen atsegin,
baina segitu nai berdin,
punta hortara ailegarzeko
saiatuko naiz beinipein
lagunaren ta nire izena
bertantxe idatzi dadin.

Mikel Mendizabal

GAIA: Zakurkume bat zaitugu.
Zortzi zakurkume egin ditu zure amak,
zu tarteko. Nagusiak bizirik bat baka-
rra uzteko asmoak ditu ...

Txakurkumetxo bat naiz
falta dut indarra,
eta nere bizitza
doa azkarra,
jakin dan albistea
ez bait da edarra,
ume txikiontzako
da gogor samarra,
hau da zoritxarra,
hau gure negarra,
bizirik bakarra,
zortziretatik zazpi
buka beharra. (bis)

Txakurkumeok gaude
triste eta umil,
gure barru gaixoa
ez dago trankil,
bizitzeko sortu da
hainbeste maratil,
nagusia adizu
ez bait nago isil,
eskea badabil,
guregandik hurbil,
bihotza da pil-pil,
saldu gaitzazu baina
ez gaitzazu hil. (bis)

Zure jokabidea
hain da nabarmena,
ez al da, ba, tristura
honek duena?
Ez zazu hola estutu
zerorren barrena,
saltzea izango da
irtenbide dena,
biderik onena,
hemen dagoena,
hori da denena
edo izango dezu
betiko pena. (bis)

Jon Enbeita

GAIA: Zuk, atzerritarra izanik,
Euskal Herrian eraman duzu ia bizitza
osoa. Gaur jubilatuta bazoaz zeure sor-
terrira ...

Neurria: Berezia

Doinua: Munduko ilunabarra

Munduko ilunabarra,
adinaren zoritxarra,
ahultzen dijoa indarra,
baina ez barneko garra,
etorri nintzen herri hontara
berau zen nire izarra,
bertan utzi dut izerdia ta
zorionaren aparra,
bertan uzten dut nire irria
ta bertan nire negarra,
berriro neure jaio etxera
daukat itzuli beharra,
baina ez zaitut inoiz aztuko
ene Euskal Herri zarra. (bis)

Esan dut mila gorespen,
hitz bat ere noa jeisten,
adinak gaitu bereizten
ta albo batera uzten,
baina edadez gizonak dugu
gauza zuzenak ikasten,
esperientzian gure bihotzak
asko bait du irabazten,
zu agurtzean nire hesteak
dirudi direla hausten,
baina bizitza zugandik urrun
hain zaila bazait erizten,
hil aurretikan etorri nai dut
berriz ere zu ikusten. (bis)

Kanta izan dizut sarri,
hamaika abesti barri,
baina gaurkoan naiz larri,
joatea da mingarri,
zu ikusteko ardurak nindun
garai haretan ekarri,
ezagutu ta gure bihotzak
oratu ziren elkarri,
ordutik hona ni izan nauzu
hau esateko egarri,
ni banijoa nere etxera
adinez bait naiz elbarri,
baina zu beti izango zara
nire bigarren Aberri. (bis)

Jon Enbeita

Oinak: dira, erdira, bira, begira

Begiak gau argitan
tira eta bira,
izarrak desiratzen
zerura begira,
zuek ere begitu
zeru goi-erdira,
argitsuenak geure
gudariak dira.

Sebastián Lizaso

GAIA: Bizitza guztia itsasoan eman
duzu: Gaur egun ohetik mugitu ezinez
zaude. Leihotik sartzen zaizu itsasoa-
ren olatu hotsa.

Aita zana (e)re marinela zen
ta bizioa ezarri,
lehenak eta orainak nola
dakarren hainbat lokarri,
gaztetatikan sentitzen nitzan
itsasoaren egarri,
ontzi batean len ere musu
eman genion alkarri,
hura juan zan eta geroztik
nabil estu eta larri,
neretzat ere urteak pasa
ohean nago elbarri,
olatu hots horiek dirade
neretzako bizigarri.

Naiz marinela sarri ez izan
merezi hainbeste gradu,
lagun zirana(r)i orain ohetik
zerbait nai diet bialdu,
zoritxarrean gauzak estu ta
langabezia ugaldtu,
baina hala(e)re nere lagunak
itxaropenik ez galdu,
geroa ere bistan dago ta
naiz etorkizuna zaildu,
segi uretan ofizioa(r)i
ahal degun bezela heldu,
arrai freskoa lasai ekarri
portuan (ah)al bada saldu,
lurrean ere zer janik ez da
urak ematen ez badu.

Hamaika ordu uretan pasa
eguzkitik ilargira,
gauean ere polita baita
itsasoaren dizdira,
ez dakienak zail da jakiten
han oi degun ikusmira,
ni hemen baina nere lagunak
oraindik han ari dira,
aitonazartu egonagatik
batere ez zait kupira,
oroitutzen zait len egindako
horrenbeste jira-bira,
egunen baten irtetzen banaiz
ni etxeko atarira,
azken arnasa eman nai nuke
itsasoari begira.

Murua : Barrena goibel neukanez
naiz eta jardun benetan,
bertsorik ezin gozatu
horrelako egunetan,
zortzigarren bat behar zan
inor ez egon penetan,
denak egurtuko ditut
datozen lau urteetan.

Eta, azkenik, txapeldunaren hiru
bertsok itxi zuten Txapelketa Nagu-
siaren leihoa.

Jon Lopategi

Neurria: 10eko Txikia

Doinua: Hamalau heriotzena

Iñaki Murua:

Bertsoaren azkena emanda:

Nere alabatxoa
nai nuke omendu,
baina gaixo daukagu
zerbait ba omen du,
etxean nai nukeen
luzaro mantendu,
haren iruditxoa
buruti(k) ezin kendu,
asko maite duenak
asko sufritzen du.

Ondoren zortzi finalistek, saria jaso
ahala, agurra kantatu zuten.

Neurria: 8ko Berezia

Doinua: "Trikitixaren sorleku"

Lendabizi mila esker
bihotzez denari,
batez ere aurrez dauden
nere ikasleri,
txapela ematen zaio
gaur edozeineri,
eskaini nai nioke
pentsatu zeineri,
jantzi gabe joan zen
Fernando Eireri.

Baina badut Bizkaian,
badut nik laguna,
hirutan etorri ta
bitan jaso zuna,
gaur hemen egon nai ta
ezin izan duna,
bera eztarri minez,
emazte haurduna
txapelez agurtzen dut
bere etorkizuna.



S. Lizaso, I. Murua, M. Mendizabal eta Jon Lopategi.



A. Egaña, X. Euskitze, Jon Enbeita eta I. Lazkano.

Baina familirako
ere egin dut lana,
nirekin sufrituko
zuten gaurko zama,
seme eta alaba
eta etxeko dama,
astuna izan da baina
amaitua dana,
lagunok agurtuta
hor naiz zuengana.

Iñaki Eizmendi “Basarri”k, Jon
Lopategiri txapela buruan ezarri ondo-
ren, bertso bat eskaini zion entzulego-
ari

“Basarri”

Neurria: 10eko Haundia

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurre-
ko

Ekarri naute garaileari
txapel eder bat jaztera,
bertsolariok jarrai gogotsu
herri batetik bestera,
gure lurrean guk ez daukagu
zertan egon buruz bera,
une honetan aitor dezagun
bagera edo ez gera,
bertsolaritza bizi dan arte
biziko baita euskera.



Basarri Lopategi,ri txapela jazten.



Jon Lopategi, Txapelduna.

BERTSOLARIEN OMENALDIAK /

Bertsolari eguna

HISTORIA

Donostiako Udalaren CAT/KTE zerbitzuaren buru Jose Salaberria zela hasi ziren BERTSOLARIEN OMENALDIAK.

Eguna San Sebastian jaien barruan zen eta aurrengo 68ko Urtarrilaren 21ean izan zen, Uztapideri.

Lekua, hasieratik eta aurrengo sei saiotan, Astoria Antzokia izan zen. Ondorengo lau omenalditan, (76-79) Carmelo Balda Pilotalekuan bildu ziren. 81-82 Anoeta Pilotalekuan izan ziren. 83koa Balda berriro eta gainerakoak Astorian berriz ere, 86tik aurrera Victoria Eugenia izan dira ondorengoak.

Hasieran, omendua aukeratzeko sistema, omenaldira bildutako entzuleen botoz erabaki zen, sarrera txarteletan jartzen zuten hurrengo urteko omenduaren izena. Omenduaren izena bazkalondoan jakinerazten zen eta berori bihurtzen zen bertsotarako aitzaki berri. Horrela aukeratuak izan ziren:

1.969an Fernando Aire XALBADOR; 1.970erako Manuel LASARTE, honen omena 1.971. urtean ospatu bazen ere, 70ean “Estado de excepción” zegoelako ezina izan baitzen. 1.972an MATTIN Treku; 1.973an Iñaki Eizmendi “BASARRI”; 1.974ean

Balentin ENBEITA; 1.975ean Pedro Ortuzar “ITURRI”; 1.976an Jose Migel Iztueta LAZKAO TXIKI; 1.977an Jose LIZASO; 1.978an Jose Joakin MITXELENA; eta 1.979an Jose AGIRRE “ORANDA”.

Omenaldi hauek zeramaten mar-txan oso gazterik omentzera zetozen bertsolariak eta hori ez zen oso begi onez ikusten bertsolarien aldetik. 1.979ko entzuleen botoek Imanol LAZKANO atera zuten hurrengo urteko omendua izateko, honek ez zuen ordea onartu 43 urterekin omenaldirik eta horrela antolatzaileek bigarren botorik gehien zuen ETXAUN IRURIKOREn izena zabaldu zuten, 1.980. urteko omendu bezala. Etxahun bere omenaldi eguna baino lehen hil zen. Entzuleek aukeratzeko modurik ez zegoen eta zerbait egin beharra zegoen. Urte horretan eta urte haseran 1.980ko txapelketaren azken saioa jokatu zen Donostian. Urte horretan omenaldirik ez egitea erabaki zuten, honekin nahiko zelakoan.

Bertsolariak hasirik zeuden bilerak egiten eta batzorde bat ere bazuten. Batzorde horietan erabaki zen handik aurrerako omenaldiak bertsolarien artean aukeratzuz egitea. Ez zen bidezko bertsolari gazteak omentzea, bertsolari izandako eta erretiratutako bertsolariez

jendea ahazten zen bitartean. Horrela, batzorde honek 1.981erako Paulo Zubiarrain "PAULO TXIKIA" eta Antonio Mari Eizmendi LOIDI SALETXE proposatu zituen eta horrela omendu ziren.

Urte horretararte OMENALDIA bazen ere hitza, hortik aurrera, BERTSOLARI EGUNA deitzen zaio, omendua izanik ere egunaren ardatza.

Gai-jartze lanak ere haseran Basarrik eta gerora Jose Mari Iriondok eginak izan ziren baina urte honetan hasien dira Bertsolarien Batzordekoak ere parte hartzen. Horrela, urte horretan, Jose Mari Iriondok eta Sebastian Lizasok egin zuten lan hori. Aurrerantzean bertsolariek egingo dute lan hori, Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruak, Millan Telleria eta Mikel Mendizabalek ere urteren batetan baina azken hauetan Iñaki Murua eta Xabier Euskitzek egiten dute.

Omendua jaialdiaren aurretik erabakia izan arren ez da jaialdi amaiera arte zabaltzen. Omenduaren agurren ondoren, hurrengo urtekoaren agurrak ere izango dira. Era honetan omendu dira:

1.982an Jon MUGARTEGI; 1.983an Manuel Sein XANPUN; 1.984ean Txomin GARMENDIA; 1.985ean Jesus Alberdi EGILEOR; 1.986an Patxi ETXEBERRIA; eta Jon AZPILLAGA 1.987an.

1.986ko Txapelketa Nagusiaren ondoren Bertsolarien Elkarte bat ere sortzen da eta horrek Bertsolari egun baina Omenaldi gehiago ziren egun hauek, benetako BERTSOLARI EGUN

baten esanahiz, hornitu nahi lituzke. BERTSOLARI EGUNA jartzen da programetan. Egun honen inguruan beste zenbait ekintza ere antolatzen asmoak daude aurrerantzean. Omendua, bertsolaria edo bertsozalea izan daiteke, hau da Bertsolaritzaren alde lan egin duen edonor. Omenduak Euskal Herriko Zuzendaritza Batzordeak aukeratuko ditu aurrez egin diren proposamenen artean. Erabaki hauek 1.989. urtetik aurrera beteko dira. 1.988koa aurreko urteetan bezala egiten da eta omenduak Bautista eta Xalbador MADARIAGA izaten dira. Eta 1.989rako aukeraketa ere lege zaharrean egiten da, Batzarrak LEXOTI oiartzuarra aukeratzen duelarik eta beste urtetan.

1.990- Joxe Alberdi eta Basilio Pujana.

1.991- Patxi Iraola eta Florentino Goiburu.

1.992- Hernandorena, Emile Larre eta Mariano Izeta.

1.993- Aita Onaindia eta Alfonso Irigoien.

Jaialdi hauek, haseratik bertatik, ondoren, lagunarteko bazkari bat izan dute beti, bertsolari, bertsozale eta omenduaren senitartekoz osatua. Bazkaltiarrez gain bazen eta bada bazkalondoko giro horretaz gozatu asmoz biltzen denik. Hasera hartan, hurrengo omendua zein izango zen jakitearren ere bai.

Bazkari tokiak honako hauek izan dira:

Zazpi bat urtetan edo URBIA JATETXEA eta BUENA VISTA beste

seitan. Hauez gain, LA SALLE IKAS-
TETXEA, UDALETXE AZPIA, BE-
LODROMOA, ANOETA PILOTALE-

KUA, HIRU ELKARTETAN, HO-
TEL COSTA VASCA eta LASARTE-
KO “DANA ONA” jatetxean.

**BERTSOLARIEN OMENALDIAK
ETA OMENDUEN DATUAK**

1.- MANUEL OLAIZOLA URBIETA

“UZTAPIDE”

1.909-V-10ean jaio, Endoiako “Uztapide” baserrian. Zestoa.

1.952-V-10ean Oiartzunen ezkondua.

1.983-VI-8an hil zen.

OMENALDIA: 1.968-I-21ean Astoria Antzokian.

Garaiko bertsolari onenek kantatu zuten bere omenaldian.

MANUEL OLAIZOLA URBIETA

“UZTAPIDE” :

* Txapelketa Nagusia: 1.936an 2.; 1.960an 2.; 1.962-65-67etan 1.

* Gipuzkoako Txapelketa: 1.959an

* 1.968ko sariketan: 4. postuan.

DONOSTIAN 2. omenaldia egin zitzaion Uztapideri. Bera erdi gaixo eta ez zuen joaterik izan. Nolanahi ere bertso batzuk bidali zituen.

Kantu lanean asiak ginan
asko bezela gazterik,
ez nuan uste nere burua
era ontan ikusterik;
nere denboran ez det pasatu
olako egun tristerik,
orain ez daukat ari diranai
eskerrak eman besterik.



Uztapide

2.- FERNANDO AIRE

“XALBADOR”

1.920-VI-19an jaio, Urepelgo “Xalbador” baserrian.

1.976-XI-7an hil zen bere omenaldi egunean Urepelen, Leoni Etxebarre bere emaztearen eskuetan.

OMENALDIA: 1.969-XI-21ean, Astoria Antzokian.

Bertsolariak: Uztapide, Mitxelena, Lasarte, Arozamena, Lazkao Txiki, Mattin, Lazkano, Garmendia, J. Lizaso eta Gorrotxategi.

FERNANDO AIRE


“XALBADOR”

* Txapelketa Nagusian: 1.960an 4.; 1.962an 3.; 1.965ean 3.; 1.967an 2.; 1.968ko Sariketan 2.

* Xenpelar Sariko bertso idatzietan: 1.972-73-75-76ko sariak.

ODOLAREN MINTZOA liburutik
“GIPUZKOA MAITEA”

O Donostia eta
zure ingurua
zu gabe zer zitaiken
enetzat mundua?
iduri zaut artean
nintzela galdua
eta zutan aurkitu
neronen burua.



Xalbador

3.- MANUEL LASARTE ARRI-BILLAGA.

1.927-XII-16an jaio, Leitzako “Franki” baserrian.

12 urterekin Aiara etorri eta Orion bizi da bere familiarekin.

OMENALDIA: 1.971-III-19an, Astoria Antzokian.

Bertsolariak: J. Lizaso, Lazkao Txiki, Uztapide, Mattin, Xalbador, Arozamena, Lazkano, Basarri, Gorrotxategi.

MANUEL LASARTE:

* 1.968ko Sariketan 3.postua.

Omenaldi egunean kantatutako bertsoa:

Maite zaituztet anai arrebak
ez det beste zer esanik,
ainbeste jende nola bildu dan
ni ezerez bat izanik.
Zuen morrontzan jarraitu nahi det
gaur ematen det itza nik
ez nuen uste Euskal Errian
olain maitea nintzanik



M. Lasarte

4.- MATTIN TREKU.

1.916-XI-11an jaio, Ahetzeko Harrieta baserrian. 1.940an herri bereko Mulienea baserrira joan zen bizitzera.

1.947an Mari Olandegirekin ezkondua.

1.981eko uztailaren 22an hil zen.

OMENALDIA:

1.972-I-16an Astoria Antzokian, bozgorailuak kanpora jarri zituzten jendea barruan kabitzen ez zelako.

Bertsolariak: Uztapide, Lasarte, Xalbador, Lazkano, Agirre, Lizaso, Arozamena, Garmendia, Azpillaga, Lopategi, Gorrotxategi, Lazkao Txiki eta J. Lizaso.

MATTIN TREKU:

* Txapelketa Nagusian: 1.960an 5.; 1.962an 7.; 1.965ean 5.; 1.967an 8.

* Iparraldeko txapelketa: 1.974-52ko txapelak

* 1.968ko Sariketan 6.

Omenaldi egunean kantatua:

Egun guztiez ez da ikusten
holako edertasuna
hau ikusita gogoratzen zait
gauza bat leno entzuna
munduko gauzik onenak dira
dirua eta osasuna
nik hoiek baino gorago daukat
lagunen maitetasuna.



Mattin

5.- IÑAKI EIZMENDI MANTE- ROLA

“BASARRI”

1.913-XI-27an Errezilgo “Granada” baserrian jaio.

Zazpi urte zituela Zarautza joan bizitzera bere familiarekin.

1.945. urtean Maria Aginagalderekin ezkondua.

OMENALDIA:

1.973-I-21ean Astoria Antzokian.

Bertsolariak: J. Lizaso, Egileor, Lasarte, Xalbador, Garmendia, Gorrotxategi, Mattin, Uztapide, Mugartegi, Lazkano, Arozamena, Etxeberria, Agirre, Igarzabal eta Mitxelena.

IÑAKI EIZMENDI

“BASARRI”

* Txapelketa Nagusian: 1.935ean 1.; 1.960an 1.; 1.962an 2.

* Gipuzkoako txapelketa: 1.945ean

* Iparraldeko txapelketa: 1.949-50-51-54

* 1.968ko Sariketan 1.

Omenaldi egunean kantatua:

Anai-arrebok, zer portamena izan dezuten nerekin!

Hainbeste maite ninduzutenik gaur arteraino ez nekin.

Gure Donosti berdingabea egiazko euskal jardín usaintsu dago, bada danetik lirio, arros, krabelin.

Ai! giro honi eutsi zaiogun ez dezala aldegin,

gaxorik dagon gure hizkuntza lehenbailehen sendatu dedin.

Ez dakit nola eskerrak eman ez dakit nola hitzegin.

Nik gauza gutxi merezi nuen eta zuek asko egin.



Basarri

6.- BALENTIN ENBEITA GOIRIA

1.906-V-20an Muxikako Usparitxa-Jauregi baserrian jaioa.

1.935ean Zabala-Ormaetxea baserriira ezkondu zen.

1.986-XI-20an hil zen.

OMENALDIA:

1.974-II-3an Astoria Antzokian.

Bertsolariak: Mugartegi, Lazkano, Mattin, Lazkao Txiki, Garmendia, Agirre, Arregi, Arozamena, Mitxeleña, J. Lizaso, Lasarte, Xalbador, Igarzabal, Gorrotxategi, Egileor, Etxeberria eta Abel Enbeita.

BALENTIN ENBEITA GOIRIA

* Bizkaiko Txapelketa: 1.958-59 txapelak.


Bere omenaldi egunean kantatua:

Bertsolaritzan garaitza dala
dirudi gaurko batzarrak
Halan diñube heldu iakuzan
telegramaren izparrak.

Gaur Donostian ikusten ditut
haraitzen zazpi adarrak,
bertso kantuan pozez jolasten
bere orri ta ezkurak.

Bidasoz handik Benabarrakin
Xubero, Laburditarrak,
urez hemendik Bizkai, Gipuzko
Araba eta Naparrak.

Bertsolari bat omendu guran
heldu diran euzkotarrak,
hainbestekorik etzun merezi
kantuban dagon txindorrak.
Guztiaugaitik anaitarreboi
danoi bihotzez eskarrak.



B. Enbeita

7.- PEDRO ORTUZAR
"ITURRI".

1.932-IV-25ean jaio. MUXIKA-AREATZAko "Iturri" baserrian

Gernikan bizi da, Pilar Arrizubietarekin ezkondua.

OMENALDIA:

1.975-II-16an Astoria Antzokian.

Bertsolariak: Balentin, Jon eta Abel Enbeita, K. Lizaso, Lasarte, Azpillaga, Lazkao Txiki, Mattin, Arozamena, Lazkano, Agirre, Lopategi, J. Lizaso, Gorrotxategi, Larrañaga, Garmendia, Mitxelena, Egileor, Arregi, Igarzabal, Etxeberria.

Azpillaga, Lazkao-Txiki, Iturri eta Donostiako Alkatea

Pedro Ortuzar, Iturrik, behintzat ondo igaro zuen. Hori zen beharrezkoa. Esker oneko agertu zen Iturri, behin eta berriz. Hona zer dioen:

Lendabiziko eskertutzen det
biotzez Salaberria,
eta ondoren sari emaille
gure alkate nausia.

Eta nola ez bertsolaria,
ze talde ikusgarria!

Azkenez, berriz, lagundutzero
ona etorri dan guztia.



"Iturri"

8.- JOSE MIGUEL IZTUETA
“LAZKAO TXIKI”

1.926-IX-15ean jaio Lazkaomendiko “Abalei” baserrian, Lazkaon.

Ezkondu gabea oraindik.

OMENALDIA:

1.976-I-25ean, Carmelo Baldan.

Bertsolariak: Haseran 30 bat bertsolariren agurrak: Lasarte, Lazkano, Basarri, Gorrotxategi, Mattin,...

Saioa: Azpillaga, Arozamena, Lopategi, Igarzabal, Xalbador, Agirre, J. Lizaso eta Mitxelena.

JOSE MIGUEL IZTUETA
“LAZKAO TXIKI”


* Txapelketa Nagusia: 1.962an 4.; 1.965ean 2.; 1.967an 4.

* Gipuzkoako Txapelketa: 1.964ean.

* Ordiziako Saria: 1.959an 2.

Bere omenaldi egunean kantatutakoa:

Leengo saioa nere bertsoak
ezin lezake edertu
Baina taupaka daukaten onek
zerbait nai luke agertu.
Zoriona ta negarrik ez det
ikusi gaur bezin gertu.
Orduan ere biotz ilunak
nai zinduzteke eskertu.



Lazkao Txiki

9.- JOXE LIZASO MENDIZABAL.

1.927-III-10ean jaio, Azpeitiko Enparan kalean.

Oso gazterik Txillaramendi bailarako Salaberri baserrira joan zen sasoi-tu arte.

1.957-IV-27an Juli Iraolarekin ez-kondua.

OMENALDIA:

1.977an Carmelo Baldan. Zeharo bete zen. 3.500 lagun.

Bertsolariak: Basarri, Balentin, Jon eta Abel Enbeita, Lasarte, Azpillaga, Lazkao Txiki, Mattin, Joxe Agirre, Gorrotxategi eta Mitxelena.

Bere omenaldi egunean kantatua:

Lendabiziko nere burua
nai nuke zerbait aztertu
Nik errian zer egin ote det
gozatu edo aspertu
bainan alare poz bat dadukat
enazutela baztertu.
Oraindik ere gizon nitzake
baneki nola eskertu.



J. Lizaso

10.- JOSE JOAKIN MITXELENA.

1.924-VII-20an jaio Oiartzungo herrian eta bertan hil da 1.988ko Abenduaren 3an.

OMENALDIA:

1.978-I-28an Carmelo Baldan.

Bertsolariak: Haseran bertsolari mordo baten agurrak.

Saioa: Mattin, Lazkao Txiki, Agirre, Gorrotxategi, Azpillaga, Igartza-bal, Lopategi, Kosme Lizaso.

JOSE JOAKIN MITXELENA

* Txapelketa Nagusian: 1.960an 6.; 1.962an 5.; 1.965ean 4.

* Gipukoako Txapelketa: 1.962ko txapela

* 1.968ko Sariketan 7. postua

Omenaldi egunean kantatutako bertsoa:

Gaur Donostira inguratua
jaunak ez nago damuan
zer edo zer eingo zenduten
errezeloa banuan
anai ta arreba neunei begira
asko daduzkat albu
txalo ta gaiñuntzeko eskeini
nazuten erregaluan
piskabat ondo zegoan baiñon
hainbat merezi al nuan?



Mitxelena

11.- JOXE AGIRRE

“ORANDA”

1.929-IV-13an jaio Azpeitiko Oranda-beheko baserrian.

1.964-I-25ean M.^a Luisa Odriozolarekin ezkondua, Oranda-beheko baserrian bizi da.

OMENALDIA:

1.979-II-11an Carmelo Baldan.

Bertsolariak: Haseran 35 bertsolarien agurrak

Saioa: Lazkano, Lopategi, Xanpun, Azpillaga, Egileor, Mugartegi, Garmendia, Etxeberria eta Gorrotxategi.

JOXE AGIRRE.

* Usurbilgo Saria: 1.959 1.

* Donostiako Saria: 1.962an 2.

* Loiola Irratikoa: 1.963an 1.

Omenaldi egunean kantatutakoa:

Oso arriturikan
nago geratua
oinbeste jende nola
dan inguratua
itxaropen bat badet
neureganatua
ustez ez izan arren
gizon sonatua
Euskal Errian ez naiz
seme sobratua.



J. Agirre

12.- ETXAHUN IRURI

Pierre Bordazarre, bertsulari eta kantaria, Iruri errian jaio zen 1.908. urteko maiatzaren 28.an, eta 1.979 ko urriaren leenengo egunean il zen.

Plazetan ibilia zen bertso kantari Xalbador eta Mattinekin. Baina, batez, ere, kantu eta pastorgintzan lan asko egiña da.

Euskalerrian beti izango da maitatua eta oroitua, besteak beste, bere abesti polit onengatik:

1. Sor lekhia ützirik gazte nintzalarik
Parisen sarthü nintzan korajez betherik
Plaserez gose eta bürian hartürik
Behar niala alagera bizi
Bostetan geroztik
Nigar egiten dit
Xiberua zuri

Errepika:

Agur Xiberua
Bazter güzietako, xokhorik eijerrana
Agur sor lekhia
Zuri ditit ene, ametsik goxuenak
Bihotzan erditik
Bostetan elki, deitadazüt hasperena
Zü ützi geroztik
Bizi niz trixterik
Abandonatürik
Ez beita herririk
Parisez besterik
Zü bezalakorik



Etxahun

1.980-an omenaldirako izentatua baña eguna baiño len il zan.

**13.- PAULO ZUBIARRAIN
PAULO TXIKIA**

“HERNANI TXIKIA”

1.912-IX-26an jaio Ereñozuko Telleria baserrian, Hernanin.

1.943an ezkondu Donostiako Egia-
ra, Manuela Iparagirrekin.

Orain Lasarten bizi da.

OMENALDIA:

1.981-I-18an Anoeta Pilotalekuan,
Loidi Saletxerekin batera.

Bertsolariak: Agurretan 40tik gora.

Saioa: Agirre, Amuriza, Azpillaga,
Enbeita, Ezponda, Gorrotxategi,
Larrañaga, J. Lizaso, Lopategi, Men-
dizabal, Mugartegi, Mitxelena, Murua,
Peñagarikano eta Xanpun.

PAULO TXIKIAK

Eskertu nai zaituztet
al nezaken gixan
guretzako gaiztoak
etzerate izan
erregutuko diot
Jaunari elizan
entzule maite abek
zintzo gorde ditzan
norberen etxian da
geroko bizitzan.

ANTONIO MARI EIZMENDI

“LOIDI SALETXE”


1.913-I-28an jaio Errezilgo “Loidi
Saletxe” baserrian.

1.974-V-30an ezkondu eta bere
jaiotetxean bizi da.


OMENALDIA: 1.981-I-18an kan-
tatutako bertsoa Anoetan Paulo
Txikiarekin batera.

LOIDI SALETXEK

Erregaliak artu ditugu
gaur bi eskuak betian
anai-arrebak portau zerate
gutzizko borondatian
au zoramena, au kontsuelo
olako euskaldun artian
gaurko eguna etzat aztuko
arnasa detan artian.



Paulo Txikia



Loidi Saletxe

14.- JON MUGARTEGI IRIONDO

1.933-VIII-26an Berriatuko “Patrokua” baserrian jaio eta jaiotetxean bizi da Rufina Urruzunorekin ezkondua.

OMENALDIA:

1.982-I-17an Anoeta Pilotalekuan

Bertsolariak: J. Lizaso, Lasarte, Ezponda, Basarri, K. Lizaso, Areitio, Argiñarena, Intxausti, Loidi Saletxe, Paulo Txikia, AGURRA.

Saioa: Azpillaga, Laka, Lopategi, Etxeberria, Narbaiza, Sardui, Agirre, Attola, Larrañaga, Egileor, Gorrotxategi, Olalde, Ziarda, Arregi, Jon Enbeita, Telleria, Peñagarikano, Mendizabal, Garmendia, Mitxelena, Igarzabal, Iraola, Amuriza, Lazkao Txiki, Lazkano eta Xanpun.

JON MUGARTEGI

* Txapelketa Nagusia: 1.960an 8.; 1.965ean 8.; 1.967an 9.

* Bizkaiko Txapelketa: 1.960an

* Loiola Irratiko: 1.967an

Bere omenaldian kantatutakoa:

Gauko eginkizunak

ez dauka azkenik

ez det uste obeto

egin lezazkenik.

Biotzaren zati bat

emango nuke nik

inor balego hemen

artuko lukenik

bestela ez det pentsatzen

ordaindu leikenik



J. Mugartegi

15.- MANUEL SEIN

“XANPUN”.

1.928-XII-21ean Senperen Olagaraia etxean jaioa.

Sei urte zituela Urruñako “Xanpun” etxera joan zen bizitzera bere familia osoarekin.

1.954-X-9an ezkondu zen Anttoni Basurkorekin eta Donibanen bizi da.

OMENALDIA:

1.983-I-23an Carmelo Baldan.

Bertsolariak: AGURRA: Bertsolari sail luze batek.

Saioa: Zeberio, Telleria, Attola, Arregi, Azpillaga, Lazkano, Amuriza, Lopategi, Igarzabal, Agirre, Mitxelena, K. Lizaso, Gorrotxategi, Alkat, Etxeberria, Larrañaga, Egileor, Narbaiza, Mendiburu, Jon eta Abel Enbeita, Lazkao Txiki, Garmendia, Laka, Mihura, Murua, S. Lizaso eta Ezponda.

MANUEL SEIN

* Txapelketa Nagusian: 1.980koan finalista

Bere omenaldi egunean kantatutakoa:

Huna zer dudan edo gaur zeri nago ni hemen iarrik
gure arbola zahar maiteak
ez duela adar iharrik
gehiago ez da erran beharko
ez Hego eta Iparrik
ez berezkuntzik egin sekulan
ez otoi galdu indarrik
erran dezaket egungo Baldan
Euskadi dela bakarrik.



Xanpun

16.- TXOMIN GARMENDIA.

1.934-II-3an Berrobiko “Tontola”
baserrian jaioa.

1.988-VIII-30ean ezkondua

OMENALDIA:

1984-I-22an Astoria Antzokian.

Bertsolariak: AGURRA: Bertsolari
sail batek.

Saioa: Zeberio, Mendizabal, Amur-
iza, Attola, Larrañaga, Azpillaga,
Etxeberria, Mitxelena, Peñagarikano,
Telleria, Iraola, Narbaiza, Igarzabal,
Lazkano, Xanpun, Ezponda, Mugarte-
gi, Arregi, Altuna, Gorrotxategi,
Olalde, Enbeita, Euskitze, Lopategi,
Agirre, Lazkao Txiki, J. Lizaso eta
Egileor.

TXOMIN GARMENDIA

* Txapelketa Nagusia: 1.965ean 7.;
1.967an 7.; 1.980an eta 82an finalista.

* Gipuzkoako Txapelketa: 1.967an

* Usurbilko Saria: 1.959an 2.

* Ordiziako Saria: 1.959an 1.

Bere omenaldi egunean kantatuta-
koa:

Pena da baiña emen ez daude
gogoa zuten guziak
gure baratza osatzen dute
larrosa eta sasiak
itxaropenik galdu gabean
goza ditzagun gaziak
gure Euskadi bizi da oraindik
Jaungoikoari graziak.



T. Garmendia

17.- JESUS ALBERDI

“EGILEOR”.

1.931-I-6an Elosuko “Egileor” baserrian jaioa, Bergaran.

Bergaran bizi da Bittori Larrañagarekin ezkondua.

OMENALDIA: 1.985-I-13an Astoria Antzokian.


Bertsolariak: Sail baten agurrak.

Saioa: Gorrotxategi, Larrañaga, Narbaiza, Mendizabal, Igarzabal, Iraola, J. Enbeita, Peñagarikano, Telleria, Azpillaga, Lazkao Txiki, Mitxelena, Euskitze, Ezponda, Altuna, Garmendia, Alkat, Olalde, Ziarda, Sebastian Lizaso, Lazkano.

Bere omenaldi egunean kantatua:

Eskerrik asko entzule danoi
ta eskerrak zuri Donosti
gaur bezin xamur begiak malkoz
sarritan etzaizkit busti.

Gorputzez ere dardaraz nago
gaur etorri ezgerozti
eztet izango daukaten zorra
ordaindutzeko lain asti
baina biotza eskeintzen dizut
bere maitasun da guzti.



Egileor

18.- PATXI ETXEBERRIA ZUBIRIA.

1.930-X-14ean Orioko Errezabal baserrian jaioa.

1.955-XI-26an Inazia Etxeberria-rekin ezkondua Lasarten bizi da.

OMENALDIA: 1.986-I-20an Victoria Eugengan.

Bertsolariak: Sail baten agurrak.

Saioa: Azpillaga, Garmendia, Gorrotxategi, Larrañaga, Attola, Egileor, Olalde, Otamendi, Argiñarena, Ezponda, Laka, Lopategi, Igarzabal, Nikolas Zeberio, Iraola, Goiburu, Mendizabal, Xabier Zeberio, Lazkano, Sebastian Lizaso, Mitxelena, Egaña, Narbaiza, Areitio, Amuriza, Jon eta Abel Enbeita, Peñagarikano, eta Lazkao Txiki.

PATXI ETXEBERRIA

* Txapelketa Nagusia: 1.980an finalista

* Loiola Irratikoa: 1.965ean.

Bere omenaldi egunean kantatua:

Aitatu gabe ezin utzi nik
ez bertsolari lagunak
esker beroa merezi baitu
oinbeste lan egin dunak
neregandikan esker beroak
neregandik zorionak
ta zuen morroi pasako ditut
gelditzen diran egunak.



P. Etxeberria

19.- JON AZPILLAGA URRUTIA.

1.935-XI-26an Pasaian jaioa. Urte t'erdi zituela Berriatura joan eta bertan bizi izan zen 20 urte baserritar gisan. Urte bat Ondarrun eta Mutrikura ezkondu zen Maritxu Arrizabalagarekin.

OMENALDIA: 1.987-I-18an Astoria Antzokian.

Bertsolariak: Sail baten agurrak.

Saioa: Egaña, Sarasua, Euskitze, Gorrotxategi, Telleria, Peñagarikano, Jon Enbeita, Xabier Zeberio, M. Mendizabal, Begiristain, P. Iraola, N. Zeberio, Igarzabal, Lopategi, Larrañaga, Narbaiza, S. Lizaso, Lazkano, A. Enbeita, Ajuria, Amuriza, B. Agirre, Olalde, Argiñarena, Ziarda, Mañukorta, Mitxelena.

JON AZPILLAGA:

* Txapelketa Nagusian: 1.960an 3.; 1.962an 8.; 1.980an eta 82an finalista.

* Bizkaiko Txapelketa: 1.961ean

* Loiolako Irratikoa: 1.964ean.

Omenaldi egunean kantatua:

Bertsolarien bizimodua
dira poza eta penak
etxetik erten ta erririk-erri
ibiliak gera denak
Baina geiago sufritzen dute
sukaldean zai daudenak
bertsolarien emaztekiak
nerea eta bestenak
zuek zerate txako guztiak
merezi dituzutenak.



J. Azpillaga

20.- BAUTISTA MADARIAGA ELIZONDO.

1.926-XI-7an Arantzako Mutikonborda baserrian jaioa.

Ezkonduta bertan bizi da.

OMENALDIA: 1.988-I-17an Astoria Antzokian bere anaia Xalbadorrekin batera.

BAUTISTA MADARIAGA

* Txapelketa Nagusia: 1.967an 10.

* Nafarroako Txapelketa: 1.961ean txapeldun.

BAUTISTA MADARIAGAK
Agurtzen ditut gaur bildu diran
hemengo zar da gaztiak
gainera berdin andre ta gizon
txiki ta haundi guztiak
gaixo lekuban sufritzen zenbait
espetxeetan bestiak
hoiek dirade neure bihotzak
gaur ditun kontu tristiak
penik haundiña hau sentitzen det
nik danak ez ikustiak.

XALBADOR MADARIAGA ELIZONDO:

1.930-XI-9an Mutikonborda baserrian sortua.

OMENALDIA:


1.988-I-17an Astoria Antzokian bere anaia Bautistarekin batera.

Bertsolariak: Sail baten agurrak.

Saioa: Amuriza, Sarasua, Agirre, Ajuria, J. Enbeita, J.F. Argiñarena, Fagoaga, Gorrotxategi, Sebastian, Lazkano, J.M. Argiñarena, Iraola, Igarzabal, Begiristain, X. Zeberio, Mendizabal, Peñagarikano, Telleria, Olalde, B. Agirre, Intxausti, Lopategi, Larrañaga, Attola, Zabala "Lexo", Egaña, Elgetzu, Ezponda, Lazkao Txiki, Mañukorta, Narbaiza.

XALBADOR MADARIAGAK

Geure herria aipatu behar
han jaiotako geanax
nik ezin paga behar gixian
hainen pobrea izanax
baiño halere agurtu nahi det
nere eskerrak emanaz
agur bero bat ematen dizut
ne bihotzeko Aranax.



Batixta Madariaga Aranaztarra



Xalbador Madariaga

21.- JOSE LUIS LEKUONA GARAIAR,

“LEXOTI”

1.925-XI-11an Oiartzungo Iturriotz auzoko Maixta-Borda baserrian jaioa.

Etxe bizitza desberdin asko probatu eta azkenik Oiartzunen bizi da.

Lan klase geienak probatua eta azkenik Oiartzungo Udaletxeko kalegar-bitzaille jartzen delarik.

Sariak: 22 urte zituala Donostiko “Perlan” I Saria.

1.962-ko Errege eguneko Saria “Oranda” bigarren.

1.974: Zepai Sarian 2-garren Patxi Iraolaren atzetik.

OMENALDIA: 1.989 - I - 15

Bertsolariak:

Joxe Lizaso, Sebastian Lizaso, Joxe Agirre “Oranda”, Imanol Lazkano, Txomin Garmendia, Amuritza Xabier, Jon Lopategi, Koxme Lizaso, Etxeberria, Peñagarikano eta abar.

Bere omenaldi egunean


Nor den “Lexoti”? Zabala’tar
Xanti’k bertso bitan adierazi zuen:

Nor den Lexoti, zein den gizon au,
zer galdera propiyoa!

Zillar ta urrez ezin daiteke
eros orren baliyoa.

Geiagoko bat gogoratuaz
ni ere ortara nijoa,
il ta gero-re iraungo duen
figura ta jeniyoa,
bertsolaritzak agiyan duen
bere azken-boemiyoa.

Iturri batek ura bezela,
orren aoak bertsoa...
Filosofirik ikasi gabe
alako filosofoa,
txarkeri gabe, zirikatzaile
zorrotz maliziosoa:
bere buruari farre egiñez
pasa du bizi osoa,
askatasunik galdu ez duen
libertadezko usoa.



Lexoti

1.990-BASILIO PUJANA

1.990-ko -I- 21-an.

Biak dira Bizkai aldeko kanporaketetan txapeldun geldituak.

Alberdi, Iurreta edo Durango-aldeko saioetan eta Pujana, Zeanuriko kanporaketetan. Onek baditu bi liburu idatziak "Auspoan" eta bertso paperak ere asko.

Bertsolariak: Bixente Barandiaran, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Goierritarrak eta 40-geitik gora Kantatu zutenak.


Basilio Pujana, Zeanurin jaio zan 1.913-ko-II-27-an

JOXE ALBERDI ASTARLOA

Iurretan jaio zan 1.923-an

Jon Lopategik egun ortan kantatutako bertso bat jarriko det:

Ez genezake aztuta utzi
Bertsoen iturburua,
nork erein zuen azia eta
nork jorratu ingurua.
Pujana eta Alberdi ziran
gure eredu segurua,
Gogoraturik Urretxindorrek
zituen diszipuluak...
Auetxek dira Bizkai aldeko
Lenengo Apostoluak.



J. Alberdi, B. Pujana

FLORENTINO GOIBURU

1.991-an Omenaldia:

Florentino Goiburu, Idiazabalen
jaio zen 1.933-ko Urriaren 31-an,
“Erdiko” baserrian. “Zepai saria”
1.971-an.

Florentino Goiburu:

Leitzan jaio ta Orion
bizi dana erriz
parekorikan ez du
rimaz eta neurriz
denok txorutzen gaitu
bere bertso berriz
ao sapai ederra
eztitsua berriz
ez dakit olakorik
sortuko dan berriz

PATXI IRAOLA GARMENDIA


Zaldibian jaio zen 1.933-ko Apiri-
llaren 23-an “Olegi” Baserrian.
“Osinalde elkarteko saria” 1.971-an
irabazia eta Zepai saria 1.974-an.

Txapelketa batzutan parte hartu du-
te baina gehiena lagun arteko bertsola-
riak dira.

Omenaldian parte artu zuten ber-
tsolariak 40-tik gora izan ziren, gaur
plazetan dabilzan gehienak.

Patxi Iraola:

Beraz, tiroak erbi horreri
egingo zion irrista
hori egia izan liteke
baina ezin det sinista
garai batean tiratzen zuen
nola odeia tximista
orain gezurrak esaten ditu
edo galdu zaio bista



P. Iraola, F. Goiburu

**TEODORO HERNANDORENA
BARANDIARAN,**

1.992-an Omenaldia: Teodoro Hernandorena, Emile Larre eta Mariano Izetari

Zizurkilgo “Erriko etxean” jaio zan 1898-an. Medikutza ikasketak Zaragoza eta Madriden egin zituan.

1.937-an Ifar Euskadira aldegin zuan Ezpeleta, Azkaine eta Donibane Lohitzueneren azkenik gelditua (kon-sulta Jarrita)

1.948-an Parisera joan zan. Gerra ondoren bertsolaritzan lan ederrena egin zuan gizona, Ifar aldean txapelketak eta jaialdiak antolatuz. Orain Ondarrabin bizi da.

TEODORO HERNANDORENARI

Manolo Arozenak:

Zuri kantatu asmotan nator
nere jaun Hernandorena
bertsolaritza barruan nola
hustu zenuen barrena
gazte denboran ibili zinen
estranjerian barrena
etorri eta bilatu zenun
bertsoa nahiko herrena
Iparraldeko txorien bila
gorputz txikien kemena
Xalbador hartu aurrena
Mattin zetorren hurrena
zure langintzak eman duenez
bere emaitz nabarmena
merezi dezu bertsozaleok
eiten dizugun omena.

EMILE LARRE OTXOBI:

Baigorriko “Belarria” etxean jaioa 1.926-an, Urtarrillaren 3-an. Uztaritzeko seminarioan ikasketak egiña eta ondoren apaiz egiña. Gaur Irissarrin erretore jaun dago.

Bertso munduan lan asko egiña. Ainbat txapelketetan epaimaiko eta “Herria” aldizkariaren zuzendaria eta arduraduna.

EMILE LARRE ADISKIDEARI

Jean Pierre Mendiburuk:

Bertsutan banabila eskun eta ezker ahalaz ateratuz zonbeit bertsu eder atsegin eman nahiz batzu eta bester nor den nere maixua salatzen dut dener plazaratu naizela “Emil Larri” esker.

MARIANO IZETA ELIZALDE:

Elizondoko “Mutilenia” etxean jaioa 1.915-an. Bertan bizi da. Erloju-konpontzaillea, bere ogibidea ori izan du. Euskaltzale burruka eta bertsolaritza munduan lan asko egin duana. Nafarroako txapelketak antolatuaz eta epaimaiko izanaz.

Eskerrak emanaz kantatutako iru bertso emen:

MARIANO IZETARI

Bittor Elizagoienek:

Mariano da Baztan bailarak
loratzen duen arbola
altzak bezala bihotz samurra
ta gartzainaren odola
arbol haunditan ikasirikan
fruituz beterik dagola
sendimenduak borboka doaz
ezin kabitu inola
zure irria agertzen zaigu
maitasuna dariola.



M. Izeta, T. Hernandorena, E. Larre.

**AITA SANTI ONAINDIA ETA
ALFONTSO IRIGOIEN JAUNARI.**

1.993-an Omenaldia:

AITA SANTI ONAINDIA:

Amorotoko “Atxuriarte” baserrian
jaioa. 1.909-an Martxoaren 24-an.

Larreko komentuan bizi dana.
Gerra denboran gudarien kaperau ibi-
lia. Bertso zale eta euskal idazle ospe-
tsua. “Mila Euskal olerki eder” eta
“Gure bertsolariak” dira bere liburu
ezagunenak.

ALFONTSO IRIGOIEN:

1.929-an Azaroaren 14-an Bilbon
jaioa. Euskaltzaina Gerraosteko ber-
tsolari txapelketen antolatzaile eta
eragile, batez ere, gai jartzaille bezela.
Euskaltzaindiaren eskutik 1.958-tik

1.967-arte, bertsolari txapelketen ardu-
raduna. Geroztik askotan epaimaiko
izana. Liburu asko idatzia, bertso eta
beste gai askotaz.

Alfontso Irigoien eta Santiago
Onaindia, homenajeados mañana.

Jon Enbeitak:

Alfontso-Santi, Santi-Alfontso,
ohore eta gorespen!
euskaldun oro datoz nirekin
bioi bertsook abesten
ondo egina, goiz edo belu,
herriak bait du miresten
zuen hiztegi haundian nola
“jubilatatu” hitza ez den
esperientzi horrekin jarrai
ondorengoak babesten.



S. Onaindia, A. Irigoien

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAK

1.936-an Urtarrillaren 12-an Elizondon. Finala:

Joanes Iriarte (txapeldun)

J.M. Mutuberria bigarren

Jean Harriet

Mitxel Dargaitz

Simun Ibarra

Marzel Larrosa

Beltran Sahargun

Patxi Elorza.

Joanes Ibarra.

1.960-an Irailaren 25-an Lesakan. Finala:

Andrés Narbarte (txapeldun)

Juan Perurena bigarren

Angel Aldaz

Felix Iriarte

Bautista Madariaga

Manuel Iriarte

Bautista Perurena

José M. Mutuberria

1.961-an Urriaren 29-an Etxarri Aranazen. Finala:

Bautista Madariaga (txapeldun)

Andrés Narbarte bigarren

Migel Arozamena

Martin Azpiroz

Manuel Iriarte

Martin Oreja

Juan Perurena

Migel Zabaleta

1.962-an Irailaren 23-an. Beran. Finala:

Migel Arozamena (txapeldun)

Migel Zabaleta bigarren

Andrés Narbarte

Bautista Madariaga

Martin Oreja

Simun Ibarra “Zubikoa”

Juan Perurena

Manuel Uhitzi.

1.963-an Azaroaren 17-an Iruñan. Finala:

Migel Arozamena (txapeldun)

Andrés Narbarte

Bautista Madariaga

Simun Ibarra “Zubikoa”

Manuel Arozamena

Manuel Uhizi

Martin Oreja

Anjel Aldaz

Mikel Zabaleta

Roman Mihura.




Bautista Madariaga



Andres NARBART



J. Iriarte



Miguel Arozanena

1.964-an Irailaren 27-an Iruñan.
Finala:

Andrés Narbarte (txapeldun)
Migel Arozamena bigarren.
Bautista Madariaga
Anjel Aldaz
Manuel Arozamena
Roman Mihura
José M.Mutuberria
Moises Jaso.

1.966-an Azaroaren 13-an Iruñan.
Finala:

Migel Arozamena (txapeldun)
Andrés Narbarte bigarren.
Bautista Madariaga
Anjel Aldaz
Manuel Arozamena
Manuel Huizi
Martin Oreja.

Euskaltzaindiak bertsolari txapelketak utzi egin zituan eta orduan utsune aundi bat sortzen da Nafarroan, 1.979-arte ez da geiago txapelketarik ospatuko. Onela jarraitzen du.

1.979-an Lesakan “Paulo Igantzi saria”:

José Migel Argiñarena (txapeldun)
Juan Perurena bigarren.
Bautista Madariaga
José Fermin Argiñarena
Fagoaga anaiak
Moises Jaso.

1.980-an. Uztailak 6. Lesakan
Finala:

Mixel Aire “Xalbador” (txapeldun)
José Migel Argiñarena
Jean Pierre Mendiburu
Juan Perurena
Antonio Olano
José Fermin Argiñarena
Txomin Amorena
Fagoaga anaiak
Bittor Elizagoien
Laka
Arrasagaray

1.981-an Uztailak 5 Lesakan
Finala:


Jean Pierre Mendiburu (txapeldun)
José Migel Argiñarena bigarren
Ernest Alkat
Antonio Olano
Bittor Elizagoien
Mixel Aire “Xalbador”
José Fermin Argiñarena
Laka
Txomin Amorena.

1.982-an Uztailak 4 Lesakan
Finala:

José Migel Argiñarena (txapeldun)
Jean Pierre Mendiburu bigarren
Antonio Olano
Laka
Moises Jaso
José Fermin Argiñarena



Mixel Aire "Xalbador"



J. Miguel Argiñarena



Dominique Ezponda



Jean Pierre Mendiburu¹

Bittor Elizagoien
Ernest Alkat.

1.983-an. Donibane Garazin Finala:

Dominique Ezponda (txapeldun)
José Migel Argiñarena bigarren
Jean Pierre Mendiburu
Ernest Alkat
Mixel Aire "Xalbador"
Juan Perurena
José Fermin Argiñarena
Bautista Madariaga.

1.984-an Sunbillan Finala:

Jean Pierre Mendiburu (txapeldun)
Mixel Aire "Xalbador"
José Migel Argiñarena
Ernest Alkat
Bautista Madariaga
Bittor Elizagoien
Juan Perurena
José Fermin Argiñarena.

1.95-an Maiatzak 24-an Leitzan.
Finala:

Mixel Aire "Xalbador" (txapeldun)
Dominique Ezponda
Angel Martikorena
José Migel Argiñarena
José Fermin Argiñarena
Josetxo Yantzi
Jean Pierre Mendiburu
Ernest Alkat.

1.986-an Maiatzak 4 Donezteben
Finala:


José Fermin Argiñarena (txapeldun)
Ernest Alkat bigarren
Jean Pierre Mendiburu
Mixel Aire "Xalbador"
Mikel Taberna
José Migel Argiñarena
Bernardo Azpillaga
Dominique Ezponda.

1.987-an Apirillaren 5-an Beran.
Finala:

Ernest Alkat (txapeldun)
Dominique Ezponda bigarren
Mixel Aire "Xalbador"
José Fermin Argiñarena
Pablo Aristorena
José Migel Argiñarena
Mikel Taberna
Jean Pierre Mendiburu.

1.988-an Martxoaren 27-an
Iruñean: Finala:

Mixel Aire "Xalbador" (txapeldun)
Manolo Arozena bigarren
Pablo Aristorena
Ernest Alkat
Jean Pierre Mendiburu
Lentxo Aburuza
José Fermin Argiñarena
Dominique Ezponda.



J. Fermin Argiñarena



Ernest Alkat

1.989-an Apirillak 23 Baigorriin.
Finala:

Ernest Alkat (txapeldun)
Manolo Arozena bigarren
Jean P. Mendiburu
Dominique Ezponda
Laka
Jesús Arzallus
Mixel Xalbador

Argiñarena anaiak (José Migel,
José Fermin)

1.990-an Goizuetan Finala:
Taldeka: Talde txapelduna


Manolo Arozena
Eusebio Fagoaga
Antonio Olano
Argiñarena J.F.

Larogeita amargarrengo urtean bukatzen det Nafarroako bertsolarien txapelketen historia. Geroztik jarraitzen du eta Manolo Arozena degu azkenengo iru urte auetan txapelduna. Ondorengo historian agertuko dan bezela.

Epaimahaiari kosta zitzaion erabakia hartzea.



Manolo Arozena



E. Fagoaga



A. Olano

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAK

1.958-an Abuztuko 24-an Bilbon:
Finala:

Balentin Enbeita (txapeldun)
Juan Ormaetxe bigarren
José Alberdi
Asensio Bidaurreazaga
Eusebio Zubiaga.
Pedro Kastrejana
Florencio Zarraga.

1.959-an Irailaren 6-an Bilbon.
Finala:

Balentin Enbeita (txapeldun)
Jon Azpillaga bigarren
José Alberdi
Juan Ormaetxe
Deunoro Sarduy
Basilio Pujana

1.960-an Irailaren 11-an Bilbon.
Finala:

Juan Mugartegi (txapeldun)
Jon Azpillaga bigarren
Balentin Enbeita
Ireneo Ajuria
José Alberdi
Juan Ormaetxe
Basilio Pujana

Deunoro Sarduy.

1.961-an Abuztuko 27-an Bilbon.
Finala:

Jon Azpillaga (txapeldun)
Deunoro Sarduy bigarren.
Balentin Enbeita
Juan Mugartegi
Ireneo Ajuria
José Alberdi
Juan Ormaetxe
Juan Ibarzabal.

1.962-an Abuztuaren 26-an Bilbon.
Finala:


Jon Lopategi (txapeldun)
Jon Azpillaga bigarren
Juan Mugartegi
Deunoro Sarduy
Juan Ibarzabal
Balentin Enbeita
José M. Arregi
Ireneo Ajuria.

1.965-an Abuztuaren 17-an
Ondarroan. Finala:

Jon Lopategi (txapeldun)
Juan Mugartegi bigarren
Jon Azpillaga



Balendin Enbeita



Jon Azpillaga



Jon Mugartegi

Jose M. Arregi
Ireneo Ajuria
Deunoro Sarduy
Abel Muniategi
Basilio Pujana

1.967-an Urriaren 30-an Durangon.
Finala:

Jon Lopategi (txapeldun)
Juan Mugartegi bigarren
Abel Muniategi
Jose M. Arregi
Abel Enbeita
Jose M. Gurtubay
Gregorio Larrañaga “Mañukorta”
Julian Martitegi.

1.987-an Abenduaren 20-an
Bilbon. Finala:

Jon Lopategi (txapeldun)
Xabier Amuritza bigarren.
Jon Enbeita
Jose Luis Mugerza “Elgetzu”
Jon Azpillaga
Ireneo Ajuria
Juan M. Areitio
Aritz Lopategi.

1.990-an eta 1.992-an Jon Enbeita
izanda txapeldun Unai Iturriagak biga-
rren irten duelarik, baina larogeita
amarretik aurrerako historia beste li-
bururen baten agertuko da.



Jon Enbeita



J. Lopategi

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAK

1.959-an Azaroaren 8-an Eibarren.

Finala:

Manuel Olaizola (txapeldun) “Uz-
tapide”

José Joakin Mitxelena bigarren.

Txomin Garmendia.

Jose Lizaso

Akilino Izagirre “Zepai”

Manuel Lasarte

José Agirre “Oranda”

1.962-an Abenduaren 9-an Herna-
nin. Finala:

José Joakin Mitxelena (txapeldun)

Jose Migel Iztueta “Lazkao-txiki”
bigarren

Akilino Izagirre “Zepai”

Txomin Garmendia.

Jesús Alberdi “Egileor”

Imanol Lazkano

José Luis Lekuona “Lexoti”

Manuel Uranga

1.964-an Abenduaren 13-an. Tolo-
san. Finala:

Jose Migel Iztueta (txapeldun)

Txomin Garmendia bigarren

Jose Joakin Mitxelena

Patxi Etxeberria

Jose Intxausti

Kasiano Iburguren (Lizartzako
itxua)

Koxme Lizaso

José M. Lertxundi

1.967-an Maiatzaren 4-an Tolosan.
Finala:

Txomin Garmendia (txapeldun)

Jose Luis Gorrotxategi bigarren

Patxi Etxeberria

Pedro Aizpurua “Lilibé”

Jose Intxausti

Koxme Lizaso

Xanti Zabala “Lexo”

Fermin Muñoa

Nikolas Zendoia.

1.991-an Abenduaren 22-an Do-
nostian. Finala:

Angel Mari Peñagarikano (txapel-
dun)

Andoni Egaña bigarren.

Xabier Perez “Euzkitze”, S. Lizaso,
Mikel Mendizabal, Iñaki Murua,
Martin Rezabal “Olaso” eta Jon
Sarasua.

Finala, Donostiko Belodromoan jokatu zan eta Txapeldun Angel Mari Peñagarikano irten zan eta bigarren Andoni Egaña.

Izugarrizko arrakasta izan zuan, amar milla pertsonatik gora elkartu ziralarik.

Garmendiak


Hara zuk, Peña, jaso dezue
goein-goieneko maila,
Anoetatik Donostiraino
txapel haundiaren bila,
gorde zazu luzaro,
buru onean dago.
Zorion da esker mila,
euskera eta bertsolaritzan
babesa izan dedila!

Peñagarikanok


Eman didate, nori eskeini?
Badet istilu ugari:
seirak bitarte zai egon diran
aitatxo eta amari,
berdin senide eta lagunei,
berdin honi eta hari,
eta azkenik belodromora
hurbildu zeratenori.
Ez da nerea, zuena baizik,
ene txapeltxoa tori!



J. Joakin Mitxelena



LazkaoTxiki



Uztapide



1967 - 5 - 4 Leidor-Tolosa. Txapelketarako kanporaketa bat.

T. Garmendia, J.L. Gorrotxategi, F. Muñoa, P. Etxeberria, K. Lizaso, S. Zabala "Lexo", P. Aizpurua "Lilibe", N. Zendoia, J. Intxausti.



T. Garmendia



T. Garmendia. A. Mari Peñagarikano Txapeldun



Sebastian Lizaso lehen agurra kantatzen. Mendizabal, "Olaso", Jon Sarasua, Egaña, Peñagarikano, "Euskitze" eta Murua beren txandaren zai.

IFAR-ALDEKO TXAPELKETAK

Ifar-aldean ospatutako txapelketak eta sariak Hernandorenan eskutik: "Herria" aldizkaritik.

1936-ko gerlak bortxatu zuen Hernandorena Iparraldera ihes egiterat. Ezpeleta, Azkaine eta Donibane Lohitzunen 15 bat urtez bizitzeko eta geroxago Parisen bertze 12 bat urte. Gerla ondoan 1945 abiatu zuen Iparraldean harrigarriko lana. "Bertsularitasuna nik sortu nuen Iparraldean, Euskalzalaren Bidltzarreko buruzagiek ez bait zuten sinesterik ez estimurik bertsolaritzaz". Berak, bilatu zituen, urte bat ibilirik; Xubero zokoan Etxahun, Bankan F. Iriarte, Irati puntan Ximun Ibarra (Zubikoa bataiatu zuena Frankisten beldurrez), Ahetzen Mattin, Hendaian Meltxor, Urepelen Xalbador, Urruñan Errexil...

1946 Donibane-Lohitzunen. (Maite-na Trinketea) irailaren 22an egin zen lehen bertsulari elgarretaratzea. 16 bertsulari: Xalbador (Urepele), Zubikoa (Banka), Intzabi, P. Iriarte eta Xetre (Hazparne), Goikoetxea (Azpeiti), Ainziart (Heleta), Errexil (Urruñan) Etxahun (Iruri), Larramendi (Suhuskun), Gariador (Arrangoitze), Etxexuri (Amikuze), Mattin (Ahetze), Meltxor (Hendaia), Larramendi (Irisarri), Iriarte (Banka).

1946 Hazparne. Azaroaren 17 an kantatu zutenak Xalbador, Zubikoa, Etxahun, F. Iriarte, Goikoetxea, Mattin eta Meltxor. Lehen atera zen Etxahun. Jueak ziren: Dassance, Eizaguirre, Zerbitzari, P. Erramoupe bertsulari ohia eta Laffite. Hernandorena betiko gai emaile.

1947 Ezpeletan. Abuztuaren 24 an. Etxahun, Etxemendi, Meltxor, Errexil, Sarasola, Mattin, F. Iriarte, Alzuiet, Sohuet P. Iriart, A. Larramendi, Zubikoa, Miura eta Xanpun gaztea. Xalbadorrek ez zuen parte hartu nahi izan 1* Mattin - 2* F. Iriarte - 3* Zubikoa - 3* Etxahun.

1947 Donibane-Garazin. Irailaren 8 an, trinketea, astelehena, merkatu egunarekin, F. Iriart, Mattin, Etxahun, Zubikoa, Errexil, Meltxor, P. Hiriart, A. Larramendi, 1* Mattin - 2* F. Iriarte - 3* Zubikoa - 4* Etxahun.

1948 Saran. Apirilaren 4an, 21 bertsulari, 2 taldetan ezarriak. Gaztetan Ardantz (Aldudarra 15 urte), Trounday, Hargindeguy, Hirigaray, Ithurria, Xanpun (19 urte), Hiriart, Urruty (20 urte). Helduetan: Mattin, F. Iriarte, Xubikoa, Xalbador Meltxor, Errexil, Xetre, Intzabi, Goikoetxea, Sarasola, A. Lekuona eta Kalbo (Biriatuarrak) Pello eta Kattabijl

Arraunztarra (80 urte). Epailleak: Dassance, Eizaguirre, Zerbitzari (Oxobiren orde) eta Monzon (Constantinen orde). Gai-emaile: Hernandorena. Bertsu-hasle: Oxobi. Lau zaharretan onenak: Iriarte, Mattin, Xalbador, Zubikoa. Bi gazte onenak: Ardantz eta Xanpun. Sariak altxatu zituztenak: Xalbadorrek: Mexikotik igorri zilarrezko txapela - Zubikoak: araxtea. Xanpunek: gazteen prima: xerria.

1949 Luhoson. Apirilaren 24 an, trinketean, Panpale Larralde bertsulari zena goretsi ondoan. 16 bertsulari: Mattin, Zubikoa, Errexil, Xalbador, Xetre, Erramoupe, Etxahun, Caillaba, Xanpun, Aekarain, Larramendi bi anaiak, Ardantz Teiletxea, Gai-emaile: Mixel Labeguerie. Antolatzaile: Hernandorena eta Oihanburu. 1* Xalbador eta Mattin berdinean - 3* Zubikoa eta Etxahun - 5* Errexil - 6* Xetre.

1.949 Saran. Maiatzaren 22an trinketean, bertsulari egun bat xoragarria: Mattin, Xalbador, Zubikoa, Etxahun. Han zen jauneria eta andereria ederra! Bertzeak bertze: Dassance aita semeak, Constantin aita-semeak.

Leremboure medikua, Monzon Euskadiko ministro ohia, Sarako mera, Erretora eta bi bikarioak, Hernandorena, aita Barandiaren, M. de la Sota, Oxobi, Jean Lemoine, Patxola, Ospital Aldudarra, Txikitoren ondoan Vera Riabouchinski euskalzalea, "Australia-ko" andere bat euskara hitzik ez dakiena, Gipuzkoa eta Naparrako jaun andere lerro handia"... Horietan Alfonso Irigoien eta Juan San Martin bertsuzaleak.

1.949 Urruñan. Azilaren 20an Eskolan zoin gehiagoka 14 bertsulari: Basarri, Errexil, Zubikoa, Uztapide, Mattin, Etxahun, F. Iriarte, Xalbador, Uhalde, Sarasola, Trunday, Caillaba, Xanpun, Capdeville. Gai-emaile: Zerbitzari. Jujeak: Dassance, Monzon, Oxobi, Constantin. 1* Basarri - 2* Xalbador - 3* Mattin eta Uztapide.

1.950 Donibane-Garazin. Apirilaren 16an. 13 bertsulari zoin gehiagoka: Sarasola, Uztapide, Oihenart, Basarri, Trounday, Errexil, Xalbador, Xanpun, Zubikoa, Caillaba, Uhalde, Mattin eta Alkat. Jujeak: Constantin, Dassance, Oxobi, Lafette. Gai-emaile: Zerbitzari. 1* Basarri - 2* Mattin - 3* Xalbador - 4* Zubikoa - 5* Uztapide - 6* Errexil.

1950 Donibane-Lohitzunen. Urriaren 1.an Trinketean zoin gehiagoka. Jujeak: Dassance, Lafitte, Monzon eta Hernandorena. 7 bertsulari: Sarasola, Mattin, Xanpun, Zubikoa, Errexil, Basarri, F. Iriarte. 1* Basarri - 2* Mattin - 3* Iriarte - 4* Xanpun eta Zubikoa.

1951 Baigorriin. Irailaren 23an. Mezan Saint-Pierre apezpikua predikari. Jujeak: Dassance, Constantin, Monzon, Otxobi eta Lafitte. Gai-emaile: Zerbitzari. Bertsulariak honela lerrokatuak izan ziren. 1* Basarri eta Xalbador - 3* Mattin - 4* Zubikoa - 5* Etxahun - 6* Xanpun - 7* F. Iriarte.

1952 Saran. Irailaren 21an. Mila entzuleren aintzinean. 6 bertsulari: Etxahun, Xalbador, Mattin, Xanpun, Errexil, Zubikoa, Basarri eta Uztapide ez etorri mugako paperik ez izanez. 1*

Mattin - 2* Xalbador - 3* Etxahun - 4* Zubikoa - 5* Errexil - 6* Xanpun.

1952 Saran. Abendoaren 28 an. Hego aldekoekin. Basarri, Mitxelena, Lizaso, Uztapide, Lexoti, Lasarte, Mattin, Xanpun, Etxahun, Errexil. 1* Mattin - 2* Uztapide - 3* Basarri - 4* Etxahun - 5* Lasarte - 6* Lizaso - 7* Xanpun - 8* Errexil - 9* Lexoti - 10* Mitxelena, Irratiak (T.S.F) hartu ditu bertsuak. Baziren bi aldetako berriketari Euskaldunak bai eta ere Stern jaunna, Amerikanoa, filma egiten ari zena Euskal Herriaz.

1953 Luhoson. Hego-aldekoek Iparraldekoeri desafio. Uztapide, Lizaso, Lasarte, Mattin, Xalbador, Zubikoa. Jukeak: Constantin, Elissalde, Lafitte, Monzon, Hernandorena, Dutournier. Gai emaile: Oxobi. Gipuzkoarrak nagusitu pundutan, Lasartek irabazi Izarra pegarra bertsu onena-

1953 Baigorriin. Irailaren 27 an. 1* Xalbador - 2* Mattin - 3* Uztapide - 4* Lasarte - 5* Lizaso - 6* Xanpun. Ondotik Zubikoa, Etxahun, Alkat (hunek gazte prima).

1954 Hazparnen. Irailaren 12 an. 1* Basarri - 2* Xalbador - 3* Uztapide - 4* Mattin - 5* Xanpun, ondotik bertze bortzak: Lizaso, Lasarte, Zubikoa, Iriarte, Alkat.

1958 Urruñan. Apirilaren 13an, Basurko zenaren oroimenez, Itsas-Mendi salan. Parisetik etorri-eta moldatu zuen bertso saio hau, gero Parisen bertsulari egun bat egiteko dirua biltzeko. Kantatu zutenak Urruñan: Basarri, Uztapide, Mattin, Xalbador,

Xanpun, Aintziart eta Errexil. Jukeak ziren: Dassance, Monzon, Lafitte. Kopa eder bat eman zion Xalbadori J. Antoni Aguirre Euskadiko lehendakaria.

1958 Parisen. Maiatzaren 18 an. Euskal-Etxean. Oxobi zenaren omenez Euskal-Etxean bertsulariak: Basarri, Uztapide, Mattin, Xalbador eta Etxahun. Jukeak: Dassance, Charriton, Poussempes eta Cabillon erakasle famatuak. 1* Basarri - 2* Mattin - 3* Xalbador eta Uztapide. Egun ederrak iragan dituzte bertsulariak Parisen "Lido"n gaindi, Hernandorena jaunari eta Euskal-Etxeko buruzagieri esker. Eta bertsularien hartzera etorri, Frantziako Telebixta, Angles eta Aleman iratiak.

1960 Saran. Apirilaren 3 an. 130 lagunarteko bazkaria. Bazkal-ondoan hizlari Dutournier, Hernandorena, Monzon. Bertsulariak: Xalbador, Mattin, Enbeita eta Mitxelena, J. Antonio Aguirre lehendakaria aste bat lehenago zendua omenduz. Aditzale-etan Basarri eta Etxaniz bertsulariak. Lehen atera Xalbador, entzuleek hautaturik.

1960 Parisen. Apirilaren 24 an, Euskal-Etxean: Mattin, Xalbador, Etxahun, Mitxelena.

1960 Makean. Maiatzaren 1 an plazan. Basarri, Uztapide, Mattin, Xalbador, Zubikoa, Aintziart. Gai-emaile: M. Recalde. Hizlari eta entzuleen artean: Hernandorena, Labeguerie, E. Pochelu, Madre, Dassance, Monzon, R. Sota, Ch. Iriart, Zerbitzari, Lafitte, Salaberry, Narbaitz, Dutournier, Idiart, Dagorret.

1960 Luhoson. Ekainaren 5 an.
Hizlari berezia: Don Manuel Lekuona,
Euskaltzaindiko lehendakaria, bertsu-
laritzaren ixtoriaz eta balioaz. Bertsu-

lariak: Mattin, Xalbador, Lazkao-
Txiki, Azpillaga, Garmendia, Mugar-
tegi, Etxaburu.

GAZTEEN TXAPELKETAK

EUSKALERRIAN zear aztarranik utzi ez duten txapelketa asko egin da.

Batzuk asi ziran eta berealaxe bukatu, laguntzarik ez zutelako edo...

Beste batzuk jarraipena izan dute eta auen notizirik bada.

1.- Aginako saria (Joxe Agirrek irabazia)

2.- Ordiziako saria (onek jarraipena izan zuan) Txomin Garmendiak irabazia.

3.- Erri-irradi (Loyola) saria.

4.- Zepai saria (Idiazabalen)

5.- Osinalde Elkarteko saria (Gabirin)

6.- Lizardi saria (Zarautzen)

7.- Xenpelar saria (Errenderin)

8.- Artzanberri eta Patxi Errota saria (Zaldibin)

9.- Orixe saria (Añorgan)

10.- Lauaxeta saria (Mungian)

Ziur nago ala ere ez ditudala danak aipatuko, ez da gutxiagorik ere.

Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan eta Ifar-aldean txapelketa edo sariketa asko egin dira, batez ere gazteak aurrera ateratzeko eta trebatzeko. Denak ez dira jaso ere egin eta beren historia ez da erreza izango paperetan jasotzea edo argitaratzea. Emen gazteentzako txapelketa ezagunenak jasotzen dira, agian, egunen baten norbaitek guzien bilduma egingo du eta Euskalerrinari mesede ederra egingo lioke...

* * * *

"XENPELAR SARIA"

Beti Errenderin ospatu izanda
"Kontzezio" egunaren inguruan,
Abenduaren 8-an alegia. Auetxek dira
irabazleak...

1.971 Juan Mari Narbaiza.

1.979 Iñaki Murua.

1.980 Angel Mari Peñagarikano.

1.983 Xabier Perez "Euzkitze"

1.984 Xabier Perez "Euzkitze"

1.985 Jon Sarasua.

1.986 Jokin Sorozabal.

1.987 Xabier Narbarte


1.988 Jon Maia

1.990 Jon Maia


1.991 Jesus Mari Irazu

1.992 Jesus Mari Irazu.


* * * *




J. Mari Narbaiza



A. Mari Peñagarikano




Iñaki Murua




Euskitze



Jokin Sorozabal




Jon Sarasua



Jesus M.º Irazu



Xabier NARBARTE



Jon Maia

“ORIXE SARIA”

Añorgan ospatu zan bost bat urte-
tan, Joxe Mari Aranalderen eskutik.

Irabazleak auetxek dira...

1.972 Eusebio Igarzabal

1.975 Xabier Zeberio

1.976 Juan Mari Narbaiza


1.977 Jon Enbeita

1.978 Luis Otamendi


* * * *




Xabier Zeberio



Euxebio Igarzabal



J. Mari Narbaiza



Jon Enbeita



Luis Otamendi

“ARTXANBERRI ETA PATXI ERROTA SARIA”

Bi urtetik bein ospatzen da Zaldibin sari au, Iraolatarren eskutik.

Irabazleak auetxek izan dira:

1.976 Mixel Aire “Xalbador”

1.979 Mikel Mendizabal

1.981 Anjel Mari Peñagarikano

1.983 Andoni Egaña

1.985 Pablo Jose Aristorena


1.987 Xabier Narbarte

1.989 Jokin Sorozabal


* * * *




Mixel Xalbador



Mikel Mendizabal



Egun berean hiru sari irabazi zituen: Txapela, bertso onenarena, eta entzuleen botoarena.
A. Mari Peñagarikano




P. Jose Arjstorena



Xabier Narbarte



Jokin Sorozabal



Andoni Egaña

LOIOLAKO ERRI-IRRATI SARIA

1.962-an Txomin Garmendia txapeldun.

1.963-an Jon Azpillaga txapeldun.

1.964-an Jon Mugartegi txapeldun.

1.965-an Jon Azpillaga txapeldun.

1.967-an Jose Luis Gorrotxategi txapeldun.

1.968-an Iñaki Azarola txapeldun.

1.969-an Jose Luis Gorrotxategi txapeldun.

1.970-an Joxe Agirre txapeldun.

1.972-an Angel Larrañaga txapeldun.

Sariketa edo txapelketa auek udaberri aldean jokatzen ziran, zenbait kanporaketa egin ondoren.

Erabakia entzuleen eta epaimai baten botoak gogoan izanez ematen zan. Geienetan entzuleen botoek erabakitzen zuten irabazlea.

* * * *



Txomin Garmendia




Jon Azpillaga




Jon Mugartegi




J. Luis Gorrotxategi



Joxe Agirre



Angel Larrañaga



Iñaki Azarola

ZEPAI SARIA (Idiazabalen)

Joxe Azurmendiren eskutik ospatu izan zan txapelketa au, gerora galdu egin zan ez dakigu zergatik..?

1.971.-Florentino Goiburu

1.972.-Eusebio Igartzabal.

1.973.-Koxme Lizaso

1.974.-Patxi Iraola


1.975.-Xabier Xeberio I

1.976.-Xanti Zabala “Lexo”


1.977.-Jean Pierre Mendiburu

1.978.-Bittor Agirre

* * * *




Florentino Goiburu




Eusebio Igartzabal




Koxme Lizaso



Patxi Iraola



Xabier Zeberio



Xanti Zabala



Jean Pierre Mendiburu ta Zepai Zanaren emaztea saria ematen.



Bittor Agirre

“OSINALDE-ELKARTEKO SARIA” (Gabirian)

Eusebio Igartzabalen eskutik urte-tan zear antolatu dute sariketa au, pentsatzen degu beste askoren laguntza ere izango zuala.

Irabazleak auetxek izan dira:


- 1.971.-Patxi Iraola
- 1.973.-Luis Otamendi
- 1.974.-Xabier Zeberio I
- 1.975.-Jose Izagirre “Aittola”
- 1.976.-Mikel Mendizabal
- 1.977.-Joan I. Begiristain.
- 1.978.-Jose Luis Mugerza
“Elgetzu”
- 1.979.-Jabier Arrizabalaga
- 1.980.-Millan Telleria
- 1.981.-”Xalbador” (Berriatuakoa)

- 1.982.-Jon Sarasua
- 1.983.-Xabier Pérez “Euzkitze”
- 1.984.-Juan Jose Eizmendi
“Loidisaletxe II”
- 1.985.-Pablo J. Aristorena.
- 1.986.-Jokin Sorozabal
- 1.987.-Xabier Narbarte
- 1.988.-Jose Ramon Elortza.
- 1.989.-Joxe Munduate
- 1.990.-Bernardo Azpillaga
(Errezilgoa)

Azkenengo iru urtetan Igor Elortza, Maddalen Lujanbio eta Aitor Sarriegik irabazi dute. Historia au larogei ta amarrean bukatzen dedalako.

* * * *


Oharra: Urrengo orrietan agertzen dira OSINALDE SARIA irabazi duten batzuen argazkiak.




Aittola



Juan Ignacio Begiristain



Elgetzu




Javier Arrizabalaga "Ziarda"




Xalbador Laka



Loidisaletxe




Bernardo Azpillaga




Aitor Sarriegi



Elortza José Ramón



Maialen Lujanbio



Igor Elortza

LIZARDI SARIA (Zarautzen)

Urte askotan ospatu da txapelketa
au, asieran Pedro Artetxe “Urdane-
ta”ren eskutik, gero Turismoaren esku-
tik.

Irabazleak auetxek izan dira.

1.976.-Joxe Migel Argiñarena.

1.977.-Mikel Mendizabal

1.978.-Mikel Mendizabal

1.980.-Millan Telleria

1.981.-Manuel Lertxundi (Aiakoa)

1.982.-Andoni Egaña

1.983.-Jon Sarasua

1.984.- Xabier Perez Euzkitze

1.985.-Pablo Jose Aristorena

1.986.-Jokin Sorozabal

1.987.-Xabier Narbarte

1.988.-Xabier Narbarte

1.989.-Joxe Munduate

1.990.-Jon Eizmendi


Azkenengo bi urtetan, Iñaki Zelaia
eta Aitor Sarriegi izan dira irabazle,
aurtengoa ez baida oraindik ospatu.

* * * *


Oharra: 1.979 urtean nor izan zen ez dugu inon arkitu.




Joxe M. Argiñarena



Mikel Mendizabal




Millan Telleria




Manuel Lertxundi



Jon Sarasua



P. Jose Aristorena




Euskitze




Andoni Egaña



Jokin Sorozabal




Joxe Munduate



Xabier Narbarte



Aitor Sarriegi



Iñaki Zelaia



Jon Eizmendi

ERRI BAKOITZEKO TXAPELKETA (LOKALAK)

Aian.-Txapeldunak José M. Lertxundi (bi aldiz) Luis Otamendi, Nikolas Zendoia.

Oñatin.-Txapeldunak Andrés Kotaberria, Barrena...

Zumaian.-"Anade" elkartean: Txapeldunak: Josu Gárate, Jon Maia, J.J. Aizpurua...

Segura.- "Txoritegi" elkartean. Txapeldunak: Estanis Agirre, Matxin-andiarena...

Errezillen "Erniope" Elkartean. Txapeldunak: Juan José Eizmendi "Loidisaletxe"...

Lenitz baillarakoa. Apotzagan. Txapeldunak: Angel S. Migel, Jon Sarasua...

Urruñan "Errexil" saria. Txapelduna: Xabier Narbarte...

Usurbilgo "Saizar" saria. Txapelduna: Antton Aranburu...

Elosuko saria eta abar eta abar...

Bizkaian: Mungiaiko saria" Ernest Alkat txapeldun.

Mallabiko saria José Luis Mugerza "Elgetzu" txapeldun.

Ainbeste sari eta txapelketa antolatuta dira eta denak ezin aipatu ere.

Barkatuko dute aipatu ez ditudanak, baina, agian, egunen baten denak bilduko dira.

Erri-arteko desafioak ere egon dira.

Famatuena "Fernando Amezketarra saria" Segurak irabazi zuan (Pedro M. Etxezarreta, Joxe Intxausti, Florentino Goiburu)

Bigarren Zestua (Uztapide II, Olalde, Zíolar)

Egon dira baita ere Usurbil eta Hernaniren artean.

* * * *



Florentino Goiburu



Pedro M. Etxezarreta



Joxe Intxausti

ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA

Gipuzkoako Diputazioak bultzatuta sortu zan txapelketa au, Murua Jauna, Diputatu nagusi zalarik, geroztik Mikel Mendizabal eta Antton Kazabon arturatu direlarik.

1.981-an.Maiatzak 9. Txapeldunak, aundietan: Jon Sarasua eta Iñaki Sarasua

Txikietan: J.I. Isarzelaia - Josu Gárate

1.982-an.Maiatzak 8. Aundietan: Xabier Perez “Eguzkitze”-P.J. Aristorena.

Txikietan: Josu Gárate - Jon Eizmendi.

1.983-an.Maiatzean. Aundietan: Xabier Perez “Eguzkitze” -Jon Sarasua

Txikietan: Jon Eizmendi - Danel Goikolea.

1.984-an.Maiatzean. Aundietan: Jon Sarasua - “Eguzkitze”

Txikietan: Jon Eizmendi - Jone Arroitauregi.

1.985-an.Maiatzean. Aundietan: Arantzazu Loidi - Felix Iñurrategi

Txikietan: Joan M. Lopez - Mikel Gárate

1.986-an.Maiatzean. Aundietan: Pablo J. Aristorena - Jon Eizmendi

Txikietan: Joan M. Lopez - Joxe Munduate

1.987-an.Maiatzak 5. Aundietan: Joxe Munduate - Haritz Lopategi

Txikietan: Unai Agirre - Iñaki Zelaia

1.988-an.Maiatzak 28. Aundietan: Joxe J. Aizpurua - Jon Maia

Txikietan: Unai Agirre - German Kortajarena.

1.989-an.Maiatzak Aundietan: Jon Maia - Joxe Munduate

Txikietan: Unai Agirre - Igor Elortza.

1.990-an.Maiatzean Aundietan: Joxé Munduate - Unai Agirre

Txikietan: Hernaniko Taldea.

Azkenengo iru urtetan Maddalen Lujanbio, Aitor Mendiluzek (Bi aldiz) irabazi dute, aundien maillan.

* * * * *



(Bertsolari Gazteen eguna) Ordizia 1990 apirila



Imanol Murua ta irabazlea, Munduate ataundarra

Lan au bukatzen ari naizela berri mingotz eta tristea jaso det etxe aldean “Lazkao-txiki il dala”. Nere sentipen onenak beretzat. Betiko atsedenean goza dezala!

Bertsolaritza munduan, erderaz dioten bezela “genio” bat izanda, ez-pairik gabe, neretzako. Adimen arruntak somatzen ez zuten ura, Lazkao-txiki kantatuko zizun, sentimentu eta grazi apartaz. Aren ikutua beti berezia izaten zan, orregatik diot “berezia” “aparta” (genio guziak bezela) zala.

Bere izakeraz auxe esango nuke: amaika gauza mingarri umorez eta askotan penaz jaso zuala, inork ez bezela.

Historira alaxe pasatuko alda “genio” bat bezela, gizaldi baten banaka izaten diran bezelakoa.

LAZKAO TXIKI

Jose Migel Iztueta Kortajarena “Lazkaotxiki” Lazkao herrian, Lazkaomendi auzoan, Abalei baserrian jaio zen 1926 urteko irailaren 15an, Felipe eta Maria Inaxirengandik, zazpi senidetan azken aurrekoa. Gogoan du oraindik 10urte baino lehen nola ikusi eta entzun zion Uztapide eta Zepai bikoteari. Hamazazpi urte zituela hasi zen guttiasko plazatan bertsolari. 1950 inguruan Tolosan eratu zuten bertsolari gazteen txapelketan bigarren suertatu zen. Baina 1962 urtea izan zen Jose Migelen konsagrazio eta nabarmentze urtea; hasi Beasaingo kan-

poraketatik, Eibarkoan jarraituz, Gipuzkoa mailakoan bigarren eta azkenik Donostiako azken saio nagusian Euskalerrri mailakoan Basarri Uztapide bikotearen atzetik geratze arte. Gero, 1964 urtean Bilbokoa irabazi ondoren, 1965an Gipuzkoakoa irabazi ta gero, bigarren atera zen Txapelketa Nagusian Uztapideren atzetik.

1.993-ko Apirillaren 3-an il zan.


Orra bi bertso hileta egunean kantatuak:

Manuel Lasartek:

Jangoikoa da gure jabe ta
al guztiduen bakarra.
aren deiari datorrenean
dago erantzun bearra.
Itzali zera Euskalerrria
argitzen zendun izarra,
bizitzan parre eragin dezu
il zeranean negarra,
agurtzen zaitut zerura arte
Joxe Migel lagun zarra.

Xabier Amuritzak:

Agur hinbeste poz eman dezun
Lazkao-txiki maitea
kostako zaigu gure plazetan
ez zaudela sinistea.
Agur emanda mingarria da
zu hilobian uztea,
beste mundua ez da izango
gurea bezain tristea,
zerbait badago desio nuke
zure ondoan piztea.



Lazkao Txiki

BIBLIOGRAFIA

Bosquejo de la Historia del Bersolarismo. Antonio Zavala.

C. Auñamendi N 37

Literatura oral vasca. Manuel de Lecuona. C. Auñamendi N 45

Ahozko euskal literatura. Juan M. Lekuona. Arg. Erein 1.982

Bertsolari guduak. Euskaltzaleak.

Enbeita Oleskaria. Aita Onaindia. Kulista Sorta N 59

Gure Bertsolariak. Aita Onaindia.

Bertsolarien Txapelketa (1.960) Edit. Itxaropena N 43-44.

Auspoa liburutegia: Azpeitiko premiyoaren bertsoak N.27

Antonio Zavala, S.J.

Errege eguneko bertso saioa N 10

Bertsolarien Txapelketa (1.962) N 22

Bertsolari txapelketa (1.965) N 43

Bertsolari txapelketa (1.967) N 67

Bertsolari txapelketa (1.980) N 141

Lengo egunak gogoan Manuel Olaizola "Uztapide" T. I-II

Auspoa liburutegia

Bertsolari txapelketa. Jagon I Euskaltzaindia.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. 1.986.Arg. Elkar N.23

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. 1.989.Arg. Elkar N.31

Nafarroako Bertsolaritza. Pablo José Aristorena. Nafarroako Gobernu.

Bertsolari Eguna. 1.989 Euskal Herriko Bertsolari Elkarte.

Aldizkariak: "Euskadi"

"Euskera" Euskaltzaindiarena.

"Argia"

"Zeruko Argia"

"Bertsolari Aldizkaria"

"Herria"

"Egin"

Egunkariak: "El día"

"Diario de San Sebastián"

"La Voz de España"

"El diario de Navarra"

"El diario Vasco"

"Deia"

"La Gaceta del Norte"

Emen bukatzen da Euskal Herriko bertsolari txapelketen historia. Asieran lan labur bat egiteko asmotan ari nintzan baiña luzatu arazi didate liburu bat osatzeraíño.

Historia ezezagunena luzatzen saiatu naiz, batez ere, asieratik irurogeira

arte. Geroztik liburu ederretan jasota baidaude.

Oso errezak eskuratzen, beraz.

Emendik aurrera ez degu arazorik izango, azkenengo urte auetan, liburu, kaseta eta bideotan jasotzen baidira eta gorde, leen ez zan olakorik egiten eta zenbat bertso ez ote da galdu..?

Aurten, Bertsolari Txapelketa Nagusia berriro ospatuko da Gabonak

inguruan, ala tokatzen da eta, lau urte-tik bein. Bertsolari zaarrak, gazteei lekua utzi bear, talde onak eta ausartak datoz atzetik bultzaka, beraz, bertsolaritzak oraindik urte askotarako bizia izango du eta nik alaxe opa diot.

1.993-ko Ekainaren 1-an.

Jesús M. Etxezarreta "Izazpi"

ARKIBIDEA

AURKIBIDEA

1.- Sarrerako oarrak.....	7
1.1.- Lanaren atarian.....	8
2.- Bertsolari desafioak.....	10
2.1.- Billabonako desafioa.....	11
2.2.- Ardotx eta Ezkerra.....	12
2.3.- Xenpelar eta Patxi Bakallo.....	12
2.4.- Bilintx eta Josepa.....	14
2.5.- Xenpelar eta Musarro.....	14
2.6.- Xenpelar eta Iparragirre.....	16
2.7.- Otañotarrak eta Pello Errota.....	18
2.8.- Izuelako Artzaia.....	18
3.- Lore Jokuak: Udarregi eta Pello Errota.....	22
3.1.- Urretxindorra eta Txirrita.....	40
4.- Bertsolari guduak: Lenengo gudua (1.935).....	44
4.1.- Partaideak.....	46
4.2.- Egitura.....	47
4.3.- Bertsoak.....	48
5.- Basarriren omenaldia.....	58
6.- Bertsolarien eguna (1935) Bi idazlan: Lekuonatar Imanolek.....	61
Jauregitar Koldobika.....	65
7.- Bigarren bertsolari gudua (1936) Lenengo kanporaketak.....	68
Tolosa, Azpeitia eta Elizondo.....	69
7.1.- Jaialdiaren egitura.....	84
7.2.- Partaideak eta epaimaia.....	84
8.- Txirritaren omenaldia.....	119
9.- Bertsolari txapelketa (1945) Tolosan.....	123
10.- Ifar-aldeko sariketa eta txapelketak (1.946-47-48).....	129
10.1.- Urruñan (1.949).....	136
10.2.- Donibane Lohitzunen (1.950).....	138
10.3.- Baigorri (1.951).....	140
10.4.- Saran (1.952).....	146
11.- Euskaltzaindiak antolatutako txapelketak:.....	148
11.1.- Bizkaiko txapelketak (1.958-59).....	148
11.2.- Gipuzkoako txapelketa (1.959).....	160
12.- Parisko txapelketa.....	156
13.- Bertsolari txapelketa nagusia (1.960).....	168
13.1.- Partaideak.....	170
13.2.- Jaialdiaren egitura.....	172
13.3.- Bertso onentxoanak.....	174
14.- Errege eguneko jaialdia (1.962).....	189

15.- Bertsolari txapelketa nagusia: (1.962)	192
15.1.- Partaideak	192
15.2.- Jaialdiaren egitura.....	195
15.3.- Bertso onentxoena	198
15.4.- Txapelketaren ondorenak 4 iritzi.....	207
16.- Bertsolari txapelketa nagusia (1.965)	214
16.1.- Partaideak	214
16.2.- Jaialdiaren egitura.....	219
16.3.- Bertso onentxoena	223
16.4.- Txapelketa ontaz iritziak.....	229
17.- Bertsolari txapelketa nagusia (1.967)	242
17.1.- Partaideak	242
17.2.- Jaialdiaren egitura.....	246
17.3.- Bertso onentxoena	249
17.4.- Txapelketaz 4 iritzi.....	257
18.- Sariketa nagusia (1.968).....	265
19.- Bertsolari txapelketa nagusia (1.980)	272
19.1.- Euskaltzaindiaren egitaraua eta baldintzak.....	272
19.2.- Partaideak eta sariak	276
19.3.- Jaialdiaren egitura.....	277
19.4.- Bertso onentxoena	278
19.5.- Txapelketaren ondorenak.....	283
20.- Bertsolari txapelketa nagusia (1.982)	292
20.1.- Partaideak eta kanporaketak	292
20.2.- Jaialdiaren egitura.....	295
20.3.- Bertso onentxoena	301
21.- Bertsolari txapelketa nagusia (1.986)	314
21.1.- Asierako ixtilluak eta atzerapena.....	314
21.2.- Partaideak eta kanporaketak	316
21.3.- Jaialdiaren egitura.....	320
21.4.- Bertso onentxoena	322
22.- D. Manuel Lekuonaren eriotza eta iritziak.....	331
23.- Bertsolari txapelketa nagusia (1.989)	339
23.1.- Partaideak eta kanporaketak	340
23.2.- Jaialdiaren egitura.....	339
23.3.- Bertsoak epaitzeko erizpideak	343
23.4.- Bertso onentxoena.....	347
24.- Bertsolarien omenaldiak	363
25.- Beste txapelketa batzuen historia:	
25.1.- Nafarroako txapelketak	414
25.2.- Bizkaiko txapelketak	423
25.3.- Gipuzkoako txapelketak	427

25.4.- Ifar-aldeko txapelketak	432
26.- Gazteen txapelketak: - Aginagako saria	436
26.1.- Ordiziako saria	
26.2.- Xenpelar saria	437
26.3.- Orixe saria	441
26.4.- Artzanberri eta Patxi Errota saria	444
26.5.- Loyolako erri-irradi saria.....	448
26.6.- Eskolarteko gazteen saria	469
26.7.- Osinalde-elkarteko saria	458
26.8.- Zepai saria	453
26.9.- Lizardi saria	462
26.10.- Beste txapelketa batzuk.	467

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKAL ESKOLA
1934 AZA 1 5

1934 AZA 1 5

90001

1934 AZA 1 5



1006486



POA • SENDIA